XX. mendean, bere horretan jarraitu zuen industrializazioaren garapenak, migrazioen hazkundea bultzatzuz. Mendearen erdialdean, 1950ko hamarkadako mugimendu migratzaileei erreparatzen badiegu, bi kolektibo nagusitu ziren: Gaztela-Leonetik etorritakoak eta Andaluziatik, Galiziatik eta Extremaduratik etorritakoak. 1960 eta gero, migrazio eredu berria joan zen nagusitzu: migrazio eredu familiakoa. Honakoak ziren migrazio eredu berri horren ezaugarri, gako eta xedeak: abagune ekonomikoa, familia handiak edota bikote gazteak seme-alaba jaio berriekin eta sare migratzaileak eratzea (Gonzalez Portilla, 2009:335). Horrek 0-14 haurren arteko hazkundea ahalbidetu zuen garai hartan. Horietako zenbait haur izan dira ikerketa honetako nerabeen guraso. Bat-batekotasunaren eta higiezinen negozioaren menpeko hirigintza neurrigabearekin batera, hiriko paisaia kaotiko eta maldatsua eratu zen; izan ere, hainbat etxebizitza eta fabrika gune uztartu ziren liberalismoaren irudikapenaren isla (Gamarra, 2012:77).

Hiria memoria historikoaren berezko auzoetan egituratzen da; espazioaren artikulazioa klase sozialaren araberakoa da hiriaren barneko aniztasuna, nahiz eta egun “klase ertaina” deitutakoaren orokortzearekin estali egiten den. Larrea eta Gamarra jarraituz, zenbait historialariren arabera (Garcia Merino 1992; Montero 1994; Lorenzo Espinosa 1989), garapen industrialetik XIX. mendearen amaierara, burges-auzoak eta langile-auzoak banatu egin ziren. Bilbo Handiari erreparatuz gero, ibaiak hartu zuen banaketa horren lana. Horrela, gatazka soziala maila batean saihestu zen, berau ikusezin eginez:

“Pero el aislamiento de los grupos sociales no se quedó aquí. La estructura urbana de Bilbao se desarrolló de tal modo que la clase proletaria quedó separada respecto a las clases medias constituidas por oficinistas y letrados, aquel colectivo subalterno con un suficiente acceso a la cultura para construirse en la vanguardia política de los trabajadores.” (Larrea eta Gamarra, 2007:29)

“Igualmente en su entorno se podían distinguir tres zonas bien delimitadas: Casco Viejo, Ensanche, y cinturón de barrios obreros. Las clases dirigentes bilbaínas ejercieron un férreo control sobre el entorno, que se manifestó incluso dentro de la misma Villa, donde se practicó una clara jerarquización social y morfológica de sus barrios” (García Merino, 1987; in Beascoetxea, 2007:91).

Bilbo hiriaren hazkunde ekonomikoan, klase langileek eraman zuten alderik txarrena etxebizitza, kutsadura, zerbitzu sozial, kultur eta kirol ekipamenduei dagokienez (Perez, 2001:57). Era horretara, etxebizitzen kokapenak klase sozialen egitura mantendu zuen, nahiz eta auzo bakoitzaren barnean aniztasuna egon:

“El proceso de localización residencial habido en la Villa parece reproducir la estructura de clases existente; es más, existe una perfecta correspondencia entre la posición social de los individuos y el lugar de residencia, de tal forma que las pautas de localización residencial adoptan la forma de círculos concéntricos a partir del centro urbano. Esto, por otra parte, parece ser un fenómeno más o menos generalizable a la mayoría de las ciudades del Estado Español. No obstante, en nuestra ciudad existe un rasgo peculiar que no se da en otras, y es que, dado el poco espacio disponible, existe un gran potencial de diferenciación social en el interior de ciertos barrios o áreas localizadas. Esto es debido a que los promotores inmobiliarios, en su afán de explotar hasta el último reducto disponible, han producido una serie de vecindarios fuertemente diferenciados de su entorno circundante, de tal modo que, a pesar de la escasa distancia física existente, la diferenciación social es realmente grande. Hablar de barrios como Santutxu, Rekalde o Deusto y atribuir a estos términos un sentido de

homogeneidad es, a nuestro juicio, un eufemismo que no se sostiene empíricamente” (Leonardo, 1990:251).

Prozesu migratzailearen eta hiriaren kokalekuaren ondorioz, euskal langileriaren profilak bi sektore ezberdinekin egin zuen topo, langile etorkinekin eta euskal langileekin, langileriaren batasuna zailduz. Era berean, industria ereduaren krisiak eta industriaondoko eboluzioak atea ireki zizkion ezagutzarekin loturiko ekonomia hirugarrendar bati. Testuinguru ekonomikoaren eraldaketarekin batera, bigarren trantsizio demografikoa hasi zen XXI. mendearen hasieran. Trantsizio horren ezaugariak hauek dira: eredu soziodemografiko tradisionalaren gainbehera, eta instituzio familiar tradisionalarekin edota ezkontzarekin haustea, maila batean behintzat (Lesthaeghe, 1994; in Gonzalez Portilla, 2009:126). XX. mendearen amaieran, euskal gizartean jaiotzen kopurua gutxitu egin zen era nabarmenean,⁷ ezkontza kopurua ere murritzutu egin zen eta ezkontzeko batez besteko adina atzeratu zen. Fase demografiko iraganbide berri bat hasiko da: bizi tasa baxuak, bizi itxaropenaren luzapena, populazioaren zahartzea eta atzerritarren immigrazioaren agerpena. Ezaugari horiek gauzatuko dute eraldaketa demografikoa gune industrializatuak izandakoetan (Gonzalez Portilla, 2009:43).

Bilboko memoria historikoan eta paisaian du gordelekua abiadura handiko eraldaketa prozesuak, nekazaritzatik industrializaziora, industrializaziotik postmodernitatera. Egun, hirugarren sektoreko ekonomia da nagusi. XIX. mendean, merkataritzako gune eta banatzailea izatetik, ekonomia ekoizlearen erdigune-errektorea izatera pasa zen (Ortega 1990:49). Larrearen (2012) aburuz, nazioarteko kapitalismoari eta informazioaren ekonomiari egokitzeko daude gidaturik, gorputz urbanoa saltzeko helburuz, hainbat euskal hiritako hirigintza eta arkitektura esku-hartzeak. Bilbon daude, bereziki, esandakoari hurbiltzen zaizkion mugarri arkitektonikoak (Larrea, 2012:163). Horren adibide, XX. mendeko azken hamarkadetan, industria krisian barreiaturik, Bilbo onera ekartzeko asmoz hiriaren ibilbide historikoa eraldatuko zuen museoa eraikitzeko apustua: Guggenheim Museoa.

“A massive transformation of infrastructure and process of urban regeneration is under way that is turning Bilbao into a service-oriented,

⁷ EUSTATeko datuen arabera, “Movimiento natural de la población”, 1975-1984 bitartean jaiotza tasa (milakoetan) 14,99koa zen, 1985-1994 bitartean 8,02koa eta 1995-2002 bitartean 7,6koa. Hogei urtean erdira jaitsi zen tasa (Gonzalez Portilla, 2009:43).

culturally attractive city. The signature project of the transformation, Frank Gehry's spectacular Guggenheim Bilbao Museoa, is an international star, but is just one part of postindustrial reinvention of the city. As it undergoes the painful yet exhilarating metamorphosis from industrial ruin to architectural gem, Bilbao is opening itself up to tourism and globalized culture, but by doing so presents unique challenges to students of Basque society and culture.” (Zulaika, 2003:7).

Esan bezala, Guggenheim museoak zehaztu zuen hiriaren norabide ekonomikoa, helmuga turistikoa bilakatuz. Horrekin batera, gentrifikazio⁸ prozesua eratu zen, ibaiertzeko ondare industrialaren gainean. Era horretara, Bilboko langileriaren iruditegiaren isla zen eremua turismoaren, garapenaren eta globalizazioaren ikur bihurtu zen.

Joseba Zulaikaren (2007) iritziz, desiraren iruditegi oso bat eraiki zen hiriaren inguruan Bilboko industrializazioaren ondareez baliatuz. Guggenheim Museoa apustuaren eta sedukzioaren estrategia politikoan oinarritutako frankizia globala izan zen; turisten desira sortzeko irudi bat ekarri zion horrek hiriari. Hiria bera saltzeko eta komertzializatzeko tresna gakoa bilakatu zen. Horren ondorioz, gentrifikazioa museoaren inguruan zabaldu zen, ibaiertzla lorategi bilakatuz (Zulaika, 2007:159). Horren adibide dira: Euskalduna ontziola izatetik Kongresu Jauregia izatera emandako jauzia, Isozaki etxe-orratzak, Sheraton luxuzko hotela edota nerabeen aisialdirako helmuga den Zubiarte Saltoki-gunea. Norabide ekonomiko berria hartu zuen, kanpora begirako irudia salduz; baina ibaiertzeko eremuaz eta erdiguneaz aparte, gainerako auzoen errealityek bere horretan jarraitu zuen. Era horretara, Bilbo denborak eta espazioak elkar gurutzatzen duten testuinguru anitza eta konplexua dela esan daiteke.

⁸ Kontzeptu hori jatorriz klase goi-ertainak izendatzeko “gentry” ingeleseko terminotik erorri da, eta R. Glass-ek (1964) egindako London hiriari buruz egindako ikerketan agertu zen lehenengo erreferentzia. Errentagarritzat jotzen ez den auzo baten estatus ekonomikoa eta soziala areagotzea birmoldaketa prozesua izendatzeko erabiltzen da. Zulaikak horrela azaltzen du: “*Esta lógica (de la gentrificación), para ponerlo en términos muy simples, establece que el deterioro de un área es una condición de la reinversión y que el valor potencial se mide por lo que los expertos llaman el rent gap, esto es, la brecha entre el precio real de un terreno y la propiedad comparada con el valor futuro proyectado tras la gentrificación. Así que el deterioro (de las tecnologías obsoletas, de los vecindarios, de las fábricas, edificios, culturas, etc.) se vuelve un requisito para las inversiones futuras y la rehabilitación. Éste siempre ha sido un aspecto significativo del progreso capitalista, acentuando durante su fase postindustrial en ciudades como Bilbao.*” (Zulaika, 2007:158)

1.2. Nerabeen aniztasuna hiru testuinguru etnografikoetan: klase sozialak, auzoak eta ikastetxeak

Konplexutasun geografiko horretan saretzen dira ikerketako subjektuen nerabezaroa eta gaztaroa. Bilboko 12 eta 14 urte bitartekoentzat, ikastetxea da haien bizitzaren eta harreman sozialen erdigunea, bertan ematen baitute denbora gehien. Adoleszenteak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) egitera beharturik daude, 1996tik indarrean den legearen ondorioz, zenbait berrikuntza izan dituen arren. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza lau ikasturtez osatuta dago, 12 urtetik 16 urtera, bi ziklotan banaturik. Ikerketako gaztetxoak lehen zikloko ikasleak izan dira, hau da, Lehen Hezkuntzatik etorri berri diren ikasleak.

Nerabeen bizitzen berri izateko ikastetxeak gune pribilegiatuak dira ikastetxeak gure jendartean. Honorio Velasco eta Angel Diaz de Radari (1997) jarraiki, eskola ez da fenomeno unibertsal bat, faktore kulturalek zeresan handia dute instituzio hori ulertzeko. Horrez gain, autore horien gomendioen arabera, etnografiatik gerturatzean, eskola ezin da haur eta nerabeen identitate eraldaketaren agente bakartzat eta abantailatsutzat soilik hartu, gazteen errealityea konplexutasun zabalago batean eraikitzen delako. Hala ere, eskola ikerkuntzarako eta gizarte ekintzarako gune pribilegiatua dela azpimarratzen dute (Velasco eta Diaz de Rada, 1997:249), Euskal Herrian egin dituzten beste ikerketa batzuekin batera (Hernandez, 2005; Arpal, 1991; Goicoechea, 1991). Hori dela eta, generoa eta klase soziala lan honen bi aldagai nagusiak direlako, pribilegiozko bitartekotzat hartu da eskola, gaztetxoen bizi-ibilbideen dimensio sozial, politiko eta ekonomikora hurbiltzeko.

Bilboko ikastetxe ereduari erreparatz gero, itunpeko eskoletan matrikulatuta daude DBHko ikasle gehienak. Hala ere, badago aldagarritasunik. Esate baterako, Abando eta Indautxu auzoak dira itunpeko eskoletan matrikulatutako ikasle gehien dituzten guneak, gainerako eremuekin alderatuta. Izan ere, gune horietan, ikastetxe publiko eta itunpekoen arteko aldea ez da hain nabarmena⁹. Arrazoi horiengatik, hiru hezkuntza

⁹ *Bilbao En Cifras* ikerketatik hartutako datuetan oinarrituz, 2013an, udal barrutietan antolatuta dago DBHko ikasleen banaketa ikastetxe publiko eta kontzertatuen arabera: 1. Deustua: 588 (ikastetxe publikoetan), 835 (ikastetxe kontzertatuetan); 2. Uribarri: 377(p), 1133(k); 3. Otxarkoaga-Txurdinaga: 625(p), 1049(k); 4. Begoña: 203 (p), 545 (k); 5. Ibaiondo: 726 (p), 865 (k); 6. Abando: 921(p), 1869 (k);

zentrotan egin da etnografia honi zentzua emateko tokiko lana (hezkuntza zentro erlijioso batean, ikastola batean eta institutu publiko batean), testuinguru ekonomiko eta sozial ezberdinen baitan: Indautxun, La Peñan eta Arangoitin. Hiru auzoetako aldaera sozioekonomikoa islatzeko zenbait adierazle hartu dira; beste batzuen artean, errenta pertsonala eta familia errentaren kopuruak, ondoko tauletan ikus daitekeen bezala:

Batez besteko errenta pertsonala (2006)

	La Peña	Indautxu	Arangoiti
Batez besteko errenta pertsonala (€)	13.033	29.992	12.332
Batez besteko lan errenta pertsonala (€)	8.603	14.401	7.865
Batez besteko kapital higiezinaren errenta pertsonala (€) Gizonezkoak	98	1.081	104
Batez besteko jarduera errenta pertsonala (€)	751	2.435	637
Batez besteko transferentzia errenta pertsonala (€)	2.911	4.995	3.122
Batez besteko errenta pertsonal eskuragarria (€)	11.278	23.780	10.736

Iturria: EUSTAT, Pertsona eta familien errenta estatistika 2006

Batez besteko familia-errenta (2006)

	La Peña	Indautxu	Arangoiti
Batez besteko familia-errenta (€)	28.569	65.717	27.933
Batez besteko lan familia-errenta (€)	18.858	31.624	17.808
Batez besteko kapital higiezinaren familia-errenta (€)	215	2.373	237
Batez besteko jarduera familia-errenta (€)	1.646	5.350	1.444
Batez besteko transferentzia familia-errenta (€)	6.382	10.837	7.076
Batez besteko familia-errenta eskuragarria (€)	24.720	52.080	24.317

Iturria: EUSTAT, Pertsona eta familien errenta estatistika 2006

Datu horiek ezberdintasun sozialen irudi zorrotza ematen ez badute ere, familia zein norbanakoentzat errentetan alde nabarmenak daudela ikus daiteke, erdiguneko Indautxu auzoa eta beste bien artean. Indautxuko batez besteko errenta besteen bikoitza da: lan errentan, jarduera errenta pertsonalean... Datuek argi uzten dute Indautxuko biztanleek gainerakoek baino kapital ekonomiko handiagoa kudeatzen dutela, halaber, hobeto ordaindutako lanbide espezializatuagoak dituzten seinale. Zenbaki horiek errealtitatearen

7. Rekalde: 315 (p), 344 (k); 8. Basurtu-Zorrotza: 210(p). <http://www.bilbaoencifras.net/demografia> (Kontsulta data: 2014/07/06)

alde bat baino ez dira; prozesu historiko, sozial eta kultural baten ondorio baitira hiru auzo zein ikastetxeak.

1.2.1 Itunpeko ikastetxe erlijiosoa: goi-klaseetako seme-alabak

Aipatuko dugun lehena itunpeko hezkuntza zentro erlijiosoa da, eta Bilboko erdigunean dago. Auzo hori Bilboko Zabalkundea da, XIX. mende amaieran hiria handitzeko helburuz eraiki zena, bai eta hazten zegoen burgesiaren beharrei erantzuteko ere. Egun, 2012an, 27.914 biztanlek du bizitokia bertan, eta, horien artean, 1.112 nerabe daude 10-14 urte artean, 534 emakume eta 578 gizon¹⁰.

Auzoaren bereizgarri dira kaleen zabaltasuna eta geografia laua, esan bezala, mendi artean mugaturiko hirian. Zonalde horretan burgesiaren idealak eta lanaren etika kapitalistaren tradizioa nahasten dira, sentimendu erlijioso batez kutsaturik. Sinesmen molde horiek eragin nabarmena izan zuten euskal burgesian, hala nola, Bilbokoan (Bikandi-Mejias, 2007:78). Ideal eta sinesmen horiekin bat egiten du ikerketa honetako ikastetxeak, erlijio-ordena horren partaidea baita. Zulaikak (2003) ere parekatzen ditu Weberren kapitalismoaren garapena eta Bilboko zabalkundearen eraketa, Eduard Glass-en lanean oinarrituta. Izan ere, aipatutako ordenu erlijioso horrek Bizkaiko enpresaritza bultzatu baitzuen lanerako etika zehatz batekin, Weberrek kalbinismoaren eta kapitalismoaren arteko lotura ikuskatu zuen antzera. Lan gogorra, meritu pertsonalak, hezkuntza, inbertitu (kontsumitu beharrean) eta bestelako balore formatzaileak izan ziren Bilboko burgesiaren sinesmen eta jokabideen oinarri (Zulaika, 2003:42).

Burgesia “berria” deiturikoaren beharren arabera eraiki zen Zabalkundea (Zulaika, 2003:31). Bilbotar burgesia “berria” deritzo XIX. mendeko bukaeran sortutako gizarte industrialaren talde hegemonikoari (Montero, 1990:13). “Berria” izendatzen da XIX. mende amaierako burgesia dela esateko. Izan ere, burgesiaren presentzia gizarte bizkaitarrean ez zen inolaz ere berria; aurreko mendean kapitalismo komertziala nagusi baitzen hiribilduan (*ibidem*). Horrela, tradizionozko burgesiak garai berrietara egokitutako ikastetxeak dira.

¹⁰ Bilboko Udaleko datuak: Biztanleriaren Udal Errolda 2012. <http://www.bilbaoencifras.net/demografia> (Kontsulta data: 2014/07/06)

behar izan zuen, burgesiaren talde berri horrek botere ekonomikoa lortu zuen bitartean. Zabalkundearen bidez, erdigunea eratu zen.

“Al tiempo, otro amplio sector de la clase obrera buscaba acomodo en Bilbao. Pero en la Villa el Ensanche aparecía reservado para los grupos más acomodados, por lo que las viviendas humildes fueron trepando por las laderas de los montes cercanos, en territorio de las anteiglesias circunvecinas. Resultaba así que mientras el Ensanche continuaba su lento y privilegiado crecimiento, la misma Villa se encontraba con la necesidad de anexionarse nuevos territorios de la Tierra Llana, territorios que, de alguna manera, constitúan sus afueras, pero que, en definitiva, iban alojando el grueso de la nueva población.” (Basurto, 1990:120).

Izen-abizen ezagunak dituzten familiez beteta dago auzo horren historia. Izen handiko arkitektoek eraikitako eraikin edo etxebizitza esanguratsuek osatzen dituzte Indautxuko iruditegi eta narrazioak. Bilboko burgesiak hasi zuen eremuaren eraikuntza, burges-familia batzuek luxuzko etxebizitzak eta zenbait eraikin adierazgarri eraiki zituzten, garaiko estilo arkitektonikoetan oinarrituz. 30eko hamarkadan, berriz, Bilboko zabalkundean eraldaketa prozesua hasi zen. Modu arin batean izan bazen ere, Zabalkundeko maila soziala jaitsi egin zen populazioaren hazkunde neurrigabeagatik, nahiz eta lan adituen taldeak bertan egoten jarraitu (Beascoechea, 2007:106). Egun hiriaren giza hierarkizazioaren ikur dira iruditegi arkitektonikoak. Zutik dirauten etxeetako behatokiak eta kristalezko galeriak dira XIX. mendeko burgesiaren etxekotasunaren ezaugarri (Perez de la Peña, 2001:11), hala nola, dorredun etxe arrazionalistak (*ibidem*:59).

Ikerketa honetako ikastetxearen eraikinaren handitasunak esandako muin burgesa ekartzen dute gogora, erdigunean egonda, azpiegitura zabalak deigarri bihurtzen baitira. Espazio zabal horiek ibilbide historikoa dute: XX. mende hasieran, bi bilbotarrek oinarri juridiko eta ekonomikoak ezarri zituzten, konpainia kristau batek gidaturiko bigarren hezkuntzarako eskola Indautxuko txalet batean martxan jartzeko xedez. Denbora aurrera joan ahala, ikaslekua handituz joan zen, eskaria ugaritu egin zelako. Egun, kirol-gune bikainez horniturik dago, garrantzi sinboliko eta material handia izanik. Horren arrazoia izan daiteke hasiera batean gizonezkoen hezkuntzari zuzenduta egon izana, egun zentro mistoa den arren.

Hiriaren garapenarekin ikastetxea erreferente bilakatu zen Bilbo mailan, batez ere Zabalkundean bizi zirenentzat. Errepublika garaian, jabe zen konpainia kristaua deuseztatzeko aginduagatik, isilpeko praktiketara pasa zen ikastetxea. Hala ere, euren ibilbidea ez zen horretan gelditu. Hurrengo hamarkadetan berriz ere ekin zioten irakaskuntzari. Bilboko arkitekto esanguratsu batek egin zuen egungo eraikinaren zati handi bat. 70eko hamarkadan, atea ireki zizkion oinarrizko hezkuntzari, 800 ikasle mutilekin. Hurrengo hamarkadaren amaiera arte, ez zituzten neskak onartu. Eskola, sorreran bezala, Bilboko joera arkitektonikoekin batera hasiz joan da eta ikastetxearen hormek hainbat joera arkitektoniko irudikatzen dituzte, Bilboko hirigintzaren arlo baten erakusle delarik.¹¹

Esan bezala, egun ospe handikoa ikastetxea da. Halaber, zentroaren inguruko narrazio eta diskurtsoek prestigioa mantentzera laguntzen diote, eta inon idatzirik egon ez arren, bilbotarrek badakite zer adierazten duen. Elkarrizketatutako ikasleek baiezttatu egin dute “*ikastegi ona*” izatearen ospea. Ikasketen zaitasunak aitzakiatzat hartzen dituzte eskolaren zorroztasuna nabarmenzeko, mutil baten hitzetan: “*Es un colegio muy estricto, tienes que estudiar mucho, porque por ejemplo en matemáticas si no estudias un día, como no te sabes lo primero como va todo encadenado, pues suspendes todo*”(Adrian, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)¹². Ikaslekuaren azpiegitura zabalek “*ikastetxe onaren*” eraikuntzari laguntzen diote.

Nerabe horien aburuz, zentrotik hurbil bizitzea da bertara joatearen arrazoietako bat –hor bizitzeak ekar dezakeena ahaztu gabe–. Auzokideak izateaz gain, esanguratsua da ikasle askok eskolarekin duten familia-lotura, haien aita asko bertako ikasleak izan baitira. Klase-harremanak errepikatu egiten dira nolabait belaunaldiz belaunaldi, eta haien, maila batean, horren jakitun dira. Beraien diskursoetan mailaketa sozialaren presentzia irmoa dago, esan gabe gehienetan. Ikasleek baiezttatu egin dute ikastetxe publikokoek dirurik ez dutelako ospea, nahiz eta guztiz egia ez dela onartu: “*Pero la gente dice que los que son de un colegio que no es privado, que no tienen dinero. A mí no me parece, porque yo tengo amigas que van a colegio que son públicos y no me parece que no tengan dinero.*”(Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa). Bainan kasualitatez edo ez, gaztetxo horrek ez dakit zein den auzoko institutu publikoaren izena, beste zentro pribatuen izenak ongi gogoratzen dituen bitartean.

¹¹ Ikastetxearen historiari buruzko informazioa bere web orrialdetik jaso da.

¹² “Elkarritzetatu profila” pasartean berriemaileen deskribapenak daude.

Ikasleek, sarritan, Zabalkundeko beste zentro pribatu batekin alderatzen dute ikastetxea, neskatilen heziketaz arduratu ohi denarekin, hain zuzen. Beraien eskolakoak “ausartagoak” direla onartzen dute, agian zentroak izan duen gizonezkoen hezkuntzaren ondare diskurtsiboaren ondorioz: “*Yo vengo a este centro porque mi hermano está aquí, y porque a mis padres no les ha hecho nunca gracia ser de [ikastetxearen izena] que hay más chicas, en nuestro centro ha habido más chicos... también me han dicho que hay más nivel de estudios.*” (Iratzi, 13 urte, ikastetxe erlijiosoa).

Ikastetxearen tradiziozko izaera burgesa ukatu gabe, gaur egun zentro ireki eta onbera baten itxura eman nahi du. Irakasle batek adierazi zidan egunotan edonork duela zentro horretara joateko aukera, jadanik ez direla Indautxuko gazteak bakarrik joaten, ondoko langile-auzoko ikasle batzuk ere bazeudela. Maila batean horrela izan arren, Bilboko zabalkundean bizi direnen seme-alabak dira bertako ikasle nukleorik handiena. Nerabeen artean ere egiten dituzte ikastegiaren izaera gizatiarra emateko ahaleginak:

“*(...) mis padres me querían meter en esta porque además mis hermanos también están. Hay mucha más variedad de tipos de personas, de tipos de familias, si fuera un colegio pijo estás con gente pija, con gente mal criada; si estás en un colegio un poco más normalito, pues hubiera visto solo un tipo de personas también. Pero hay mucho tipo de personalidades, tipos de familia, de personas, puedes ver de todo. Y no todo es malo, ni todo es bueno. Hay mucha diversidad, está muy bien. Los de este centro podemos ser los que venimos de una familia un poco más pija, gente que como esos que visten de polo. De Tommy Hilfiger, personas que visten caro. Gente que viste de Quick Silver o de Roxy... y gente que viste macarra.*”

(Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Halaber, etorkinen kopurua oso urria da. Etorkin gehienei A ereduan matrikulatzeko aholkatzen diete¹³, horregatik, gela batzuetan nabarmena egiten da etorkinen presentzia. Euretariko askok ez daukate harreman zuzenik gainerako ikasleekin. Mutil talde bati entzun nion: “*Los inmigrantes solo vienen a calentar el asiento, el ayuntamiento les paga la escuela y luego ¿para qué? Si van acabar haciendo un CIP*”(Jorge, 12 urte,

¹³ Zentroko ikasketa buruaren ustez, etorkinak lehendabizi hezkuntza sistemara egokitutako dira eta ondoren euskara ikasi. Horregatik, gazteleraz matrikulatzeko aholkatzen diete, eta etorkinak A ereduko klasean pilatzen dira.

ikastetxe erlijiosoa). Besteentzako etorkizuna aurreikusten dute; beraiek, aldiz, Bilboko unibertsitate garrantzitsu batean goi mailako ikasketak burutzen ikusten dute euren burua. Ikastetxera joateko beste argudio bat da zentro honek lotura estua izatea unibertsitate pribatu eta entzutetsu batekin. Ikerketaren artean pribilegio bezala bizi dute, etorkizuneko aukeren aurrekari gisa.

Labur esanda, ikerketako itunpeko ikastetxe erlijiosoa Bilboko burgesiaren historiaren parte da. Egun, aniztasuna islatu nahi den arren, zentro horretako ikasle gehienak goi-klasekoen seme-alabak dira eta horixe erakusten dute haien hainbat jarrera, diskurtso eta ohiturak. Ikastetxearen estatusak eta ikasleen estatusak elkar elikatzen dutela esan daiteke. Ikerketa honetan, eskola horrek eskaini du goi-klaseen inguruau aritzeko abagunea.

1.2.2 Ikastola: uraren seme-alabak

Ikerketaren bigarren zentroa ikastola da. Bilboko itsasadarraren ibaiertzeko irin fabrikaren hormetan du aterpe, eta La Peña auzoak historikoki bizi izan duen prozesu industrialaren aztarna da. 2012an, auzoak 7.633 biztanle inguru ditu, 285 dira 10-14 adin bitartekoak; horietatik 127 dira emakumeak eta 158 gizonak¹⁴. Auzoaren hirigunetik urrunduta, nabarmenak dira eremu berdeak. Bi mendixkaz mugaturik, Bilboko Nerbioi ibaiaren goiko zonaldean dago, hiriaren hedapen-prozesuak itsasadarrean beherantz egin ohi duen arren. Malda eta bihurgune geografikoek abiadura eta itxura ezberdina ematen diote ibaiari, beste zonalde batzuekin alderatuta. Kokalekua erabat baldintzatzen dute ibaiaren erdiguneak eta mendien muga geografikoak. Egongunea gatazkatsua izan ohi da: batetik, hirigintza zabaltzeko espazioa murritza izateagatik, eta bestetik, ibaiak gainezka egiteko arriskua izateagatik. Hala ere, kokaleku horrek auzoari aberastasun ekonomikoa ekarri zion: industrializazio garaian mendietako meategiak eta ibaiko uraren indarrak izan ziren zenbait lantegiren energia iturri (Serrano, 2009:47). Egonleku pribilegiatu horrentzat, industrializazio garaian lantegi eta langile etorkinen

¹⁴ Bilboko Udaleko datuak: Biztanleriaren Udal Errolda 2012. <http://www.bilbaoencifras.net/demografia> (Kontsulta data: 2014/07/06)

helmuga garrantzitsua izan zen. Ibaiaren uraren energiaz baliatzen ziren lantegiak, eta horrek lanpostu ugari betetzeko beharra sortu zuen. XIX. mende amaieran, meategien ekoizpena hasi zen, eta meategietako langileekin bete zen eremua. Ikerketa honetako nerabeen aitona-amonen belaunaldiaz ari gara, hain zuzen ere.

Erdigunetik aldendurik, hiriaren periferiaren alde bat da. XIX. mende amaieran, Bilbo inguratzen zuen eratzun industrialaren parte izan zen (Serrano, 2009:70). Garai hartan, industrializazioaren bultzadaz, La Peña hiritartzen hasi zen. Hala ere, XX. mendearen erdialdera arte ez zuen benetako finkotasunik lortu, industrializazioaren bigarren fasean etorkinen kopurua areagotzearen ondorioz. 60ko eta 70eko hamarkadetan hazi zen eta etxebizitzak sakabanatzen hasi ziren. Eraikin altuek, langile-etxebizitzek, bloke errepikakorrek eta bestelako etxebizitzek itxura berria eman zioten auzoari. Hamarkada horietan, populazioaren %50 baino gehiago ziren etorkinak: Gaztela-Mantxatik, Extremaduratik eta Galiziatik etorritakoak. Horietako langile asko txaboletan bizi behar izan ziren oso baldintza prekarioetan, errealtitate gordinena azaleratuz. Izan ere, XX. mendearen erdialdean, desarrollismoaren bigarren aldia, Bilboko hiri-konfigurazioaren eta populazioaren lurralte-antolamenduak txarrera jo zuen, hiri-plangintzaren oihartzun eskasagatik eta etorkin-saldoen agerpenagatik (Blanco, 1990:119; in Serrano 2009:81).

Desindustrializazioak lantegi asko itxi zituen. Horrez gain, 80eko hamarkadaren hasieran, uda euritsu batean, ibaiak gainezka egin eta uholdeek auzoaren errealtitatea eraldatu zuten. Urak etxebizitza, denda eta hainbat espazio herrestatu zituen. Uholdeen aurrean, auzokideek bizitoki berria sortzeari ekin zioten. Hondamendiaren aurrean, auzoaren identitate kolektiboa indartu egin zen, bizilagunen arteko elkarlanagatik eta elkartasunagatik. Eraberritu egin zen, ibaiaren kanalizazioa gauzatu zen eta ibaiertzear parke berde eta zabala eraiki zuten, etorkizunean ibaiak gainezka egitea saihesteko asmoz. Auzotarrak “uraren seme-alabak” izendatu ditu La Peñaren inguruaren egindako dokumentalak¹⁵, urak bertako langile identitatearen eraikuntzan zeresan nabarmena izan baitzuen, eta baitu.

Esan bezala, ikerketako hezkuntza zentroaren harrizko horma zabalak garai bateko irin fabrikarenak dira. Lau solairuko altueraz, leihu laukizuzen eta geometrikoekin horniturik, lantegi izandakoaren aztarna historikoa da ikastetxearen egitura,

¹⁵ *Abusu-La Peña: Burdina eta uraren artean* (2015) izenburua du dokumentalak, eta Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailak finantzatutakoa da.

industrializaziotik ekonomia hirugarrendar batera eginiko ibilbidearen oroimena. Inguruarekin alderatuta, berritutako teilatu eta leihoko koloretsuek itxura berritzaleagoa eman diote. Era horretara, eraikinean tokiko ohiturak eta garai berriak uztartzen dira, agian ikastolaren arlo pedagogikoa sinbolizatzuz.

Ikastola hori 80ko hamarkadan sortu zen, parrokiaren etxabean zenbait gurasok aurrera eramandako ekimenaren ondorioz, Euskal Herriko beste ikastolen antzera. Oro har, ikastolen hezkuntza proiektua marko konplexu batean kokatu beharra dago, batetik, euskal naziogintzaren ibilbide gatazkatsuaren baitan eta, bestetik, hezkuntza pribatuaren eta publikoaren eztabaidaren barnean¹⁶. XX. mende hasieran, Spainiar Estatuak finkatutako hezkuntza sistema indartzearekin batera, euskarak gordetzen zituen espazio apurrik murritzuz joan ziren (Mateos, 2000:240). Horregatik, giro politiko erasokor batean eta euskara erdiesteko testuinguru batean tokitu behar da ikastolen sorrera. Ikastolen bitartez, euskal hizkuntzaren orokortzeari ekin zion euskal mugimendu nazionalistak, nazio-komunitatea eraikitzeko asmoz (Amurrio, 2003:370). XX. mendearren erdialdean, diktadura frankistak euskaldunengen ezarritako zapalketa eta errepresioari aurre egin nahian, euskal irakaskuntzari bultzada ematen hasi ziren ezkutuko hainbat bitartekorekin (haurrei zuzendutako euskal aldizkariak, etxe-eskolak...) (Iza, 2010). Mugaz bestalde, Frantziar Estatuak ez zuen euskararen aitortza ofizialik gauzatu, eta frantsesa izendatu zen hezkuntzarako hizkuntza bakarra, euskara eta euskal kultura baztertuz (ibidem).

Ikastolen pizkundea XX. mendearren erdialdean gertatu zen, testuinguru horretan hasi zen egun ikastola gisa ezagutzen den fenomenoa. 60ko hamarkadan, euskal nazionalismoaren bultzadaren pean gauzatu zen ikastolen legeztapena (Mateos, 2000:216). Gizarte-ekimenez (titularrak haurren gurasoak zirelarik eta irakasle eta herritarrek lagunduta), giro urbanoan, kalean eta herritarren gizarte-eskola bezala hasi ziren ikastolak. Hainbat helburuk bultzatu zituen horretara: batetik, euskaraz irakasteko eta euskarari bultzada emateko xedeak, eta, bestetik, beraien seme-alabek beste heziketa bat jasotzeko xedeak, horretarako sortu baitzitzten gurasoek, garaiko estatuaren eskola publikoei eta ikastetxe erlijiosoei bestelako alternatiba bat emanez (Iza, 2010:36). 70eko

¹⁶ Marko etnografiko honetan, ikastolen eraketa prozesua modu arin batean adierazita dago. Xehetasun ugari alde batera utzi dira, ez garrantzia ezagatik, baizik eta ikerketa honetan ez direlako gakoak. Hala ere, aipagarriak dira Mila Amurrio edota Txoli Mateos soziologoek gaiaren inguruan egindako lanak, haien doktoretza-tesiak, esate baterako (*Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria* (2003) eta *Euskal nazionalismoa eta hezkuntza publikoa: ikastolen publifikazioa* (2000), hurrenez hurren).

hamarkadan, ikastolen arteko sarea osatu zen, eta, hurrengo urteetan, ikastolen normalizaziorako bultzada eman zen frankismoaren gainbeherarekin.

Ikastolek XX. mendeko 90eko hamarkadan hartu zuten indarra. 1993. urtean, hezkuntza sare-publikoan sartu ziren hainbat ikastola. Prozesu hori oso gatazkatsua izan zen. Euskal nazionalismoak aurrez aurre jarri zituen, eta agerian geratu ziren horien arteko desadostasunak eta aurkakotasun ideologikoak (Mateos, 2000). Gatazka hori ikerketako ikastetxeak ere bizi izan zuen, horrek ekarriko zituen beldur eta kezka guztiekin. Hala ere, hezkuntza-zentroa itunpeko erregimenean mantendu zen, irabazi-asmorik gabeko kooperatiba bihurtuta, eta EHI-Euskal Herriko Ikastolen Elkarteo¹⁷ kide izatera pasa zen.

Memento hartan, hezkuntza zentroa handitzea erabaki zen: Haur Hezkuntzako ikastola izatetik, ziklo guztiak eskaintzera pasa zen. Horrek espazio berri baten beharra ekarri zuen, eta, tamaina eta kokalekuagatik, tokirik egokiena aukeratu zuten: auzoko irin fabrika zaharraren eraikina. 1997an, martxan hasi zen irin fabrikako ikastola. Egun, Haur Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara artekoa da. Ikerketa ez da oso handia, ez behintzat ikerketa egindako epean, izan ere, beste hezkuntza zentro publiko bat dago gertu.

Arlo pedagogikoari dagokionez, Ikastolen Elkartearen zenbait proiektu garatzen ditu ikastetxeak: balio eta jarrerak erdigunean jartzen dituzten proiektuak, euskaraz hazteko proposamenak, Eleanitz proiektua (ingelesaren, euskararen eta gaztelaniaren lanketa bateratua), Euskaraz Bizi proiektua (hainbat eremutan euskararen erabilera bultzatzea duena helburu), besteak beste. Ikastolen ideiekin batera, euskara eta euskal kultura irakastearekin batera, garai berrien beharrei egokitzeko asmoz, arreta berezia eskaintzen zaie baliabide teknologikoei. Horrez gain, ikastolak duen figura ekonomikoagatik, kooperatiba baita, gurasoen eta irakasleen arteko kudeaketa gauzatzen da; ikasle, familia eta irakasleen arteko hurbiltasuna mantentzeko ahaleginak egiten dituzte. Orobak, ikastola horrek ondorengo baloreak ditu helburu: errespetua, tolerantzia, parte-hartzea, euskal kulturaren sustapena, ingurumenarekiko errespetua, besteak beste.

Susmo batetik abiatu zen ikerketa honetan hezkuntza zentro horren hautaketaren zioa: langile auzoan egotean, ikastolara doazen ikasleen familiak gainerako bizilagunek baino

¹⁷ Ikastolak Euskal Herri osoa hartzen duen elkartea horretan bilduta daude. Iku <http://www.ikastola.eus/erakunde/ehi>.

kapital ekonomiko handiagoa izango zuten ustetik. Kasu batzuetan horrela izan bada ere, esan beharra dago arestian aipatu den ideologia abertzaleak zeresan handiagoa duela. Alabaina, klase sozialen banaketan ez da beste ikastetxeetan bezain argia izan, lausoagoa izan da. Elkarrizketatutako hitzetan, euskaraz ikastea da zentro horretara joatearen arrazoi nagusia. Ikastolen jatorrizko izaerari heltzen diote gurasoen aukeraketa justifikatzeko: euskara. Horrekin batera, tokiak berezko garrantzia hartzen du. Gaztetxo batek adierazi duen bezala, beste eskola batera bidali nahi zuten, baina horixe hautatu zuten auzoan lagunak izatea nahi zutelako gurasoek. Maila batean behintzat, argudio horiek kontrajarriak suertatzen dira, aipatutako beste zentro publikoak euskarazko eredu eskaintzen baitu.

Halaber, hasierako susmo okerraren zantzuak nabarmendu egin dira, klase-harremanen isla izan daitezkeenak. Horrela, nerabeen eta beraien gurasoen artean ikastegi “ona” izatearen sinesmena zabalduta dago, betiere auzoko beste ikastetxearekin alderaturik. Ikerketako adoleszenteek konparazioak egiteko joera handia dute, etsaitasun puntu bat emanez. Era horretara, ikastolak maila altuagoa eta giro hobea duela uste da ikasleen artean; beste eskolako ikasleek alferrak, harroak eta gatazkatsuak direlako fama zabaldurik dagoen bitartean. Ikastolak hezkuntza “osatuago” bat eskaintzen duela da errepikatzen duten argudioa, ikasle batek adierazi zuen: “*Nire gurasoek nahi dute nik lan ona edukitzea, eta ikastea eta horrela nire bizitza ona izatea (...) beste ikastetxekoak, publikoa dena, gehienak dira errepikatzaileak eta ez dute ikasten eta horrela, orduan deitzen digute, enpoioiak.*” (Leire, 12 urte, ikastola). Sinesmen horiek kapital kultura ezberdinduaren eta horrek eragiten dituen botere-harremanen ondorio dira.

Beste institutukoekin arazoak izan dituztela gogoratzen dute, beste ikastetxearen irudi gatazkatsua plazaratuz eta haien aisaldi eredu mahai gainean jarrit: alkohola edatea, bikotea izatea etab. Edonola ere, bi zentro horietan nerabeen harremanak ez dira guztiz ezberdinak. Izan ere, ikastetxe publikoko kideak daude ikastolako batzuen laguntaldean. Aisaldi ereduagatik eta zenbait praktikengatik, ikastetxe publikoko gaztetxoekin hurbilago sentitzen dira, akaso horien klase sozialetik gertuago direlako. Bada, ardatz ideologikoak pisu handiagoa duelako daude nahasirik klase sozialen erlazioak ikastolan.

Labur esanda, La Peña auzoaren izaera langilea islatzen dute ikastolako hormek. Halaber, ikastolak, itunpeko ikasketa-zentroa izan arren, ardatz ugari nahasten ditu: ideologikoak, ekonomikoak... Era berean, euskal naziogintzan eratutako zenbait eztabaidek ikastolako hormak busti dituzte. Horrela, klase sozialen lausotasuna nabarmendu da, iragarpenen kontra. Nerabeen artean, joerak eta praktikak ezberdinak dira; batzuk kapital ekonomiko eta kultural handiagoa dutenekin batzen dira, beste batzuk urriagoa dutenekin elkartzen diren bitartean. Nahasirik agertzen dira harremanak, nahasirik ibaiko uraren antzera.

1.2.3 Institutu publikoa: langileen seme-alabak

Hirugarren hezkuntza zentroa institutu publikoa da, eta Bilboko Deustuko barrutian dago. Barruti horretako zenbait zonaldetatik eratorritakoak dira zentro horretako gaztetxoak. Ikerketan parte hartu duten gehienak Arangoitiko bizilagunak dira, ikasketa zentro horretako ikasle kopuru esanguratsua osatzen baitute. Hori dela-eta, institutuaz hitz egingo bada ere, auzo horri egingo zaio erreferentzia.

Institutu publikoa eraikin handi gorrixka eta gris batean dago, hiria mugatzen duten mendietako magalean. Geografia laukitu batean kokatzen da, diktadura frankistan zehar Spainiar Estatutik etorritako langileentzat eraikitako etxebizitzen eta kaleen artean. Hormen zurruntasunak XX. mende erdialdean bertan bizi izandako neskatila zurtzen sekretu eta isiluneak gordetzen ditu. Izan ere, ikastetxearen lehen urratsetan garai latzak bizi izan ziren. Gerra zibilaren ondoren, auzo horretan haur zurtzen kopurua oso nabarmena izan zen, txirotasun gorriaren ondorioz. Hori dela-eta, gertuko elizako Lekaime Nagusiak eraikina eskatu zion Apaiz Gorenari, neska zurtzen heziketari zuzentzeko. 1940an baimena onartu zuten. Hasiera batean, lursail zabal bateko etxetzar batean aurrera eraman zuten lekaimek proiektua; aitzitik, etxearen zabalera ez zen nahikoa izan neskatilen kopuru eskergagatik. 1946an, Bilboko alkatearen aginduz, eraikin zabal bat egin zuten: ikastetxe-lekaimetxea. Garai hartan, ikasleek haur-

eskoletatik garaiko batxilergoaren 4. mailara arte ikasten zuten. 1980ko hamarkadan, Deustuko institutua izatera pasa zen¹⁸.

Mendi horren magala Extremadurako langileen bizitoki ere bilakatu zen oso egoera prekarioan. Egun, familia etorkin horien ilobak dira ikastetxe horretara doazen gehienak. 2012an, Arangoitik 4.407 biztanle ditu, 10-14 urte bitartekoak 187 baino ez dira, 90 emakume eta 97 gizon¹⁹. Langile izaera historikoa mantentzen duela esan daiteke. 50eko hamarkadan eratu zen, migrazio kateekin batera: bakarrik, familiarekin edo lagunekin etortzen ziren. Nahiz eta azterketa kuantitatibo zehaztetan jasota ez egon, etorkinen jatorria Gaztela-Leon eta, esan bezala, batez ere, Extremadura zen, zehazki bertako bi herriatik eterri ziren (Perez eta Urrutia, 2009:217). Egun, herri horiek auzokideen gogoan daude, nerabeen artean oporretako helmuga gisa. Ikerketako gaztetxoen bizitzetan udako herri bezala txertatzen da migrazioen oroitzapena.

Lana zen herritarren migrazioen arrazoi nagusia. Nekazaritza sektoretik eterri arren, asko zonaldeko enpresa txikietan, eraikuntzan, Euskalduna ontziolan eta bestelako lantegietan lanean hasi ziren. Lanpostua ziurtatzen zitzaien, baina bizi-baldintzak bigarren plano batera pasa ziren. Bilboko hainbat eremuk ez zuen azpiegitura nahikoa pertsona uholdeari erantzuteko. Hirigintza modu izarigabeen hedatu zen Bilboko orografia maldatsuan. Horrela, zenbait mendi magaletan ezarri ziren azpiegitura urriko etxebizitzak eta txabolak²⁰. Garai horietan aldarrikapen bilakatu ziren ur-hoditeriak, anbulatorioak, eskolak eta bestelako oinarritzko egiturak (Perez eta Urrutia, 2009:212). 60ko hamarkadan, bada, etxebizitza sozialak eraikitzea lortu zuten.

“Pronto comprobarán los nuevos vecinos del barrio las deficiencias de las construcciones y las enormes carencias que un barrio que, a pesar de la cercanía de Deusto, vivirá prácticamente al margen de este último. Arangoiti y por extensión sus vecinos constituirán un espacio aparte, casi un mundo aparte, conectado con Deusto por un par de malos accesos y un ascensor que comenzó a constituirse durante la década de los años

¹⁸ Informazio hori guztia ikastetxeko webgunetik jasota dago.

¹⁹ Bilboko Udaleko datuak: Biztanleriaren Udal Errolda 2012. <http://www.bilbaoencifras.net/demografia> (Kontsulta data: 2014/07/06)

²⁰ Esan beharra dago 1959an 30.000 txabola inguru zeudela Bilboko zenbait langile-auzotan (Leonardo, 1994; in Ruiz de Olabuenaga, 2000:54).

cincuenta, y que constituirá un problema hasta la actualidad.” (Perez eta Urrutia, 2009:221)

Banaketa horrek, bestelako gabeziekin batera, auzokideen artean identitate kolektiboa eraikitzea ekarri zuen. Arazo komunek beharrizan kolektiboa sortu zuten. Oinarrizko azpiegiturak aldarrikatu zituzten: autobusak, eskolak, anbulatorioak... Deustuarekin eta Bilboko erdigunearekin komunikazio egokia edukitzea eskatzen zuten, esate baterako. Horrek guztiak bizilagunak eta administrazio publikoa aurrez aurre ipintzera eraman zituen. Gabeziei aurre egiteko mementoan, elkartegintza antolaketarako gako bihurtu zen. Langile mugimenduak indar handia izan zuen lan baldintza duinen aldeko borrokan. Auzoaren langile izaera martxan zen.

Halaber, elkarteen eta herri mugimenduen artean, kezkatzeko arrazoia izan zen haur eta gazteen hezkuntza. Batetik, gurasoek, amek batez ere, eskolarekin eta irakasleekin harremana sortu zuten, haurren hezkuntzan inplikatzeko helburuz (Perez eta Urrutia, 2009:232). Hezkuntza bera aldarrikapen bihurtu zen, baina ez euskal kulturaren sustatzaile bezala, bizikide horien jatorria kontuan hartuta. Bestetik, elizak bere tokia izan zuen haurren trebakuntzan. Elizaren inguruan zenbait talde eratu ziren, horien artean aisialdi taldea. Talde horrek auzoko hainbat haurren aisialdia antolatzen zuen eta antolatzen du, eta ikerketako nerabe gehienak talde horren kide izan dira eskola utzi arte; alabaina, haien haurtzaroko oriomenean dituzte elkarrekin egindako udalekuak, asteburu pasak eta eliz inguruan jolasten igarotako ostiral arratsaldeak. Egun, Arangoitik Lehen Hezkuntza eta Haur Hezkuntzako eskola bat du, baina Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egitera ikerketako Deustuko institutura joaten dira. Bertan, esan bezala, ikasle kopuru handia da auzo horretako, alegia, presentzia nabarmena dute. Institutura joaten hasterakoan, Arangoitiko ikasleak aurretik osaturiko lagun-taldeetan joaten dira, eta horien inguruan eratzen dira adiskidetasun-talde berriak.

Ikerketako gaztetxoen diskursoetan, ez da haututzat jotzen zentro horretara joatea, beste hezkuntza-zentroekin gertatu den bezala. Aurreko ikastetxetik institutu horretara bideratzen dituztela adierazten dute, eta horregatik, haien ikaskide eta lagun guztiak bertara joatea bilakatzen da arrazoia: “*Nire CP eskolatik hona bidaltzen zidaten, nik nahi nuen hona etorri nire lagunak hona etorriko zirelako.*” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa).

Institutuaren irudia gutxietsi ohi dela esaten dute, kanpora begira, batik bat: “*Institutu hau esaten dute dela una mierda, ez dugula ezer ikasten; nik ez dut hori pentsatzen.*”(Maitane, 12 urte, institutu publikoa). Haatik, zentzu gutxiesgarriari buelta ematen dion neraberik badago, hezkuntzaren izaera publikoa aldarrikatuz:

“*Pues yo siempre he estado en colegio público y me da pena dejarlo, porque yo creo que los privados lo que hacen es que se chulean tanto hasta los profesores, que como son privados hacen más excursiones y estudian menos. Porque yo creo que al final en un público es donde más se aprende porque el gobierno te dice que tienes que estudiar esto y esto; los privados van por su cuenta, al final yo creo que se aprende más en los públicos. Lo he pensado yo.*” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

Horrez gain, ikasleei dagokienez, haiek aitortzen dute “gatazkatsuak” eta “makarrak” izatea atxikitzen zaiela. Euren ahotan:

“*Suposatzen da hona datorren jendea, kampoko jendeak esaten duenez, gara choni²¹ batzuk, que grafitean, que fumamos porros, que somos unos niños un poco macarras.*”(Maitane, 12 urte, institutu publikoa),

“*Pobreak garela diote hona etortzen garelako*” (Esti, 14 urte, institutu publikoa)

“*Supuestamente para los de los otros colegios somos chonis, drogadictos y alcohólicos. Porque gracias a algunos listillos de este colegio que siempre van a Urkidi²² y los de otros colegios, tanto beber y emborracharse a veces, se queda esa fama, y esa fama para todo el colegio*” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

²¹ Hirietako kanpoaldeetan eratutako tribu urbanoa bateko kidea da “choni”a. “Choni” neskei zuzendutako izena da, eta “kani” mutilenzako izena da. 90eko hamarkadan sortu ziren hiri handietako periferietan. Moda hutsetik harago, klase sozialari hertsiki lotuta dago, eta bizimodu eredu bat dakar: janzkeria eta orrazkeria zehatzak, zaletasun berdinak, tatuajeak, piercingak, ile-luzapenak, ikasketa gabezia, hizkera okerra. Gazte-azpikultura hori klase baxuetan hedatu da, batez ere. “Choni” edo “cani” makarrak, “kale-zurruta” egiten dutenak, diskoteketara joaten direnak eta hainbat gatazkatan sartzen direnak izendatzeko erabili ohi da gutxiespen zentzuarekin. Ikus: http://www.utilidad.com/canis-y-chonis-caracteristicas-y-estilo-de-vida_2376

²² Ikerketan horrela deitu zaio Deustuko barrutian dagoen parkeari, institutu publikotik gertu dagoenari. Nerabe asko asteburuetan hara joaten dira alkohola edatera eta erretzera.

Azpimarratzen dute ikasle guztiak ez direla horrelakoak eta ikasleku guztieta daudela horrelako profilak. Neska batek zehaztu du mutilen profilari dagokiola zabaltzen ari den diskurso hori: “*Gero eskola honetan mutil gehienak rollo hori jarraitzen dute, baina neskak ezberdinak gara. Formalak diren mutil gehienak beste eskola batzuetara joaten dira, hemengo mutil gehienak makarrilla batzuk direlako*”(Maitane, 12 urte, institutu publikoa). Nerabeek argi daukate iruditegi hori Deustuko beste ikastetxe erlijioso batetik datorrela. Halaber, irakasle batek, berriz, bizitokiaren izaera gatazkatsuarekin lotzen du institutuaren irudi gatazkatsua: “*Arangoiti es un barrio complicado, y lo que pasa en la plaza de Arangoiti se lleva al instituto*”, auzoaren eta institutu publikoaren arteko lotura nabarmenduz.

Labur esanda, Estatuko etorkinekin eratutako auzo horrek, egun bizi-baldintza duinagoak izan arren, langile izaera mantentzen du. Horien seme-alabak eta ilobak dira ikerketako institutu publikora joaten diren gehienak, nahiz eta Deustuko beste eremu batzuetakoak ere badauden. “Makarrak”, “chonis” eta bestelako izendapenak erabiltzen dituzte ikastetxe erlijioso batekoek, baita eurek euren ikaskideak izendatzeko ere. Horrela, zeharka, behe-klaseetakoak izatea atxikitzen diente, eta beraiek ere barneratu egiten dute.

Azkenik, marko etnografiko honetan ikerketako ikastetxeak irudikatu nahi izan dira eta, bidenabar, horien kokapena ezagutu. Esan beharra dago lanaren hasierako planteamenduan gaztetxoen profilean aniztasuna bilatzea zela hiru ikastetxe horiek hautaketaren zioa; baina, lanak aurrera egin ahala, klaseen arteko botere-harremanak nabarmentzen joan dira. Horregatik, klase izaera agerrarazi nahi izan da hezkuntza zentroen deskribapenetan. Irudi horiek eraikitzeko ahaleginetan, baliteke baieztapen batzuek izaera determinista eta homogeneoaren itxura eman izana, baina profil zehatz horiek ardaztu nahi izan dira, dagoen heterogeneotasunaren baitan.

2. HURBILKETA PROZESU ETNOGRAFIKOARI

“La etnografía supone un antes y un después, un paréntesis, un tiempo dentro del tiempo vital y profesional. Un tiempo consecutivo y circular a la vez. Un tiempo fuera del tiempo.

Una aventura que convertirá a la antropóloga en otra; su mirada, su pensamiento, su configuración emocional, su barómetro amoroso... serán, son ya otros.” (Esteban, 2011:29)

Etnografiaren bidez egin zaie hurbilketa nerabeen maitasun bizipenei; horregatik, prozesu etnografikoaren narrazioari ekingo zaio pasarte honetan. Horretarako, aintzat hartuko dira gorabehera metodologikoak, antropologoaren bizipen eta zirrarak, ezbaia, eragindako krisialdiak... etnografiaren eraketarako funtsezkoa baita horren berri ematea. Mari Luz Estebanen hitzei lotuta, etnografiak aldaketa eragiten du antropologoaren begiradan; baina baita parentesi bat ere, antropologoaren bizitzarekin hautsiz. Orobata, etnografiak esanahi bikoitza du; alde batetik, ikerketa-teknika batzuen bitartez errealtitate soziokultural bateko ezagutza prozesua da eta, bestetik, ezagutza horretaz baliatuta, ikertzailearen interpretazioarekin egindako produktua (Pujadas, 2010:15). Hala ere, ikuspegi bi horiek ez dira kontrajarriak, izan ere, etnografiaren osotasunari heltzen diote, nahiz eta bi eremu horiek modu koherente batean lotzeak zaitasunak dituen.²³

²³ Lekuan lekuko lanaren esperientzia eta interpretazio etnografikoaren arteko zubiak, eraikitzeko zaitasunez asko hitz egin da, batez ere, testu etnografikoak modu kritiko batean begiratzen hasi zirenean: *“Hace ya tiempo que la crisis posmoderna ha mantenido en jaque el sentido mismo de la investigación etnográfica. A menudo esta crisis se asocia con ciertos autores, pero en realidad fue producto, en gran medida de las reacciones y respuestas de los pueblos estudiados ante los textos publicados por investigadores ajenos a su realidad. El desenlace evoca la crítica que Edward Said (1995) hizo de la pretendida objetividad intelectual que no pocas veces sirve a fines políticos y que supone que los pueblos carecen de curiosidad y la capacidad intelectual necesarias para conocer realidades propias y ajena. De manera similar, algunos hemos estudiado las realidades educativas asumiendo que maestros, estudiantes y comunidades carecen de interés propio por conocer su entorno próximo y lejano. La recepción crítica de los textos etnográficos propició mayor conciencia de la difícil tarea de construir puentes entre la experiencia de campo y la representación etnográfica. (...) Si se acepta que la etnografía*

2.1 Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

Ondorengo helburu eta hipotesietatik abiatu da ikerketa enpirikoa, nahiz eta aurrera egin ahala aldaketak egon. Halaber, esan beharra dago xede horien sostengua nire aurretiko lan bat izan dela, Ikasketa Feministak eta Generokoak master amaierako lana, hain zuzen, *Maitasuna nerabeen genero sozializazio prozesuetan* (2009), zeinak ikergaiaren berri izateko aukera eman zidan, hala nola, bestelako interesguneak ikusarazteko.

Hartara, honakoa da ikerlanaren helburu orokorra:

Nerabeen maitasun-bizipenek (irudikapenek, balioek, jarduerak...) genero ezberdintasunen eta botere-harremanen eraketan duten eragina aztertzea, beraien bizi-ibilbideen ezaugarri sozial, politiko zein ekonomikoak kontuan izanik.

Burubide zabal horretatik hainbat ardatz berezitu dira helburu zehatzak definitzeko²⁴:

- Nerabeek duten maitasunaren kontzeptualizazioak, sailkapenak eta bizipen emozionalak (maitemina, desamodioa...) aztertzea, bai eta horien inguruau eraikitzen diren diskurtsoak eta esanahiak ere, bizi-antolaketan duten eragina azpimarratzeko.
- Amodioak sortzen dituen bizi-pertzepzioak ikertzea, errealtitatea ezagutzeko eta ulertzeko baliabide gisa, mundua hautemateko eta munduan egoteko eskaintzen dituen ereduak agerian jarri (botere-harremanak, heterosexualitatea, laguntasuna, hainbat jarduera...).
- Maitasuna espazioak eta denborak zehatzen baitan aztertzea, alegia, emozio horren uneak eta guneak ezagutzea, aisialdiarekin duten lotura nabarmenzeko eta gerta litezkeen klase ezberdintasunak azpimarratzeko.

no es un método, sino un enfoque, no se puede tomar como una herramienta neutral o aséptica que se utiliza en cualquier contexto.” (Rockwell, 2009:183).

²⁴ Lau helburu zehatz badira ere, aurretik beste ardatz batzuk zeuden: sare sozialena, esate baterako. Ikerlanean aurrera egin ahala, berezitutako pasarte bat izatetik, gainerako ildoen barnean zeharka sartzea erabaki zen, eremu birtuala nerabeen errealtitatearen parte delako, eta ez beste errealtitate bat. Aitzitik, xede horietan modu arinean aipatutako zenbait gai gako bihurtu dira gaztetxoen maitasun egitura ulertzeko orduan: heteronormativitatea, kasu.

- Maitasuna ikasketa-prozesu bezala harturik, gaztetxoek amodioan trebatzeko eta aritzeko moduak agerian jartzea eta, bide batez, diskurtso hegemonikoaren eta adoleszenteen bizipenen arteko gatazkak ikertzea, arautzeko mekanismoak ikusatzeko, baina horri aurre egiteko erresistentzia eta estrategia ahaztu gabe.

Hipotesieiei dagokienez, zenbait uste eta susmok piztu zidaten ikertzeko grina:

- Afektibotasuna oso garrantzitsua da nerabe guztientzat, baina neskek eta mutilek maitasuna modu ezberdinan ulertzen dute. Nahiz eta aniztasuna egon, neskek garrantzi handiagoa ematen diote amodioari, definizio eta hausnarketa sakonak garatu ohi dituzte; mutilen gogoetak, aldiz, bakunagoak dira. Horren ondorioz, maitasuna genero identitatearen eraikuntzaren erdigunean dago eta, beraz, desabantaila egoerak bermatzen ditu. Adibidez, neskek emozioen inguruau dituzten zenbait jarrera gutxiesten dira, “nesken gauzak” direla esanez.
- Eredu sozial hegemonikoetan oinarritzen dira maitasuna sailkatzeko: familia, lagunak eta bikoteak. Horiek hierarkikoki antolatzen dituzte: familia da gehien balioetsitakoa, gero lagunak eta etorkizunean garrantzitsuena bikotea izango dela aurreikusten dute. Horrez gain, banaketa horren mugak ez dira hertsia. Adin horretan, lagunekin eta bikotekideekin dituzten erlazioak antzekoak edo berdinak dira praktikan. Hori dela-eta, heteroarauaren presentzia nagusitzen da sailkapen horretan: nesken arteko (eta mutilen arteko) erlazioak laguntasunean kokatu ohi dituzte, aldiz, neska eta mutilen arteko loturak bikote-harremantza hartzen dituzte.
- Gorputz-jarduerak erdigunean dituzte nerabeen maitasun-ikasketek. Amodioa gehiago balioesteagatik, nesken artean tarte handiagoa eskaintzeko joera dago, euren eguneroko eginkizunen parte izanik (gorputza apaintza, amodiozko musika entzutea...). Ikasketa prozesu horregatik, neskak errromantikotasunaren kultur-industriaren kontsumitzale nagusiak izan ohi dira: maitasun kantak eta pelikulak, gaztetxoen inguruko telesaioak...
- Gainera, emozio hori bizitzaren erdigunean kokatzeak baldintzatzen du neskek mundua hautemateko eta munduan egoteko duten modua; esate baterako, harremanetarako trebezia garatzera bideratzen ditu, pertsonen arteko erlazioak eta zaintza gehiago balioestera. Horrela, neska batzuek bizipenak partekatzeko

espazio gisa ulertzen dute adiskidetasuna; mutilek, ordea, ekintza zehatzekin lotzen dute. Horrek guztiak beraien aisialdia baldintzatzen du; era berean, praktika horiek laguntasuna ulertzeko modua bideratzen dute.

- Familiak baldintzatzen ditu maitasun gune eta uneak. Gurasoekiko lotura autonomoagoa dutenek harreman afektibo-sexualei garrantzia handiagoa eta denbora gehiago eskaintzen diete. Izan ere, euren aisialdia askatasun handiagoarekin kudeatzen dute, aisialdia afektibitaterako espazio bihurtuz.
- Azkenik, amodioaren botere-erlazioak arautzeko hainbat mekanismo daude. Sekretuen kudeaketa gakoa da horretan, askotan maitasun edo sexu gustuekin zerikusia daukate-eta. Sekretuak eta gaztetxoen estatusak elkar lotuta daude, gehien dakienak botere handiagoa du. Aitzitik, arauak haustean nerabeek baztertze prozesuak eta zigor sozialak jartzen dituzte martxan, baina neskek gehienbat erresistentzia, estrategia eta mekanismo berriak eraikitzen dituzte.

2.2 Abiapuntu metodologikoa: kokaturiko etnografia eta kokaturiko bizitzak

Etnografia ikerkuntza sozialerako oinarrizko bidea dela diote, antzekotasuna baitu jende arruntak eguneroko ekintzei ematen dien zentzuarekin (Hammersley eta Atkinson, 1994:16). Hala ere, konplexutasun handiagoa du praktika sozialaren esanahiak ulertzeak. Jose Ignacio Ruiz Olabuénagaren (1989) ustez, metodo kualitatiboen oinarrian dago etengabean eraikitzen ari den sinbolodun eta esanahidun mundu soziala. Horregatik, teknika kualitatiboen bitartez, etnografiak eraikuntza sozialean barneratzea du helburu, bai hainbat kontzeptu eta ekintzen esanahiak berreraikitzeko, bai eraikitako mundua deskribatzeko eta ulertzeko (1989:30). Hori guztia lortzeko, gizabanakoen esperientzia jartzen da analisiaren erdigunean, testuinguruaren murgilduta eta deskribapen sakonekin.

Era horretara, ikuspegi kualitatibo hori jarraituz, testuinguru etnografikoaren barnean aztertu dira nerabeen bizimoduak, marko kultural eta sozialaren baitan kokaturik. Aintzat hartu dira pertsona bakoitzaren errerealitatean parte hartzen duten hainbat esfera. Horrela ulertu dira, “kokaturiko bizitzak” gisa, beste batzuen artean, Louise Lamphere,

Helena Ragoné eta Patricia Zavella-ren (1997) lanean oinarrituz. Autore horien ustez, kultura eguneroko esperientzia pertsonalean txertatzen da; horregatik, bizipen arruntak giltzarriak dira azterketarako eta, gainera, funtsezkoak genero analisia egiteko (Lamphere, Ragoné eta Zavella, 1997:2). Horretarako, zenbait soziologok garatutako kontzeptuetan oinarritzen dira: esate baterako, Bourdieuren “*habitus*”, gizarte egituraren disposizioak praktika zehatzen baitan kokatzen dituena, edota Giddensen “kokatutako praktikak”, agentzia eta egituraren arteko lotura adierazteko (ibidem:3). Subjektuen bizipenak ezin direnez egituratik kanpo aditu, etnografiaren abiapuntu izan dira gaztetxoen esanahi kulturalak zein haien errealtitate materiala.

Horrenbestez, metodologia hori, prozesu etnografikoa bera, zalantzagarria eta eztabaidagai izan da. Batik bat, zientzien metodo zorrotzekin bat egiten ez duelako, kritikatu da etnografia gizarte zientzien barnean, lortutako datuak eta informazioa subjektiboak direlakoan, nahiz eta beste batzuen aburuz, etnografiaren bitartez baino ezin den prozesu sozialen zentzua eta edukia ulertu (Hammersley eta Atkison, 1994:16). Ohiko eztabaida horiek baztertuz, etnografiaren izaera subjektiboa azpimarratuko da ikerketa honetan, lan egiterakoan premiazkoa den doitasuna zalantzan jarri gabe. Izan ere, ezinezkoa baita ikertzailea guztiz objektiboa izatea, ezin baita jatorrizko mundutik askatu:

“Reconocer el carácter reflexivo de la investigación social, o sea, reconocer que somos parte del mundo social que estudiamos (...) no es meramente una cuestión metodológica, es un hecho existencial. No hay ninguna forma que nos permita escapar del mundo social para después estudiarlo ni, afortunadamente, ello es siquiera necesario. No podemos evitar el confiar en el conocimiento del “sentido común” ni eludir nuestros efectos sobre los fenómenos sociales estudiados.”(ibidem: 29)

Hartara, etnografia honek ez du objektibotasuna helburu. Oro har, etnografiak bat egiten du feminismoak zientziari egindako kritikekin, non positibismoa, dualismoa eta abstrakzioak zalantzan jartzen diren, aurrez aurre ipintzen dituztelako: subjektua/objektua, ikerlaria/ikertua, arrazoia/emozioak, jakituna/ez-jakina, politikoa/pertsonala... (Stacey, 1988:21). Ildo beretik, objektibotasunari eta zientziari egindako kritikan, Donna Haraway-k (1989) “kokaturiko ezagutzak” kontzeptua proposatzen du. Bere aburuz, ezagutza ikertzailearen testuinguruan kokatzen da, toki

zehatz batetik gauzatzen delako. Horregatik, ikerlariaren begirada beti izango da partziala, inoiz ez objektiboa. Hori dela-eta, Haraway zientzialariak erantzukizuna izatea defendatzen du eta abiapuntu partzial hori agerian jartzea, ikerlariaren edo antropologoaren irudia ezkutatzeko ahaleginik egin gabe. Lan honi dagokionez, Bilboko neska zuri gazte eta feminista batena da laneko ahotsa.

2.2.1 Prozesu etnografiko emozionala

Ikerketa kokatzeko ahaleginetan, arreta berezia eskaini zaio prozesu etnografiko osoari. Izan ere, etnografia ezin da ulertu sortutako esperientzia baztertzen bada (Gessaghi, 2011:18), bertan jasotako bizipenek eratu baitituzte lanaren bidea, ideiak eta kontakizuna bera. Halaber, gertakizun horietan zirrarek ere toki berezia izan dute. Metodologikoki sentimenduez arduratzeak ezbaian jartzen du antropologia eta zientzietan oro har egon den arrazionaltasunaren gainjarpena, emozioen eta arrazoiaren arteko banaketa dikotomikoa hautsi egiten baita:

“Pareciera como si la disciplina antropológica, además de proceder a encerrar en un vedado al cuerpo del antropólogo, se hubiera construido –y nos hubiera adiestrado metodológicamente y estilísticamente a los del oficio– “contra sentidos” (salvo el de la vista, consagrado hegemónicamente por la ciencia occidental), y “contra las emociones”, o al menos procediendo a ocultar a unos y a otras en el texto.” (Flores, 2010:17)

Emozioez aritzeak zenbait erronka metodologikotara eramatzen du. Batetik, sentimenduak aztergai izateak zaitasunak ekar ditzake. Horren harira, Juan Antonio Flores (2010) antropologoak zalantza egin du: *“¿Podemos conocer y comprender a través de nuestras emociones el color y las texturas de las emociones de las gentes del escenario social que estudiamos?”* (2010:18). Era berean, antropologiaren eta etnografiaren beraren mugak agertzen dira:

“Desde una posición extrema, algunos antropólogos establecen un límite con claridad: no podríamos hablar de cómo sienten otras personas u otros pueblos, solo podemos hacer –desde la antropología y las ciencias sociales–

una interpretación de lo que dicen que sienten (discursos sobre sus emociones) o analizar los modos y maneras como se expresan (representaciones de la emoción). ”(ibidem)

Bestetik, arestian esan bezala, lekuan lekuko lanean, aintzat hartu dira harremanek eta bizipenek sortu dituzten hainbat sentsazio. Ikerlanaren aztergaia emozio bat izanik, ikerlariaren zirrarak ere aztergai bihurtzen dira. Prozesu etnografikoan zehar antropologoak zenbait sentimendu bizi ditu eta horiek ere ikerketaren parte dira. Victoria Gessaghik (2011) aipatzen du:

“En este mismo sentido, creo que la etnografía no puede entenderse independientemente de la experiencia que la produce. Es por eso que me interesó traer las postergadas emociones y sentidos al centro de las estrategias metodológicas. Los sentimientos en el campo ayudaron a darme idea de cómo comprendía lo que iba ocurriendo en el terreno. También, a lo largo del trabajo mis estados en el campo se fueron modificando, porque las relaciones con “los otros” son dinámicas.”(2011:24)

Estrategia metodologikoen baitan daude tokian tokiko laneko emozio eta sentsazioak, eta ikerketa bideratu dute hainbatetan, uste baino garrantzia handiagoa hartu dutelarik; esate baterako, klase sozialaren kasuan. Esan bezala, hasiera batean, mailaketa sozialaren aldagai hautatzeko helburua aniztasuna izatea bazen ere, prozesuan aurrera joan ahala giltzarri bihurtu da. Nahiz eta hitzez azaltzea zaila den, goi-klasea, ikusi baino, sentitzen eta hautematen hasi nintzen. Esate baterako, talde horrekin erlaziona nuen bakoitzean, gorputzean urduritasun eta zirrara bereziak nabaritzen nituen.

Horrela, emozioek metodologiaren arlo estrategikoan lekukotasun handiagoa hartu zuten. Izañ ere, eliteen ikerkuntzan aritzen den Gessaggi²⁵ antropologoaren arabera, goi-klaseko pertsonak ikustearrekin batera nabaritzen da, dotorezia edo arropa garestiaz harago, “segurtasun soziala” transmititzen dutela, euren jarrera, jokabide, hizkera eta munduan egoteko moduen bitartez (2011:22). Munduan egoteko modu horrek talde sozialari lotutako gorpuzkera berezia bideratzen du, Pierre Bourdieuren *habitus*

²⁵ Antropologian doktorea den Victoria Gessaggi-rekin (FLACSO, UBA eta CONICET-eko kidea) hiru hilabeteko egonaldia egin dut Buenos Aireseko Facultad Latino Americana de Ciencias Sociales (FLACSO) delako unibertsitatean. Bertan Núcleo de Educación para las Elites ikerketa taldean parte hartzeko aukera izan dut beste ikerlari batzuekin batera.

kontzeptuarekin bat eginik. Horrek guztiak emozionalki eragiten zidan: segurtasun falta, urduritasunak, beldurrak, sentsazio arraroak...

Horrez gain, ibilbide metodologikoan emozionalsunak bultzatuta eta zenbait faktoreen (antropologoaren eta subjektuen arteko talkaren, beldurren...) ondorioz, antropologoaren identitatea ere krisian egon da, etengabeko barne-eraldaketa gertatzen zen bitartean:

“El trabajo de campo deja un cierto lastre, ejerce una cierta presión sobre el investigador y en algún sentido lo transforma. La implicación personal supone a veces sufrir enfermedades, etc.; y encierra estados de ánimo, sentimientos, experiencias de autocontrol..., pero también posiblemente brotes de desánimo, alguna conducta irreflexiva, desorientación, percepción de incapacidad...” (Velasco eta Diaz Rada, 2006:23)

Era horretara, emozioak etnografia honen parte izan dira, ikerketa prozesuari zentzua eman diotenak. Horrela, bizi izandako krisi askok, azterketa-objektuarekin edota metodologiarekin kasu, gerora argitasuna eman didate. Krisialdiek gertakizun esanguratsuei arretaz erreparatzeko uneak sortu dituzte, eta gerora sorkuntza-iturri bihurtu dira. Krisialdiak katarsiak izan dira.

2.3 Nerabeen bizitzetarako sarbidea: etnografia hezkuntza zentroetan

Tokian tokiko lana Bilboko hiru ikastetxetan egin da (zentro erlijioso batean, ikastola batean eta institutu publiko batean), hiriaren hiru testuinguru ekonomiko eta sozialetan. Jadanik esan bezala, hasiera batean, hautaketa horren helburua Bilbo barnean maitasun bizenetan anitzasuna bilatzea izan zen. Abiapuntua hori bazen ere, denboraren poderioz klase sozialaren faktoreak uste baino pisu handiagoa hartu zuen, ikerketan islatzen ahalegindu naizen bezala.

Ikastetxeen hautapena modu estrategiko batean egin zen. Ni bilbotarra izanik, bertako errealitatea ezagutzen nuen eta ezagutza horretan oinarritu nintzen. Lehenik, esan bezala, hiri-erdiguneko itunpeko ikastetxe erlijioso bat hautatu nuen; bigarrenik, hiriko

mugan kokatzen den auzo bateko institutu publikoa; eta, hirugarrenik, beste auzo bateko ikastola bat. Nahiz eta Bilboko errealtitate soziokultural osora iristeko hankamotz gelditu, hiru espazio horien bitartez gune horietako errealtitateen aldaerak azaltzea da helburua, betiere, Bilboko zein Euskal Herriko marko sozial eta kulturalaren teilitatuean. Horrela, etnografia bakarra gauzatu da kokaleku anitz horietan ateratako argibideekin.

Tokian tokiko laneko informazio bilketa bi urteko lana izan da. Aipatutako zentroetan behaketa parte-hartzailea egin da, jolasgaraian zein eskola orduetan. Gazteen aisialdi gune batzuetara ere hurbiltzeko aukera izan dut zenbait larunbatetan. Horrez gain, 32 elkarritzketa (12 neska eta 10 mutil) eta 9 eztabaidea talde (3 nesken artekoak, 3 mutilen artekoak eta beste 3 mistoak) burutu dira. Horrez gain, hain ohikoak dituzten sare sozialen erabileraren jarraipena ere egin da. Horrela, hiru ikastetxe horien bitartez, nerabeen bizitza, bzipen zein emozioetara iristeko abagunea izan dut.

Ben Rampton (1995) hizkuntzalariaren esperientzian oinarri hartzen duen Jone M. Hernandezi (2005) jarraituz, eskola da gaztetxoen bizi-ibilbideen dimensio sozial, politiko eta ekonomikoei hurbiltzeko gune pribilegiatua. Izan ere, jakin badakigu ikastetxeek klase sozialak eta genero-harremanak errepikatzen dituztela (Bourdieu eta Passeron, 1996; Juliano, 1993), nahiz eta errepikapen hori arlo zehatzetan kritikatu izan den (Willis, 1988; Lahire, 2006). Eskola eta gizartea continuum batean kokatzen dira, elkarren eragina baitute (Hernandez, 2005). Gurasoek eginiko ikaslekuaren hautaketa zenbait aldagai sozialen, ekonomikoren eta ideologikoren ondorio izan daiteke, are Bilbo bezalako hiri batean, non ikasketa zentroen eskaintza zabala eta anitza den. Adibidez, Erreenterian eginiko ikerketa batean, Eugenia Ramírez Goicoechea antropologoak baieztatzen du herri horretako ikastegien banaketak bertako ezberdintasun soziodemografiko, ekonomiko eta kulturalak islatzen dituela, eskola errealtitate sozialaren islapena izanik (Ramírez, 1991:365; in Hernandez, 2005:56).

Hori dela-eta, ikastetxea etnografia egiteko espazio bezala hartu da, baina ez da hezkuntza-erakundearen inguruko analisirik egin hezkuntzaren antropologiak edo soziologiak egin ohi duten gisa. Hezkuntza zentroan ikertzea bizitzazko mundu batean barreiatzean datza, eskolaren definizio instituzional eta antolakunde formaletik harago, ikaslekua nerabeen espazio/denbora baita (Arpal, 1991; in Hernández, 2005:8). Ikerketa honen kasuan, eskanola tokiko lana egitea estrategia metodologikoa baino ez da izan:

gaztetxoengana eta horien gurasoengana iristeko modu bat, haien ezagutu eta haien egunerokotasunean sartzeko. Horretarako, jolasgaraia hautatu dira. Izan ere, ikasgela barruan modu egituratu batean gauzatzen da giza elkarrekintza, espazioak (mahaiek, aulkiek, arbelak...) eta irakaslearen presentziak erabat baldintzatzen dute-eta. Jolasorduetan, aldiz, askatasun handiagoa dute euren asmoak aurrera eramateko, bertan gertatzen diren elkarrizketak eta ekimenak ugariagoak dira. Hala ere, horrekin ez dut esan nahi patioetan askatasuna osoa denik, eskolako hormek bertan jarraitzen dute-eta. Instituzio hori presente dago, hainbat eratan: txirrinak, zaindarien begiradak...

Jolastokiak ez dira eremu hutsak, eskolako esparru guztiak eragiten baitute identitate subjektiboen eraikuntzan, hala nola, emozioetan zein sexualitatean. Azken hori aztergai hartuta, Michel Foucaulten aburuz, *Historia de la sexualidad* (2009 [1976]) lanean, garai viktoriarreko errepresio sexualak sexualitatearen diskurtsoa nonahikoa bihurtu besterik ez zuen egin: ez zen hitz egiten baina toki guztietan zegoen, eskolan barne. Bere lanean oinarrituz, Graciela Morgade (1999) hezkuntza-ikerlariaren ustez ere, sexualitatea une oro dago presente eskolan: nahiz eta horri buruz asko ez hitz egin, eremu guztietan dago (Mogarde (koord.), 1999:10). Horregatik, esan daiteke ikastetxeen nerabeen arteko harremanak ahalbidetzen direla eta, gainera, sexualitate eta maitasun-ikasketa prozesua gauzatzen dela bertan. Halaber, horrek ez du esan nahi ikerketa ikas-esparru horretara mugatu denik soilik. Nahiz eta gaztetxoek denbora nabarmena eman eskolan, euren amodio-afera ugari hortik kanpo gertatzen dira, baina ikaslekuko espazioak aukera eman du bizitzako beste eremu batzuetara iristeko: profil zehatza duten adoleszenteengana heltzeko, horiekin konfiantzazko loturak sortzeko, euren egunerokotasuna ezagutzeko...

2.3.1 Eskolara sartzea

Jakina denez, etnografia egiteko sarbidearen onarpena da egon daitekeen arazo nagusietarikoa. Hasieran, negoziazioak era nabarmenagoan gauzatzen dira (Hammersley eta Atkinson, 1994:69). Negoziazio horietan lana bera arriskuan egon daiteke, onarpena eman behar duenak baldintzak jarri ditzakeelako. Izan ere, sarbidea ez da soilik fisikoki egotea ala ez egotea, baizik eta gainerako subjektuek ikerketa bera

ontzat ematea. Era beran, sarbidea toki horretako gizarte antolaketaren inguruoa informazioa lortzeko modu bat da finean (ibidem). Antolaketa formala duten erakundeetan, eskoletan kasu, sarbidea baimen formal batekin ziurtatu daiteke (ibidem:78), eta ikerketa honetan horrela egin da.

Tokian tokiko lana 2011ko otsailean hasi zen, Eusko Jaurlaritzako Predoc diru-laguntza jaso eta gero. Aurretik ere, 2010eko maiatzean ikastetxeetara hurbildu nintzen²⁶, eta hurrengo urteko otsailean, behin ikerketa-beka izanda, kontaktua egin nuen eta ikasketa buruekin bilerak adostu ziren. Bilera horietara guztieta eraman nuen UPV/EHUko Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologiako baimen eskaera adierazteko eskutitza, saileko eta lana honen zuzendariaren sinadurarekin.

Bilera horietan ikastetxeen inguruko argibideak eman zizkidaten. Horren ostean, DBHko lehen zikloko zenbait tutorerekirik beste hitzordu bat jarri nuen, haiei ere proiektuaren berri emateko. Ikerketak irakasleen lanari eta nerabeen ikasketa prozesuari inolako trabarik ekarriko ez ziela jakinda, oro har, harrera oso ona izan nuen eta guztiekin erakutsi zuten parte hartzeko prestutasuna. Ikastetxe guztieta DBHko 1. mailako eta 2. mailako ikasleen artean gurasoentzako zirkular bat banatu zen nire lana azaltzeko eta ikasketa zentroaren onarpena azaltzeko asmoz (ikus IV. eranskina: *Nerabeei helarazitako informazioa eta baimen zirkularrak*). Era horretara, jakinaren gainean jarri ziren ikasle, irakasle eta gurasoak.

Aipagarriak dira eskoletara sartzeko prozesu horretan bizi izandako lehendabiziko kontrasteak. Batetik, itunpeko zentro erlijiosokoan, ikastetxearen aurpegirik herrikoiena ematen ahalegindu zen ikasketa burua: garai batean ikasleak Indautxuko haur eta gazteak baziren ere, egun hainbat auzotatik hurbiltzen zirela aitortu zuen. Horrez gain, zentroko ikasle gehienak ikasle zaharren seme-alabak zirela aipatu zuen. Ikasle kopuru andana izan arren, elkar ezagutzen zuten askok. Zentroaren aniztasuna azpimarratu zuen, etorkinak bazeudela esanez, nahiz eta horien kopurua nahiko txikia izan, eta Eusko Jaurlaritzako diru-laguntzen bitartez bakarrik iristen zirela aitortu zuen.

²⁶ Maiatzean eskolak oso lanpeturik egon ohi dira ikasturte amaierako ebaluazioekin daudelako, eta oztopoak erakutsi zitzuten. Otsailean, aldiriz, lehen hiruhilekoa amaitu berri zela, erritmo lasaiagoa zuten zentroetan. Hori dela eta, otsailean harrera egokiagoa egin zidaten hiru zentroetan. Azken batean, eskolaren eta ikerlariaren arteko interesen kudeaketa egin zen, eskolara sartzeko garai errazago eta zailagoak baitaude.

Bestetik, institutu publikoan ikasle etorkinen kopurua beste zentroetan baina handiagoa zen, baina hor ez zuten hain profil markatua, gerora behaketetan ikusi ahal izan zen bezala. Ez zuten etiketa nabarmenik, eta ez zuten ageriko bazterketarik jasaten. Euretariko asko ikasle “sozialki arrakastatsuen” taldean zeuden, eta batzuk liderrak ziren. Hori, esate baterako, pentsaezina da aipatutako beste ikastetxean gertatzea. Horrez gain, institutu publikoko ikasketa buruak ikasle batzuen etxeko egoera “konplikatua” zela esan zidan, eta ikasle batzuei elkarrizketak egitea pentsaezina izango zela. Ikastetxearen eta gurasoen arteko gatazkak zirela-eta, nahiago zuten ikasle horiekin zuzenean ezer ez egitea.

Gainera, itunpeko ikastetxe erlijiosoaren bereizgarria izan zen zentroko instalazioak erakustea, ni ez galtzeko aitzakiaz. Esker onez hartu banuen ere, laguntza zeinutzat jo bainuen, Sandra Ziegler-ek (2012) goi-klasekoen ezaugarritzat hartzen du, eta baieztagatzen du Argentinako eliteen hezkuntza zentroetan sartzean, handitasuna erakusteko helburuarekin, instalazioen espazio andana erakusteko joera dutela. Adierazgarria da itunpeko ikastetxe erlijiosoan soilik gertatu izana hori. Nik oharkabean eta atsegin handiz jarraitu nuen ikasketa burua, eta instalazio handiek erabat harriturik utzi ninduten: korridore luzeak, patio zabal-zabala, eraikin ezberdinen banaketa, klaustroa, eliza...

2.3.2 Behaketa parte-hartzalea

Behaketa parte-hartzalearen helburua zen gaztetxoengana hurbiltzea, beraien balio, ohitura eta egitura ezagutzeko. Jatorrian, Bronislaw Malinowskik proposatu zuen bezala, tokian tokiko lanaren bitartez antropologoak egonaldiak egin behar ditu ikertuko duen taldearen egunerokotasunean barneratzeko, bere presentziaren eragina saihesten ahalegintzen den bitartean (Pujadas, 2010:72). Juan M. García Jorbaren hitzak hartuz, Pujadas antropologoak adierazten du egunerokotasunean egiten dela behaketa, “begiradaren artea” jarduera ohikoa baita bizitza sozialean, baina antropologoen berezitasuna errealityearren esanahi posibleak antzematean datzala. Halaber, eginaren eginez ikasten da, ikergaiak erabat baldintzatzen duelako begiratzeko modua (García Jorba, 2000:107; in Pujadas, 2010:72).

Behaketa egiten hasteko, hiru ikastetxeetako ordutegiak alderatu eta modu estrategiko batean aukeratu nituen. Izan ere, ikastetxe biren atsedenaldiak ordu berean izaten ziren. Horregatik, zentroen artean koordinatu behar izan nuen, behaketak ahalik eta mamitsuenak izateko. Ordutegiei erreparatuz, 30 minutuko eta 25 minutuko etenaldiak zituzten. Azkenean, denborarengatik eta nik neuk ikastetxe batetik bestera egin beharreko joan-etorriengatik, zentro bakoitzean astero ordu betez egotea erabaki zen. Horrela, astero-astro eskola bakoitzean bi egunetan egoteko aukera izan nuen, bi ikasturteetan zehar.

2.3.2.1 Koadernoarekin gorabeherak

Koadernoa eta bolaluma eskuan egon nintzen lehendabiziko egunetan. Ikerketaren helburuak aintzat harturik, hiru behaketa-unitate nagusi zehaztu nituen: lehendabizi, maitasunaren kontzeptualizazioa; bigarrenik, berdinaren arteko praktikak; eta, hirugarrenik, praktika afektiboen trebakuntza prozesuak. Hala ere, denbora pasa ahala, nerabeen elkarrekintzak berak indar handiagoa hartu zuen, aurretiaz ezarritako ildo horiek baino. Izan ere, begiratuko denaren eta deskribatuko denaren ideia hertsiekin hasteak hainbat gako adierazgarri ez ikustea ekar dezake (Pujadas, 2010:78). Horregatik, era malgu eta irekian egin da behaketa parte-hartzailea, ez da zenbaketa baten bitartez egin, ez eta ikerketaren hipotesietara mugatuta ere. Argi dugu malgutasun horrek ikerketa aberastu egin duela. Horrela, hasierako unitateak aldatzen joan ziren, areagotzen, eta batzuk alde batera uzten.

Esan bezala, koadernoa eskuan egin nituen lehenengo egonaldiak. Adierazgarria iruditzen zitzaidan oro idatzi egiten nuen. Horrek nerabeekin nuen elkarrekintza oztopatzentz zuen, arreta handia eskaintzen baitzoten nik idatzitakoari eta galderak egiten zizkidaten: “*Eta hori apuntatu duzu?*”, “*¿y qué miras?*”, “*¿y lo apuntas todo?*”, “*eso los has escrito mal*”.... Batzuk ahalegintzen ziren idatzitakoak eskatzen eta irakurtzen, nahiz eta nik beti ukatu, konfidentzialtasunaren beharra azpimarratuz. Zeharo zaila zen kaiera haien begi-bistatik kentzea. Gainera, koadernoa aurrean izateak kontrola adierazten zuen, esandakoak apuntatzeak tentsioa sortzen baitzuen. Egoera horretan,

abiadura handiz idazteria behartuta nengoan, erredakzioa zaindu gabe, eta gerora, horrek irakurmena eta ulermenaren zaitzen zituen. Hori dela eta, esku hutsik joatea erabaki nuen:

“Gaur koaderno gabe joan naiz. Egia esan, eroosoagoa izan da, baina sentsazioa daukat gertaerak ahaztuko zaizkidala. Harremana ezberdina izan da, beste batzuetan arreta gehiago eskaini didate. Koadernoak harridura eragiten die eta ni idazten ikustean alteratu egiten dira”(Tokian tokiko laneko eguneroakoa, 2011-02-17)

Koadernoan zuzenean idaztean, gaztetxoak gehiago lotsatzen ziren eta euren eguneroekotasunean eragiten nuen nahigabeen, kaiera erdigune bihurtzen zelako. Esku hutsik joatean, ordea, gertakizunak ahaztuko zitzaidan beldur nintzen. Horregatik, jolasketatik atera eta zuzenean idazten nituen bertan izandako bizipen guztiak. Oroimen-ariketa egiten nuen, gertatutakoa gogoratuz. Estrategia horren bidez idatzi nuen lekuan lekuko laneko eguneroakoa. Bertan islatu nituen nerabeek kontatutakoak, gertakizunak, bizipenak, nik sentitutako zirrarak, krisiak eta suertatu zitzaidan erronka metodologikoak. Behaketa parte-hartzalean gertatutako oro, alegia.

2.3.2.2 Lehendabiziko begiradak, hitzak eta mugak

Gogoan dut lehenengo egonaldietan erabat galdua sentitu nintzela. Maitasuna ikertzen egonda, patioetako hormigoian hainbat nerabe ezezagun baino ez nituen ikusten. Orduan, lehen krisia izan nuen: behaketa nola egin amodia ikusten ez bada? Mugimendu anitezko gorputz horiengan nola antzeman maitasuna? Ez nuen erantzunik sortzen zitzaidan galderetarako. Behaketa parte-hartzaleak zentzurik ez zuela pentsatzen hasia nintzen; hala ere, ez nuen beste irtenbiderik aurkitzen. Hasierako une horietan sarritan jarri nuen nire zeregina ezbaian. Denboraren eta praktiken poderioz nire zalantzak argitu ziren.

Horregatik, jolastokietako deskribapenetara mugatu nintzen lehendabiziko egonaldietan. Lehenengo hiru saioetan bueltaka ibili nintzen. Ikusezina nintzelako sentsazioa nuen, batez ere, ikastetxe handienetan. Nire presentziak ikasleen artean inongo jakin-minik ez pizteak erabat harrituta uzten ninduen. Hasierako elkarritzeta informalak nire irudiaren

eta ikerketaren ingurukoak ziren. Argibideak ematen nizkien, “nerabeen arteko harremanak” ikertzen ari nintzela esanez. Galdera asko egiten zizkidaten hasieran lanaren inguruan, une askotan nire lana oztopatzen zutela pentsatu nuen, ni bainintzen galderak egin behar zituena. Gaztetxoak ez ezik, irakasle batzuk ere hurbiltzen zitzaitzidan ikerketaren inguruan azalpenak eskatuz. Hasierako egonaldi askotan azalpenak ematen egon nintzen. Behaketek sortzen zizkidaten zalantzez gain, pasarte horiek nire frustrazioa areagotzen zuten. Denbora bat pasatu arte, ez nintzen gertakizun horien esanguraz jabetu:

“Nos percatamos también que somos observados e interrogados por los habitantes, en proceso que tiene diferentes consecuencias según los mecanismos del poder discursivo interpuestos entre nosotros y los interlocutores. Puede haber, entre ambos, juegos de máscaras y espejos, proyecciones y recuerdos (Goffman, 1981), en una búsqueda de puntos de apoyo para entablar una comunicación posible. La desconfianza es normal, pues los habitantes –maestros, padres y niños- quieren indagar más acerca de nuestras intenciones.”(Rockwelll, 2009:188)

Nahitaezkoak izan ziren nik alferrikakotzat jo nituen elkarritzeta horiek, adoleszenteen eta irakasleen konfiantza eza gainditu eta loturarik zintzoenak eratzeko. Haien arteko erlazioak aztertzen nituela esatean, gehienek “bullying” edo bazterketa kasuak aipatzen zizkidaten. Oro har, beste ikas-maila batzuetako ikasleei buruz aritzen ziren, eta bazterketa salatzen zuten, bazterzaileei buruz “*se creen muy guays*” bezalakoak esanez. Besteen jarrerak kritikatuz eta euren harremanei buruz gutxi esanda, euren erlazioen harmonia erakutsi nahi zuten. Gertakizun horiengatik ohartu nintzen diskurso “egokiak” egiten ahalegintzen zirela, nerabeen harremanen alderik onenak erakutsiz. Horren harira, Pujadasek instituzio formaletan zein bestelako erakundeetan bi bisaia egon ohi direla azpimarratzen du: egunekoa, alde garbia edo argia, eta gauekoa, iluna (2010:81). P. L. Berger eta T. Luckmannen *La construcción social de la realidad* (2006) lanean egiten dute banaketa hori, tentsioak eta gatazkak neutralizatzeko taldeen joera azaltzeko. Pujadasen arabera, alde argi horretara modu erraz batean iritsi daiteke, eta horrelaxe frogatu nuen lehenengo egonaldi horietan. Gatazketan sartzeak, aldiz, denbora gehiago eskatzen du, eta ia ezinezkoa da zuzenean sartzea, antropologoaren aburuz (Pujadas, 2010:81). Itunpeko ikastetxe erlijiosoan, hasieran batez ere, “*¿y lo estamos haciendo bien?*” edo “*¿qué nota nos pones?*” edo “*¿cuál es mejor, este*

colegio o otros?” bezalako galderakin josten ninduten. Berezitasun hori eskola horretan baino ez zen jazo, ziur asko euren hezkuntza sisteman emaitzei eta lehiakortasunari arreta handiagoa eskaintzearen ondorioz.

2.3.2.3 Antropologoaren eta nerabeen arteko talkak

Pujadasen ustez, besteen gizarte batean behaketa egitea eta parte-hartzea ez da alteritatearen azterketa hutsa soilik, ikerlariaren identitate kulturala ere interpretatzea baitakar: ikerketa prozesuan zehar norberarena eta besteena alderaketan jartzen dira (2010:88). Nahiz eta gizarte eta kultura berekoak izan, nerabeekin etnografia egiterakoan konfrontazioa egon da, baina adinari dagokiona. Haien biziipen askok barne-begirada eragin didate. Ezustean, sarritan, ikusitako zenbait ekintzak neure nerabezaroaren inguruaz pentzarazi didate nahigabe, adin horretan egiten nuenarekin alderatuz haiena. Hala ere, erkatzea ez da maila horretan soilik izan, baizik eta nire egungo errealtatearen eta nerabeenaren artekoa. Horrela, konturatzen garai horretan gertatzen diren harremanek abiadura handiagoa izan ohi dutela heldutasunean baino. Esate baterako, lotura afektibo-sexualek egunak iraun ditzakete, edota lagun arteko haserreak egun batetik bestera konpon daitezke. Horrek guztiak behaketak oso konstanteak egitera behartu ninduen, huts egitea galera handia izan zitekeelako²⁷.

Era horretara, konfrontazio horiek nire irudia kokarazi zidaten. Tokian tokiko lanean sartzerakoan esan ohi da antropologoak soinean daraman identitatea albo batera utzi eta inguruaz duena barneratzen hasten dela, baina ikerlariaren disposizio sozialek talka egingo dute hasieran, eta horri fase liminarra deitu izan zaio (Jackson, 2010; in Gessaghi, 2011:20). Adibidez, Gessaghik goi-klaseko familien espazioak bisitatzen hasi zenean, janzkera moldatzen zuela aitortzen du, berritasunak eta ezezagunak sortzen ohi duen estresagatik. Hasieran, tokian tokiko laneko erlazioetan “lekurik ez izatearen” sentsazioa nagusitzen da. Nire kasuan esan dezaket liminaritate egoera hori, hasieran ez ezik, ikerketa osoan zehar ere atzeman dudala. Eskolako espazio-denboraren baitan, subjektu liminarra izan naizela uste dut: nerabeekin izandako loturak eskolako

²⁷ Horren harira aipatu beharra daukat, opor garaietatik edo Zubietatik bueltan, nerabeekiko harremana askoz hotzagoa izaten zela, lotura maila batean galtzen baitzen.

hierarkiarekin hautsi baitu. Victor Turnerren (1980) kontzeptua modu malguan harturik, eta tokian tokiko lanaren eraketa prozesua errituekin parekatuz, ez alde batekoa ez bestekoa ez dena da liminarra, baina aldi berean bietan dagoena (1980:110). Turnerek dio pertsona liminarrak egituraren barnean oraindik sailkatu gabe daudela, baina, aldi berean, sailkatzeko daude; horregatik, zehatzezintzat jotzen ditu (*ibidem*:106). Zentzu horri helduz, nire izaera anbiguoa edo liminarra izan da, ikasleentzat irudi berria izan da-eta. Lehenengo egonaldieta galderaz josten ninduten eta ni antropologoaren lana argitzen saiatzen nintzen, baina horrek nire irudi anbiguoa indartu baino ez zuen egiten.

Bestela esanda, ni heldua izan arren, ez nuen irakasleen ezta gurasoek izan dezaketen irudi autoritarioa. Hori guztia abantaila nabarmena izan da, batez ere, amodio-kontuei buruz hitz egiteko. Behin ikasle batek esan zidan nahiago zuela nirekin hitz egin eskolako psikologoarekin baino. Ikusi izan dudan bezala, maitasunari eta sexualitateari buruz helduekin (guraso eta irakasleekin, batik bat) aritzeko zaittasun eta oztopo ugari dituzte, beraiek jakin badakite zein diskurso mota dagokien eta hori da helduen aurrean erakusten dutena. Euren artean, berriz, askatasun handiagoarekin mintzatzen dira. Diskurso bikoitz horretaz jabetu ahal izateko abagunea eman dit anbiguotasunak. Nik neuk liminaritate horretan mantentzeko ahaleginak egin ditut, eta horrek konfiantzazko loturarik sendoenak sortzeko aukera eman dit. Segurtasun hori ezinbestekoa izan da nerabeen maitasun biziainen iristeko.

Hasierako egunetan, nahiz eta gerora gaztetxo batzuen aldetik behaketa prozesu osoan zehar luzatu, itunpeko ikastetxe erlijiosoan, adiskideen arteko tonuan “Espioia” deitzen zidaten. “*¿Qué tal espia?*” edo “*Aquí viene la espía*” bezalako esapideak erabiltzen zituzten. Barrett antropoloak adierazten duenez (1974, in Hammersley eta Atkinson, 1994:94), antropoloak susmagarriak izan ohi dira, batez ere hasieran, gobernuetako espioitzat, inspektore fiskaltzat edota poliziaren zelataritzat hartu izan dira. Horrelako zurrumurruetan inguratu izan ohi dituzte antropoloak. Nire kasuan, jakin bazekiten zein zen nire lana. Hala ere, Rockwellek dioen bezala (2009:187), sarritan ikerketa bera polizia-ekintzakin parekatu zitekeen etengabeko galderengatik. Behaketa egiteak ni neu galdetsu lotsabako bihurtu ninduela esan dezaket. Egonaldieta dena galdezko joera, nire bizitzako hainbat esparrutara eraman nuen oharkabeen, horretaz jakitun izan nintzen arte.

Lan etnografikoaren argibideak etengabeak izan baziren ere, batzuetan guztiengana ez nintzela iristen konturatu nintzen, batez ere ikerketan modu zuzenean parte hartzen ez zuten nerabeengana iristen ez nintzela. Behin, kaletik institutuko ikasle batzuekin gurutzatu nintzen, eta bere lagunei esan zieten “*es la profesora de sexología*”. Frustrazioa sentitu nuen, eta nire argibideak nahikoak ote ziren galdezera eraman ninduen. Beste behin, institutuan behaketa ordua aldatu eta gero, akatsak akats, zaintzaileek ez zekiten tokiko lana egiten ari nintzenik. Egunak eman nituen, inork ezer esan gabe, dena ongi zohoan ustearekin. Egun batean, zaintzaile bat aztoraturik hurbildu zitzaidan ikasleei nigatik galdetu zielako, eta zera erantzun zutelako “*Sí, la conocemos, es una chica que viene aquí y nos pregunta por nuestra vida, qué nos gusta, que hacemos y así. Pero lo que más le interesa es si tenemos novios y esas cosas de amor. Es muy maja.*”. Zaintzaileak esandakoak entzunda, iztu egin zen arrotza nintzelakoan. Inork ez baitzuen nire presentziaren berri eman. Azalpenak eman eta barkamena eskatu nion egondako huts egiteagatik.

2.3.2.4 Tokiko lana baldintzapeko eremua: genero tentsioak, konplizitatea, gatazkak eta negoziazioak

Tokian tokiko laneko harremanek antropologoaren ikasketa prozesua bideratu dute. Izan ere, subjektuengana hurbiltzeak hausnarketak piztu ditu, ikerketarako estrategiak gainjarri. Horregatik, tentsio, konplizitate, gatazka eta negoziazio uneak ugariak izan dira behaketa parte-hartzalean, Díaz Rada eta Velascok aipatzen dutenez:

El modelo de situación teatral, la simulación dramática que menciona Griaule, es un apunte de singularidad metodológica que consiste en instrumentalizar las relaciones sociales con un objetivo de conocimiento. La implicación del propio investigador, su asimilación al método, es ineludible. No es posible instrumentalizar las relaciones sociales sin implicarse en ellas. La situación se configura como una tensión de proximidad y distancia, de empatía y extrañamiento, que se mueve de la observación a la participación, del cuestionario a la charla íntima, de la pregunta a la respuesta. En esa tensión, y como modo básico de

aproximación al campo, se encuentra la observación participante.”(Velasco eta Díaz de Rada, 2006:24)

Horren adibide da ikasleen jolas garaian behaketa parte-hartzalea egitearen ondoriozko tentsioa. Esan bezala, gune horiek ez dira neutroak. Nesken eta mutilen arteko espazioaren erabilera desberdinak baldintzatu dute antropologoaren lana. Salbuespenak salbuespen, neskek hitz egitekoa joera duten bitartean, mutilek kirolean aritzeko joera dute. Horrela, askoz errazagoa izan da hizketaldi informalak neskekin izatea, mutilekin baino. Hasieran, neskekin isiltasun uneak nagusi baziren ere, denbora pasa ahala normaltasunarekin hartu ninduten. Aitortzen dut nik neuk neska nerabeen kodeak modu errazagoan maneiatzan nituela, emakume bezala sozializatu izanaren ondorioz. Adibidez, institutuko nesken kasuan, hainbat atsedenalditan ikastetxeko gela batean dantzatzen egoten ziren²⁸. Dantzaek ere solasaldi informalak oztopatzen zituen. Hala ere, ezingo nituzke maila berean jarri dantzaldi horiek eta mutilen arteko kirola. Neskekin hizketan hasten nintzenean, entsegu eteteko eta arreta eskaintzeko gai ziren, ziur asko mutilek baino atsegin handiagoz hitz egiten dutelako amodio-kontuen inguruan.

Mutilen kirol-praktiketara hurbiltzeko ahaleginak ere egin nituen, baina testuinguru horietan solasaldiak eskasak zirela ohartu nintzen, gehienak jokoaren ingurukoak edo bat-bateko hizketaldi laburrak izaten ziren-eta. Mutilekin izandako hutsune hori adierazgarria da berez; izan ere, praktika horiek agerian uzten dute mutilen artean gutxiago hitz egiten dela, hau da, bizitzaren inguruan gutxiago hausnartzen dutela, hala nola, maitasunaren inguruan. Horregatik, mutilei dagokienez, elkarritzetan eta eztabaidea taldeetan agertutakoaz baliatu behar izan naiz batik bat. Hala ere, ez dut esan nahi beti horrela gertatu denik. Institutuan, esate baterako, errepikatzailak ziren mutil talde batekin harreman estua izan nuen. Nerabe horiek “makarra” fama zuten eskolan, ikasle txarrak izateagatik eta hainbat gatazkatan parte hartzeagatik. Mutil horiekin konfiantza sortzeko, erretzea edo edatea bezalako gaien inguruan izaten nituen elkarritzetak, normaltasunez hitz egiten nien inolako jarrera moralistarik gabe. Egun batean, erretzearen inguruan ari ginela, irakasle bat gerturatu zen eta ni isildu egin nintzen eta gaia aldatu, mutil horiei konplizitate keinua eginez. Gertakizun horren

²⁸ Adin horri zuzenduta dagoen eskola arteko lehiaketa batean parte hartza zen dantzan egoteko arrazoia. Ikasmaila honetako bi geletako neskek hartzen zuten parte eta euren arteko lehia erabateko zen. Horrek gatazka ugari eta haserre nabarmenak piztu zituen nesken artean. Tentsioak oso esanguratsuak izan zirenez, zentroak hurrengo ikasturtean lehiaketan parte hartza debekatu zien.

bitartez, beraien konfiantza irabazi nuen. Irakasleek gazte horiekin zuten erlazio gatazkatsuengatik, erabat harritu ziren ni talde horretan onartu izanarekin. Nire izaera ez-autoritarioa baiezttatzeko balio izan zidan.

Behaketan denbora gehiago igaro ahala, begirada aldatuz joan zitzaidan. Nerabeen harrera aldatuz joan zen eta ni neu, antropologoa, subjektuen egunerokotasunaren parte izatera iritsi nintzen. Nire presentzia ez zen arrotza, eta gaztetxo batzuekin lotura estua garatu nuen. Iza ere, egonaldietan egoteko lagun talde zehatzak aukeratu nituen, euren harremanetan sakondu ahal izateko. Estrategia hori beharrezkoa izan zen, batik bat, ikasle kopuru handia zuten zentroetan. Guztiengana iristea ezinezkotzat jo nuen, eta harrerarik hoherena egin eta informazio gehien helarazten zidatenekin egotea erabaki nuen. Haien dinamikak ezagutu nituen (hitz egiteko gaiak, kezkak, gertatutakariak, haserreak...), eta logika horretan parte hartzen ahalegindu nintzen. Edozer izan zitekeen elkarritzetarako gaia: etxerako lanak, azterketak, pelikulak, asteburuetako planak, gatazkak... Apurka-apurka, nerabeen munduan barreiatzen joan nintzen. Horrela, konfiantzazko eta enpatiazko loturak eraiki ziren gaztetxo horiekin, eta hori behaketa parte-hartzailari esker izan zen:

“La observación participante connota por un lado relaciones igualitarias, en las que la información se intercambia a modo de comentario a los acontecimientos que se viven simultáneamente; connota asimismo el aprendizaje de las reglas de comunicación de un grupo –incluido el aprendizaje del sentido de oportunidad a la hora de hacer preguntas- y el seguimiento de las reglas; además un cierto grado de empatía, de forma que la información obtenida como prueba de confianza, como un don, no como algo obligado”(Velasco eta Díaz de Rada, 2006:25)

Behaketa parte-hartzaila zentzua hartzen joan zen egonaren egonaz. Horri esker, euren kodeez jabetzen joan nintzen, eta lehenengo eguneko ezbaiak eta krisiak gainditzen hasi. Kezka nagusietako bat maitasuna ezin ikustea baldin bazen, begirada aldatzean argitu ziren duda-mudak. Aipatutako konfiantza lortu ezean, amodioa bezalako gai batera iristea oso zaila izango zatekeen. Horrela, gerora azalduko ditudan elkarritzeta sakon mamitsuenek testuinguru horretan eratutako lotura estuenekin bat egiten dute. Horrez gain, gaztetxoen maitasuna objektuen bitartez gauzatzeko joeraz ohartu nintzen, ikergaiaren lanketarako gako bihurtu dena. Hasieran, sentimenduen abstrakzioak itsutu

baninduen ere, denboraren poderioz konturatu nintzen amodioa nerabeen gorputzetan txertatzeko bideak daudela, ikerketa honetako bigarren kapituluan azaltzen den bezala. Nesken gorputzetako zenbait inskripzio, eskumutur eta bestelako markak maitasunaren seinale ziren. Ikur horien bidez hainbat bizipenetara iristeko aukera izan nuen. Horregatik, gorputzek garrantzia nabarmena hartu zuten, behaketa gune esanguratsu bihurtuz. Izan ere, diskurtsoetatik harago, maitasunak gorputza hartzen baitu, besteak beste, marka horien bidez. Amodioa ikusteko beste modu bat nerabeen jarrerei erreparatzean zetzan. Noizbehinka gertatzen zen: neska eta mutil lagun-taldeak nahasita eta ezohiko multzo handian zen, zerbait berezia gertatzen ari zelako adierazle. Saltoek eta oihuek urduritasuna agerian jartzen zuten. Horrelako jarrerak euren arteko gatazken edo bikote harreman afektibo-sexualen kudeaketaren seinale ziren. Nik “saltseoa” zegoela esaten nuen.

Nerabeekiko konplizitate uneak ugariak izan dira, baita tentsiozkoak ere. Neska-mutilekin laguntasuna izan dut, baina euren ereduan: abiadura nabarmeneko eta aldakortasun eta bizitasun handiko erlazioak izan dira. Horrela, konplizitate lotura sendoak bizi izan ditut, adibidez patioetara iritsi eta *“Irantz, kontatu behar dizugu zer gertatu den”* esanez hurbiltzen zitzaitzidaneko egunak. Modu berean, beste batzuetaan bazterketa jarrerak pairatu ditut: talde batetara hurbildu eta aitzakiak aitzakia banan-banan alde egin, edo zuzenean *“vete con esas”*²⁹ bezalakoak entzun. Une horietan euren espazioa inbaditzen ari nintzen sentsazioa areagotzen zitzaidan, azken batean jolas-orduak atsedenerako baitira. Pozgarriak bezain atsekabeak ere izan dira, beraz, egoera horiek. Aipatutako jarrerak aurreikusi ahal nituen, izan ere, gaztetxoen begiradek eta gorputz jarrerek hitz egiten zidaten, edota isiltasuna bera izan zitekeen zerbaiten seinale. Horren harira, behin gertakizun adierazgarria jazo zen. Catalina ikastetxe erlijiosoko hamabi urteko neska garai batean konfidente handia izan nuen. Egun batetik bestera nigandik urrunduz joan zen. Galdetu nion ea zer gertatzen zen, zertara zetorren urrunzte hori. Aitortu zidan zurrumurruak zeudela. Niri sekretuak kontatuz gero, nik liburu batean argitaratuko nituela; horregatik, eta lagunen presiogatik, ni informatzeari utzi zion. Txutxu-mutxu horien edukiak ukatu nizkion eta hortik aurrera gure erlazioak hobera egin zuen, nahiz eta ez zen hasieran bezalakoa izan. Zentzu horretan, egonaldietañ etengabeko negoziazioa egon da, gatazkaz beteriko uneak izan baitira:

²⁹ Horrelako hain ageriko esapideak goi-klaseko nerabeek adierazten zituzten, horiengandik jaso ditut errespetu faltarik gehienak. Hala ere, jarrera horiek ezin dira orokortu, gaztetxo horiekin sortutako konplizitateak babesia ematen zidan *“¡oye a la espia ni media!”* bezalakoekin.

“En ese sentido, sostengo que el campo no es un contrato que se establece con los sujetos de una vez y para siempre. Al contrario, creo que es necesario entender las relaciones en el terreno como conflictivas, negociadas continuamente, fluctuantes y dinámicas. Es por eso que – discutiendo con los estudios que pregonan las dificultades de investigar cuando el antropólogo se encuentra en la posición subalterna- en mi experiencia de mi investigación esa subalternidad fue constantemente negociada y no siempre fue tal.” (Gessaghi, 2011: 20)

Gessaghiren ustez, etengabeko gatazka bezala ulertu beharra dago tokian tokiko lana (ibidem:21), botere-harremanen negoziazioa etengabea delako. Behaketa parte-hartzailean, patioetara sarbidea lortzeko hasi zen negoziazioa, eta jolasketetan jarraitu zuen (aurretik aipatu diren gaztetxoen galderak, esate baterako). Batetik, negoziazioei dagokienez, konfiantzazko loturak aurrera joan ahala, nire bizitza pribatuaren inguruko galderak egiten hasi zitzaitzidan, “*Ba al duzu bikotekiderik?*” edo “*zu lagunekin haserretzen zara gu bezala?*”. Lagun artean, konfiantzagatik, elkarri informazioa ematea da ohikoena eta horren arabera jokatzen zuten nirekin ere: “*Ez da justua gure gauzak kontatzea eta zuk ezer ez kontatzea*”. Nik galderei zintzotasunez erantzuten nien, baina gaia desbideratzen ahalegintzen nintzen. Behin nerabe batek zoriondu ninduen oso integratuta ikusten ninduelako, oso adin zailean zeudela esan zidan. Bestetik, gertatutako gatazken eite batzuk azpimarratuko nituzke. Esaterako, emakume izateak baldintzatu nau, mutil gazteek noiz edo noiz ni menderatutzat hartu bainaute. Adibide bat ematearren, mutil bati elkarritzeta egitea proposatu nionean, lagunek mehatxatu ninduten mutil horrekin bakarrik geldituz gero ni bortxatuko ninduela esanez. Beste behin, “*zorra pelirroja*” entzun nuen, eskailerak igotzen nituen bitartean.

2.3.2.5 Sare sozialetan behaketa parte-hartzailea

Behaketa parte-hartzailean ikusi ahal izan nuenez, nerabeen eguneroko bizitzetan gero eta presentzia nabarmenagoa dute sare-sozialek eta teknologia berrieik. Egun, ordenagailuak, tabletak, telefonoak, argazki kamerak eta abar luze bat haien egunerokotasunaren parte dira. Horien bitartez, jarduerak eta harreman-motak

eraldatzen dira. Horrek guztiak erronka berriak ekartzen ditu antropologikoki. Behaketa parte-hartzailea egiten ari nintzen bitartean, esate baterako, zenbait gaztetzok telefonoa eskuan izaten zuten³⁰, beste ikastetxe batzuetakoekin komunikatzeko. Nire aurrean elkarrekintzan ari ziren, baina antropoloarentzat modu ikusezinean ari zen gauzatzen. Esandako guztiagatik, etnografia eremu birtualera ere luzatzea erabaki nuen. Eremu hori ikertu duten hainbat lan etnografiko dago, Adolfo Estalella (2011a) antropoloagoak azaltzen duenez:

“En uno de los primeros trabajos que identifica a Internet como un ámbito de interés para la antropología, Arturo Escobar lanza un ‘Bienvenidos a ciberia’ (1994), con el que señala un nuevo espacio metafórico que para el antropólogo colombiano está constituido por dos conjuntos de tecnologías que en ese momento se encuentran en pleno desarrollo y extensión: Internet y las biotecnologías (...) Las propuestas que desde entonces se suceden a través de nociones como ciberantropología (Budka y Kremser, 2004), ciberetnografía (Kuntsman, 2004), etnografía virtual (Hine, 2000) o antropología digital, son todas ellas respuestas más o menos medidas a las tensiones metodológicas a las que estos investigadores se enfrentan, entre ellas la imposibilidad o limitación de co-presencia física en el campo, la dificultad del acceso a los informantes o la completa dislocación geográfica del campo.” (Estalella, 2011a:36)

Estalellaren (2011a) aburuz, mende aldaketarekin Interneten egindako etnografia kopurua areagotu egin da. Lan horiek guztiekin ikerkuntzarako marko aparta eratzen badute ere, “second life” edo blogen erabilerei buruz egin izan dira gehienbat. Hala ere, esan beharra dago arlo berritzailea dela eta urte gutxiren buruan hainbat azterketa egin direla. Horien artean, aipatzekoa da, ikerlan honekin duen gertutasunagatik, Ianire Estebanezek eta Norma Vazquezek Euskal Autonomia Erkidegoan egindako *Genero desberdintasuna eta sexismoa gizarte-sareetan* (2013) lana, 15 eta 29 urte bitarteko gazteekin buruturiko ikerlana. Tokiko lana elkarrizketen eta eztabaidea-taldeen bitartez egin da eta bertan egileek ondorioztatu dute genero desberdintasuna eta indarkeria matxista sare sozialetan ere gertatzen direla (2013:7).

³⁰ Esan beharra dago ikerketako ikastetxe guztietañ atsedenaldietan telefonoen erabilera debekatuta zegoela.

Atsedenaldietan nerabe askok galdetu zidaten ea *Tuenti* nuen. *Tuenti* adoleszenteei zuzendutako sare-soziala da, eta Spainiar Estatuko enpresa batek eratu duenez, horren erabilera estatu mailakoa da gehienbat. *Tuenti*³¹ “Tu Entidad” izenaren laburpena da, era berean, hitz jokoa egiten du ingeleseko “twenty”, “hogei”, berbarekin. Horrela, hogei urte ingurukoei zuzenduta egotearen itxura du, nahiz eta erabiltzaile gehienak hogei urte baino gazteagoak diren. Ikerketako gaztetxo gehienak *tuenti* erabiltzaileak ziren.

Sare sozial horren erabiltzaileek elkarrekin komunikatzeko aukera dute: mezuak bidaliz, argazkiak eskegiz edota bakoitzaren blogean oharak idatziz. Beste sare-sozial batzuen antzera, kide bakoitzak gainerako erabiltzaileekin “kontaktuak” sortzeko aukera du, beraiekin komunikatu ahal izateko. Adierazgarria da sare horretan, beste batzuetan gertatu ohi den bezala, kontaktuak “Lagunak” izendatzea. Nerabe bakoitzaren *Tuentian* kontaktuen kopurua agertzen da, eta arrakastaren seinaletzat hartzen dute kopuru handia izatea, nahiz eta ez duen esan nahi benetan lagunak direnik.

Ikerketako nerabeek animatu ninduten *Tuenti* kontu bat zabaltzen, “*Hazte que está muy guay. Puedes hablar con la gente y además se liga mucho*”. Euretariko asko, asteburuko aisialdian, Bilboko merkataritza zentro batera joaten ziren gaztetxo ezezagunei *Tuentiko* helbidea eskatzera, eremu birtualean beraiekin harremana izaten hasteko. Gazteen erlazioetan duen pisua kontuan izanda, behaketa parte-hartzalea eremu birtualera eramateko ahalegina egin nuen. Izan ere, sarritan, sare sozial horretan

³¹ Tuentia zertan datzan jakiteko, ikus dezagun Estebanez eta Vazquezek (2013) egindako ikerketan azaldu dutena: “*Tuenti 2006an sorturiko giza-sare espainiarra da, 14 milioi erabiltzaile baino gehiago dituena. 2011 arte sare pribatua zen eta bertan sartzeko aukera bakarra Tuentiren erabiltzaileren batek bidalitako gonbita zen. Baina ordutik bertan izena ematea irekia da, baldintza batekin, gutxienez 14 urte izatea (erabiltzaile askok betetzen ez dutena). Sare honetan erabiltzaileak profila izendatutako bere orrialde pertsonala sortzen du. Bertan argazki bat atxiki eta argibide pertsonalak eransten ditu (esaterako urtebetetzea eguna, bizilekuak, ikaslekuak edo lanlekua, irteten den lekuak, norbere gustuak edota aipuak, aldarte-egoera); argazkiak eta mezuak igo ditzake eta lagunak bere profilean sar ditzake. Hauexek dira Tuentiren atal nagusiak: -“Nire Lagunak”: sare sozialean gehitu ditugun kontaktuak, ezagunak eta lagunak dira. Laguna izan ahal izateko beharrezko da norbaitek adiskidetasuna-eskarria bidaltzea eta onartzea. –“Arbela”: Norberaren egoera eguneratzen den eta lagunen iruzkina jasotzeko balio duen txokoa da. Egoera “zer egiten ari zara?” galderari erantzuten dion iruzkina da, nahiz eta iruzkin horretan egiten ari dena, pentsatzen ari dena, beste norbaiti eskainitako mezu bat, aipu bat, sentimendu bat, eta abar jar daitezkeen. (...)– “Argazkiak”: Hauxe da giza-sare honen erabilera nagusia. Argazkiak igotzea eta beste batzuen argazkiak “etiketatzea” jokabide arrunta eta usua da. Argazki bat igotzean pertsona horren kontaktu guztiekin ikus dezakete. Norbait etiketatzeak esan nahi du argazki hori beste norbaiten izenarekin lotzea (...). –“Egoera sentimentalala”: Profilean eskaintzen diren bi aukeren arabera hautatzen da: Egoera eta Bila ari naiz. Egoerak eskaintzen dituen aukeren artean ditugu: Ezkongabea, Norbaitekin, Jostalaguna dut, Ezkon-hitza emanda, Ez agertu. (...) –“Mezu pribatuak eta txata”: Mezu pribatuak eta txatak aukera ematen dute profilean txertatutako lagunekin berehalako hizketaldi pribatuak izateko.”(2013:19)*

gertatutakoeng inguruak izaten ziren atsedenaldiako hizketaldiak, bertan izandako solasaldiak, igotako argazkiak... Ikerlan honetan egindako etnografia birtuala modu oso irekian egin da; halaber, behaketa parte-hartzailearen luzapena baino ez da izan. *Tuenti* egin eta hurrengo egunetan ikerketako hainbat gazteren “lagun” egin nintzen. Guztira, 50 lagun inguru lortu nituen.

Prozesu horrek hainbat zalantza etiko sortu zizkidan. Izan ere, egindako elkarrizketeta guztiarako gurasoen baimena banuen, sareko harreman horiek zilegitasunez nola eratu izan zen erronka nagusia. Maila etikoari dagokionez, Estalellaren (2011b) iritziz, eztabaidea etiko zabal baten aurrean uzten gaitu sare sozialetako informazioa kudeatzeko moduak:

“El acceso a una parte considerable de la vida de esas personas era fácil e inmediato, algunos dirían que era material público. Sin embargo, experimentaba una notable incertidumbre sobre la legitimidad de registrar ese material sin solicitar consentimiento a sus autores. La cuestión sobre qué es privado en Internet y qué es público (y por lo tanto no necesita del consentimiento de los implicados para que el antropólogo lo registre) ha suscitado, y sigue suscitando, intensos debates en el contexto de la ética de la investigación en Internet. Aunque algunos autores han equiparado accesibilidad (no tener contraseñas) con carácter público (Walther, 2002), Maria Bakardjieva y Andrew Feenberg (2001) han señalado que muchos individuos consideran que la naturaleza accesible de los registros de sus interacciones o de los documentos publicados no implica que puedan ser usados libremente por cualquiera.” (Estalella, 2011b:95)

Tuentiko nire kontaktu guztiekin ikertzale bezala ezagutzen ninduten. Hala ere, gurasoei beste zirkular bat bidali zitzaien eskolen bitartez, horren gainean informatuz. (ikus V. eranskina: *Nerabeei helarazitako sare sozialetarako baimen agiria*). Horrela, behaketa sarean egiten hasi nintzen. Astero birritan gutxienez, Tuenti kontuan sartu eta iruzkinak eta argazkiak ikusten nituen eta beraiekin txateatzen nuen. Ikerketa ildo horrek beste teknika batzuk osatzen lagundi zidan, hasiera batean horretan pentsatu ez banuen ere. Alabaina, horren bitartez hainbat gatazka eta erlazioren berri izan nuen, aurrez aurreko egonaldietan ikusezinak zirenak.

Metodologikoki, bi ildo nagusi zehaztu ziren Tuentiren eta maitasunaren arteko lotura aztertzeko: batetik, elkarritzeta sakonetako gidoian landu, tarte berezia eskainiz hainbat galderari³² eta, bestetik, etnografia birtuala egiteko ahalegina egin zen. Horretarako, “Espazio pertsonalean” eta “Arbelan”³³ jarritako esaldi eta edukien analisia egin zen. Izan ere, gune horietan idatzitakoak normalean bikotekideari edo lagun onenari zuzenduta daude. Horregatik, hortik hartu zen ikerketa lagina³⁴: hamabi gaztetxoek ikasturtean zehar Tuenti-etako “Espazio pertsonalean” eta “Egoeretan” jarritako esaldien analisia³⁵. Analisia modu egokian burutzeko, datuak antolatu nituen: azken bi urteetako “Espazio pertsonalean” eta “Egoeretan” adierazitako esaldiak aztertuz. Hala ere, zenbaitengana ezin izan nintzen iritsi, izan ere, guraso askok ez zekiten euren seme-alabek Tuenti erabiltzen zutenik, eta horrek metodologia oztopoa ekarri zuen.

Maitasuna espazio horietan aztertzea posiblea ote zen izan zen hurrengo zalantza, hau da, hor agertzen diren esaldiek benetan amodia adierazten duten ala sistematikoak diren, Estatu Batuetako *I love you* esapidearen erabilera ondorio, besterik ez. Horrek hausnarketa sakona eragin zidan, baina denborarekin horrekin aurrera egitea erabaki nuen. Alde batetik, elkarritzeta sakonetan ikusi ahal izan nuen bezala maitasun-adierazpen horiek ez ziren hain sistematikoak, genero arauek baldintzatuta baitzeuden. Maitasun-adierazpen horiek nesken artean edo neska eta mutilen artean erabiltzen ziren, mutil-mutil harremanean horiek erabiltzea ukatzen zuten bitartean. Beste aldetik, argazki iruzkinetan, hormakoetan, profiletan eta egoera pertsonalean³⁶ idatzitakoek sentimendu horrekin zerikusia zutela ikusi nuen.³⁷

³² Galderak hauek izan dira: *Zenbat denbora ematen duzu Tuentian? Zertarako erabiltzen duzu? Zein sentimendu adierazteko balio du? Horma orrian zeren inguruan idazten duzu? Zuk zer sentitzen duzu erabiltzean? Adiskidetasuna eraikitzeko baliagarria al da? Eta bikote harremanak? Noiz eskegitzen dira argazkiak? Zeren ingurukoak izaten dira? Argazkietan nolakoak dira gorputz jarrerak (profilaren argazkia eta beste argazkien arteko aldeak)? Zer adierazi nahi duzu? Zertarako?, Norekin hitz egiten duzu txatean? Zertarako? Nerabe guztiak berdin erabiltzen duzue Tuenti? Nesken eta mutilen Tuenti berdinak dira? Zein ezberdintasun dago?*

³³ Horiek biak gazteleraezko “Espacio Personal” eta “Estado” guneak dira.

³⁴ Tuentiko ikerketa bide hori diseinatzeko Jone Miren Hernández antropologoaren laguntza izan nuen.

³⁵ Horiei gurasoen baimena eta sinadura modu zuzenagoan eskatu nien.

³⁶ Lau esparru hauek jarri ditut, txateko solasaldi pribatuera ezin naizelako iritsi. Horren inguruan elkarritzeta sakonetan eta talde eztabaideetan aztertzea erabaki dut.

³⁷ Horretara ere eraman ninduen Soziolinguistika Klusterrak egindako lan honek: *Nerabeak, Interneteko sare sozialak eta euskara* (2011). Nahiz eta bertako analisi esparrua euskararen erabilpena izan, “hormako testuen” analisia gaika sailkaturik agertzen da, eta “maitasuna” horietako esparru bat zen.

2.3.2.6 Aisialdi guneetan behaketa parte-hartzalea

Eskolan egindako tokian tokiko lana nahiko aurreratuta neramala, ikerketako nerabeek parte-hartzen zuten beste eremu batzuetara joateko erabakia hartu genuen: institutu publikoko ikasleak joaten ziren parkea, Bilboko merkataritza zentro bat eta Gazte-gune bat. Nahiz eta esparru publikoan behaketa egitea itxuraz errazagoa izan beharko litzatekeen (publikoa den heinean, bertara sartzeko oztoporik ez baitago), ez du zertan horrela izan. Toki askotan antropologoaren *presentzia* arazoa izan ez arren, *ikertzen* egotea gatazkatsua izan daiteke (Hammersley eta Atkinson, 1994:71).

Aipatutako parkea ikerketako institutu publikotik gertu dago. Larunbat arratsaldeetan parkea gaztetxoen aisialdi eremu bilakatzen da, hainbat eskolatokoak bertara gerturatzentz baitira alkohola edatera, baita institutukoak ere (elkarritzetan askotan aipatu da). Horrez gain, parkea gertakizun askoren kokagunea zen: harreman afektibo-sexualak hasteko tokia, ligatzeko espazioa, jende berria ezagutzeko eremua, lagunen arteko gatazka askoren sorlekua... Zenbait neraberentzat funtsezkoa zen espazio hori. Halaber, eremu horretan behaketa egitea ez da erraza. Izan ere, alkohola edaten egoten dira, hau da, legez kanpoko jarduera bat egiten. Ni beraiekin egonez gero, adin nagusikoa izanik, nire ardura pean egongo lirateke. Horrez gain, normalean gurasoek ez dakite euren seme-alaben praktika ez-zilegi horien inguruan. Ez nuen nahi euren ekintzak justifikatzeko ni erabili nintzaten, hau da, ez nuen nahi gurasoengana “*Irantzurekin egon gara litroak edaten*” bezalakoekin joatea. Horregatik, behaketa hori kasualitatezkoa izatea irudikatu nahi izan nuen.

Larunbat bateko arratsaldeko bost eta erdiak aldera, lagun batekin eta haren txakurrarekin hurbildu nintzen parkera. Behaketa egiten hastean gaizki sentitu nintzen, nerabeen espazioa inbaditzen ari nintzen sentsazioa bainuen, zapore gozo-gazia eragin zidan. Gaztetxoak, ni ikustean, hurbildu egin zitzaidan. Batez ere, nesken gorputz eraldaketa ikusteko aukera izan nuen. Eskolan ez bezala, neskak makilatuta zeuden eta janzkera oso zainduta zuten. Horrez gain, gehienek ilea leundurik zeramatzen edo orrazkera bereziekin. Oso deigarria zen gorputzen transformazioa. Nire laguna aurrean izanik, lotsatu egin ziren, eta beste batzuetan baino isilago zeuden, hasieran batez ere.

Parketik arratsaldeko zortziak aldera alde egiterakoan, haien ondotik pasa ginen eta orduan, ziur asko alkoholaren eraginez, gehiago hitz egin zidaten.

Bigarren espazio publikoa Bilboko merkataritza-gune bat izan zen. Ikerketako askoren kontakizunetan azaltzen zen espazio hori. Hor ere behaketa inprobisatua balitz bezala egin nuen. Larunbat arratsalde batean, bakarrik gerturatutu nintzen zentrora. Bertako txoko guztiak zeharkatu nituen, ikerketako edonor aurkitu nahian. Espazio horretan bila aritzeak toki horretako pertsonen mugimenduen abiaduraz jabetzera eraman ninduen. Nerabe ugari zegoen, eta, horien artean, institutu publikoko bi neska aurkitu nituen. Oso harrera ona egin zidaten, beraiekin eseri nintzen eta harreman afektibo-sexualen inguruan eskolan baino askoz lasaitasun handiagoarekin aritu ziren. Beraien auzoko mutil bat gustuko zutela esan zidaten, eta berarekin geratuta zeudela. Beraiekin joateko proposatu zidaten, nik baiezko biribila emanez, jakina. Merkataritza zentrotik beraien auzoko parkera joan ginen, gustuko mutilaren lagun taldearekin biltzera. Inprobisazioz eta ausaz egindako behaketa horrek abagune bikaina eskaini zidan gaztetxoen erlazioei erreparatu ahal izateko.

Hirugarren eremua institutu publikoko mutil asko joaten ziren Gazte-gunea da. Gazte-guneak udalak 12 eta 17 urte bitarteko adoleszenteei zuzendutako espazioak dira. Bertan, aisialdirako hainbat aukera dituzte: musika entzutea, billarrean jokatzea, teknologia berrien erabilera... Esku-hartze soziokulturala egiten duten elkarteeek kudeatzen dituzte gune horiek. Horregatik, bertan begiraleak egoten dira aisialdia bideratzeko. Eremu publikoa izan arren, bertara sartzeko baimena eskatu nion elkarteari. Elkarteak ez zidan baimenik eman, nerabeak adin txikikoak zirelako aitzakiarekin. Horrek behaketa galarazi zidan.

2.3.3 *Elkarritzeta etnografiko sakonak*

Nerabeen biziainen modu zuzenagoan iristeko asmoz, elkarritzeta sakonak ere burutu ditut. Behaketa parte-hartzaileak testuingurua eman badio ikerlanari, elkarritzetek mamia jarri diote. Gaietan sakontzeko baliagarriak izan dira, informatzaileen ulermenean, jarreretan, pertzepzioetan eta balorazioetan barrentzeko

aukera emanez (Roca, 2010:89). Solasaldietan erreflexibotasuna bilatu da, eta horretarako, gaztetxoen iritziaz gain, esperientziak eta bizipenak gakoak izan dira beraien perspektibak kokatzeko. Gainera, maitasuna intimitatearen ideiarekin lotuta dagoen heinean, amodioaz hitz egiteko testuinguru intimo baten beharra nabarmendu da, pertsona gutxi batzuen artekoak; elkarritzketek eskaintzen zutena, azken batean.

Lehenengo elkarritzketak 2011ko ekainean hasi nituen, saiakera moduan, sei. Horrela, gidoia frogatzeko aukera izan nuen eta ateratako ondorioekin gidoia berregituratzeko aukera izan nuen. Gainerakoak 2011-2012ko ikasturtean zehar egin ziren. Guztira, 34 elkarritzeta egin dira, horietako 32 nerabeekin, eta 2 irakasleekin. Guztiak ikastetxeen baitan egin dira, zentroek utzitako espazioetan. Iraupenei dagokienez, hiru ordukoa izan da luzeena, eta ordubete eta hamar minutuko laburrena. Eskolako denboraren barnean egin direnez, ordutegiak baldintzatuta egon dira. Horregatik, luzeenak bi edo hiru saiotan egin behar izan ditut.

2.3.3.1. *Gidoiaren diseinua*

Elkarritzketak egituratutakoak izan dira, nahiz eta malgutasunez jokatzeko ahalegina egin den. Helburuetan eta hipotesietan oinarritutako gidoi-diseinua egin zen. Hasierako seietan, gidoiaren edukiak mantendu ziren, baina elkarritzeta batzuetan ordena aldatu egin zen, bide egokiena bilatzeko asmoz. Horietako bitan, ordena aldatu zen, maitasunaren gaia solasaldiaren hasieran eta erdialdean jarri. Hobeto funtzionatu zuen gai orokorragoekin hasteak eta gero amodioan zentratzeak, zuzenean gaiarekin hasteak baino. Lehenengo seiak burutu ondoren, behin betiko gidoia diseinatu zen.

Gidoia gai nagusika antolatuta egon da, eta gero azpigaietan sakontzeko hainbat galdera gehitu dira. Landutako gai nagusiak ondorengoak izan dira:

- Norberaren aurkezpena.
- Egunerokotasuna (gustuak, jarduerak...).
- Eskola (ikasleekiko erlazioak, gatazkak...).
- Aisialdia (praktikak lagunekin, familiarekin...).
- Familia (loturak, ereduak, gurasoen lana...).

- Lagunak (lagun taldeak, laguntasun motak, sekretuak...).
- Harreman afektibo sexualak (esperientziak, ohiturak...).
- Maitasuna (definizioak, sailkapenak...).
- Etorkizuna (proiekzioak, asmoak...).

Ardatz horien bitartez, nerabeen maitasun bizipenei testuingurua jartzeko aukera izan dut. Emozio hori bizitzako hainbat esparrurekin lotuta egonik, egunerokotasuneko eremu asko hartu dira aintzat gaztetxoen narrazioak euren biografietan kokatzeko. (Ikus. gidoia I. eranskina)

2.3.3.2. Intimitatearen negoziazio bikoitza edo hirukoitza: elkarritzketetarako baimenak

Nerabeekin lan egiteak intimitatearen negoziazioen kudeaketa bikoitza dakar. Esan bezala, adin txikikoak izanik, beraien onarpenaz gain, beharrezko da gurasoen baimena edukitzea. Horregatik, elkarritzketa sakonak gauzatzeko, lehendabizi, jolas-orduetan gazttxoei galduen nien prest ote zeuden parte-hartzeko. Baiezkoa emanez gero, beraien eskolako tutorearekin harremanetan jartzen nintzen. Ikastetxean egonik, elkarritzketa egiteko tutoreen baimena ere jaso behar nuen: alde batetik, eskola orduetan egingo zirelako, eta beste alde batetik, gurasoen aurrean tutoreen babesera erakusteko. Tutoreek, askotan, gurasoen inguruko ezaugarriak ematen zizkidaten, laguntzeko asmoz. Horrela, tutoreek baimena ematen zidatenean, gurasoen telefono-zenbakia eskatzen nien nerabeei eta telefonoaren bidez ahalegintzen nintzen gurasoen onesprena lortzen.

Telefono bitartez egiteak ikerketako gaztetxoen gurasoekin hitz egiteko aukera eman zuen, elkarritzketaz lasaitasunez mintzatzeko eta behar besteko zehaztasunak emateko. Zenbait gurasori, gutxi batzuei, ez zitzaien bide hori egokia iruditu: edozeinek deitu dezakeelako telefonoz. Horiei modu hori aukeratu izanaren argibideak eta argudioak eman nizkien, baina alferrik. Telefono dei horiek, bitartekaritza hutsala izatetik, ezusteko ekarpema egin diote ikerketari. Lehendabiziko deiak xalotasun osoz egin ziren, baina deiak burutu ahal, nire praktikak egituratzen joan ziren. Batetik, konturatu nintzen etxe batzuetara eguerdieten deitza alferrikakoa zela, inor edo zaintzaileak

besterik ez zeudelako. Hori, batez ere, goi-klasekoekin gertatzen zen, eta etxe horietara, normalean, gaueko bederatzietatik aurrera deitzen nuen. Bestetik, dei batzuekin beste batzuekin baino urduriago jartzen nintzen. Emozio hori, batez ere, goi-klasekoen deiek eragiten zidaten. Azken batean, telefono deiek familiekin kontaktuan jartzeaz gain, Bilboko klase sozialen errealtitatera gerturatzeko abagunea eratu zuten. Telefonozko kontaktuetan, klase sozialaren aldaerak agerian jartzen hasi ziren.

2.3.3.2.1 Klase sozialekin negoziatzea

Aipatutako nerabeen intimitatearen negoziazio bikoitza (edo hirukoitza) dela-eta, baiezta dezaket goi-klaseetako gurasoekin zailagoa izan dela baimenak lortzea. Bi arrazoirekin lotuta egongo litzateke afera hori: goi-klaseetako sareak itxiagoak izatearekin (hau da, botere guneetara iristeko oztopo gehiago jartzearekin) eta gurasoek seme-alaba babesteko joera handiagoa izatearekin (familiaren egituraketarekin lotuta, hain zuen ere).

Gessaghiren (2011) ustez, goi-klasekoen zein eliteen azterketak egiterakoan, eremu horietara iristeko oztopoak azpimarratu ohi dira. Berak uste du bi gatazka nagusi dakartzala horrek: alde batetik, modu implizituan aurreikusten direla ekintza sozialaren gardentasuna eta ikertzailearen ilusioa (ikertuko dena ezagutzeko gai dela uste izatea); eta beste alde batetik, baieztapen horrek oposizioz ondorioztatzen du errazegia dela behe-klaseekin lan egitea (*ibidem*:18). Lehen gatazkari dagokionez, ekintza sozialaren gardentasunari buruz, alegia, Gessaghiren iritziz, etnografo gutxi iritsi dira subjektuen erabateko onarpena eskuratzera, erakusten den guztia mugatua baita. Horretarako, antropologian harremanak sortzea eta konfiantzazko loturak eraikitza ezinbestekotzat jotzen du, baina ezaugarri hori ez da goi-klaseetan bakarrik gertatzen, aspektu orokorta da-eta. Izan ere, elkarritzetutakoek beti erabakiko dute zer esan eta zer erakutsi ikerlariari. Laburbilduz, goi-klaseko zein behe-klasekoak izanik, ikerketako subjektuek beti daukate lanaren gaineko botere maila bat: parte hartzeko edo ez, helaraziko den informazioa aukeratzeko... Bigarren gatazkari dagokionez, egilearen hausnarketarekin jarraituz, goi-klaseetan sartzeko zaitasunak ez dira bakarrak, antropologo asko baitira behe-klaseko eremu batzuetan traba handiak izan dituztenak. Horrekin batera, Buenos

Aireseko goi klaseko familiekin egindako ikerlanean, Gessaghik (2011) azpimarratu du tokian tokiko lana egiterakoan eta elkarritzetak egiterakoan ez duela ezkorik jaso. Nik neuk ez nuke kontrakotasunean jarriko goi-klaseekin eta behe-klaseekin lan egitea. Antropologoak lan eremuan sartzen den guztieta estrategia bat pentsatu behar baitu. Estrategia horrek funtzionatzean, ala ez funtzionatzean, egongo litzateke gakoa. Horrela, behe-klaseko gune batzuetan, zenbait faktore direla medio, agian ez dute interesik bertan gertatzen denaren berri emateko, eta horrek oztopatuko du antropologoaren lana. Nire kasuan, behe-klaseko familiekin egindako lanean, ama batek behin baino ez zizkidan trabak jarri semea elkarritzetatzeko. Amak telefonoz aitortu zidan banatze prozesuan zegoela eta seme-alabak kentzeko arriskua zuela. Semea klasetik ateratzeko baimena ematean zalantza egin zuen, gerora gertakizun hori bere kontra erabiltzeko beldurra zuen-eta. Nirekin hitz egin eta gero, baimena eman zidan.

Goi-klaseekin izan ditudan trabak beste bide batetik eterri dira. Oro har, honakoa izan da nik erabilitako estrategia: unibertsitateko kidea izatea eta gobernuaren diru-laguntza izatea. Orokorean funtzionatu egin bazuen ere, goi-klasekoek evezko gehiago eman zizkidaten behe-klasekoek baino. Horren arrazoia lotuta egon liteke unibertsitatearen irudiarekin, izan ere, unibertsitatea (unibertsitate publiko bat, batez ere) ez da autoritatedun erreferentziazko irudia sektore horrentzat, beste klaseetan gertatu denaren kontrara, ikastetxe erlijiosoko guraso asko unibertsitateko irakasleak edo beste botere-gune (enpresak...) batzuetako kideak baitziren. Unibertsitatearen izenean lan egitea ez zen nahikoa goi-klasekoen seme-alabak elkarritzetatu ahal izateko. Guraso horiek galdera asko egiten zizkidaten: ikerketaren helburuak zeintzuk ziren, gidoia zein izango zen, zenbat iraungo ote zuen, galduko zituzten irakasgaien inguruau...³⁸

Goi klasekoekin, batez ere, baina gainerako gurasoekin ere, erabili izan dudan beste estrategia bat seme-alabak goraipatzearena izan da. Izan ere, guraso asko maitasunaren inguruau lanean ari nintzela esaten nienean eta beraien seme-alaba elkarritzetatzeko hautatu nuela esatean erdi-harrituta eta erdi-kezkatuta galdetzen zidaten zein zen nire

³⁸ Gogoan dut nerabe bat elkarritzetatzeko baimena eskatuz egindako deian nire CVa eskatu zidala guraso batek. Nik onartu egin nuen eta emailez bidaliko niola esan nion. Orduan, aitak evezkoa eman zidan, eta gutun-azalean bidaltzeko eskatu zidan. Gizona etengabe azaltzen zen semearen pribatutasuna galtzeko beldurrez, nahiz eta nik behin eta berriz errepikatu anonimotasuna era zorrotzean zainduko nuela. Horrez gain, semeari ahotsa grabatu behar niola esatean, ez zen fidatu, eta esan zidan ez zuela beharrezkoa ikusten. Grabatzearen arrazoia metodologikoa zela esan arren, evezkoan jarraitu zuen. Goi-klaseen boterea dastatu nuen memento horretan; egoeraz jabeturik egoera gainditzen ahalegindu nintzen eta bere semea elkarritzetazea ez zela ideia ona esan nion, traba gehiegiz zirela eta ez nuela interes berezirik bere semearen irudian.

aukeraketaren arrazoia. Askotan hainbat zio izaten ziren: bikote harreman afektibo-sexual bat hasi berri zuela, edo liderra izatea, edota lagun arteko haserrealdi batean parte hartu izana... baina gertakizun horiek guztiak nire eta nerabeen arteko sekretuak izaten ziren, gurasoei aitortu ezinezkoak. Horregatik, nire erantzuna izaten zen euren seme-alabek gainerako gaztetxoek baino hobeto hitz egiteko eta hobeto adierazteko gaitasuna zutela.

Azkenik, aipatzeko da goi-klasekoek zein nolako garrantzia ematen zioten elkarrizketa egiteko erabiliko zen denboraren irakasgaiari. Guraso askorentzat oztopoa zen eskola orduetan egitea, ez zuten ideia hori oso gustuko. Horregatik irakasgai zehatz batzuetan egiteko baldintza jartzen zuten: tutoretzan, frantsesean... Irakasgai ukiezinak hauek ziren: matematika, gaztelania, zientziak... Horrek guztiak agerian utzi du goi-klaseek hezkuntza sistemari ematen dioten garrantzia, hala nola, seme-alaben formazioa gidatzeko egiten duten saiakera irakasgai batzuk lehenestean.

2.3.3.2.2 Nerabe menderakitzekin negoziatzea

Gurasoak ez dira negoziazioetan oztopoak jarri dituzten bakarrak. Zenbait gaztetxo elkarrizketatzeko zailtasunak ere izan ditut, beraiek prestu agertu ez direlako. Traba gehien jarri dizkidate “guaiak” edota “malotes” adjektiboekin izendatutakoek. Profil horiek dituztenek aurre egiten diote autoritateari: edanez, errezz, piper eginez, nota txarrak ateraz... Desobedientziaren bitartez, erresistentzia jartzen dute eskolako ereduaren aurrean. Paul Willisek, *Aprendiendo a trabajar* (1988) lanean, “los colegas” izendatutakoentzako profila izango lukete horiek, tokian tokiko berezitasunekin. Willisen “los colegas” langile klaseko gazteen lagun taldea da; gazte horiek ez dira erraz konformatzen, autoritatearen aurka daude eta, oro har, ez dituzte eskolako instituzioaren arauak barneratzen. Profil hori ikastolan eta ikastetxe publikoan aurkitu dut, batez ere. Nerabe horiek ezezkoa ematen zidaten, elkarrizketa egiteko prest ote zeuden galdetzean.

Zailtasunak zailtasun, behaketa parte-hartzailean adoleszente horiekin izandako gertutasunagatik eta hainbat argudioren bitartez konbentzitzen ahalegindu eta gero

(adibidez, elkarritzetan askatasunez iritzia eman ahal izango zutela esanez, gurasoak eta irakasleak ez zirela horretaz jabetuko...), batzuek baiezkoa eman zidaten. Beste batzuek “klasea galtzeko” erabili nahi zuten hizketaldiko denbora; horrelakoek matematika edota gaztelania bezalako irakasgaietan egin nahi izaten zuten, baina gehienek ez zituzten elkarritzetak gimnasia orduan egin nahi. Horiekin, goi-klaseko gurasoekin bezala, zein irakasgaiaren bitartean egin adostu behar izaten nuen.

Halaber, baiezkoa ematearekin ez zen nahikoa izaten. Asko ez ziren elkarritzetara agertu. Batzuetan, eskolara gerturatu eta ikaslea ez zegoen, nahiz eta aldez aurretik hitzordua jarrita egon. Hasiera batean, ausazko gertakizuna zelakoan nengoan, baina solasaldi gehiago egin ahala, aitzakiak aitzakia, aipatutako profilaren berezitasuna zela ohartu nintzen. Horrela, kale egindako lehenengo aldiek sortu zidaten frustrazioa denborarekin aurreikusi egin nuen. “Guaiak” eta “malotes” deritzenak elkarritzetatzea erabateko erronka izan zen hasieratik amaierara.

2.3.3.3. Elkarritzeten prozedura: zatikatutako narrazioak

Ikastetxeek utzitako espazioetan egin dira elkarritzeta guztiak: ikasgelan, tutoretza gelan edota bestelako espazio egokietan. Saio guztietan egin da ahots grabazioa, transkripzioa egin ahal izateko. Gehienek, grabagailua ikustean, gurasoek entzungo ote zuten galdezen zidaten, konfidentzialtasuna ziurtatzeko. Gertutasunezko espazioak eraikitzen ahalegindu nintzen hizketaldietan: aurrez aurre jesarri beharrean, ondoan eseriz, gainerako ikasleak edo irakasleak gelara sartzea ekidinez, batzuekin konektatzeko arropa zehatza eramanez³⁹...

Lehenago esan bezala, elkarritzetan ez dut gidoia oso era zorrotzean erabili. Elkarritzetutakoek interesgarria izan zitekeen gai bati helduz gero, utzi egiten nien. Gidoiaren orriak aurrean izaten nituen, badaezpada, eginaren eginez buruz gogoratzeko gai banintzen ere. Horregatik, amaierako saioetan, paperei gutxiago begiratzen nien. Hori ikusita, gaztetxo batzuek esaten zidaten “*¿Por dónde vamos?*” edo “*¡pero, no*

³⁹ Nesken elkarritzetan, batik bat, gertutasuna arroparen bitartez sortzen ahalegindu nintzen. Elkarritzetutako neska arropa estuarekin jantzik gero, ni neu ere horrela janzen nintzen; edota belarritakoak eta lepoko asko eramatzen bazituzten nik ere eramatzen nituen.

tienes que seguir el guión? ¿Qué pregunta toca?”, jakin gabe gidoia jarraitzen ari ginen ala ez.

Nerabeak elkarritzetazek berezitasunak izan ditu. Hasteko, ni neu baino gazteagoak izateak lasaitasun handiagoa ematen zidan, presio gutxiago sortzen zidan, nire lana epaitzeko gaitasun gutxiago zutelakoan. Abantailatzat hartu nuen arren, laster konturatu nintzen gaztetxoak elkarritzatzea ez dela uste bezain erraza.

Adoleszenteen bizitza laburragatik, ez daukate euren bizitzaren narrazioa eraikita. Ez dute urteen poderioz atzera begira egindako kontakizunik, helduei egindako elkarritzetan ikus daitekeen bezala. Horregatik, hainbat galderari oso labur erantzuten zieten. Gaietan sakontzeko ahalegin andana egin behar izaten nuen solasaldi bakoitzean narrazioa luzatu ahal izateko, galderak eta erantzunak etengabeak izanik. Horrez gain, hizketaldietan iragana eta orainaren arteko nahasketa egiten dute askok, aipatutako beraien bizitzaren inguruko kontakizuna eraiki gabe dutelako. Sarritan, duela urte beteko jarduerak euren egunerokotasunaren partetzat hartzen dituzte, elkarritzetzailearentzat nahasgarria izanik. Beraz, oztopo metodologiko batekin egin nuen topo: denboraren ideia kronologiko zehatz bati begira antolatuta daude elkarritzetak zein bizitza-istorioak, bizi-esperientziak ematen duen eta nerabeek oraindik eratzeke duten ideia kronologikoari begira, alegia.

2.3.3.4. Elkarritzetutako nerabeen profilak

Elkarritzetutako gaztetxoen hautaketa behaketa parte-hartzailean jasotako gertakizunen arabera egin da. Diskurtsoen aniztasuna helburu izanik, profil ezberdinak aukeratu dira: bikote harreman afektibo-sexualetan parte hartu dutenak eta horrelako harremanik izan ez dutenak; lagun onenak dituztenak eta ez dituztenak; amodio-aferei garrantzia ematen dietenak eta ematen ez dietenak; bazterketa jasan duenak; liderrak; genero-identitate hibridoagoak dituztenak... Tokian tokiko estrategiak erabili dira ahalik eta mami gehien atera ahal izateko. Arrazoi batengatik edo besteagatik, elkarritzetutako guztiak izan ziren deigarriak.

Elkarritzetutako nerabeen deskribapen laburrak emango ditut atal honetan:

1. Gotzon⁴⁰, hamahiru urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Ikastetxeko ikaslea da, aitak ere bertan ikasi zuelako. Horrez gain, eskolatik gertu bizi da, Bilboko erdigunean, hain zuzen ere. Arropa eta kamiseta zabalekin janzten da, eta ilean gominarekin gandor bat egiten du. Horrek guztiak “moderno” itxura ematen dio. Eskolan liderra izatearen fama du, lagunek bera jarraitzen dutela diote eskolako zurrumurruet. Futbolaria da eta gainera sinpatikoa da, behin jolas-ordu batean neska batek esan zidan “*Gotzon es un tio guay*”. Esan beharra dago, bikote harreman asko izan dituen mutila dela; horregatik, aholkatu zidaten bere lagunek berari galdezko.

2. Sofia, hamahiru urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Sofia hamahiru urteko neska da. Lehen aldiz bere lagun taldean ezagutu nuen. Mutilak ikustearekin obsesionatuta egongo balira bezala hitz egiten zuten. Takoak, makilatzea... feminitate konkretu bat gustuko duela adierazten du. Gainera bere lagun taldean hori bultatzeko ahalegina egiten du, amaren debekua izan arren. Ama irakaslea da eta amarekin duen lotura bereziaz mintzatu egiten da, etxeko emakume bakarrak direla azpimarratuz. Aitari buruz mintzatzen denean ingelesezko termino batekin izendatzen du lanbidea, estatusa emanet lanari, “*superior, muy superior*” dio. Hiru seme-alabetatik bigarrena da. Jendearen jarrerak baloratzen ditu lagun zein bikotekide ideala deskribatzerakoan: “*Saber comportarse*”, “*callar cuando hay que callar*”...

3. Irati, hamabi urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Iratirekin ezin izan nuen elkarrizketa amaitu. Ikasturteko azken egunetan egin nuen, eta azken egunetan txangoak egiten ditutzenez igerilekura eta mendira, Iratik egun horietan ikastetxera ez joatea erabaki zuen. Dantzatzea eta lagunekin ateratzea gustuko du. Irakurzalea ere bada, batez ere, Tuenti erabiltzen duen bitartean. Gurasoek Tuenti erabiltzeko ordu kopurua mugatu diote. Horregatik tarteka erabiltzen ditu sare sozialak, bitarte horietan irakurri egiten du. Ez zaio asko gustatzen familiarekin egotea. Aita arkitektoa da eta ama beste ikasketa batzuk egiten ari da. Elkarrizketan bere ikaskideen botere-harremanen inguruau aritu zen. Asko kexatzen zen: “*Guaien lagun-taldean*” arazoak edo bazterketak egotean beraingana jotzen zutela. Nahiko mesfidati zegoen pertsona horiekiko.

⁴⁰ Ikerketan agertzen diren nerabeen izen guztiak asmatutakoak dira.

4. Natalia, hamahiru urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Bilboko erdigunean bizi da. Telebista ikustea gustuko du eta lagunekin hitz egitea eta geratzea. Lagunekin dagoenean zerbait hartzen joaten dira, izozkiren bat, edo merkaritza-zentrora, normalean beti norbaitek zerbait erosten baitu. Bestela, baten-baten etxeen egoten dira pelikulak ikusten. Natalia amarekin bizi da, gurasoak banaturik baitaude. Aita noizbehinka ikusten du, kanpoan bizi delako. Ama abokatua da, baina lan egiteari utzi dio, Nataliaren aburuz, orain ez duelako behar. Ahizpa nagusi bat du eta gauzak kontatzeko konplizitatea du. Amari ez dio sekreturik kontatzen, nahiz eta askotan galdezu. Bere ustez, amei ez zaizkie gauza guztiak kontatu behar, amak direlako. Zentzu horretan konfiantza handiagoa du bere aitaren neska-lagunarekin, gazteagoa delako eta ez delako bere ama. Bere lagun onena Irati da, eta berari bezala amorrua ematen dizkiote “guaeiek” dituzten jarrerek.

5. Carmen, hamabi urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Bilboko erdigunean bizi da. Ikasketak eta ikasten duten ikaskideak asko estimatzen ditu. Irakurtzea eta marraztea gustukoa du. Hamabi urte izanik, hizkera landua eta adierazteko erraztasun handia du. Horrez gain, filosofia irakurtzea gustuko du. Irakurtzen dituen liburuen aurrean jarrera kritikoa du, eta ez da beti identifikatuta sentitzen. TH hiperaktibitate sindromearen diagnosis du eta horregatik, kirola egitera behartuta dago, gorputza nekatzeko. Egunero medikamentua hartu behar du, horrek ikasgelan arreta mantentzera laguntzeko. Amarekin eta bi neba-arrebekin bizi da, aitak, ingenaria dena, kanpoan lan egiten du eta beste hiri batean bizi da astean zehar. Carmeni aita beraiekin bizi dela esatea gustukoa du, familia nuklearren itxura emateko. Amak estetikaren lotutako klinika batean egiten du lan. Itxuraz sentibera eta formala ematen duen arren, bere buruaz esaten du: *“Soy una bruta, y no te metas conmigo que te reviento”*. Nataliaren ustez, Carmen edozeri aurre egiteko gai da.

6. Izaskun, hamabi urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Ikastetxe erlijiosoan, konfidenterik handiena izan dut Izaskun. Elkarrizketa egin eta gero konfiantza handia izan zuen nigan eta sekretu gehienak kontatzen zizkidan. Natalia, Irati eta Carmenen lagun-taldekoa da. Saskibaloian jolasten du, astean sei orduz entrenatzen da eta nahikoa dela dio; horregatik, ez du jolas-orduetan saskibaloian jolasten. Eskiatzea, saskibaloian jolastea eta bidaiatzea gustuko du. Lagun artean asko bidaiau izanaren fama du, familiarekin toki askotara joan da: New York, Disneyland...

Gurasoekin eta bi anaiekin bizi da, bera nagusia izanik. Ama funtzionarioa da eta tratu txarrak jasan dituzten emakumeekin lan egiten du. Aita zientzialaria da. Egunean zehar zaindari bat du. Berak ez du ikusten bere burua nerabe bezala, baina ezta haur edo heldu bezala ere. “Adoleszente” hitzak zentzu berezia duela dio eta bere ustez, bera ez dago fase horretan.

7. Gorka, hamalau urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Gorka ezagutu baino lehen, berari buruz hitz egin zidaten: liderra zela eta lagunek jarraitzen zutela. Lagunekiko jarrera zirikatzailea du eta horiek zapaltzeko joera duela aitortu zidaten. Hala ere, berak ikaskideekin erlazio ona duela dio. Neska-lagun asko izan ditu, eta batzuekin ez da gogoratzen. Adiskideek, aldiz, bikoteekin gaizki portatzen dela zioten. Gorkak bere burua kirolari bezala definitzen du. Saskibaloian jolasten du eta bere taldeko onena dela dio. Astean zehar entrenatzen du, bere taldearekin eta nagusiekin ere. Aita eskola horretako ikasle ohia da eta saskibaloian ere jolasten zuen. Amak ere gertuko ikastetxe batean ikasi zuen. Bere familia betidanik Bilboko erdigunean bizi izan da. Egun, ama abokatua da eta aita enpresa handi bateko zuzendaria. Mintzatzeko ahots tonuak harrotasun puntu bat ematen dio.

8. Mikel, hamalau urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Gorka eta Mikel lagun talde berekoak dira, baina muturreko kasuak dira: Gorka liderra izateak eta nesken artean duen arrakastak definitzen badute, Mikel beste muturrean egongo litzateke: lidergo eza, nesken artean porrota eta zirikatzaileen biktima da. Mikel ez da bere lagunak bezala Bilboko erdigunean bizi, gertuko auzo batean baizik. Amak bidaia-agentzia batean egiten du lan eta aita ile apaintzailea da. Ikastetxeari buruz klase posizio batetik hitz egiten du: “*Euskadiko ikastetxerik onena*” bezala definitzen du, beste ikastetxe batzuetan baino gehiago irakasten dutela esaten du. Etorkizunean polizia izan nahi du.

9. Javier, hamahiru urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Ikastetxe erlijiosoko behaketa batean, aholku eske etorri zitzaidan Javier maiteminduta zegoelako. Galdu zidan ea modurik ote zegoen beste pertsona hori berarengan interesik zuen edo ez jakiteko. Kontatu zidan aspalditik zuela neska bat gustuko eta ez zekiela zer egin, bikotea izateko eskatu nahi ziola baina ez zekiela nola, perfektu egin nahi zuen.

Lagunekin egotea gustuko du. Bere burua “guaitzat” hartzen du, beti lagunekin dagoelako eta ateratzen denean neskekin ere egoten delako. Harremanak izateko duen erraztasuna goraipatzen du eta jendea berarekin ondo konpontzen dela dio. Horrek guztiak “guay” izatearekin lotzen du. Astean zehar eskolaz kanpo ekintzez beterik ditu egunak. Tenisean aritzen da, asteko ia egun guztietañ entrenamenduak ditu eta asko disfrutatzen du kirol hori eginez. Bere ikastetxea diziiplina-ezarekin lotzen du, ikasleen artean borrokak daudela esanez. Bere gurasoak askotan kexatu direla dio. Bere aita medikua da eta ama enpresagintzan aditua da, baina bera eta bere anaia jaiotzean etxetik kanpo lan egiteari utzi zion.

10. Adrian, hamahiru urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Adrian ezagutu nuen egunean, neska batzuen atzetik zebilen jolas-orduan. Berak esan zidan bere laguna jarraitutako neskedariko batekin ateratzen hasi zela eta berak lagundu zuela erlazio hori sortzen, Tuentiren bitartez. Bere burua ausartzat hartzen du, horrek bikote-harremanak izateko aukera ematen diola dio. Haren gurasoak banatuta daude, ama komertziala da eta aita abokatua. Adrian amarekin bizi da. Amaren deskribapena egitean erabili ohi dituen takoi altuak eta praka estuei egiten die erreferentzia. Elkarrizketatzerakoan harritu egin ninduen, itxuraz amodio-kontuez paso egiten zuen pertsona ematen zuelako, baina garrantzia handia ematen zien.

11. Janire, hamahiru urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa

Janire “neska arrakastatsuen” taldekoa da. Ikasturteko mutil askok nahi dute berarekin harreman afektibo-sexuala izan. Bere ustez, arrakasta izatearen arrazoia da taldeko horretakoak txikitatik elkarrekin ibili izana, eta taldearen lotura sendoagatik, kalera elkarrekin ateratzen lehenak izan zirela azpimarratzen du. Klasera iristean jende guztia agurtzen duela dio. Eskolatik kanpo, berriz, bere lagun-taldearekin beste eskola batzuetako neska batzuk zirikatzera joaten direla dio. Normalean Bilboko erdigurenko institutu publikokoak izaten dira, baina Janirek ez du ikastetxearen izena gogoratzen. Dantzatzea eta familiarekin bidaiatzea gustuko du. Aita abokatua eta amak esparru publikoan lan egiten du, artearekin lotutako eremuan. Gurasoek itxura eta osasuna zaintzen dutela onartzen du, eta berak aukera duenean gimnasioan izena eman ohi du. Igandetan denak mezara joaten dira.

12. Enara, hamalau urte, ikastola

La Peña auzoan bizi da, familiak komertzio txiki bat du bertan. Gurasoekin eta nebarekin batera amona bizi da, amonak etxeko lanen ardura nagusia izanik. Beraiekin gatazka txikiak izaten dituela onartzen du, normalean arropa jasotzearekin edo bere nebaren zainketarekin loturik. Astean zehar, eskolatik bueltatzean, eskolatik bidalitako etxerako lanak egiten ditu, telebista ikusi eta Tuentin sartzen da. Astean behin arropa dendak ikustera joan ohi da, amarekin edo lagunekin. Asteburueta lagunekin ateratzen da, ostiraletan auzoan geratzen dira eta larunbatetan hiriaren zentrora joaten dira. Horrelako egunetan beste eskola batzuetako mutilekin batu egiten dira. Enarak ez du inoiz mutil-lagunik izan, baina bere lagun onenek izan dutela aipatzen du, eta horregatik, amodio-aferak ongi ezagutzen ditu.

13. Joseba, hamahiru urte, ikastola

La Peña auzoan bizi da. Normalean Joseba neskekin ibiltzen da jolas-orduetan, nahiz eta aisialdiko beste une batzuetan gelako mutil gehiagorekin egon. Antzerkigintza eta sukaldaritza gustukoak ditu. Amak denda batean lan egiten du eta aitak enpresa bateko kargu garrantzitsu bat duela esaten du harrotasunez. Bere lagunekin hitz egiterakoan nortasun handiko pertsona dela esan daiteke, ziurtasunez hitz egiten duelako. Adiskideak epaitzeko erraztasuna du, zerbait ondo iruditzen ez zaionean zuzenean aurpegira esaten die. Lagunen artean sexualitatearekin zirkatzen dute, homosexuala delakoaren aitzakiarekin. Josebak *Fisika o quimica*⁴¹ ikustea gustuko du, pertsonaiak barre eginarazten diotelako.

14. Kerman, hamalau urte, ikastola

Kerman jolas-ordu gehienetan bakarrik egoten zen banku batean zerealak jaten. Itxuraz gazteagoa ematen zuen, ikaskideek haurren jokabidea zuela esaten zuten. Baztertuaren fama du. Ez da bere ikaskideen bizileku berean bizi eta ikastolara iristeko ordu beteko ibilbidea du. Horrek lagunengandik urruntzea ekarri diola aitortzen du, lehen zuten harremana hobea zela gehituz. Mutil isilaren fama du, batez ere, irakasleen ikuspegitik. Gurasoei baimena eskatzeko deitzean ama harritu zen, irakasleak Kermanen isiltasunagatik kezkatuta baitzeuden, inoiz autista ote zen galdetu izan baitiote. Lasai egoteko esan nion. Nirekin bestelakoa izan zen. Ikastolako bidean berarekin

⁴¹ Nerabeei zuzendutako telesaila, institutu batean jazotzen dena kontatzen du.

gurutzatzean hitz egiten hasten zitzaidan. Denborarekin nahiko ohikoa bilakatu zen hori. Itxuraz, mutil bakartia zela pentsatu nuen, baina elkarrizketan kontrakoa erakutsi zidan. Ama garbitzailea da eta aitak lantegi bateko langilea da. Ez zaizkio barre egiteko telesailak gustatzen, nahiago du bere aitak jartzen dituen dokumentalak ikusi. Fantasiazko liburuak irakurtzen ditu, horien bitartez beste mundu batean sartzen da eta guztiarekin deskonektatzen du.

15. Karlos, hamabi urte, ikastola

Karlos fisikoki oso txikia da, bere adinekoak baino askoz txikiagoa. Bere gorputzak hazkunde handirik ez duela izan esango nuke. Jolas-ordu guztietan futbolean jolasten ikusten nuen. Futbola oso garrantzitsua da berarentzat, talde batean jolasten du eta klase onenetarikoa omen da. Gainera modu horretan arrakastatsua dela dio eta, taldeak egiterakoan guztiekin berarekin izan nahi dute. Klasekideekin ongi konpontzen da, nahiz eta ikasle batek beti eragotzi egiten duela aitortu. Ama saltzailea da eta aitak lantegi batean egiten du lan. Ama etxeen beti lanean dagoela dio: lisaburdina egiten, garbigailua jartzen... Aita, berriz, etxera iritsi eta sofan egoten da, Karlos bezala etxeen ez baitute lanik egiten. Ondoko herri batean bizitzeagatik, gurasoekiko menpekotasun handiagoa du, gurasoek eraman behar dutelako lagunengana.

16. Xabier, hamabi urte, ikastola

Xabier futbolean aritzen da jolas-ordu guztietan. Itxuraz mutil lasaia ematen duen arren, futbol partidetan haserretzeko erraztasuna du. Bere lagun guztiekin lagun on bezala deskribatzen dute. Mutil formala da eta ikasle ona. La Peña auzoan ama, aita eta arrebarekin batera bizi da. Amak beste etxe bat garbitzen lan egiten du eta aitak enpresa batean. Berak esaten duenez bere aita da agintaria, “*el rey de la casa*”. Amarekin antzerkia ikustera joan ohi da, aitak ez baitu gustuko. Abenturazko nobelak irakurtzen ditu eta etxeen telebistan aitak esaten duena ikusten dela dio. Bere lagun onenak elkarrizketatutako Karlos eta Itziar dira.

17. Itziar, hamabi urte, ikastola

Itziarren janzkera deigarria egin zitzaidan, berarekin zegoen mutil baten praka berdinak zituen, kamereta zabala eta futboleko zapatak. “*Itziar neska da baina mutila da*” mutilen arteko esaldia zen. Futbolean jolastea gustuko du aisialdian, baina ez du futbol taldeetan jolasten. Futbola ikustea gustuko du, baina argi uzten du “mutilen futbola”

gustatzen zaiola, ezagunagoa delako. Itziar amamarekin bizi da, amak kanpoko lantegi batean lan egiten duelako eta bakarrik asteburuetan bueltatzen da. Gurasoak banatu zirenetik, aitari buruz ezer gutxi dakiela dio. Bera ez da aitarekin gaizki konpontzen, ama gaizki konpondu arren. Noizbehinka bere etxera etortzen da, baina ez dio bere bizitzagatik galdezen. Lanean dagoen ere ez daki. Bere ama eta amamarekin ez du sekreturik, dena kontatzen die. Lagunekin konfiantza gutxiago du familiarekin baino. Estereotipoak apurtu arren, inoiz ez dela arraro sentitzen aitortzen du. Zaila da maitasunaren inguruko elkarrizketa egitea sentimendu horren aurrean indiferentzia duen nerabearekin. Amodio-kontuak telebistan agertzean katez aldatzen duela dio.

18. Leire, hamabi urte, ikastola

Elkarrizketa egitea proposatu nionean bizitza aspergarria zuela esan zidan, bera ez baitzen lagunekin kalera asko ateratzen, bikote-harremanak aztertzen nituelako usteagatik. Asteburuetan amarekin erosketak egitera joaten da. Kalera ateratzen bere gurasoen zaintzapean egiten du. Horrela, ateratzen den gutxi horietan aita edo amarekin egiten duela dio, aita banku batean eserita egoten da. Berak hori egitea gustuko du, era horretan, zerbait behar izan ezkero, dirua edo horrelakoak zuzenean aitagana jotzen du. Gurasoek lan egiten dutenez, aste batean gurasoekin eta beste batean zaindari batekin egoten da. Ama jantoki bateko garbitzailea da eta aitak erloju-denda batean lan egiten du. Ikasketekin oso arduratsua da, baina *Disney Channel* ikustea ere gustuko du eta bertan ematen dituzten pelikulak atsegin ditu. Ez du bere burua nerabetzat hartzen: “*Adolescente pero no adolescente; adolescente pero responsable, porque adolescente suena a paso de todo*” esaten du. Bere gorputza garatu gabe dagoela dio: titiak ez zaizkio hasi eta hilekoa ez zaio jaitsi. Buruz, soilik, heldua da, bere ustez. Nerabezaroko “*zoramenaren fasea*” (edatea, ligatzea...) ez duela igaro dio.

19. Maialen, hamahiru urte, ikastola

Gehien gustatzen zaiona diskotekak eta mutilak dira; horregatik, atsedenaldi askotan horren inguruan aritzen da, gai nagusia da. Egunerokotasunaz mintzatzean, txateatzea gauza garrantzitsua da berarentzat. Aisialdian litroak egitea⁴² gustuko du. Gogoratzen du bera baino urtebete nagusiagoak zirenak DBH1 pasatzen aldatu egin zirela, bat-batean “*los mas gallitos de todos*” bilakatu zirela eta diskoteketara joaten jasi zirela. Mementoan asko kritikatu bazuen ere, aldaketa hori orain beraiei berdina gertatu zaiela

⁴² Litroak egitea (“botellon”) esaten zaio alkohola edateari.

dio. Bere burua ausartzat hartzen du, lagun artean ausartenetarikoa da gauza askotarako. Hainbat bikotekide izan dituela dio, baina “benetakoak” bi edo hiru. Karlosekin izandako txikitako erlaziona *“paridas tontas”* bezala hartzen du. Bere gurasoak *“controladores compulsivos”* bezala definitzen ditu. Amak estetika denda batean lan egiteari utzi dio, eta aita udaletxeko langilea da.

20. Iratxe, hamabi urte, ikastola

Iratxek lagunekin ateratzea, telefonoz hitz egitea eta sare sozialetan ibiltzea gustuko du. Azken bi urteetan asko aldatu dela dio. Lehen ikasle ona zen eta amak esaten zuena egiten zuen, baina orain lagun nagusiak izateagatik aldatu da. Gaizto izaten ikasi du: *“Es que antes de tan buena, era tonta”*. Zolitzeko esan zioten. Lehen, nota bikainak ateratzen zituen, baina orain bost bat ateratzearekin konformatzen dela dio. Egun ama etxeko langilea da, eta aitak gauez lan egiten du garraio publikoetan. Maialenekin maitasun-gorrotozko lotura du, lagun onenak izanik askotan haserrealdi handiak izaten dituzte. Iratxek gelako nesken artean bi talde bereizten ditu, ikasle onak direnak eta besteak beti hitz egiten daudenak. Iratxe eta Maialen dira gehien hitz egiten dutenak, beraien aburuz, besteek ez baitute bizitza sozialik. Ikasten duten neska horiek, Leire adibidez, mutilekin harreman gutxiago dutela adierazten du. Horregatik, populartzat hartzen dituztela kontziente da, beraiek baitira gehien erlazionatzen direnak. Maialenek eta berak nahiago dute auzoko eskola publikora joan izan balira, bertako ikasleak beraiek bezalakoak direlako: gehiago erlazionatzen dira eta gehiago ateratzen dira beraiek ibiltzen diren eremuetan.

21. Miren, hamahiru urte, ikastola

Arrazoia izatea gustuko du eta eztabaidatzea, batez ere, irakasleekin edo gurasoekin. Halaber, gurasoekin harreman ona du. Aitak eraikingintzan egiten du lan eta ama enpresa batean idazkaria da. Gelan lau neska baino ez daude eta, zalantzarak gabe, Miren liderra da. Bera kontziente da arrakastaz. Gelako guztiekin ongi konpontzen dela dio, nahiz eta batzuetan haserre txikiak egon, horiek Josebarekin izaten dira, haserretzeko erraztasuna duelako. Normalean klaseko Itxaso eta hirugarren mailako Amaiarekin ateratzen. Beste ikastola bateko mutilekin ibiltzen dira, bere aburuz, gelako mutilak baino helduagoak direlako. Orokorean, serieak gustuko ditu, batez ere, nerabeak baldin badaude.

22. Mireia, hamabi urte, institutu publikoa

Arangoitikoa da, auzokide gehienak bezala, Extremadurako etorritako familia langile batean bizi da. Amak jantoki batean lan egiten du eta aitak gailuak konpontzen ditu. Neba nagusia du eta berarekin harreman ona duela esaten du, nahiz eta gauza guztien inguruan berarekin ezin duen hitz egin, “*mutila delako*”, hilekoaren inguruan, besteak beste. Astean zehar dantza ikastaroak egiten ditu. Pertsona sentibera eta alaia da. Lagun taldean, lehenengoa izan da bikote-erlazioak izaten. Bikotekidea izan duen bakoitzean maitemindurik dagoela adierazten du irribarre alai batez. Mutilen inguruan hitz egiten du maiz, “*qué bueno está ese*” bezalakoak esaten. Laguntasunean gorabeherak izan ditu: egun batetik bestera taldez aldatu, haserretu... Elkarrizketa gatazka horiek izan baino lehen izan zen.

23. Asier, hamalau urte, institutu publikoa

Arangoitin bizi da. Gurasoekin ez du oso harreman onik, ama etxeko langilea da eta aita langabeziaren dago. DBH 2. mailan dago eta gatazkatsutzat hartzen den lagun-talde bateko kidea da. Bere ustez, irakasleek mania diete. Gustuko ekintzen artean, tabakoa eta marihuana erretzea eta lagunekin egotea da eta harrotasunez kontatzen du. Elkarrizketatik gehien harritu ninduena izan zen etorkizunerako proiekzioa egiterakoan ez baitzuen inolako motibaziorik. Kale gorrian diru eske egoteko aukera ere aurreikusten zuen. Eskolaz kanpo jardueretatik kaleratu zuten, hainbat gatazka izan zituelako.

24. Maitane, hamahiru urte, institutu publikoa

Arangoitin bizi da familiarekin. Ama garbitzailea da eta aitak supermarketu batean lan egiten du. Alaba bakarra da, lagunek horrekin zirikatzen dute nahi duen guztiak ematen diotela esanez. Maitanek horren aurrean “*ahal dutelako*” esaten du. Gelako langileenetarikoa da, zorroztasunez egiten ditu etxeko lan guztiak. Neska perfekzionista bezala definitzen dute irakasleek. Dantzatzea gustukoa du, kalean egitean mutilek begiratzen dietela aitortu du eta horrek lagunak deseroso sentiarazten ditu. Lagunekin desilusio prozesu bat bizi izan du, gaur egun ez da beraiekin oso ongi sentitzen. Berak ez du edaten, ez erretzen ezta mutilekin “*liatzen*” ere, horregatik lagunek askotan sekretuak ez dizkiotela kontatzen esaten du. Elkarrizketa egin nion unean bere inguruko jende gehiena ez zuela gustuko esan zidan.

25. Iker, hamahiru urte, institutu publikoa

Arangoitiko auzoko mutil honek futbola gustuko du. Txikitatik lagun-talde berean ibili da, beraiekin kirola egiten du edo Gazte-gunera⁴³ joaten dira, egoteko espazio aproposa delako. Amak Algortako etxeak garbitzen lan egiten du, eta aitak fabrika batean. Auzoan denak ezagunak direla dio eta gauza guztiak jakiten direla aitortzen du, ez dago sekreturik. Ikaskide guztiekin harreman ona duela esaten du, bera ez baita mutil gatazkatsua. Zenbait neskekin ez du erlaziorik, gutxi hitz egiten dutelako eta egunean zehar gutxi kointziditzen dutelako. Normalean, gelako neskak gatazkatsuagoak direla dio, batzuek pertsona helduek dituzten arazoak izaten dituztelako, esate baterako, mutil lagunarekin utzi eta negar egiten dute. Musika entzutea gustukoa du, DJ famatu baten doinuak partidua duenean motibatzeko erabiltzen ditu. Ez da letrekin identifikatuta sentitzen ezta ikusten dituen serietan ere. Serieak barre egiteko ikusten dituela dio.

26. Ekain, hamalau urte, institutu publikoa⁴⁴

Nortasun handiko mutila da, bere pentsatzeko moduari zuzen jarraitzen dio. Adin “zailean” daudela uste du eta horregatik, amarekin gatazkak izan ohi dituela dio. Ama garbitzailea da eta aita kamioilaria. Familia barnean, gatazka bizipen gogorrak izan ditu: tratu txarrak, drogazale ohiak... Berak aitona-amonak zaintzea gustuko du, beraiekin dagoenean etxeko lanak egiten ditu eta gero beraiekin egoten da. Oporrak Extremadurako herrian ematen ditu, izarrak begiratzea eta familiarekin egotea gustuko du. Elizara joaten da, posible duen guztietan. Neskekin mutilekin baino hobeto eramatzen da. Maite dutenekin inguratuta egotea gustuko du. Pertsonekin harremanak izan baino

⁴³ Gazteguneak dira Bilboko Udalak gazteei zuzendutako espazioak, bertan hainbat ekintza egiten dituzte: “Bilboko zazpi barrutitan banatutako Gazteguneetara gerturatz, 12 eta 17 urte bitarteko gazteek euren adineko jendearekin elkartu, askotariko jarduerez gozatu eta euren gustuen araberako proposamenak egin ditzakete: musika entzun, kirola egin, txango eta jaia antolatu, zinemara edo antzokira irten, antzerki, zinema, dantza, musika edota arte plastikoetako ikastaroetara joan eta beste hainbat gauza egiteko beta paregabeara. Gaztegunera doazen gazteek beraiek pizten dute Gaztegunea euren ekimenen bidez, euren interes eta gustuen araberako jarduerak proposatuz, esperientziak elkartrukatuz eta programazioaz gozatuz. Gizarte-hezkuntzaren alorrean espezializatutako profesional gazteek dinamizatzen dituzte Gazteguneak; erabiltzaileen ekimenak jaso eta babesten dituzte eta programazioaren berri ematen diete posta elektronikoaren, sare sozialen nahiz SMS-en bidez.” <http://bilbao.net/cs/Satellite?cid=1279117619846&language=eu&pagename=Bilbaonet%2FPage%2FBIO>Listado>

⁴⁴ Ekainen elkarritzeta luzeena izan da, hiru pasarteetan egin da eskolako ordutegia errespetatzeko. Solasaldia hasi baino lehen, zoriondu ninduen oso integratuta nagoelako. Bigarren hizketaldira eskema bat ekarri zidan, berak neska batekin duen harremana azaltzeko. Zaintzarako joera nabarmena du: elkarritzeta amaitzean, bere burua eskaini zuen ni metrorantz laguntzeko, gozoki batetara gonbidatu nahi izan ninduen, eta jertse gabe nindoala ikustean, jertsea janzteko aholkua eman zidan kalean hotza egiten baitzuen.

lehen, analisia egiten duela dio: “*Miro si vamos a chocar*” eta horrela bada, paso egiten du. Gizontasun zehatza duten mutilekin gaizki eramatzen dela dio, “*Choco sobre todo con los chicos que son muy machos*”. Maskulinitate hegemonikotik urruntzen ahalegintzen da.

27. Borja, hamalau urte, institutu publikoa

Arangoitin bizi da eta bertan txikitatik izandako lagunak ditu. Denak institutu berara doaz eta futbol talde berekoak dira. Normalean, auzotik egoten dira edo Gazte-gunera ere joaten dira. Hala ere, aitortu du batzuetan etxearen geratzea gustukoa duela, eta lagunak horregatik kexatu egiten direla. Neskekin konfiantza handia du eta haien berarengan. Lagun duen Ikerren ustez, nesken aurrean aurpegi ona jartzen du: “*Se hace el bueno*”. Berak esaten du sekretuak gordetzen dakiela. Bere ama langabeziian dago eta aitak makina elektrikoak konpontzen dituen enpresa batean egiten du lan.

28. Igor, hamahiru urte, institutu publikoa

Igorrek ezizen batez ezagutzen zuten, modako nerabeentzako pelikula bateko protagonistarena. Bere adineko nesken artean mutil arrakastatsua da. Bere lagunak bera baino urte bete gazteagoak dira, errepikatzailea delako. Kirolzale amorratua da eta futbolean aritzen da. Elkarrizketa egiteko telefonoz deitu nuenean, ama larritu zen eta seme-alabak kentzeko beldurra adierazi zidan, ea horrek ez ote zuen bere kustodia baldintzatuko. Bere aita beste herri batean bizi da eta oporretan baino ez da joaten ikustera. Hala ere, berarekin harreman ona duela baieztagatzen du. Ama eta ahizparekin batera bizi da. Amak beste etxe batzuk garbitzen lan egiten du.

29. Esther, hamalau urte, institutu publikoa

Atsedenaldietan egunero-egunero lau neska elkarrekin egoten ziren beti, besteekin nahasi gabe. Talde hori laguntza-gelakoak ziren. Lauren itxura nahiko heterogeneoa zen, janzkerengatik eta gorputzengatik. Esther argala eta txikia da. Raperaz janzten da, gelan duen mutil-laguna bezala, arropa zabal eta ilunekin. Buruan bisera eramatzen du, eta ilearekin aurpegia estaltzen ahalegintzen da. Sormen artistikoa oso garatua du, marraztea gustuko du eta musika ere asko gustatzen zaio. Ikastetxe publikoen aldeko diskurtsoa garatua du, ikastetxe pribatuetan baino gehiago ikasten dela azpimarratuz. Lagunekin, normalean, jende asko joaten ez den tokietara joaten da. Institutuko lehendabiziko urtean lagunak egiteko zaitasunak izan dituela aitortzen du, berari

jendearekin hitz egitea kostatzen zaiolako. Gelako mutilekin neskekin baino hobeto eramaten da. Amarekin bakarrik bizi da, eta inozoa dela dio. Bere ama garbitzailea da.

30. Esti, hamalau urte, institutu publikoa

Estik maitasun-istorio bat ezkutatzen zuen. Bere eskuen bitartez iritsi nintzen horretara. Behin data bat ikusi nion eskuan eta, orduan, kostatu bazitzaion ere, bikotea zuela aitortu zidan. Mutil-lagunak hogeita bi urte zituen. Biak elizako aisialdiko taldekideak ziren, bata begiralea eta bestea partaidea. Auzo txikian bizi izanik, harreman horri buruz zurrumurruak sortu zituen. Gurasoek hasieran onartu ez bazuten ere, azkenik beren onespena izan zuen. Umore kutsu batez, bere familiakoak arraroak direla dio. Gurasoek zaintza-lanak egiten dituzte, aita lorezaina da eta amak zaharrak zaintzen ditu. Bikotekidea nagusia izateak zaintza berezia eskaintzen dio, aisialdiari dagokionez. Izan ere, berarekin partekatzen duen aisialdian askatasun handiagoa du, lagunekin dagoen momentuan baino. Fantasiazko liburuak irakurtzea gustuko du, haurtzaroarekin loturik daudenak. Telebistan barre egiteko serieak, *Disney Channel*⁴⁵ eta horrelakoak, ikusten ditu. Denboraldi batez, *Superpop*⁴⁶ bezalako aldizkariak irakurtzen zituen.

31. Ziortza, hamalau urte, institutu publikoa

Ziortza kexatzen da irakasleak gurasoei bera liderra zela esan zielako. Berak ukatu egiten zuen. Nortasun handiko neska da, gustuko dituen gauzak argi eta garbi esaten ditu eta ziurtasunez jokatzen du. Bere izaeraz kontziente da, ez dela isiltzen onartzen du. Gehien gustuko duena lagunekin egotea da eta ondo pasatzea. Bera ez da ikaskideen auzoan bizi, aldameneko auzoan baizik. Bertan, txikitatik ezagutzen dituen lagunak ditu. Horiekin hasi zen nerabeen aisialdi-eremuetara joaten: parkeetara, jai batzuetara... Mutilekin hobeto eramaten dela dio, gelako neskek mutilekin daudenean soilik bikote-erlazioez hitz egiten dutelako. Hala ere, neskekin gehiago ibiltzen da. Gurasoekin konfiantza duela esaten du. Larunbatetan edaten badu edo mutil bat gustuko duenean bere amari kontatzen dio. Amak asteburuetan taberna batean egiten du lan eta aitak, berriz, lantegi batean.

⁴⁵ *Disney Channel* gaztetxoei zuzendutako telebista katea da.

⁴⁶ *Superpop* nerabeei zuzendutako aldizkaria da, estatu maila argitaratzen dena.

2.3.4 Eztabaida-taldeak

Maitasun bizipenetan gehiago sakontzeko asmoz, bederatzi eztabaida-talde ere burutu ziren, zortzi edo sei nerabez osaturikoak. Ikerlanean ez dute elkarritzeta sakonek beste pisu izan, baina oso baliagarriak izan dira. Izan ere, horien bidez, pertsonen arteko komunikazio eremua sortu da taldearen diskurtsoa bideratzeko eta aztertzeko (Algualcıl, 2011:35). Horrela, eztabaiden bitartean, zenbait ikuspegi, iritzi eta errealtitate gurutzatzeko abagunea eratzen da, non diskurtso indibiduari taldeko diskurtsoa gainjartzea posiblea izan daitekeen:

“El análisis de una entrevista de grupo se asemeja, en cierto modo, a la construcción de un drama teatral en el que cada personaje conserva y expresa su propia personalidad, y, al mismo tiempo, contribuye a la creación de la convivencia social tema del drama. El análisis de la entrevista de grupo no puede reducirse a reproducir por separado la personalidad social de cada individuo participante, pero tampoco puede limitarse a recoger lo que el grupo opina como tal, opina, valora o expresa. Unas veces es el consenso entre los miembros del grupo, otras veces es la discrepancia, unas veces el proceso de disgregación y herejía, otras el de la homogeneización y de aculturación interna a lo largo de la entrevista, pero siempre debe mantenerse el doble nivel de realidad y de influjos mutuos.” (Ruiz de Olabuénaga, 1989:168)

Horregatik, nerabeen maitasunaren inguruko sinesmenak eta usteak taldearen eraginez eraldatuko ziren susmoagatik, talde-eztabaidak egin ziren. Ildo beretik, genero-normativitateari modu zuzenagoan heltzeko aukera ere aurreikusi zen: generoaren inguruko hainbat sinesmen azalduko zirelakoan (“*neskak dira...*” edo “*mutilak dira...*” bezalako aipamenak). Gainera, zenbait gertakizunen perspektiba osatuagoa bilatu da; taldean egonda, eztabaidarako elkar estimulatzen zuten eta zenbait gertaera gogoratzean kide guztien arteko narrazio osatuagoa era dezakete (Roca, 2010:94). Esate baterako, institutu publikoko nesken kasuan, gatazka baten aurrean errealtitate eta bizipen ezberdinak agerian jarri zitzuzten, eta horrek euren arteko harremana hobetzeko aukera

eman zien. Horregatik, taldeko elkarrizketetan hainbat arlo idealizatzeko joera urriagoa da, ezagunek euren artean kontrol funtzioa izan dezaketelako (ibidem:95).

Garrantzitsua da taldeko eztabaiderako testuinguruaren eraketa egokia egitea. Elkarrizketa sakonetan amodioari buruz mintzatzeko espazio intimoa edukitzeko beharraren alde egin dut, eta eztabaidea taldeetan hori mantentzeko ahalegina egin da. Hori dela-eta, jadanik elkar ezagutzen zutenekin egin dira, guztiak ikastetxe eta ikasmaila berekoak. Elkar ezagututa, konfiantza handiagoz gauzatzen dira hizketaldiak, eta, askotan, gaztetxoek hitz egitera behartzen dute elkar (batzuetan elkar salatuz, “*Zuri gertatu zitzaitzun hori!*” esanez). Esandako intimitaterako espazioa eraikitzea ez da soilik antropologoaren eginkizuna izan. Askotan, eurek bihurtu dituzte intimitaterako eta sekretuetarako une, “‘*promi*’[promesa], que no sale de aquí” edo “*benga, ezin da hemendik atera*” bezalakoekin. Horrez gain, genero aldaerak ere kontuan hartu ziren, horrek maitasunaz hitz egiteko moduak baldintzatzen dituen usteagatik. Hiru eztabaideratalde neskek osatu zitzuten, beste hiru mutilek, eta beste hiru mistoak izan ziren.

2.3.4.1. Eztabaidea-taldeetarako gidoiaren diseinua

Talde eztabaideetako gidoia elkarrizketa sakonetakoa baino irekiagoa izan da. Eztabaiderako zenbait gai zehaztu ziren, asko esaldi soilak ziren, adibidez: “*Nerabe guztiak berdinak zarete*” edo “*Laranja erdia: egia ala gezurra?*”. Gai horiek nahierara garatzen utzi zitzaien gaztetxoei, betiere ikerketaren helburuetara gidatuta. Ardatz nagusiak ondorengoak izan ziren:

- Aurkezpenak⁴⁷
- Nerabeak gaur egun (“*Denak berdinak zarete?*” esanez hasten zen).
- Laguntasuna (lagun motak, neska eta mutilen arteko aldeak, botere-harremanak, sekretuak...).
- Bikote harreman afektibo-sexualak (esperientziak, bizipenak, erlazio mota, gorputz-lanak, Tuenti erabilera, genero ezberdintasunak...).

⁴⁷ Nahiz eta aipatu denez nerabeek elkar ezagutzen zuten, aurkezpena egiteko eskatu zitzaien, transkripzioan ahotsak identifikatu ahal izateko.

- Maitasuna (sailkapenak, emozioak, mitoak, genero ezberdintasunak...)

Esan bezala, askatasunez hitz egiten zuten gai horien inguruan. Gidoiak erabat hertiak ez izateak tokian tokiko gatazka eta gertaerei erreparatzeko aukera eman zuen, euren esperientziatik hitz egin zuten-eta. (ikus. II eranskina: Eztabaidea taldeetako gidoia).

2.3.4.2. *Eztabaidea-taldeen prozedura*

Eztabaidea-taldeetako parte hartzaleen gurasoei ere baimena eskatu zitzaien. Baimena eskatzeko prozedura elkarrizketa sakonen bera izan zen: lehendabizi, nerabeei galdetu zitzaien; bigarrenik, irakasleei, eta, hirugarrenik, gurasoei. Eztabaidea-talde guztiak ere audioz grabatu ziren. Luzeenak bi ordu iraun zuen eta laburrenak ordubete.

Eztabaidea-taldeen prozedura uste baino esanguratsuagoa izan zen. Eztabaidea taldeei oso harrera ona egin zieten gaztetxoek, batez ere ikastetxe erlijiosoko mutilen eta nesken kasuetan. Mutilen taldeak, talde eztabaidea amaitzean, pena erakutsi zuen, hitz egiten jarraitzen gogoz agertu ziren; “*yo prefiero estar hablando aquí, que paseando en el patio*” bezalakoak bota zituzten. Nesken taldean ere asko gustatu zitzaiela esan zidaten. Talde horretan gatazka egon zen, nik aukeratutako zortzi neskengatik, aukeraketatik kanpo gelditu zirenak mindu egin omen ziren-eta. Lehen eztabaidea saioaren ondoren, arazoak hasi ziren: mindutako neska horien arteko bat berari buruz gaizki esaka ari ginenla esaten hasi zen. Hori dela-eta, eztabaidea-taldean parte hartzen zuen neska baten amak deitu zidan, bere alaba eztabaidea taldeetik kentzeko eskatuz. Izan ere, bera eta mindutako neskaren ama lagun talde berekoak ziren, denak ikastetxe horretako ikasle ohien emazteak. Berak ez zuen arazo sozialik nahi.

Ikastolako eztabaidea taldeetan ere nerabeek gogoz parte hartu zuten. Saioak eskola amaitu eta gero egin ziren. Eztabaidea talde mistoa bi neska eta bi mutilekin egin zen, eta eztabaidek ez zuten beste batzuetan bezalako jariotasuna izan. Mutil baten ustez, “*parece que nos estás intentando sobornar, porque nos haces preguntas y nosotros contestamos, y no es una falta de respeto, pero no nos interesa el tema.*”. Hori esan eta gero, nesketa batek gaineratu zuen: “*Sí que nos interesa*”.

Ikastolan eta institutu publikoan batez ere, genero aldaera nabarmenak nabaritu nituen eztabaidea taldeak gauzatzean. Mutilek batez ere maitasunari buruz hitz egiteko erresistentziak jarri zituzten, gustukoa ez zutelako eta aspergarria zelakoan. Institutu publikoko mutilekin, batik bat, sentimenduez mintzatzea oso zaila izan zen, elkarritzeta guztiak sexuari buruz izaten amaitzen zutelako. Gaia amodiorantz bideratzen ahalegintzen nintzen bakoitzean, beraiek “*y dale con el amor! que ya te hemos dicho que no vamos a hablar de amor, que no nos hemos enamorado!*”, “*paso del rollo*”, “*a mí me aburre hablar todo el rato de maitasuna*” edota “*Amor no, pensamos en una tía con tetas*” bezalakoak bota zituzten. Horrez gain, sexualitateak talde horretan zuen pisua izanda, euren gelako neskak masturbatzen ote ziren galdetu zidaten, aurretik elkarritzetatu nituelako. Nik eztabaidea taldeetako informazioa ez nuela partekatuko esan nienez, jarrera “maskulino” osoz egin zidan planto talde horrek: euren gelako neskak masturbatzen ote ziren esan ezean, ez zuten hitz egiten jarraituko. Nesken eztabaidea taldeari dagokionez, tentsio handia eta konfrontazio asko nabarmendu ziren. Izan ere, gatazkak zituzten bi kuadrillako kideak izan ziren partaideak. Euren arteko gatazkaren ikuspegi biak mahai gainean jartzeko aukera izan zuten. Azkenik, eztabaidea talde mistoan, lagun talde bakarra izan zen. Hor, neskak mutilen aurka eta mutilak nesken aurka aritu ziren, hainbat gertaera elkarri leporatuz. Eztabaidea talde horretan, era argian azaleratu zituzten nerabeen arteko txutxu-mutxuek eta sekretuek bideratzen zituzten botere-harremanak eta gatazkak.

Ezustean, eztabaidea taldeek klase sozialaren inguruko hausnarketa egitera bultzatu ninduten. Alde batetik, goi-klaseetan erakutsi zuten asebetetze mailagatik, maitasunaz eta sexualitateaz hitz egiteko muga ugari eta espazio gutxi zutela pentsatu nuen. Bestetik, behe-klaseko mutilek amodioaz mintzatzean agertu zituzten erresistentzia guztiak agerian jarri zuten klase sozial horretako maskulinitate eredu. Horrek Eva Illouzen (2010) lanean aipatutakoa gogorarazi zidan: behe-klaseko gizonek sentimenduez hitz egiteko zaitasun gehiago dituztela.

2.3.5 Ikerketa denboraz gaindi

Prozesu etnografikoan nire egunerokotasuna eraldatu zen, lekuaren lekuko lanean emandako denboraz gain, nerabeei zuzendutako pelikulak ikusten eta liburuak irakurtzen hasi bainintzen, adoleszenteen munduan era ezberdinan barreiatzeko. Horregatik, metodologiari dagokionez, horren formala ez den azterketa esparrua azpimarratu nahi dut. Sarritan bizi izan dut aisialdiaren eta lanaren arteko uztarketa, edota ikerketaren eta bizitza pertsonalaren arteko, non mugak askotan indargabetzen diren. Lanari eskainitako denboraz gaindikoa den ikerketa-prozesu batez hitz egingo dut, nire egungo esperientzian edo iraganekoan oinarritzen dena: lagunekin edo ezagunekin izandako elkarrizketak, aurretiaz gaztetxoekin izandako esperientzia... Horrek guztiak modu sakonagoan hausnartzeko aukera eman dit, batez ere, ikuspegi helduzentrikoa⁴⁸ ulertzeko balio izan didana.

Ekarpenean “informaltzat” jo ditudan horietan, inguruko heldueekin izandako elkarrizketetan, batik bat, bi joera nagusi bereizi ditut. Alde batetik, gaztetxoen maitasun kontuak jolas hutsak direla uste dutenak daude. Horien aburuz, helduek egiten dutenaren imitazio hutsak izango lirateke eta ez “benetako” amodiozko harremanak. Biziaren horiek egiazkoak ez diren susmoa dago. Mesfidantza horrek nabarmen eragin dit ikerketaren une batean, eta ni neu hasi nintzen ikergaia kolokan jartzen. Egun batean, nire zalantzen poderioz, hamahiru urteko neska bat bere maitasun-bizipenei buruz mintzatu ondoren, erlazio horiek benetakoak ote ziren galdetzera ausartu nintzen. Neskek irribarrez erantzun zidan: “*Nola izango dira gezurrezkoak?*”. Anekdoa honek neure burua modu kritikoagoan ikusteko balio izan zidan. Beste alde batetik, aipatutako beste jarrera hurrengoa da: nerabe-maitasuna beraientzat hartzen dutenen jarrera, hau da, helduak izanik gaztetxoen amodio-eredua bizi dutela aldarrikatzen dutenena. Mugitzen naizen gune feministean nabaritu dut batez ere, eta maitasun-eredu hegemonikoetan erosoa sentitzen ez diren horien artean. Horrela, hogeita hamar urte inguru dituzten emakume batzuek aitortu didate beraiek ere ikerketan sartu beharko nituzkeela, beraiek ere nerabe-maitasuna bizi dutelako. Honekin loturik, “adolestreinta” bezalako kontzeptuekin egin dut topo, bikotekiderik gabe dauden hogeita hamar urte ingurukoek erabiltzen duten terminoa beraien egoera pertsonala goresteeko. Testuinguru

⁴⁸ Helduzentrismoaren gaia hirugarren kapituluan landuko da.

horrek amodioa ikuspegi konplexuago batetik ikustera eraman nau, ez soilik bazterketa edo menderatze gune gisa, aldaketarako eta jabekuntzarako gunetzat baizik.

2.4. Datuen analisia eta idazketa prozedura

Tokian tokiko lanean jasotako datu guztiei zentzia emateko ezinbestekoa izan da maitasunaren, nerabeen eta generoaren inguruko material bibliografikoen irakurketa. Horregatik, analisia irakurmenarekin eta ikerlanaren planteamenduarekin hasi zen, eta lanaren idazketara arte iraun du (Hammersley eta Atkison, 1994:191). Prozesu etnografikoa aztertzeko, arreta handiz irakurri nituen behaketa parte-hartzaileko koadernoa eta elkarritzeten eta eztabaida taldeen transkripzioak. Dokumentu guztien hainbat irakurketaren buruan, maitasunaren ikerketarako adierazgarritzat eta gakotzat jo ziren zenbait kontzeptu errepikatzen zirela ikusi nuen: alde batetik, amodio-diskurtsoak (irudikapenak, pertzepzioak...), eta, bestetik, bizipenak eta trebakuntza. Horrekin guztiarekin, ildo bakoitzari lotutako azterketa-unitateak definitu nituen ardatz nagusiak zehaztuz. Gai nagusiak lau azpiataletan banatu ziren:

1. Maitasunaren diskurtsoak, irudikapenak eta pertzepzioak:
 1. Amodioaren ideologiak, definizioak eta sailkapenak.
 2. Maitasuna eta heteronormatibitatearen eraikuntza adin horretan -nobioak eta lagun onenak-.
 3. Maiteminaren eta desamodioaren irudikapenak (determinismoak, erronkak eta emozio lanak).
 4. Bizitzaren irudikapenak eta etorkizunerako proiekzio eta fantasiak.
2. Maitasun-bizipenak gorputz-trebakuntzan, harremanen kudeaketan eta bizi-antolaketan:
 5. Amodioaren kontakizuna: narrazioak, eredu erreferenteak eta bizipenak (emozio eta gorputz lanak).
 6. Maitasun-jakintzak adiskideen artean duen garrantzia: sekretuen kudeaketa.

7. Maitasun-fikzioen kontsumoa eta hezkuntza (formala eta ez-formala).
8. Amodioa aisialdiko denbora/espazioaren antolaketan.

Ildo horien arabera antolatu zen ikerketa enpirikoan jasotako material guztia (tokian tokiko koadernoa, elkarrizketen eta eztabaide taldeen transkripzioak), eta aipuak ere hautatu ziren. Artxibo ezberdinetan jarri ziren zortzi multzoetako edukiak. Geroago, zortzi multzo horiek ikerlanaren kapituluak izatera pasa ziren. Halaber, edukiak moldatu ziren, izan ere, diskurtsoen eta praktikaren arteko dikotomiak horiek errealitatea gehiegi sinplifikatzen zuten, bazeuden aldi berean diskurtsoa eta praktika ziren elementuak. Gero pasarte bakoitzeko aipuak bateratu egin ziren irakurketa bibliografikoan jasotakoarekin. Horrek lan etnografikoaren idazketari ireki zion bidea.

Etnografiaren idazketa zailena izan da. Hainbat beldur eta blokeo une gertatu dira, idazketa bera geldiarazi dutenak. Idazketan erabaki ugari hartu behar izan dira: etnografiaren forma, estiloa, idazlearen papera (lehenengo pertsonan idaztea edo ez)... Erabaki horiek guztiak ikerketa emaitza baldintzatu dute, eta horregatik, maiz buruhausteak sortu dizkide. Zailtasunak zailtasun, idazten ikasiz, oztopoei aurre egiten joan naiz. Oztopoen artean, batetik, aipatutako nerabeen zatikatutako elkarrizketak direla, galdera-erantzuna egiteko joera dela, euren narrazioak pasarte laburrak ziren, eta ez zegoen kontakizun luzerik. Horrek idazketa mugatu du, eta euren ahotsak erakusteko modua baldintzatu. Eduki eta kontzeptuetatik bideratu da etnografiaren idazketa, eta ez da egon osotasuna erakusteko kontakizun adierazgaririk. Bestetik, tesia euskaraz idaztea galarazpen erantsia izan da. Material bibliografikoa gaztelaniaz egonik, itzulpen lan etengabeak egitera behartu nau. Horrela, euskaraz erabili ohi ez diren kontzeptu berriak sortzea ere ekarri du (helduzentrismoa, kasu). Horrek zuzentasun kontzeptualaren eta zuzentasun linguistikoaren arteko tirabirak piztu ditu. Esate baterako, zenbaitetan kontzeptua bera lehenetsi da eta euskarazko itzulpena ez da izan guztiz egokia.

Ikerketa prozesu guztia aintzat harturik, zailtasunik handiena antropologoaren bizenak, gazttxoen narrazioak eta jokaerak, tokiko laneko gertakizunak eta teoria antropológiko eta feministak kontakizun berean uztartzea izan da, hurrengo kapitulueta egingo dudan horixe, hain zuzen ere.

III. NERABEEN MAITASUN BIZIPENAK

1. MAITASUNAREN DEFINIZIOAK, SAILKAPENAK ETA HIERARKIAK GIZARTE ANTOLAKETAREN BAITAN

Kapitulu honetan, amodioaren kontzeptualizazioei eskainiko zaie arreta, horiek ahalbidetzen dituzten arauak, definizioak, sailkapenak eta mailaketak ulertzeko, baita gizarte antolaketan duten eragina agerian jartzeko asmoz ere. Horretarako, nerabeen narrazioak izango dira oinarri.

1.1 Maitasuna gizarte antolaketaren erdigunean: arautegi emozionala, gorputz afektiboa eta genero harremanak

1.1.1 Normatibilitate emozionalaren zantzuak nerabeen maitasun bizipenetan

Giza egitura emozionalak edo emozio erregimenak deritzenak amodioa bizitzeko eta ulertzeko erak ahalbidetzen dituzte, gizarte egitura bera sostengatzen duten bitartean. Arau horien indarrak gorputzetan, harremanetan eta praktiketan du eragina dimensio kultural, sozial eta politikoen baitan; betiere, taldeen arabera, normatibilitate emozional hori aldagarrria, kontingentea eta zehatza izanik (Tausiet y Amelang, 2009). Esanahi normatibo horiek, Rosaldori (1984) eta Estebani (2011) jarraiki, kultura afektiboaren baitan gorpuzten dira (Le Breton, 2009). Era horretara, ekintzarako eta esperientziarako eskemak eskaintzen ditu erregimenak norbanakoaren jokaera bideratzeko, betiere bere bizi-istorioak baldintzatuta (ibidem).

Nerabeen kasuan, haien bizitzen inguruko narrazio jasorik edo garaturik ez izateak metodologikoki oztopoa izan bada ere, emozio-arauak aztertzeko toki aparta eskaintzen du. Izan ere, gaztetxo askok oraindik ez dituzte sentimendu batzuk bizi izan, baina horien inguruan aritzen dira nolakoak diren adieraziz. Zenbait emozio modu zehatzetan biziako prestutasuna erakusten dute euren narrazioetan, normatibilitate emozionalean oinarritutako baieztapenak eginez. Adierazpen horiek maitasun-trebakuntzaren isla ere

badira, amodioaren kontzeptualizazioa barneratzearen ondorio, lan honen seigarren kapituluan ikusiko dugunez. Hemen arautegi emozionalari erreparatuko zaio:

“El sentimiento es diferente, yo voy a sufrir más si se me muere la madre que si se me muere un amigo. Se siente de otra manera, el sentimiento es más intenso. Yo quiero a mi familia, porque es mi familia, la veo todos los días. Paso mucha más horas con mi familia, los fines de semana todo. Lagunena eta nobioen artekoa ba... con los amigos vas a pasártelo bien y con a la novia la tienes que hacer feliz. A los amigos también pero de otra manera, somos mucha más gente. En el sentimiento hay diferencias, tienes diferente sentimiento a tu novia que a los amigos. La diferencia no sé.”
(Iker, 13 urte, institutu publikoa)

“El amor es importante. El amor está para estar a gusto. Para estar mejor con alguien, con cualquiera si le quieres. Si le pasa algo con tristeza, por ejemplo si se muere alguien que quieres estas mucho más triste que si se muere el de la clase de al lado. Sientes tristeza si le pasa algo, si le pasa bueno alegría, según lo que le pase. Si le quieres sientes alegría, sufrimiento si le pasa algo.” (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Harremanen sailkapena aztertu baino, gero horren inguruan arituko baikara, prestutasun emozionala nabarmendu nahi da: nerabe horiek zenbait sentimenduren esperientzia izan ez badute ere, “jakin badakite” nola eta noiz biziko dituzten. Horrelako zantzuak etengabeak izan dira gaztetxoen narrazioetan; bada, bizi-istorio laburra izan arren, amodio-diskurtsoetan, baita beste emozio batzuetan ere, marko normatibo emozionalaz baliatzen dira haien kontakizuna sortzeko. Horregatik, haien kontaketetan maitasunaren inguruko sentipenak, bizipenak, gorputz-jarduerak eta zenbait gertaera aurreikusten dituzte, erregimen emozionalaren ondorioz. Horrez gain, normatibilitate horrek dituen alderdi moralak ezin dira ahaztu, kasu bakoitzari zein sentipen dagokion zehazten dutenak; zein sentipen den egokia eta zein ez den egokia zehazten dutenak, azken finean. Gainera, genero eta klase eduki zehatzak dituen moralitate horrek gizarte antolaketa zehatza dakar, eta nerabeen kasuan etorkizunera begira egindako proiekzioetan nabarmentzen da:

“Dentro de veinte años ya me gustaría tener una familia del todo hecha, casado. Porque yo esto de que ahora no se case la gente lo veo muy raro, porque si siempre se han casado ahora también. Yo me veo casado y, como me dice mi madre, voy a tener primero un niño y luego una niña.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

“Imajinatzen dut denborarekin, nagusiagoa naizenean bikotea izango dudala. En plan, pareja bai eta umeak izan nahi ditut. Denbora laburrean...eske ni naiz oso lotsatia, orduan... Ez naiz imajinatzen mutil batekin, klasekoekin eta hori bai, baina ponte de cara a cara eta bizitzea berarekin bakarrik, eta gero umeak dituzunean ya ez dizu kasurik egiten. Lehenengo da ezagutu, adibidez hori ez dut imajinatzen. Ematen dit como corte. Baina etorkizunean ez da izango horrela. Orain gehien maitatzen ditudanak dira nire ama eta aita, baina nik beti esaten dut etorkizunean maiteko ditudala berdin nire semea eta nire ama. Baina adibidez nire amak maite nau gehiago ni, bere ama baino. Es que ‘ama’ da la leche! Etorkizunean, lagunak maitatuko dituzu baina ez horrela, ze bikotea izango duzu berari esango dizkiozu gauzak ez lagunei. Momentu horretan seme-alabei eta bikoteari maiteko diezu.” (Leire, 12 urte, ikastola)

“Dentro de veinte años me veo cambiada. Y casada, me quiero casar con treinta y uno. Voy a tener dos hijos o cuatro, yo por las pelis. Los de Narnia⁴⁹, son chico chica, chico chica. Me gusta mucho, o mi madre son cuatro chicas, está chulo. Me casaría con un chico, y no podría ser un inmigrante. La vida ideal sería con el chico que me gusta, la media naranjita... en el campo, con un chalet en una zona super bonita, cara, con una piscina, muy lujosa, yo me lo imagino así.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

⁴⁹ Crónicas de Narnia haur eta nerabeei zuzendutako filmea da: “La historia narra las aventuras de cuatro hermanos: Lucy, Edmund, Susan y Peter que, durante la Segunda Guerra Mundial, descubren el mundo de Narnia, al que acceden a través de un armario mágico mientras juegan al escondite en la casa de campo de un viejo profesor. En Narnia descubrirán un mundo increíble habitado por animales que hablan, duendes, faunos, centauros y gigantes al que la Bruja Blanca- Jadis- ha condenado al invierno eterno. Con la ayuda del león Aslan, el noble soberano, los niños lucharán para vencer el poder que la Bruja Blanca ejerce sobre Narnia en una espectacular batalla y conseguir así liberarle de la maldición del frío.” <<http://www.filmaffinity.com/es/film366537.html>>

Arau-emozional horiek guztiak nahi eta desira konkretuak bideratzen dituzte, ideologia kultural baten ildotik (Esteban, 2011), eta ardatz horiek dimensio politikoari ere badagozkie (Holchschild, 2008). Alor horrekin hertsiki lotuta daude nerabeen etorkizunerako proiekzioetan azaltzen diren ñabardurak: maitasuna nahitaezkoa, heteronormatitatea, ezkontza, seme-alabak, klase ideologia... Batetik, gizarte antolaketa zehatz bat sostengatzen dute, emozio horren kontzeptualizazioaren ondorioz, eta etorkizuneko bizitzaren hainbat ardatz hartzen dituzte proiekzio horiek, esate baterako, prestigio sozialari dagokiona. Izan ere, amodioa bizitzan arrakasta izateko moduetako bat da, eta, horregatik, prestigio horren eraikuntzaren parte dira emozio horren kontakizuna inguratzen duten ezaugarri material eta sozialak (adibidez, Nataliaren proiekzioan etxe handi eta luxuzkoan bizitzea). Bestetik, nerabeak, beraien narrazioetan, uzkur agertzen dira maitasun erregimenean egon diren zenbait aldaketaren aurrean: egun jendea ez ezkontzea ulertzen ez duena, kasu. Horrela, erregimen emozional horren barnerapenaren bidez, hainbat aldaketaren aurreko erresistentziak daude, aipatutako ordena morala berrezartzen delako.

Gainera, desira eta amets horiek Illouzek (2010) aipatzen duen sentipen erromantikoaren utopia kolektiboaren parte dira. Hartara, maitasunak duen zentralitateak bultzatuta, utopia erromantikoak gaztetxoen bizi-ibilbideak gidatzen ditu familia heteronormatibo baterantz. Izan ere, sexualitatearen, intimitatearen eta familiaren ulerkeran, aurreko belaunaldiekin zenbait aldaera dauden arren, nerabe horien diskursoetan amodioaren eta familiaren ideologiekiko jarraitutasunak daude: familia nuklearrak eta ezkontza heterosexualek erdigunean egoten jarraitzen dute.

Orobat, esan bezala, erregimen emozionalak zenbait gorpuzkera, harreman eta ekintza bideratzen ditu. Nerabeen narrazioetan, horiez gain, prestutasunen bidez azaltzen da arautegi hori, haien bizi-esperientziak urriagoak direlako. Izan ere, sarritan, gaztetxoak ezin daitezke euren biziainen oinarritu, baizik eta haien uste eta sinesmenetan. Gizarte antolaketari dagokionez, horixe mantentzeko joera du egitura emozionalak, ordena moralaren, utopien eta itxarobideen bitartez. Horrela, nerabeen diskursoetan, aldaketarako erresistentzieta, heteronormatitatean zein prestigio sozialean islatzen da erregimen emozionala, besteak beste.

1.1.2 Maitasuna definitzen: gorputz afektiboaren irudikapenak

Ez da erraza emozioak hitzez definitzea; ondorioz, nerabeek beste sentipen batzuetara eta gorputz-bizipenetara jotzen dute horiek azaltzeko. Batzuek emozio horiek bizi izan dituzte jada, beste batzuek, aldiz, ez. Horregatik, gaztetxoen narrazioetan gorputz afektiboaren inguruko irudikapenak daude, jadanik aipatutako kultura afektibo horren baitan. Irudikapen horietan lau ardatz nagusitu dira amodioa definitzeko: zoriontasuna, bakardadea, sufrimendua eta zaintza.

a) Zoriontasunaz

Egun, Mendebaldeko jendartean, zenbait bizipen positiborekin lotzen da maitasuna, baita ikerketako nerabeen narrazioetan ere. Sentipen horietako bat zoriontasuna da. Izan ere, Illouz-i (2010) jarraiki, amodioa, biktoriar garaian, autoezagutza eta eraikuntza espiritualarekin lotzen bazen ere, XX. mendearen hasieran berezko balore bat izatetik zoriontasunerako bide bihurtu zen, hau da, indibidualtasunarekin eta esfera pribatuarekin lotzen hasiz (2010:56). Norbanakoaren xedetzat eta norbanakoaren esku utzi da zoriontasunerako aukera. Sara Ahmed-en (2010) arabera, egun nahien eta desiren erdigunean dago zoriontasuna. Bere aburuz, Mendebaldeko gizartean gero eta garrantzia handiagoa ematen zaio sentipen horri; obsesio bihurtu da, hortaz, hainbat asmo eta ekintza gauzatzen dira horren arabera. Hori dela-eta, Ahmedek nabarmentzen du, kultur afektiboari jarraiki, sentimendu horrek bizitza antolaketa bideratzen duela. Zoriontasuna eragiten duten objektuetarantz zein ekintzatarantz jotzen da, praktika, balio, estilo zein itxarobide zehatzekin, betiere, komunitate afektiboaren baitan (2010:20). Hartara, nabarmendu du “zoriontasunaren bira” gauzatu dela, esate baterako, “zoriontasunaren industria” deritzonarekin: zoriontsuak izateko mekanismoak eta irudiak zabaltzen dira liburu, irudi eta filmen bitartez. Ildo horretatik, zoriontasuna eta maitasuna hertsiki lotuta daude, sarritan batak bestea indartzen duelako. Bietan azpimarratzen da norbanakoaren ongizatea, eredu kapitalistari jarraiki. Ondorioz, esan daiteke zoriontasunaren bitartez ere maitasunaren zentralitatea sostengatzen dela, amodioa delako zoriontasunerako garaiatzaleetako bat. Horrela gertatzen da

ikerketako nerabeen diskurtsoetan ere bai, non amodioa eta zoriontasuna etengabe uztarturik agertzen diren:

“Se comportan de forma diferente las personas que tienen pareja, cuando tienen novio están más así más buuu, se llenan más de alegría, porque tú imagínate tienes alegría solo hasta el pecho, de pecho para arriba te falta ese cacho, pues ese cacho te lo da la pareja. Una cosa que te haga mucha ilusión, pues, te sube esa alegría. Pero también de comportamiento estás más contento y luego como que todo te da igual, estás en las nubes y como que todo te da igual.” (Ekain, 14 urte, instituto publikoa)

“El amor es una cosa que todos han sentido alguna vez, y que es bonito, pero no siempre sale bien. Alegría, cuando sientes amor estás alegre. Casi siempre ves las cosas positivas.” (Gotzon, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Maitasuna da sentimendu bat, oso polita. Nik uste dut maitasuna bizitzan zehar izan behar duzula, bizitzako parte bat, familia bezala. Maitasuna izan behar da, eguna zehar alaitzeko arrazoiak ematen dizkizu, gero ere pozten zara. Adibidez triste zaudenean pentsatzen duzu gogoko duzun mutilaren inguruan eta alaitzen zara. Baino maitatzeak ere gauza txarrak izaten ditu zuk gogoko duzun mutila beste pertsona batekin badago, zuk sufritzen duzu. Baino nik uste maitasuna izan behar duzula bizitzan zehar, oso polita delako. Lasaitasuna sentitzen duzu. Zuk ikusten baduzu pertsona hori, bihotza hasten da horrela egiten eta sentitzen zara “a gusto”. Azkartu egiten da eta gorri jartzen zara eta oso ondo sentitzen zara. Lasai sentitzen zara eta gauza oso polita da eta aparte ematen dizu alaitasuna. Maiteminduta bazaude, pertsona horrek begirada bakar batekin alaitzen dizu eguna. Egun batean matematikako azterketa penkatu nuen eta gustuko nuen mutilak errekreo orduan begiratu zidan eta ni jarri nintzen oso pozik. Lasaitasuna eta alaitasuna, baina ere gauza txarrak ekartzen ditu.” (Mireia, 13 urte, instituto publikoa)

Amodioa eta zoriontasuna elkarrekin agertzen dira narrazio guztieta. Zoriontasunak indartu egiten du maitasunaren normatibilitatea, baita proiektatzen duen gizarte

antolaketa ere. Nerabeek zoriontasunerako giltzarria dakusate maitasuna sentitzean, hala nola, bikote harreman-afektibo sexuala izatean, horrek duen zentralitateagatik. Kulturalki, bikote harremanei ematen zaien balio handiegiagatik, bikotekidea izateko aukerak sortzen duen ilusioa ere zoriontasunarekin loturik dago.

b) Bakardadeaz

Amodioaren beste adiera bat bakardaderena da, alabaina, oposizioz: “*bakarrik ez egoteko*” argudioarekin justifikatu egiten da maitasuna, baita nerabezaroan ere. Haien aburuz, bakartasuna saihesteko bidea da sentipen hori, antonimoak direlako. Izan ere, maitasunik gabe bakarrik geratzeko beldurra dago:

“*El amor es importante si no te quieres quedar solo, pues sí. Pero cada cosa a su tiempo.*” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“*Yo creo que es importante el amor. Porque si nadie te quiere tú estarías solo. El amor sirve para tener novio y eso. Y luego yo creo que si tú no tienes amor no estarías bien contigo mismo, estarías solo.*” (Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Beldurraren mehatxuaren indarrez, bakardadea ere erromantikoaren ideologiaren ezarpenerako eta gizarte antolaketarako mekanismoa da: inor gabe geratzeko “arriskua” sumatzen dute. Nerabeen diskurtsoetan, etorkizunari begirako proiekzioetan du tokia nagusiki ikuspegি horrek:

“*En el amor ahora quiero más. Tengo que conseguir a alguien para que esté en mi vida, sino voy a estar solo. Es importante conseguir alguien para no estar solo. Antes el amor no era nada, éramos pequeños, no sabíamos y decíamos a todo que sí. Yo no he hecho nada por cambiar.*”(Mikel, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“*Está bien tener pareja. Cuando eres mayor, igual te sientes solo.*”
(Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Bakartasunari aurre egiteko xedezi, etorkizunean familia eredu heterosexuala eraikiko dutela aurreikusten dute gaztetxoek. Halaber, Coriak (1995) dio emakumeek beldur handiagoa diotela bakardadeari, maitasunak haien biografiatan duen tokiagatik. Horregatik, harremanak hausterakoan, zailtasun gehiago izaten dituzte, “huste afektiboak” harremanak eteteko beldurra eragiten baitie:

“Badago jendea igual banatzen dena eta ez duena berriz ere bere media laranja aurkitzen, eta bakarrik dago. Nik hori ez dut nahi.” (Enara, 14 urte, ikastola)

Nahiz eta kapitalismoaren garapenarekin batera (tokian tokiko berezitasunak izanik) individualismoaren balorea nagusituz doan, bakardadeak zentzu negatiboa izan ohi du. Maila batean kontrajarria iruditu dezakeen arren, maitasun erromantikoaren barnean funtsezkoak dira norbanakoaren interesak eta nahiak. Horregatik, egunerokotasunari dagokionez, bakardadeak ez du beti zentzu negatiboa. Amodioan pentsatzeko, hausnartzeko eta, aldi berean, trebatzeko unea ere bada:

“Askotan pentsatzen dut maitasunean, batzuetan bai. Normalean etxearen bakarrik nagoenean ohean, lokartu ezinik. Pentsatzen dut mutilei buruz batez ere.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Besteak beste, imajinazioa garatzeko unea da bakardadea, hala nola, maitasun fantasiak izateko unea, nesken arabera. Bakardadea erakargarria ez bada ere haien etorkizunerako, bizi-proiekzioak egiteko unea eskaintzen du, eta horrela amodio ideologiak indartzen dira.

c) *Sufrimenduaz*

Zoriontasunarekin eta bakardadearekin batera, sufrimenduaren inguruko narrazioak agertzen dira. Maitasuna sentipen horrekin lotzea prozesu historiko baten ondarea da. Denis de Rougemont-ek, *El amor y occidente* (1979) lanean, Mendebaldeko maitasun-erregimenean sufrimenduak izan duen tokia azaltzen du. Egilearen arabera, ezkontzaz kanpoko maitaleengan ditu oinarriak. Izan ere, maitasunarekin lotu ohi den “pasio”

hitzak, oinarrian, sufrimendua esan nahi du. Horrez gain, autoreari jarraituz, maitasuna eta sufrimendua uztartzen dituen eredu horren hedapenean literaturak eragin nabarmena izan du. Arestian aipatutako zoriontasunaren helmugarekin kontrajarriz, Rougemonten arabera, zoriontsuak ez du tokirik izango amodioari buruzko literaturan, soilik, sufrimendua eta heriotza uztartzen duten gertaerak izango dira erakargarriak, eta *Tristan e Isolda* kontakizuna da horren aitzindaria. Egilearen iritziz ikuspegi horrek beste literatura ereduetatik berezituko du Mendebaldeko literaturan. Zentzu horretan, nerabeen narrazioetan sufrimenduaren zantzuak agertu dira istorio erromantikoari loturik.

Halaber, Illouzek horren inguruko azterketa sakonagoa egin du *Por qué duele el amor* (2012) lanean. Haren ustez, sufrimendu erromantikoak lau marko kulturalak zehaztuko lituzke: aristokrazia, kristautasuna, erromantizismoa eta medikuntza.. Laburki, aristokraziari dagokionez, gorte-maitasuna dela-eta, dolua lehen postuan zegoen maitasun-esperientziaren barnean. Sufrimenduaren bitartez, maitasuna justifikatu egiten zen, baita maitalearen arima goraipatu ere. Praktika horiek nobleziarekin lotzen ziren, sufrimendua balio aristokratiko bihurtu baitzen. Marko kristauari dagokionez, arima garbitzeko bitartekaria izan zen sufrimendua. Norbanakoa ahultzeaz gain, hori eraikitzen eta goraipatzen du. Hala ere, kristautasunaren gainbeherarekin, Illouzen aburuz, adierazpen artistikoetan uztartzen hasi ziren maitasuna eta dolua, batez ere, erromantizismoaren garaian. Melankoliaren bitartez amodioaren estetizazioa eratuko da. Autoreak gizonezkotasunarekin lotzen du adierazpen eredu hori, sufrimendua pairatzeak ausardia ekartzen zuelako. Azken markoari dagokionez, biomedikuntzaren markoan, alegia, dolua “amodio-gaitza” izendatu zen XVI eta XVII. mendeetan, gorputzaren anabasaren ondoriozat hartuta. Gaixotasunarekin parekatu eta osabideak bilatuko dira. Egun, industria kulturalean maitasunak eta sufrimenduak elkar lotuta jarraitzen dute, moldeak garai berriei egokitutu zaizkien arren. Sentipen hori definitzeko konplexutasunean, gaztetxoen narrazioetan, sufrimenduaren arrazoiak asko dira:

“Lasaitasuna eta alaitasuna, baina ere gauza txarrak ekartzen ditu. Gorrota ere adibidez, eta sufrimendua. Zuk gogoko duzun mutila beste pertsona batekin badago, zuk sufritzen duzu. Baina nik uste maitasuna izan behar duzula bizitzan zehar maitasuna oso polita delako.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

“Batzuetan poza beste batzuetan amorrua, sufrimendua batzuetan, hiruretan egon daiteke. Lagun batekin joan delako leku batera eta ez duzulako berriro ikusiko. Adibidez, Paula eta hauek hirukote bezala daudenean batzuetan me fastidia que digan de la gente cosas que no saben eta gero joatea ukatzen. Yo tengo claro quienes son mis amigas.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

“Puedo relacionar el odio, que es algo todo lo contrario al amor, la amistad, que es muy parecida al amor entre los amigos, el cariño que sientes hacia la familia. Amor, alegría, felicidad, todo lo bonito, tristeza, sí te parten el corazón, pero yo sobre todo pienso en positivo. Sí es importante el amor, sin duda.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“A ver, a ver... el amor es una cosa que todos han sentido alguna vez y que es bonito, pero no siempre sale bien. Alegría, cuando sientes amor estás alegre. Casi siempre ves las cosas positivas. Con el sufrimiento también un poco. Porque tú puedes sentir amor por una persona y no gustarle a la otra.” (Gotzon, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Maitasunarekin pozik zaude pertsona horrekin zaudenean, tristura sentitu dezakezu esaten dizunean zerbait ez zaizuna gustatzen. Sufrimendua ez dakit... no creo que sufras al tener una novia.” (Iker, 13 urte, institutu publikoa.)

Nerabeen diskurtso horiei erreparatuta, generoaren araberako aldaerak aurki daitezke: nesken diskurtoetan maitasuna sufrimenduari loturik modu zuzenagoan agertzen da, eta mutilak, ordea, eszeptikoagoak dira. Arestian aipatu den bezala, emakumeak “gehiago maitemintzen diren” sinesmenetik “emakumeek gehiago sufritzen dutela” ondorioztatzen da, nahiz eta nerabeek denok sufritzeko aukera aurreikusten duten: “Neskek gehiago sufritzen dute, gehiago maitemintzen direlako.” (Asier, 14 urte, institutu publikoa)

Aurretik idatzitako “Maitasuna, generoa eta nerabezaroa: ikerketa baten emaitzak” (2010) artikuluan, mutilen diskurtoetan sufrimenduren aipamenik ez zegoela baieztagoan banuen ere, egun hori zehazteke dago. Gaztetxoen diskurtso eta bizipenetan sakondu ahala, esan daiteke mutilek ere sufrimendua bizitzeko aukera aurreikusten dutela.

Genero aldaera sufrimendua kokatzeko “leku” legoke. Sufrimendua desamodio prozesuetan egotea da sinesmen orokorra; bai harremanak uztean, bai jeloskortasuna sentitzean. Nesken diskurtsoetan zabalagoa da sufrimendua eta maitasuna elkar lotzeko joera. Batetik, neskek maitasunari eskaintzen dioten denbora handiagoa da (pentsatzen, irakurtzen, entzuten, ikusten, hausnartzen...), eta horrek porrotaren aurreko frustrazio handiagoa eragin diezaieke, sufrimendua nagusitz. Bestetik, ikerketako neskek sufrimendua bikote harremanen barnean kokatzeko aukera aurreikusten dute. Ikus dezagun horren adibide bat:

“Sufritu daiteke gauzak ez doazelako ondo (...) es como tus padres, es como los padres que pegan a los niños. Imagínate, tú no dejarías que porque te pegue tu padre... no le dejarías de querer porque es tu padre... Aunque te haga algo malo le vas a seguir queriendo.” (Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa).

Modu horretan, neskak gehiago maitemintzen diren sinesmena zilegitzen dute, eta sentiberatasunak egiten ditu kalteberagoak. Baieztapen hori larria da: neskek sufrimendu jazarpenen aurrean harremanak mantentzeko joera handiagoa izango luketelako. Horrela, sufrimenduzko harremanekin hausteko zailtasunak nabarmenagoak dira, sentipen horren normalizazioagatik. Puntu hori gakoa da genero botere-harremanei eta indarkeria matxistari begira.

c) *Zaintzaz*

Nerabeen narrazioei erreparatuta, zaintza da maitasunaren beste alderdi bat. Familia maitasuna, batez ere, zaintza parametroetan ulertzen dute. Horregatik, batetik, zenbait nerabek maitasunaren oinarria zaintza dela diote, familiari dagokionez, batez ere, eta hartu-eman parametroetan definitzen dute:

“Yo quiero a mis padres porque ellos me han dado vida, y porque sí, porque son mi familia, porque yo sin ellos no sería quien soy. Por ser mi familia les tengo que querer, te han educado, te han dado de comer, te dan la paga, la ropa, te dan todo. Te dan un techo, te han criado, todo, ¿Cómo

no les vas a querer? ¿Les vas a odiar? Yo creo que no.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

“Familiakoak nik maitatzen ditut beraiek dena ematen didatelako, eta gainera batzuetan egiten dizkide fabore batzuk. Adibidez atzo gaixorik nengoen eta nire amak egin zidan afaria eta sartu nintzen ohera eta berak jarri zidan guztia, horregatik maitatzen dut. Nitaz arduratzen da.” (Karlos, 12 urte, ikastola)

Sendiarekiko afektua zaintza eskertzeko modua dela uste dute, elkarbizitzarako elementu bat, hain zuen. Haatik, ezaugarri hori ez da guztien diskurtsoetan agertzen, klase sozialaren araberako aldaerak baitaude. Izan ere, goi-klaseko gaztetxoen diskurtsoetan ez dago zaintzaren aipamen zuzenik, eta horrek lotura dauka gehienek soldatapeko zaintzaileak izatearekin. Adierazgarria da, maitasuna definitzean, nerabe horiek ez egitea zaintzaileen aipamenik, izan ere, sarritan zaindariekiko lotura afektiboak eratzen baitira. Isiltasun hori klase botere-harremanen adierazle izan daiteke.

Esan bezala, goi-klasekoen maitasunaren diskurtsoetan zaintza ez dago hain presente. Euretariko gehienek zaintzaileak izan dituzte etxean, eta batzuek bat baino gehiago. Zaintzailea edukitzea kapital ekonomikoaren ezaugarria da, eta nerabeek horrela bizi dute, maila batean. Tokian tokiko laneko jolasgaraiko egonaldi batean, itunpeko ikastetxe erlijiosoan, hamahiru urteko neska talde bat zaintzaileei buruz mintzatu zen, zaintzaile kopurua harrotzeko arrazoia izanik: batek bere etxean hiru langile zeudela adierazi zuen beste guztien gainetik jarriz. Hala ere, euretariko inork ez zuen “*mi cuidadora*” horiekiko maitasun adierazpenik egin, ez une horretan ez oro har tokian tokiko lanean zehar. Maitasunaren kontzeptualizazioari dagokionez aldea dago goi-klasekoen zaintza-lanak familiatik kanpoko langileekin betetzen delako.

1.1.3 Genero identitateak kultura afektiboan: generoen, emozioen eta harremanen hierarkizazioak

Ikerlan honen marko teorikoan azaldu den bezala, hainbat teorizazio feministetan, feminitatearen eraikuntzan giltzarritzat eta emakumeen bizi-ardatzatzat hartu izan da

amodioa (Jonasdottir, 2003; Lagarde, 2005; Esteban, 2011). Hori dela-eta, maitasuna neskentzat multilenzat baino garrantzitsuagoa izango zelako ustetik abiatu zen ikerketa. Halaber, gaztetxoen diskurtsoei erreparatuz gero, neskek zein mutilek adierazi dute maitasuna oso garrantzitsua dela, funtsezkotzat eta ezinbestekotzat jotzen baitute:

“Nik uste dut baietz, baina uste dut jende askok oso garrantzitsutzat hartzen duela hamalau urterekin. Garrantzitsua da maitasuna egotea, maitasuna ez badago ez dago ezer. Maitasunik gabe mundua ez da existitzen. Maitasuna egon behar da pertsona bat gustura egoteko. Bere familiarekin maitasuna egon behar da, ez badago maitasunik ez da konfiantzarik egongo. Maitasunak konfiantza ematen dizu. Konfiantza behar duzu ondo hitz egiten zure arazoen inguruan, ez badago pertsona batekin maitasunik ez dago konfiantza.” (Enara, 14 urte, ikastola)

“Es un sentimiento que juega un papel muy importante en tu vida, y que hace que te sientas muy bien por dentro. Y que estés a gusto. Es un sentimiento que te hace que estés a gusto, para mí.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horrenbestez, esan daiteke amodioa oso garrantzitsua dela nerabeentzat, eta balioespen hori gainerako adinetara ere hedatu daiteke, emozio horrek Mendebaldeko gizartean duen tokia gakoa delako. Izan ere, maitasunaren inguruko ideiak eta sinesmenak bikote harreman afektibo-sexualetatik harago doaz, oro har, pertsonen arteko erlazioak egituratzen dituzte. Sentimendu hori gizartearen erdigunean dago, eta horren inguruko nozio eta ideiek giza erlazioak antolatzeko dituzte, betiere, maitasunaren kontzepzio zehatz eta ideologiko bat izanik abiapuntua.

Maitasuna nerabe guztiekin oso garrantzitsutzat jo arren, horrek ez du esan nahi genero aldaerarik ez denik. Izan ere, emozio eredu horren enkulturazioak gorputzak generizatzen ditu, baita sailkatu eta hierarkizatu ere (Esteban, 2011:54). Generoak gorputza bizitzeko eta sentitzeko erak bideratzen ditu. Hori dela-eta, orokorturik dago gaztetxoen narrazioetan neskek biziki eta sakonki sentitzen duten sinesmena:

“Las chicas se fijan en los ojos y que sea majo, también el físico, pero eso más los chicos, nosotros no fijamos más en lo de fuera que en lo de dentro. Las chicas quieren más.” (Mikel, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Nik uste dut denok berdin. Bainak neskak maitemintzen dira gurekin gehiago, guk beraiekin baino. Adibidez nire gelako neska batek nobioa dauka eta beti dago eskuan gauzak idazten.” (Asier, 14 urte, institutu publikoa)

Uste horiek gurutzatu egiten dira berdintasun formalaren diskursoarekin, kontraesanak eratuz “*denok berdin, baina...*”, desberdintasun soziala ukaezina dutelako. Horregatik, neskek gehiago sentitzen dutela diote, sentiberagoak omen direla eta horrek ere gehiago sufriarazten diela. Sinesmen horrek ahalbidetzen du hainbat autorek landu duten “emakumeen espezializazio emozionala” (Abu-Lughod, 1986; Abu-Lughod y Lutz, 1990; Eichenbaum y Orbach, 1990; Lutz, 1990; Comas, 1993, Esteban, 2008, 2011). Neska gaztetxoei mutilak baino emozionalagoak izatea esleitzen zaie: gehiago maitemindu, gehiago sufritu, afektiboagoak izan... Esleipen hori, batetik, aipatutako genero identitateen enkulturazio prozesuaren ondorio da. Bestetik, etorkizunera begira batez ere, emakumeen espezializazio emozionalak bideratzen duen lan-banaketa ezberdindua sustatzen du: zaintza lanak eta alor emozionalak nesken “gauzatzat” joaz. Horrek guztiak nesken arlo irrazionalagoa indartzen du eta gehiago maitemintzeko zein sufritzeko prestutasuna bultzatzen.

Halaber, hierarkia emozionalek ere genero ezberdintasunak bultzatzen dituzte (Illouz, 2012:17), non arrazionaltasuna ahuldade emozionalari gainjartzen zaion. Horregatik, derrigorrezko gorputz emozionalari aurre egiteko joera dago. Ildo horretatik, gizarte iparramerikarra aztertuta, Lutzek (1990) emozioak definitzerakoan kontzeptu batzuk nahasten direla dakusa: emakumezkotasuna, menderakuntza, aurre egitea eta emozionalitatea. Autoreari jarraiki, emozioen inguruau aritzerakoan, gizon-emakumeek generoaren bitartez argudiatzen dute, generoa zein emozioak naturalizatz; eta emozioak kontrolagaitzak direla adierazten dute ikuspegi kulturalaren ondorioz. Alta, Lutzek nabarmentzen du emakumeek, batez ere, emozioen gestioa eta kontrola egiten dutela, gehiegizko emozionalitatearen eta gorputz-anabasen aurrean. Horrela, “emozio kontrolaren erretorika” izendatu du emakumeek sentimenduez hitz egiterakoan izan ohi duten jokaerari. Izan ere, Lutzen aburuz, emakumeek azpimarratzen dute emozioak kudeatzen badakitela, hau da, emozioak kontrolatzeko botere-ariketaz ari dira, finean (1990:70). Ikerketako nesken narrazioetan, amodioaren kontrolaren erretorika horren zantzuak badira:

“Pienso que cada día quiero más a mi familia, pero no. Yo tengo mis amigas y pienso cada día en ellas, pero no tengo por qué estar obsesionada en tengo que pensar. Yo ya se que mis amigas me quieren, y mi madre me quiere. No tengo que estar todo el día obsesionada con eso.” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Nik larunbat eta igandetan gehiago pentsatzen dut maitasunean, denbora librea dudanean. Astean zehar, bestela, ikasketetan. Maiteminduta nago, baina bakarrik gertatzen zait oporretan. Gauza da ez dut sentitzen orain, azkenean esaten duzu ez naiz egon denbora guztian... nahi gabe ahazten duzu. Ez daukazu hori buruan denbora guztian.” (Leire, 12 urte, ikastola)

Ikus dugunez, Sofiak adinarekin lotzen du sentipen hori kontrolatzeko beharra, eta Leirek, aldiz, ikastolako betebeharrekin. Lehendabiziko testigantzak, batik bat, adinaren normabitibatearekin egiten du bat: bere edadeari praktika zehatzak dagozkiola dio azken finean. Bi jarrera horietan arrazionaltasuna irrazionaltasunari gainjartzen zaio, betiere, marko emozional normatiboaren baitan.

Generoen eta emozioen arteko mailaketa eratzeaz gain, maitasunak harremanen hierarkiak ere bideratzen ditu, harreman mota batzuk lehenetsiz. Amodioaren zentraltasunak bikote harreman afektibo-sexuala pribilegiatzen du. Nerabeen kasuan, aldiz, ez da guztiz horrela gertatzen, geroago sailkapenaren azterketarekin ikusiko den bezala. Edonola ere, elkarritzetan egiterakoan, amodioaren gaia ateratzean, maitasuna bikote harreman afektibo sexualekin lotzea izan da gaztetxoen joera, nahiz eta sentimendu horren beste esparruetan ere oinarritu azterketa.

“Maitasuna da bi pertsonen artean, que se enamoran. Lo he primero que he pensado ha sido en la pareja, pero también se da en la familia, txakurrari ere, lagunak... ” (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

Gure gizarte antolaketan bikote harremanek duten erdigunearen ondorioz, erlazio mota horri mugatzen zaio amodioaren kontzeptualizazioa. Narrazioetan, horrekin batera maitemina agertzen da, automatikoki, eta hortik bikote harreman heterosexualetara jotzen dute gaztetxoek. Abiapuntu horrek bikote harremanek norbanakoien biografietan duten zentralitatea azalarazten du, amodioaren diskursoaren ondorioa izaki. Bikote harremanek gizarte antolaketan eta identitatearen eraikuntzan duten nagusitasunaren

erantzuna da hori, azken batean. Maitasuna bikote harremanetara mugatzeko joera nagusia da⁵⁰. Era horretara, amodioa erromantizatu egiten da, sailkatu eta hierarkizatu (Esteban, 2011:57). Sentimendu horren ideologiari jarraiki, gizarte antolaketaren oinarrian dago harreman eredu hori, ezkontza eta familia ulertzeko eta instituzionalizatzeko eredu zehatz baten ondorioz, non elkarbizitzaren egituraketen duen zentraltasuna, erreala zein sinbolikoa, ukaezina den (ibidem).

1.2 Maitasun sailkapenak gizarte antolaketaren oinarri

Mendebaldeko maitasunaren kontzeptualizazioak bide ematen die pertsonen, familien eta elkarbizitzako harremanak ulertzeko eta antolatzeko eredu zehatz batzuei (Esteban, 2011). Arestian esan den bezala, nerabeen diskurtsoak hasiera batean bikote-harremanetan oinarritu diren arren, beraien bizitzetan maitasuna noiz geratzen den adierazteko eskatu ondoren, diskurtso ohikoan bezala, amodio-sailkapenean hiru harreman nagusi bereizi dituzte: bikote harreman afektibo-sexualak, familia eta laguntasuna, gure kulturan egin ohi den bezala. Afektibotasunaren antolaketa hori gainerako gizartera orokortzen da; izan ere, ideologia erromantiko zehatza sostengatzen du, hala nola, bizitzaren eta harremanen eraikuntza heteronormatiboa (Esteban, 2011:55,71).

Helduekin alderatuta, harremanei ematen dieten garrantzian aldaerak daude. Oro har, nerabeentzako maitasun motarik garrantzitsuena familiarena da. Gaztetxoen aburuz, importanteena sendia da, gero laguntasuna eta, azkenik, bikote harreman afektibo-sexualak. Hurrenkera hori haien egunerokotasunean eskolak eta familiak duten zentralitatearen ondorioa da, baita bikote-harremanak helduen munduarekin lotzearen ondorio ere. “*Ezberdina da*” batekin justifikatzen dute eredu afektiboen arteko alderaketak, aldaeraren ezaugarri asko aipatu gabe:

⁵⁰ Esan beharra dago maitasunaren industria kulturalari dagokionez, gauza bera gertatzen dela: amodioa beti agertzen da bikote harremanekin elkar lotuta. “Maitasun pelikulek” adibidez euren argudioetan bikote harremanak dituzte oinarritzat. Halaber, bestelako maitasun motei buruz ari diren pelikulak (familiari buruzkoak, laguntasunari buruzkoak...) ez dira amodio pelikulen kategorian sartzen. Joera hori ikerkuntzarekin ere gertatzen da. Aipatu sentipena ikertzerakoan, eta batez ere gaztetasunari dagokionez, bikote harremanetan oinarritzeko joera egon da.

“Familia da elkar maite duten pertsonak. Sentitzen duzu guztiak daudela zuri laguntzen, erre ke erre zuri bide onetik eramaten. Lagunen maitasuna ezberdina da, lagunek nahiz eta familia bezala lagundu, ba familiari ez dizkiozu lagunei kontatzen dizkiezu gauzak kontatzen. Familia eta lagunen artean ezberdintasunak daude. Gero maitasuna mutilengan oso ezberdina da lagunena eta familiena konparatuz. Mutil hori ikusten badut se te llena el cuerpo de alegría, ez dut esaten familiako pertsona batzuk ikustean ez zaizula gorputza alaitasunez betetzen. Oso ezberdina da. Ba ni adibidez ezin dut musurik eman Erikari. Bueno, ematen dizkiot, baina ahoan ez. Ez dakit. Bueno konfiantzazko lagun askorekin baina... Lagunengan eta bikotearengan ez dago diferentzia handirik. Lagunak multzo bat da eta bikotea pertsona bat da. Lagunekin maitasuna banatu behar duzu, baina bikote maitasuna bakarrik da bikotearekin ez duzu banatu behar... Bikoteari guztia. Gero familiarena ere banatzen da.” (Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

Batzuek, zuzenean, ekintzekin lotzen dituzte sentipenaren aldeak:

“No se quiere igual a los amigo y a la pareja y al familia. Pero por ejemplo una pareja que se va a casar y todo, tienes que tener en cuenta que va ser tu familia, entonces ya la puedes coger como familia, si tú crees que va a ser un amor que puede durar, pero aunque todos pensamos que va a durar mucho una pareja, ahora mismo ¡pues no! En la familia le tienes que demostrar que le quieres porque es tu familia, te ha dado todo lo que ha podido y más y te lo sigue dando, luego la pareja, si se asientan, y luego siguen y siguen, hasta si se casan o se independizan, pues ahí ya puedes empezar a querer como la familia. Yo a mi familia la quiero más que a mis amigos, porque me han enseñado más cosas. Me han dado todo, es un querer diferente. Tu familia te lo ha dado todo, tus amigos igual también, pero diferente. Es mejor la de la familia, no es lo mismo, no es el mismo cariño a tu familia que a los amigos, tu familia es más importante. Tú sin ellos, no hubieras nacido, lo primero, tienes quedarte cuenta que te han dado la vida. Entonces... más o menos para agradecer les tienes que querer, tampoco es por agradecer, es un amor más intenso hacia la familia que hacia los amigos. En la calle entre amigos igual te pueden contar más cosas (...) Al tener pareja la gente cambia, por ejemplo la forma de ser eres

más romantiquillo pero luego cuando estas con los amigos eres más bruto. Eres más romantiquillo, la cuidas más, cuidas más tus formas.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

“Los amigos no es querer de, es querer de... no sé explicarlo, yo a la familia es que das lo que sea por ellos, luego con la chica puedes estar todo el rato con ella y tal, o haces lo que sea por ella, pero por los amigos, no. La familia es mucho más personal que los amigos, es más importante que los amigos. Me importa más mi familia que mis amigos, porque es mi familia. Mis amigos me importan pero por otro lado, no como la familia. ¿Dices la pareja con mi edad? Pues estás con ella, le das besos o lo que sea y a los amigos, no. Abrazos tampoco nos damos, abrazos, igual si hace mucho tiempo que no le ves pues igual sí, pero no. Las chicas sí que se dan más abrazos, son más... sí que nos dan también abrazos a nosotros. Igual una amiga chica te da un abrazo y tú no sientes nada, pero si te lo da tu novia pues sí porque la quieres.” (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Argi dute amodioaren sailkapenaren hurrenkera, baita etorkizunean ezberdina izango dela ere. Izan ere, maitasunaren sailkapen orokor horren muga emozionalak gehienetan ez dira finkoak izaten, ez haien adinean ezta gerora ere. Izan ere, nerabeen diskursoetan, berezitasunez deskribatzen da bikote harremanetako sentimendu erromantikoa: maitemintze prozesuaren inguruko sinesmen eta usteak nagusitzen dira, hirugarren kapituluan ikusiko den bezala. Oro har, maitasun sailkapenen ezberdintasunak azpimarratzen dituzte nerabeek. Esan beharra dago antolaketa horrek gorputz jarrera eta praktika ezberdinak bideratzen dituela harreman afektiboetan, eta horiek aztertuko dira ondoren.

1.2.1 Familia

Ikusi dugunez, senideekiko amodioa berau naturalizatzu justifikatzen da, “*bizitza eman dizutelako*” edo “*beti zurekin daudelako*” bezalako esamoldeekin. Horrez gain, ideologia erromantikoaren zantzuak daude, “*betiko maitasuntzat*” hartzen baitute. Familia arteko harremanetan kokatzen dute amodio ahalguztiduna, eta, horrela,

etorkizunean izango duten bikote harremanak, familia bilakatzean, dena gainditzeko ahalmena edukiko duela aurreikusten dute. Hala ere, nerabeek aitortzen dute senideekin gero eta denbora gutxiago egoten ahalegintzen direla, lagunekin hobeto daudela esanez:

“Lagunak ez dira betiko egongo, edozer gauzagatik banatu zaitezke. Familia beti izango da betirako, nahiz eta haserretu zure familia izango da betiko.” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

“El amor hacia mi familia es para siempre. Los amigos puede ser que sí. La pareja no, no la vas a querer para siempre igual digo yo. Yo creo que lo de mis gurasos es para siempre, pero no creo que se hayan querido toda la vida igual.” (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

Nerabeen diskurtsoetan sendia amadioaren iturria dela nabarmentzen da. Familia eta maitasuna uztartza mendebaldeko sendia eredu berriaren ondorioa litzateke. Edward Shorter-ek, *El nacimiento de la familia moderna* (1977) lanean, sentimendu horren asmakuntzaren ondorioz Mendebaldeko familia eredua eraldatuko dela baieztatuko du. Betidanikoa dela sinesten dugun arren, XIX. mende erdialdeko pentsamenduaren eraldaketaren ondorioz gauzatu da:

“Luego la situación se invirtió. Los lazos con el mundo exterior se debilitaron, y se reforzaron los lazos que unían entre sí a los miembros de la familia. Se alzaron muros para proteger de intrusiones extrañas la intimidad el hogar. Y así, al calor de la domesticidad, nació la familia moderna. El afecto, el amor y la simpatía, tomaron el lugar de las consideraciones “instrumentales” para regular el intercambio entre los miembros de la familia. Las esposas y los hijos fueron apreciados por lo que eran, y no por lo que representaban o podían hacer. Ésa es la esencia del ‘sentimiento’.” (Shorter, 1977:11)

Prozesu horren deskribapena Ingalaterran egin bada ere, autoreak adierazi du Europa osoan zehar jazo zela. Klase soziala eta bizi tokiaren arabera, familia aniztasuna zertu zen. Sendi tradizionala ardatz ekonomikoan eta leinuan oinarritzen zen; alabaina, individualismoa indartuz joan zen heinean, tokian tokiko aldaerak egonik, lotura emozionalari garrantzia ematen hasiko zaio. Shorteren aburuz, maitasunaren bitartez lehentasunen berrantolaketa gauzatu zen: esate baterako, amaren eta seme-alaben arteko

loturak erdigunean kokatu ziren. Halaber, autoreak adierazi du familia antolaketa klasearen arabera aldatu zela, eta klase burgesaren irudia eta praktikak nagusitzeko joera azpimarratu du. Ildo beretik, modernitatean gertatutako guraso eta seme-alaben arteko harremanen eraldaketa aztertuta, Stearnsek eta Stearnsek (1985) baiezatzen dute bai haurren heriotza-tasa jaisteagatik, baita seme-alaben kopurua murrizteagatik ere, seme-alabei kokapen berezia eman zitzaiela. Lehentasuneko tokia hartu zuten haurrek, sendi burgesaren baitan. Egun, ikerketa honetan, horixe nabarmendu ahal izan da, batez ere, gurasoek seme-alabak babesteko duten joeragatik. Goi-klasekoen kasuan, agerikoagoa izan da, metodologian azaldu den bezala.

Halaber, familiaren zentraltasunaz gain, ikerketako gaztetxoek seme-alaben ikuspegitik definitzen dute familia maitasunaren zentzua: “*bizitza eman dizutelako*”, “*zaintzen zaituztelako*”... Ikuspegi horretatik, ez da zalantzan jartzen sentimendu mota hori “*ezin da aukeratu, egokitzen zaizuna da*”. Kutsu deterministako adiera horiek amadioari betiereko zentzua ematen diote, erromantikotasunera hurbilduz:

“*Adibidez bikoteak eta lagunak asko dituzu, baina familia bakarrik izan dezakezu bat. Bikote uzten badizu, beste bat aurkituko duzu. Familia zure odol bereko da eta ezin duzu aukeratu.*” (Joseba, 13 urte, ikastola)

“*Familia nire familia delako, lagunak laguntzen didatelako... Ama eta aita ba ni jaio naizelako. Odol berekoak garelako.*” (Leire, 12 urte, ikastola)

“*Amor de familia es realmente quien más te va a querer, es parte de su sangre que pasa por la tuya, entonces les tienes tal cariño que no vas a comparar nunca el amor de pareja con el de familia.*” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Oadolaren metafora erabiltzen dute, Mendebaldeko senidetasunaren eta biologiaren arteko lotura agerian jarri, “*odol berekoak garelako*”, “*es sangre de tu sangre*”. Odolaren paradigma biologikoak Mendebaldeko sendia zehaztuko du kristautasunetik, eta, halaber, odolaren sinbolismoak senidetasun-loturak indartzeko bidea izaten jarraitzen du (Amantze, 2010; Segalen, 2006; Schneider, 1980; Ouellette, 1998).

Horrez gain, familia eta amodia uztartzean, beste sentimendu horren beste adiera bat azaltzen da: amaren maitasuna. Amatasuna, betiere seme-alaben ikuspegi batetik,

idealizatuta eta esentzializatuta azaltzen da. Egun nagusi den ikuspegi horren garapena Elisabeth Badinter-ek (1981) azaltzen du, Frantziako ama-maitasunaren eraikuntza prozesua aztertuz. Izan ere, zerbait mekanismoren bitartez, XVIII. mendeko filosofia berriak bultzatuko du ama haurren heziketaren ardura hartzera. Amatasun eredu berri hori justifikatzeko izaera “naturala” azpimarratuko da, bidenabar, arautu eta normalizatuko du. Itxaropen horiek zehaztu ziren feminitatearen eraikuntzari loturiko abantailen bitartez: edertasuna, bularra ematearen gozotasuna, zoriontasuna, inudearen gastuak aurreztea... Mehatxu arautzaileak ere egokituz ziren, esate baterako, amaren ukazioak naturaren zigorra bultzatzuz (esne-erretentzioaren arriskuak...). Testuinguru horretan, haurrek familiaren erdigune bilakatu ziren. Ama berriaren figura klase burgesaren baitan sortuko da, baina printzipioz eredu hori ez da nagusituko klase sozial guzietan: aristokrazia eredu burgesetik urrunten ahalegindu zen, klase ertaina eta, beranduago, behe klaseetan, hori imitatzen zuten bitartean. Era horretara, derrigorrezko, bakarra eta naturala bilakatu zen ama-maitasuna eta, horregatik, eredu burgesaren ondarea litzateke egungo amatasun eredua eta, jadanik azaldutako, seme-alabek familiar duten kokapena.

Horrenbestez, gaztetxoen diskurtsoetan, ama-maitasunaren idealizazioa gertatzen da. Baina amatasuna beste ikuspegi batetik bizi dute: seme-alabenetik, hain zuzen ere. Nesken artean, batik bat, amaren maitasuna sendiaren barneko loturarik gorena bezala azaltzen da. Alde batetik, ama-alabaren arteko lotura justifikatzen dute ezaugarri biologiko eta deterministekin: “*bere sabelean egon zara*”, “*zure ama zure ama da*”... Lotura biologikoen eragina azpimarratzeaz gain, harreman horren bereizgarritzat hartzen dute genero identitatea. Ama emakumea delako gauza gehiago konpartitzeko aukera dute, nesken iritziz. Esate baterako, gorputz-eraldaketen narrazioak amari kontatzeko joera dute: lehen hilekoaren berri izaten ama izaten da jakitun nagusia. Beste aldetik, amarekiko lotura horrek zaintza-denborarekin ere zerikusia du. Behe zein goi klasekoetan (azken horiek, esan bezala, zaindariak eduki arren), ama eta aita alderaturik, amak denbora gehiago ematen duela adierazten dute, eta horrek bultzatzen du amarekiko gertutasuna:

“*Ama da ama. Aitari ez da hainbeste ama bezala. Etxean egoten da baina ez asko eta horregatik harreman gehiago amarekin daukat, aitarekin ere. Bainan gainera ama neska da eta daukat pixka bat harreman gehiago.*”

(Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

“Amarekin konfiantza dut, aitarekin ez. Nire amak guztiak harrapatzen dizkit. Guztia harrapatzen dit. Igual edaten dudala... Beti-beti ez, baina igual nik ere kontatzen diot. Ez diot esaten noiz, baina berak badaki larunbatetan beti joaten naizela edatera. Mutil kontuekin ere beti harrapatzen nau. Adibidez eduki nuen nobio bat kanpinean eta hor ba ikusi zuen. Hemen notatzen dit. Ez dakit nola egiten duen baina jabetzen da, nabaritzen dit eta esaten dit nor den ere.”(Miren, 14 urte, ikastola)

“A mi madre más. Supongo que mi hermano le cuenta más a mi padre que a mi madre y yo como soy chica le cuento más a mi madre. Por ejemplo, en temas de ropa o ropa interior, lógicamente no se lo voy a preguntar a mi padre. A ver también le quiero un montón, pero sobre todo mi ama. Al ser chica confío más en mi ama que en mi padre. También no tengo tanto acercamiento con el, le veo dos o tres días a la semana. A mi ama le veo muchas horas.”(Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Garrantzitsuena amarena da, ‘Mejor que a tu madre, nadie te va ayudar’, o como me lo diga ella que no me acuerdo.”(Maialen, 14 urte, ikastola)

Nahitaezko amatasunarekin, ama-sena dagoelako sinesmena zabalduta dago nerabeen artean. Ama beraiei gertatzen zaizkien bzipenez ohartzen dela diote “*nire amak guztiak harrapatzen dizkit*” edo “*yo creo que tiene poderes*” bezalako argudioak nagusitzen dira. Hala ere, amari egiten zaizkion konfidentziek mugak dituzte, ama ez baita lagun bat. Bereizketa hori argi geratzen da sentimenduaren antolaketan. Ikusitakoaren arabera, amarekin ez da guztia partekatzen, ez lagunen bzipenak ez maitasun narrazioak. Batetik, tokian tokiko lanean, nesken arteko elkarritzeta batean, Amaia deitu dudan neska kritikatzen hasi ziren, ama lagun zuelako eta dena kontatzen ziolako. Neskek jarrera hori gaitzetsi egiten zuten, gero ama hori alabaren eta lagunen bizitzan sartzen zelako gatazkak konpondu nahian. Bestetik, beste neska batzuek ama konfidente handia izan ahal izateko baldintzak jartzen zituzten: “*ulertu behar zaitu*” esaten zuten eta zenbait ekintzen (edan, erre, bikotea izan...) aurrean errespetua eskatzen zuten. Era horretara, amatasuna eta laguntasuna hurbilago egongo lirateke.

1.2.2 Laguntasuna

Familia garrantzitsuena bada ere, senideekin gero eta denbora gutxiago ematen dutela adierazten dute gaztetxoek. Gainera, familiarengandik aldentzeko ahalegin orokorra dago, nerabezaroaren ezaugarri. Izan ere, gurasoekin egotea lotsatzeko arrazoia bilakatzen da.

“A veces hacemos cosas juntos en familia. A veces lo hago a gusto, pero otras veces me dicen ‘Venga vamos a pasear por el pueblo, y nos damos una vuelta hasta la iglesia’, y no sé qué, y yo ‘¡qué no mama!, que yo me quiero quedar con mis amigos no sé donde’, y mi madre ‘¡qué no! qué por una vez te tienes que venir con nosotros!’. Eso no lo hago a gusto, otras cosas sí.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Cuando salgo sola con mis padres me da un poco de vergüenza, pero cuando estoy con mis primas, me encanta cuidarlas aunque estén mis padres delante.” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Kontraesana sortzen da familia garrantzitsuentzat hartzearen eta, praktikan, familiarekin gero eta denbora gutxiago emateko nahiaren artean. Horregatik, laguntasunak toki berezia hartzen du adin horretan. Laguntasuna bikote harremanak baino garrantzitsuagotzat jotzen dute, nahiz eta etorkizunean eraldatuko dela aurreikusten duten.

Laugarren kapituluan adiskidetasunaz era sakonagoan hitz egingo badugu ere, laguntasunaren eiteak eragina du botere eta harreman sareen antolakuntzan. Batetik, genero aldaerak daude. Oro har, adiskidetasuna intimitate eta komunikazio unetzat bizi dute, eta eremu horretan askeago sentitzen dira, baina neskek intimitatea azpimarratzen duten bitartean, mutilek ekintzak eta kirol-jarduerek lotzen dituzte lagunak. Bestetik, klase sozialaren erreprodukziorako joera nabaritu da. Gaztetxo gehienen adiskideak ikasketa-zentro berekoak izaten dira, eta adiskidetasuna espacio horietan hasten da. Nerabeen bizi-ibilbideetan, ikaslekuak esandako zenbait ezaugarri sozial, ekonomiko eta politiko biltzen ditu. Hau da, ezaugarri sozio-ekonomiko antzekoa dutenen arteko laguntasuna bideratuko du zentroak, inertziaz bada ere; eta etorkizunean laguntasun hori

aldatzeko aukera egon arren, sarritan mantendu egiten da (botere sozio-ekonomikoen nukleoari eutsiz).

Ildo beretik, adierazgarria da, bidenabar, goi-klaseko nerabeek gurasoen adiskideak laguntzat hartza, haien inguruan hitz egitean “*unos amigos nuestros*” esanez. Berezitasun hori goi-klasekoen hitzetan soilik aurkitu da, hasiera batean, adinaren eragina izango zela uste bazen ere. Adiskidetasuna klase harremanen barruan eraikitzen den seinalea litzateke, nerabe horiek euren gurasoen botere-sare berdinean kokatzen baitute beraien burua. Laguntasun lotura horiek dimentsio konplexua hartzen dute, eta helduen harremanek bideratzen dute nerabeen adiskidetasuna, jadanik ezarritako ezberdintasun sozialetan oinarrituta.

1.2.3 Bikote harreman afektibo-sexualak

Harreman afektibo sexualei dagokienez, adin horretan ez dira oso garrantzitsuak izaten, uste baitute etorkizunean normalizatuko direla. Arestian esan bezala, hasiera batetik maitasuna bikote harremanekin lotu arren, eredu hori da gaztetxoen biografietai gutxien balioesten dutena. Kontraesanezkoa da hori, amodioaren diskurtso hegemonikoa eta bizipenak kontrajarri egiten baitira.

Nerabezaroko bikotekidea ez dute bizi osorako pertsonatzat jotzen; izan ere, harremanen hauskortasunaz jakitun dira. Hala ere, etorkizunean harreman horiek “seriotuko” direla adierazten dute, bikote eredu hegemonikoagatik eta, gerora azalduko den bezala, helduzentrismoaren eraginagatik. Bikotekidea izateak garrantzi handiagoa izango duela aurreikusten dute etorkizunari begira; haien aburuz, etorkizunean “benetako” bikote-harremanak deritzenak lagunak baino garrantzitsuagoak izango dira, bikotekidea familia bilakatzen delako. Maitasun erromantikoaren ideologiari jarraiki eraikitzen dute eredu hori, etorkizuneko familia hori eraikitzeo bikote harremanak “laranja erdia” bezala definitzen dituzte. Hartara, bikotekideen arteko osagarritasuna azpimarratzen da, heterosexualitatea zalantzat jarri gabe:

“De pequeña yo decía ‘¿Cómo la gente puede estar segura de casarse?’ y así... y yo pienso que cada persona tiene otra persona con la que es

compatible. Yo creo que mi novio es mi media naranja.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Hasta encontrarlo... todo el mundo... hay que encontrarlo porque tenemos que casarnos. Esa será mi media naranja.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Pues la familia, mi familia por lo menos, el amor va a ser para siempre hasta que se mueran todos. Pero el amor de novios dudo que sea para siempre, si estás casado como los mayores sí, pero a mi edad dudo que sea para siempre.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Halaber, bikotekidearen aukeraketa hertsiki loturik dago adiskidetasunari eta klase harremanei, adiskideen sarean aukeratzen dituztelako bikotekideak:

“Me casaría con una chica, yo no soy racista, no veo problema por casarme con una inmigrante, pero los inmigrantes son diferentes, tenemos culturas distintas, yo creo que el amor sería más difícil con una inmigrante que con una chica de aquí, por lo menos para mí. La cultura influye en el amor, al final el amor es una persona que la quieres porque te parece agradable, por las cosas que tú consideras son buenas, que se parece un poco a ti. Un inmigrante será diferente.” (Javier, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Narrazio horretan, maitasunak klase soziala, etnia eta beste aspektu batzuk gainditzen dituen mitoa hausten da. Maitasunaren erregimen emozionalak gizarte antolaketa sostengatzen du, eta botere harremanak mantentzen, bai eta harreman afektibo sexualen baitan ere. Horrela, maitasunaren kontzeptualizazioaren bitartez, harremanen sailkapena eta, era berean, gizarte antolaketa gidatuko da.

Nerabeek egiten duten maitasun sailkapenaren arabera, bikote harreman afektibo-sexualen inguruuan hitz egiterakoan, behin eta berriz errepikatzen dute etorkizunean garrantzia izango duela, egun garrantzitsuak ez diren arren. Baino gure jendartean gertatzen den bikote harreman afektibo-sexualen lehenespresa nerabeen arteko harremanetan errepikatu egiten da prestigio eta botere parametroei dagokienez. Estebanek jaso duen bezala, konfigurazio emozional eta identitario erromantikoak

maitasun interakzio ezberdinak hierarkizatzen ditu, non bikote harreman afektibo sexualak gailentzen diren, eta horrela ordena sozial zehatza ahalbidetzen da (2011:44).

Nerabeen artean, bikote harreman afektibo sexualak giltzarriak dira, nahiz eta “oraindik” garrantzitsuak ez direla errepikatu. Izan ere, aitortzen dute “popularrak”, “guaiak” edo lidertzat hartzen diren nerabe horien identitatea bikote harremanen bitartez indartzen dela. Bikote harremanik izan ez dutenek, batez ere, ikuspegi hori dute: harreman afektibo sexualak izan dituztenak boteretsuagoak sentitzen direla diote. Hala ere, hori kanpora begira egindako kritika da, inork ez baitu bere larruan horrela bizi, adierazpenetan ikus daitekeen bezala:

“Nik uste dut pertsona batek bikote bat duenean sentitzen da más txulito. Hasten da: ‘Yo tengo a no sé quién y me estoy liando con no sé quien, eta ¿zuk ez duzu edukiko bikoterik?’ ‘Ba ez’. Edo ‘atzo ez dakit zenbat muxu eman genituen’ edo ‘ez dakit nora joan ginen’. Gero zu geratzen zara, en plan, ez didazu enbidiarik ematen.”
(Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

“Muchas sí porque se creen que si tienes novio eres guay. Tanto chicas como chicos. Sueles ser personas que se sienten vacías por dentro, tienen que tener a mucha gente alrededor para sentirse llenas. Por ejemplo, Ana. Ella cada vez que está sola se pone como triste como para que se le acerquen. No le veo sentido.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Ezberdin jokatzen dute bikotea duten pertsonak, igual esaten dute ‘ai yo tengo nobio’ edo horrelakoak, hace mucho tiempo eta horrela, quiere dejar mal a los demás, pues no, lo contrario. Igual se creen algo más. Batzuek no se hace los guais baina badaude beste batzuk baietz. Igual badaude batzuk egiten direla horrela harroak irtetzeko eskatu dietelako... Paula eta Ana ere batzuetan. Baina Paula bai, ‘joe es que este chico me ha pedido, y el otro también..’ Erika adibidez se lo guarda para ella.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

“Ligatzen duten pertsonak son más motivadas, como si se sintieran más fuertes, botere gehiago dute, ni honekin ateratzen naiz eta onena naiz.” (Xabier, 12 urte, ikastola)

Bikote harreman afektibo sexualen ondorioz sortutako botere-harremanen inguruan aritzen direnean, modu zuzenean ez bada ere, erdigunean agertzen da gorputzaren irudia. Izan ere, harreman horiek gorputz fisikoaren onarpentzat hartzen baitituzte. Besteen gogokoa izatea onarpen sozialerako bide da. Nerabe batzuek bikote harremanak izatea erabiltzen dute gorputzen kontrako erasoei edo irainei aurre egiteko:

“Por tener pareja no te comportas diferente, ni mandas más. Pero cuando discutimos siempre sale el tema, igual te dicen ‘ay que fea eres!’ y le digo ‘¿a si? Pues me lío más que tú!’ Entonces ya quedas bien. Igual te dicen algo y les dices calla que yo me he liado y tú no, y quedas bien. No seré tan fea cuando me he liado.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

“Igual la gente lo utiliza para dejar mal al otro, por ejemplo te llaman gordo y tú le dices ‘ya por lo menos yo tengo novia y tú no’.”
(Adrian, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Onarpen sozialaren erreprodukzioa molde ezberdinaren arabera gauzatu daiteke, generoak baldintzatuta. Bikote harremanen bidez lortutako arrakasta neska izatearekin lotzen da batzuetan, nesken biziñetan maitasunak duen tokiaren ondorioz. Horrela, zenbait neraberentzat ikuspegitik, neskek harreman afektibo sexualen bitartez lortzen dute arrakasta, eta mutilek, berriz, futbolean ongi jolastearik:

“Igual popularra izateko hobeto da mutilen artean futbolean jolastea eta neskak gehiago behar dute mutilekin atera popularrak izateko.” (Xabier, 12 urte, ikastola)

Goi-klasekoei dagokienez, arrakastak beste norabide bat hartzen du. Aipatutako harreman afektibo sexualekin batera, gorputza agertzen da jokoan, baina kontsumismoaren neurgailuarekin. Nerabe horien artean janzkerak toki berezia du. Arrakastarekin eta edertasunarekin uztartzen dute markadun arropa eramatea. Era

horretara, janzkera bera klase sozialaren adierazletzat har daiteke. Carmen, hamabi urteko goi klaseko nerabeak, horrela hautematen du bere inguruan:

“Las populares son por la ropa, yo eso nunca lo llegué a entender, es raro. Será por la ropa, por la manera de ser tan... no sé... se creen muy guays algunas personas en este mundo. Es una especie de selección de cada uno. Los chicos que son guays son con los que con más chicas han salido. Con los que más fardan de tener más cosas, mejor ropa... Suelen ser más los chicos que impresionan con las experiencia que las chicas, yo no lo entiendo pero bueno. Las chicas se creen muy guays, piensan que son las más simpáticas, las que mejor visten, las que más quedan, las que van a comprar ropa juntas. Estoy segura que cada una de ellas tienen un collar o un llavero de Best friend⁵¹ con otra tía.” (Carmen, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Arrakasta, bikote harremanak edukitzea eta “ongi janztea” elkarren eskutik doaz nerabe horien diskurtsoetan. Tokian tokiko berezitasunak egonik, oro har, esan daiteke nerabeek harreman afektibo-sexualen inguruan pertzepzio bikoitza dutela, moralitateari jarraiki. Batetik, oraindik garrantzitsuak ez direla aitortzen dute euren bizitzaren proiekzio zabalean oinarrituta eta, bestetik, egun dituzten harremanak egituratzeko eta botere harremanak eratzeko eragina nabarmentzen dute.

1.3 Laburbilduz

Laburbilduz, nire ikerketan parte harturiko nerabeek egiten duten maitasunaren kontzeptualizazioa hertsiki lotuta dago Mendebaldeko kultur afektiboarekin. Sentipen horren ulerkerak gaztetxoen harremanak gidatzen ditu, baita etorkizunerako proiekzioak ere. Horrez gain, aditze modu horiek genero identitateak eta desberdintasunak sostengatzen ditu: batetik, neskak espezializazio emozionalean sozializatzen dira, eta, bestetik, sufrimendua pairatzeko prestutasuna erakusten dute. Horrez gain, sentipen

⁵¹ Best Friend lagun onena izendatzeko erabiltzen dute nerabeek. Horren inguruan 2. kapituluan arituko gara.

horrekin lotzen diren emozioek (zoriontasuna, bakardadea, sufrimendua, zaindua izatearen gogoa...) amodioa gizarte antolaketaren erdigunean egoten laguntzen dute, mekanismo emozionalak martxan jarriz.

Oro har, gaztetxoek egiten duten maitasunaren sailkapenean familiari ematen dieten garrantzia adierazgarria da, batez ere, helduen pertzepzioarekin ez datorrelako bat. Nerabeen diskurtsoetan, erromantikotasunaren zantzuak daude familia amodioari dagokionez, adiskidetasunari eta bikote harremanei dagokienez baino gehiago. Bikote afektibo sexualen inguruko diskurtso bikoitza ere aipagarria da: harreman mota horiek garrantzitsutzat jo ez arren, haien arteko botere harremanak egituratzent ditu maila batean behintzat. Sailkapenari erreparatuta, ikertzeke geratu da sailkapenei ematen zaien garrantziak biografian duen bilakaeraren azterketa, hau da, familia erdigunean egotetik harreman afektibo sexualak egoterako jauzia, hain zuzen ere. Interesgarria litzateke sailkapen horren bilakabidea nolakoa den ikustea amodio-erregimenaren gako giltzarriak argitze aldera.

2. PENTSAMENDU HETEROSEXUALA MAITASUN IDEOLOGIAN: HARREMAN ESKLUSIBOEN ANALISIA

Kapitulu honetan, pentsamendu heterosexualak nerabeen maitasun-ideologian duen eragina aztertuko da. Hasieran, gaiaren inguruan sortutako zalantza batekin abiatuko da: nerabezaroan gertatzen diren, eta gertatzen ez diren, praktika sexualek nola egituratzen duten sexualitatea, hala nola, heterosexualitatea bera. Horretarako, adin horretan, lagun minen harremanak eta bikote harremanak duten antzekotasun handia ikusirik, *harreman esklusiboak* izendatu ditugu erlazio horiek, izan ere, heteronormatibitatearen adibiderik argienak dira. Azkenik, esklusibotasun hori nola gorpuzten duten aztertuko da.

2.1 Nerabeen sexualitatea auzitan: heterosexualitatearen eta afektibilitatearen arteko lotura

Oro har, gizarte zientzietan, sexualitatearen azterketaren barruan sartu ohi da heterosexualitatearen gaia; baina ikerlan honetan, sexualitatetik harago, heteronormatibitateak hartzen duen esparru zabala azterzea da helburua. Analisi honekin, nerabezaroan heteronormatibitatea eta maitasunaren ideia estuki loturik daudela egiaztu nahi da. Horretarako, kontraesana dirudien arren, heteronormatibitatearen logikara hurbiltzeko sexualitatea izango da abiapuntua.

Sexualitatea eta nerabezaroa batera azterzea lan konplexua bilakatzen da, debekuaren, izate ezaren eta isiltasunaren bitartez haurrei egin ohi zaien sexualitatearen ukazioagatik —nerabezaroan indarrean jarraitzen duena—. Foucaulti (2009) jarraituz, sexualitatearen erregimen modernoan⁵² haur eta nerabeen diskurtso sexualaren ukazioa eta isiltasuna nabarmentzen da:

⁵² Foucaultek sexualitatearen erregimen berria edo sexualitatearen dispositiboa deritzo modernitatean gertatutako sexualitatearen bilakaerari, non arlo sozial espezifiko bezala garatu zen David Córdobak adierazi duen moduan (2005:47): “La aplicación de determinadas tecnologías de poder aplicadas a los cuerpos y los placeres definieron un nuevo espacio de relaciones que constituyen lo que Foucault denominó el dispositivo de la sexualidades. (...) El nuevo régimen o dispositivo de la sexualidad se constituyó a través de la generalización de técnicas de inflación discursiva, técnicas de incitación a

“Por ejemplo, es sabido que los niños carecen de sexo: razón para prohibírselo, razón para impedirles que hablen de él, razón para cerrar los ojos y taparse los oídos en todos los casos en que lo manifiestan, razón para imponer un celoso silencio general. Tal sería lo propio de la represión y lo que la distingue de las prohibiciones que mantienen la simple ley penal: funciona como una condena de desaparición, pero también, como orden de silencio, afirmación de inexistencia y, por consiguiente, comprobación de que todo eso nada hay que decir, ni ver, ni saber.” (Foucault, 2009:4)

Era berean, sexualitate hutsetik harago, lan korapilatsua da heterosexualitatearen eraikuntza aztertzea nerabeengan eta haurrengan, zeren, esan dugun moduan, nerabeek ez lukete sexu praktikarik diskurtso hegemonikoaren arabera. Gaztetxoek barneratuta dute ideia hori, eta oso ohikoa da beraien ahotik entzutea “ez dugu ezer egiten”, beraien arteko harreman afektibo sexualak “benetakoak” ez balira bezala. Nola esleitzen da, beraz, heterosexualitatea, “praktika sexualak” ez dituztenen artean?

Hala eta guztiz ere, nerabeen eta haurren arteko sexualitatea ukaezina litzateke sexualitatea eremu zabalagotzat hartuz gero, non gorputz ukimenak eta plazera bera giltzarriak diren. Gorputzak elkar lotzen dituzten besarkadak, laztanak, eskutik heltzeak, musuak, masturbazioa... Sarritan, praktika horiek guztiak sexualtzat hartzen ez diren arren, nerabeen eta, azken batean, pertsonen egunerokotasunaren parte dira eta hertsiki loturik daude afektibotasunarekin. Hortaz, parametro zabalago horietan, sexualitatea harreman afektiboen kodea eta adierazlea litzateke. Baino, sexualitatearen konfigurazio horretan kokaturik, bestelako zalantza bat sortzen da: nola egituratzen da sexualitatea afektibotasunaren eremuan? Hartara, planteatutako sexualitatearen inguruko kezka horietatik abiatuta, nerabeen maitasunaren diskurtsoen eta harremanen azterketa zehatzetik heteronormativitatearen konplexutasunera iristea da helburua. Izan ere, maitasun-diskurtsoek badute hor zeresanik.

hablar sobre el sexo (Foucault, 1976). Se establecieron lugares y mecanismos de observación y registro de las prácticas y deseos sexuales como forma específica de control sobre los cuerpos. No se trató, no obstante, de una reglamentación nueva sobre un campo anteriormente libre de restricciones que se expresara en su naturalidad. Se trató más bien de una mutación en las formas de poder aplicadas a los placeres corporales, a los intercambios y relaciones sexuales.”

2.2 Harreman esklusiboak kontzeptuaz

Aurreko kapituluan aztertu den bezala, maitasunaren sailkapena egiterakoan, nerabeek, gizartearen diskurtso nagusian bezala, hiru maitasun mota bereizi dituzte, gizarte antolaketarekin zuzenean loturik: familia, laguntasuna eta bikote harreman afektibo sexualak. Elkarrizketatuek multzokatze hori modu tautologikoan arrazoitu dute, “*Horrela da horrela delako*”, eta mota bakoitzari funtzio bana atxiki diote, ohiko gizarte antolaketari zilegitasuna emanet. Halaber, erlazioen ezberdintasun horiek bizipenetan diskurtsoetan baino askoz jariakorragoak eta konplexuagoak dira.

Haien narrazioei erreparatuta, generoaren eta heteronormatitatemaren eraginagatik adierazgarriak izan dira lagun minen eta bikote harreman afektibo sexualen arteko bereizketan antzekotasunak eta mugak. Maitasun diskurtsoen panorama konplexu horretan sakontzeko asmoz, *harreman esklusiboak* kontzeptua sortu dugu, bai bikote harremanak bai lagun onenen arteko harremanak izendatzeko, eta, bide batez, horien arteko antzekotasunak eta berezitasunak azpimarratzeko. Esklusibotasunaz aritzearen helburuetako bat heteronormatitatemaren indarra azpimarratzea da.

Esklusibotasuna dute ezaugarri nagusia lagun minak eta bikote harremanak. Helen Harris-ek, “Rethinking Heterosexual Relationship in Polynesia” (1995) artikuluan, definitu du esklusibotasuna, Dorothy Tennov-ek zehazturiko maitasun erromantikoaren ezaugarri nagusietan oinarriturik. Harrisen ustez, maitasun afektibo-sexuala pertsona bakarrean edota bi-hiru pertsonetan ardazten da, eta, esklusibotasun hori elkarrekikoa izateko desira dago; zenbaitetan agerikoa ez den arren, uste da ezaugarri bereizgarriak, errealkak zein idealizatutakoak dituztela pertsona horiek, beste pertsona batzuekin alderatuz (Harris, 1995:103). Horrez gain, esklusibotasunak beste sentipenak baino bereizgarriagoa egiten du emozio erromantikoa. Illouzen (2010) aburuz, Mendebaldeko kulturan, maitasun erromantikoko sentimendua bestelakoa eta paregabea delako sinesmena dago:

“Más que en cualquier otro contexto, en el caso de los sentimientos románticos se espera que las emociones sean diferentes y únicas en su tipo, puesto que si no pueden distinguirse claramente de las obras, la capacidad misma de sentir “amor” queda bajo amenaza. La necesidad de que el amor

romántico sea diferente por carácter intrínseco deriva de las normas monogámicas, pero también se relaciona con otro fenómeno: si los límites entre el sentimiento romántico y las demás emociones son confusos, como en el caso de las “amistades amorosas”, entonces se ve cuestionada la supuesta singularidad de ese sentimiento” (Illouz, 2010:165)

Illouzek (2010) adierazi du, amodioa eta adiskidetasunaren arteko bereizketarik ote dagoen elkarrizketatuei galdeztean, erantzunetan ez zela inolako dudarik agertu: sentimendu ezberdinak dira eta “*izan behar dute*”, nahiz eta maitasuna laguntasunaren osagaietako bat dela onartu. Soziologoaren ustez, kasu horretan, adiskidetasuna ez da mehatxuan jartzen pertsona bat baino gehiago laguna izateagatik. Sentipen erromantikoa bereitzat jotzen da, pertsona bakarrarekin lotzen direlako eta gainerakoengandik banatzen delako (ibidem).

Hala ere, esklusibotasun hori lagun onen esparrura eraman daiteke; izan ere, maitasun erromantikoaren ideología harreman afektibo sexualetatik harago doa, adiskidetasuna ere kutsatuz. Adin horretan, lagun min edo onenak izatea oso ohikoa da, eta esklusibotasun horrek bereizten ditu beste adiskide harremanetatik. Izan ere, lagun-minak estatus berezia du, beste adiskideekin alderatuta. Maitasun erromantikoaren zenbat gako uztartzen dira harreman bietan. Iratik, adibidez, adierazi du bere lagun onenarekin duen harremanari buruz, beti bat egiten dutela:

“Mi mejor amiga es Natalia. Natalia por ejemplo nunca termina las frases, y ya sé lo que quiere decir. Claro, suele ser la primera que me lo cuenta es a mí, que siempre me tiene más cerca y luego me llama, soy a la que antes se lo vas a contar. Yo con las que siempre he estado ha sido con unas, pero como no vamos con ellas, la única que me queda es ella, con Natalia llevo desde quinto. Es la que más conozco, a la hora de hablar nos entendemos bien. Algunas veces estamos hablando nosotras dos, y otra dice ‘pero que no me entero de que estáis hablando’. Nos entendemos nosotras sin decir las cosas.” (Iratzi, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Neska bien elkar ulertzeak esklusibotasuna indartu egiten du. Horrelako maitasun erromantikoaren zantzuak etengabeak dira harreman esklusiboetan. Zentzu horretan,

gure gizartean esklusibotasuna, amodioa bezala, erakargarria da, eta lorpen parametroetan ere ulertzen da, estatus soziala edozein dela ere. Hau da, nerabeek harreman esklusiboak nahi dituzte, baina horiek lana eskatzen dute: praktika batzuen barnerapena, esklusibotasuna lortzeko lanketa, eta konkista, azken finean. Esate baterako, Maitane 13 urteko neskak Mireiaren lagun onena izan nahi du eta Javier 12 urteko mutilak bikote harreman afektibo sexuala lortu nahi du:

“Askotan pentsatzen dut maitasunean. Adibidez Mireiaren lagunik onena Erika da eta nik bere lagunik onena izan nahi dut, berarekin oso gustura nagoelako. Adibidez horretan askotan pentsatzen dut, ea zer egin dezakedan... Gainera Erika ez da asko egoten Mireiarekin, baina hala ere Mireiak esaten du bere lagunik onena dela. Nik nire aldetik ezin dut gehiago egin. Adibidez berak telefonoz deitzen nau eta Erikari ez dizkio hainbeste gauza kontatzen niri bezala. Nik beti galdetzen diot ea zer gertatu den, berak txapa guztia kontatzen dit. Nik uste dut Erikari ere baina apur bat paso egiten duela. Gainera Erika ez da asko ateratzen kalera... Berarekin egoten naiz. Intento que me preste más atención que a Erika. Igual azterketa bat badago, ba deitu egiten dut Mireia eta nire iritzia ematen diot. Adibidez zerbait gertatu bada bere mutil lagunarekin, ba deitu egiten dut eta nire iritzia ematen diot. Horrelako gauzak. Igual kalean gaude eta jendea hasten da “no sé qué Mireia...” pues le saco la cara. Tampoco le voy a sacar la cara si no tiene razón. Baina arrazoia badu, aterako diot. Batzuetan ere bikotearen maitasunean pentsatzen dut, pero me da un poquito más igual. Nik uste dut garrantzitsuagoak direla lagunak, nobioak baino. Luego al final tienes muchas broncas y así.”

(Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

“Yo intento, yo estoy intentando tener una novia, primero conseguirla. Luego yo que yo sepa solo conozco a dos personas que tienen, eso que conozco a bastante gente, ahora no mucho, yo creo que a todo el mundo le gusta una persona... bueno a todo el mundo no, igual hay a bastante gente que le gusta una persona, pero no intentan conseguirla, que se conforman solo, como cuando éramos pequeños, que te conformabas solo con que te gustase una persona,

verla y ya está. Eso pasa. A mí me dicen que soy un poco adelantado, me dicen mis padres y los amigos de mis padres me dicen que estoy un poco adelantado con las chicas, y que no me preocupe.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Hain justu, sexu praktikak hartzen dituzte adiskidetasunak eta bikote harreman afektibo-sexualen arteko bereizle gisa: “*Bikotekidearekin morreatzen zara eta lagunekin ez*”. Bainaz, sexu-praktika horiek ez izatea oso ohikoa da ikerketako nerabeen bikote harreman askotan, batez ere, adin goiztiarretan eta goi-klaseetan. Bi harreman mota horien arteko antzekotasunetako bat sexualitatearen pertzepzio atzerakoiekin lotuta dago, ikerketa goi-klaseetan nabarmendu dena. Eskola erlijiosoko nerabeek, euren arteko bikote harreman afektibo sexualen lehendabiziko praktiketan, lagun taldearen barnean egoten dira modu fisikoan. Besteekin alderatuta, ez dituzte intimitaterako espazioak bilatzen. Intimitate uneak arrisku bezala bizitzea da horren arrazoia: laguntaldetik aldenduta egonik, musukatzen egongo direla susma dezaketelako lagunek. Goi-klaseko nerabeek adierazten duten bezala:

“Quedábamos la cuadrilla junta y luego seguíamos todos juntos. Por ejemplo si iba la cuadrilla delante nosotros íbamos detrás, porque si no mis amigas decían que estaba todo el rato con él y que no le dejaba hablar, entonces iban por delante. No nos marchábamos nosotros solos. En mi curso siempre se hace eso, ir en la misma cuadrilla. Quedan... por ejemplo la chica que está saliendo es la más guay del curso, entonces dicen oye que hoy voy a estar con mi novio, venís todas... y luego van los amigos también para que no esté solo él. Es que aquí es diferente, yo creo que es porque igual tienen vergüenza a estar solos.”(Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Cuando vas con ella por la calle le coges la mano. Tú quedas los sábados, y luego quedas con su cuadrilla y los amigos que son un poco cabrones sinceramente te hacen que le cojas la mano. Que los amigos son muy cabrones, en serio. Tú estás yendo y te dicen que le cojas la mano. Le coges la mano y cuando te despides le das un abrazo.” (Gotzon, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Yo nunca lo he experimentado. Pues abracitos, se cuentan cosas y ya está. Como si fueran amigos, yo también me doy abrazos con algún chico que otro y no estamos saliendo. Como si fueran amigos y ya está. Además algunos ni hablan, simplemente se dan la mano y ya está. Se queda el sábado con él y hablando con él. Se queda toda la cuadrilla y la pareja también. Se habla igual que con todo el mundo. Y en cualquier momento viene y te abraza. Pero yo ahora no tengo novio y también me abrazo con chicos.” (Sofia, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Era horretara, harreman afektibo sexualak eta lagun onenen harremanak ezberdintzeko nerabeen diskurtsoetan agertzen diren “intimitate uneak” eta “praktika sexualak” bezalako ezaugarri bereizleak praktikan deuseztatzen dira, goi-klaseetan batez ere. Harreman esklusiboen arteko bereizketaren konfiguraziorekin jarraituz, plano fisikoan gauzatzen da harreman afektibo sexualen eta lagun onenen muga, batari zein besteari egokitzen zaizkien espazio eta une ezberdinaren bidez. Bi testuinguru ezberdinetara atxikitzeak maitasunaren sailkapena bi praktika edo betebeharrekin lotzen dira, hurrenez hurren:

“Mutilarekin hitz egiteko egon behar zara leku batean zure lagunek ez begiratzeko. Egon ginengi banku batean hitz egiten eta bat-batean eta buelta eman genuen eta guztiak begiratzen zeuden. Kotilla batzuk direlako. Adibidez ni Erikarekin banago ez dago jende guztia begiratzen. Adibidez, Erikari sekretu batzuk kontatzen dizkiot mutilari kontatzen ez dizkiodanak. Adibidez asteburu batean Erikaren etxearen geratu ahal naiz lo egiten eta mutilaren etxearen ere bai baina ez da berdina, hacer una de chicas edo ez.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

“Neska hauekin daukan harremana da más entre chicas. Ezberdintasuna da ez direla gustatzen. lagunen artean ez dira gustatzen. Bakarrik dira lagunak. Andreak eta Kevinek daukaten harreman da de nobios. Ahal dizkio gauza batzuk kontatu Kevin, baina ez berdinak bere lagunari. Bere lagunari ahal dio kontatu ez

zaiola normala iruditzen Kevinek egiten duen zerbait. Kevini gehiago da ‘te quiero’ eta horrelako gauzak.” (Enara, 14 urte, ikastola)

Halaber, sare sozialen erabileraren baitan ere ematen da bikotekide afektibo sexualekiko eta lagun onenarekiko maitasuna. Amodio adierazpenak oso ugariak dira, eta, era berean, “Maite zaitut”, “Te quiero” edo “I love you” bezalako esapideak areagotuz doaz, nahiz eta horiek automatikoak izan daitezkeen. Halaber, harreman eskusiboak publiko egiten dira bertan, datak edo zenbakiak jarriz (harremanaren hasiera adierazten). Maitasuna adieraztean mezuak norberaren orrialdeko “Egoeraren” barnean jartzen dira, lagun onenei ala bikotekideari zuzenduta. Horrela, kontatzen dituzte nerabeek praktika hauek:

“Nobioa izatean tienes tu número y luego pones estados y pones tu número al final, y pones ‘ay hoy es día no se qué!', en el Tuenti y así.” (Maialen, 13 urte, institutu publikoa)

“Batzuetan egiten ditugu Tablones. ‘Para la mejor amiga’ eta horrelako gauzak. Pentsatzen duzuna jartzen duzu, desde odio, se hace de todo, pero amor más que nada y luego amistad. Baino odio oso gutxi.” (Miren, 14 urte, ikastola)

“Cuando te conectas al Tuenti las chicas lo que más tienen es el nombre de una amiga, igual ponen ‘Laura te quiero un montón la mejor chica que puede existir’ y comenta la otra ‘gracias, tú más’. O cuando la gente empieza a salir ponen en los estados, ‘te quiero un montón’, y la fecha, y la gente te comenta, ‘joe, ¡qué bien!...’” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Lagun onenei egindako eskaintza horietan maitasun erromantikoaren beste hainbeste gako agertzen dira: betiereko maitasuna, harreman hautsezinak, elkarrekikotasun perfektuak, maitemina, konplizitatea, maitasuna adierazteko ezizenak, dependentziak etab. Ikus ditzagun, bada, Itxasoren Tuentiko espacio personalean argitara emandako maitasun eskaintzak, baita Maitanerenean eta Anerenean agertutakoak ere:

“Buenos días princesas; se que no estáis en los mejores momentos, yo tampoco, pero somos una pirámide, falta una, nos deshacemos todas,

sabéis? solía pensar que tres son demasiado, que solo puede tenerse una mejor amiga pero sabéis aprendí que las cosas no son así, que se pueden querer a mas de varias personas a la vez. En este punto tengo muy asumido que os necesito veros sonreír cada mañana habéis cambiado mi vida entera de color. Simplemente que empecéis a sonreír siempre por que todo tiene que iros bien. Sabéis? somos lo mas cercano a la perfección que conozco. Se que mas de una vez os he escrito estas parrafadas y que seré bastante pesada, pero que Gracias por ser así como vosotras sois, por todos los consejos que me dais, por que habéis estado hay siempre en lo bueno y en lo malo, gracias por aguantar ese dolor que os he utilizado como mis clíñex y mi almohada tantas veces que ni lo recuerdo, gracias por asumir ese papel, gracias por esas cosas que no se deben contar, que nunca han sido contadas y que gracias por el cariño, la paciencia cuando todo iba mal ,que hay habéis estado. Os echo mucho de menos y que a pesar de todo ya no seré lo que fui para vosotras una vez pero podéis contar conmigo, siempre lo podréis hacer y que enserio nunca me cansare de deciros gracias bebes, por que sois la verdadera suerte de mi vida que nadie me quiere como vosotras que siempre estáis hay para advertirme para verme caer o incluso evitarlo o levantarme, que da igual que hayamos tenido nuestro altibajos, que de eso va nuestra relación, por que somos hermanas, creerme la amistad es secundaria. Que si el mundo nos nos sonríe le sonreiremos nosotras,que para algo estamos. La verdad es que parece llevemos una vida juntas, las tres pero da la casualidad que solo llevamos dos años, perdón las tres unidas ? mucho menos chicas,pero enserio es como si nos sintiera juntas desde siempre, por que Miren lo nuestro seria normal, pero tu Amaia? que entres así de repente en nuestra vida, fue una casualidad, la mejor casualidad que nos ha podido pasar para que nosotras dos también nos uniéramos. La verdad se que sois mis amigas,mis mejores amigas por algo que me pasa con vosotras, se leeros la mirada mientras todo el resto de personas se cree vuestra falsa sonrisa,o por todas las veces que me han preguntado haber si estoy enamorada de vosotras,es que la verdad es que estoy las 24 horas del día pensando en vosotras tío,una cosa grande esto eh. Se que vendrán tiempos difíciles y que alguna querrá dejarlo todo, acabar con la amistad o algo así,que las pasaremos putas,seguro pero para eso nos

tenemos que quizás las tres juntas todo sea mas fácil. (Tuentiko aipua⁵³, Itxaso, 13 urte, ikastola)

“Nosotras nos reímos” Seguramente ni sea perfecta ni la mejor en todo pero para mi siempre sera única,la mas perfecta y la mejor en todo por que ella es la que me llama bebe antes de decirme cualquier cosa,la que me demuestra tanto,pinta de colores mi mañana ,que si ella es feliz yo ya lo soy, que si tengo algún problema no duda en ayudarme que con ella nunca podre sentirme sola por que cuando nota que estoy mal,que me siento triste me da un beso acompañado por un abrazo y lo arregla todo por que es mi sonrisa diaria,que cuento para todo con ella que es mi pequeña y es guapisima. Que me paso junto a ti los mejores momentos, los mas bonitos, las mayores risas son junto a ella por que eres tu, Amaia, nadie mas me hace sentir así de bien mi amor,que siempre as significado mucho pero ahora te as superado a ti misma gordita. Te echo de menos,todo el rato,asta cuando te voy ha ver en un par de minutos,a veces te necesito muchísimo mi amor. Todavía no entiendo como se le puede hacer daño a cosita tan hermosa,que solo tu me haces ver lo oscuro claro y solo tu eres capaz de hacerme sonreír solo con verte sonreír por que parteria dientes por solo ver tu sonrisa.Eres Amaia y eres la mas bonita de todas las niñas,que a ti y a mi el siempre se nos queda pequeño, que nos reímo jajajaja G U A P A !”

(Tuentiko aipua, Itxaso, 13 urte, ikastola)

“Infinito Petardaaaa!! Para esa persona que ya tiene catorce añazoooos, y k no puede faltar en mi dia a dia por que no sabria que hacer sin ella. Por esos consejos que me da, por las ostias que me pega cuando hago algo que con el tiempo sabe que me va a hacer daño, por esos momentos en los quee ya te has derrumbado pero ella sigue en el telefono intentando animarte o simplemente por esas tardes de domingo en las que me aburro y sin dudarlo me dice "vente a mi casa". Por eso y mas quiero decirte que bales muchoo, que me has ayudado un monton y k te kieroooo petardaaaaaa!!!”

(Tuentiko aipua, Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

⁵³ Tuentiko aipu guztiak hitzez hitz jasota daude, soilik nerabeen izenak aldatu dira anonomotasunagatik.

“Marida :) Maridaaaa Cariño yo solo te ago esto para q sepas quetequiero con locura y que pase lo que pase lo quee yo SIEMPRE estare alli para todo por q tequiero miniña bonita jajajaja xD No son tantos años juntas pero el tiempo q e esstado contigo no los pasa cualquiera por q entre tus risas nuestras bobadas nuestros chistes y nuestras cosas el tiempo se nos pasa bolando. Mira niña quetequiero y ya esta bale? Que iria ahora mismo hasta Madrid para darte un pedazo abrazo y decirte quetequiero y NUNCA me olles NUNCA mas nos bamos a separar. TeAmo Marida :) (28)” (Tuentiko aipua, Ane, 13 urte, ikastola)

Esanguratsua da nesken arteko maitasun eskaintza horiek adiskidetasun bezala hartzean eta ez dira zalantzan jartzen: inork ez du pentsatzen bikote harreman afektibo-sexuala dutenik. Hau da, ez da lagun horiengan harreman afektibo sexualik proiektatzen, nahiz eta harreman afektibo sexualen praktikei begira antzekotasun handiak dituzten. Nesken arteko maitasun adierazpen horiek onartzen dira, izan ere, emakumezkoen maitasunerako joera emozionalaren logikarekin bat egiten dute. Aitzitik, mutilen artean amodio eskaintza horiek joera homosexualtzat hartzen dira eta ez dira onartzen. Izan ere, mutilen genero identitatea zalantzan jartzen da, genero dikotomiaren baitan, eta derrigorrezko heterosexualitatearen bitartez, zalantzan jarritako maskulinitatea homosexualtasuntzat hartzen da:

“Igual bai jartzen duzu en tu estado mutil batekin bazaude ‘te quiero’, edo horrelako gauzak edo zenbakiak, ateratzen hasi zineten fetxa. Nik ‘te quiero’ eta horrelakoak batzuetan jarri ditut baina zenbakiena ez. edo igual jendeari ere jartzen zaio ‘a durar’ baina hori tabloian. Badakigu ez dutela iraungo, baina se pone por decir algo. Zorte on bezala. Lagunen artean ere jartzen dira horrelako gauzak, ‘te quiero’ eta... Igual mutil bati ere esaten diozu, baina lagun bezala. Mutilen artean ez dituzte horrelakorik esaten, ez, ez, vamos... Un tio si le dice a otro tio ‘te quiero’ ya están diciendo si son gays o que... Adibidez, Ekainek bai egiten du, ya, porque Ekain es muy, yo creo que de mayor Ekain va a ser gay, orain ez dakiela zer nahi duen.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Amodio adierazpenak mutilen artean izaterakoan, generoa eta identitate sexuala auzitan jartzen dira, nolabait, generoak eta maitasun praktikek elkar elikatzen dutelako, harreman eredu zehatzak ezarriz.

2.3 Pentsamendu heterosexuala harreman esklusiboen oinarri

Wittig-i jarraiki, “pentsamendu heterosexualak” ezartzen ditu gizon eta emakumeen arteko nahitaezko harremanak, bada, derrigorrezko heterosexualitatea. Hain justu, pentsamendu heterosexualarekin jartzen zaie harreman esklusiboei muga, lagun onenen eta bikote harremanen arteko bereizpena eraikitzea. Harreman esklusiboen arteko bereizketa egiteko ahaleginak -eta betebeharrok- sare sozialen baitan islatzen dira. Esamoldeen etengabeko errepikapena zenbaitetan esanguratsutzat hartzen ez den arren, erabilpena bera adierazgarria da heteronormatiboki baldintzatuta dagoelako. Hori dela-eta, nerabeen artean, maitasun esapideak erabiltzeko Arautegia argia da, heteronormatibitatearen arabera ardazten da:

“Sin más, es que a todas las chicas te ponen ‘hola guapo’, es difícil saber cuando estás ligando y cuando no, a no ser que le pidas salir por Tuenti. A mí, por ejemplo, las de un colegio siempre me ponen ‘hola guapo’. Y yo les pongo ‘hola guapa’ y luego para despedirte, ‘adiós, te quiero, mucho besos’. Es verdad que las quiero pero como amigas. (...) Solo digo te quiero por el Tuenti. A mis amigos ¡no!, ¡a mis amigas! A mis amigos no, porque no soy gay. Es diferente si es un chico o es una chica.” (Adrian, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Por Tuenti también solemos decir, no se lo digo a todo el mundo, a mis amigas sí, a los chicos no. Por Tuenti no hablo con todos los chicos y si hablo no les digo que les quiero, a ver, hay que medir las palabras cuando hablas con un chico por Tuenti, porque se lo creen todo. Un día me dijeron mis amigas a ver si me gustaba no sé quién y yo les dije que no, porque yo le dije no sé qué por Tuenti, y no sé qué tal... desde entonces no he vuelto a poner nada por Tuenti. Así que de

los chicos mejor olvidarse, luego se lo creen demasiado.”(Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Arau heterosexualaren ondorioz eta harreman afektibo sexualen erdigunearen ondorioz, neskak mutilei, eta alderantziz, zuzendutako “maite zaitut” horiek harreman afektibo sexualekin lotzeko arriskua nabaritzen dute nerabeek. Nesken artean, berriz, ez da horrela ulertzen; esamolde berak adiskidetasunarekin lotzen dituzte, feminitate hegemonikoaren logika jarraitzen dutelako. Horrek mutilen arteko “maite zaitut” horiek debekatuta egotea dakar, maskulinitatea mehatxatzen dutelako, hain zuen ere. Era horretara, esan daiteke pentsamendu heterosexualaren egituratze emozionalak sentipen eta jarrera zehatzak bideratzen dituela maitasunaren diskurtsoetan.

Arestian aipatu dugunez, nerabeen narrazioetan, bikote harreman afektibo sexualen eta lagun onenen arteko berezketa generoaren arabera gauzatzen da. Izan ere, erlazio eredu horiek desberdintzeko arrazoi nagusia horixe da: “*Neska delako*” ala “*mutila delako*”. Erantzun horiek, Butlerri jarraituz, ez lirateke esaldi deskribatzaile hutsak izango, baizik eta performatiboak, hau da, lege heterosexualean erritualizaturiko inbokazio edo zitazioak (Butler, 2009:12). Korapilo horiek guztiak ezbai eta hausnarketa anitzak pizten dituzte, generoa, heteronormatibitatea eta maitasunaren arteko harremanak mahai gainera ekarriz. Esaldi deskriptibo hutsak baino, esaldi performatiboak. Era horretara, genero identitateak berak, maitasun diskurtsoen baldintzatzalea den heinean, harreman esklusiboetan kokatzeko eta egoteko moduetan ere eragina du. Lagun onenak izateko moduan, jarrera, jokaera, hitzak, gorputz hurbilpenak eta, azken batean, lagun onenen arteko maitasuna ulertzeko moduak dira genero identitateak zehaztutako praktika ereduen ondorio.

Ikerketako nerabeen artean nabarmendu da mutilen arteko maitasun adierazpenak eta gauzapenak isilarazita, ukatuta eta debekatuta daudela, neskak bizipen eta elkar truke horietara gidaturik dauden bitartean. Nesken arteko maitasun harremanen onarprena lotuta dago emakumeei egokitzen zaien derrigorrezko izaera afektiboarekin eta betiere adiskidetasun logikaren barnean; izan ere, ez dira hartzen harreman lesbikotzat. Genero identitatearen hausle bezala hartzeagatik, mutilen arteko maitasun adierazpenak harreman homosexualen lotzen dira helburu mingarri batekin eta, era berean, helburu gidatzaile batekin. Mina egiteko helburuarekin, “maricón” edo “gay” izendatzen dituzte lagun onenen arteko maitasun adierazpenak dituztenak, heterosexualitateari erantzuten

dion maskulinitate eredu batetara gidatzeko asmoz. Hartara, gizarte antolaketaren baitan, jarrera eta jokaera zehatzak bideratzen ditu pentsamendu heterosexualak, nerabeen maitasunaren sailkapena horren ondorio eta sostengu izanik.

Horrela, generoari eta heteronormativitateari loturik, maitasunaren sailkapenaren anbiguotasunaren beste adibide bat da honakoa: nerabeek beraien bikotekide ideala proiektatzerakoan egokitzen dizkioen ezaugarriek bat egiten dute lagun minen deskribapenean agertzen direnekin (“*jatorra, nire gustuak izatea...*”), hau da, bikote idealaren deskribapenak lagun onenaren deskribapenarekin bat egiten du. Nahiz eta adiskidetasuna eta bikote harremanak diskurtsoetan erabat bereizita egon, praktikan gainditu egiten da muga hori; batik bat, nesken lagun minen kasuetan.

2.3.1 Zenbait ohar harreman ez-heterosexualen inguruaren: gay jatorren figura eta lesbianismoaren hutsunea

Pentsamendu heterosexualaren erregimenak harreman esklusiboen arteko bereizketa bideratzen du, non nesken eta mutilen arteko harremanak bikote harreman afektiboak izatera bultzatzen dituen, nesken artekoak edo mutilen artekoak lagun onenak izatera gidatzen dituen bitartean. Horrela, bikote harremanetan heterosexualak dira nagusi. Ikerketako nerabeen diskurtsoetan, harreman afektibo sexual lesbiko edo homosexualik bizi duen gazterik ez da egon, ezta aitorpenik egon ere. Batetik, lesbianismoak izan duen hutsunea berez adierazgarria izan da, eta, bestetik, homosexualitateari buruzko narrazioak soilik hirugarren pertsonan kontatu dituzte, hau da, betiere ezagun baten inguruaren aritu dira. Ezagun horren sexualitateaz aritu, eta geroko “*pero es muy majo*” bezalako esamoldeen errepikapena ere deigarria izan da. Homosexualitatea modu anekdotiko batean agertu da nerabe horien diskurtsoetan, jendarte antolaketaren isla. Izan ere, maitasunaren eta sexualitatearen hierarkia zehatz horrek bermatzen du gizarte antolaketa, horrek ere harreman heterosexualak izatera bultzatzen duen bitartean. Gayle Rubinen hitzak berreskuratuko ditugu hemen:

“En la cima de la pirámide erótica los heterosexuales reproductores casados. Justo debajo están los heterosexuales monógamos no casados y

agrupados en pareja, seguidos de la mayor parte de los demás heterosexuales. (...) Las parejas estables de gays y lesbianas están en el borde de la respetabilidad, los homosexuales y lesbianas promiscuos revolotean justo por encima de los grupos en el fondo de la misma pirámide. Las castas sexuales despreciadas incluyen normalmente a los transexuales, travestís, fetichistas, sadomasoquistas, trabajadores del sexo, tales como los prostitutas, las prostitutas y quienes trabajan como modelos en la pornografía y la más baja de todas, aquellos cuyo erotismo transgrede las fronteras generacionales” (Rubin 1989:44).

Eskema horren gailurrean, bikote harreman afektibo heterosexualak daude eta horrela erreproduzitzen dute nerabeek, praktika zuzenean ez bada ere, etorkizunera begira egindako proiekzioetan edota fantasien eremuan. Maila diskurtsiboan, harreman ez-heterosexualak besteen bizipen bezala eraikitzen dira; horretarako, ezagun edo ezezagun baten kontakizunean oinarritzen dira. Horrez gain, pentsamendu heterosexualaren ildotik, genero identitateak zalantzan jartzen direnean heterosexualitatea ezbaian jartzen da. Maskulinitate hegemonikoa zalantzan jartzen duen mutilari homosexualitatea atxikitzen diote, eta feminitatea ezbaian jartzea, aldiz, ez da hain arduragarritzat hartzen nerabeen narrazioetan, lesbianismoa ikusezina zaielako.

Heterosexualak ez diren harremanen inguruau narrazio figuratiboak eratzen dira, ahoz-ahokoak ahalbidetzen dituena. Figuratiboa deritzot, ez direlako zuzenean nerabe horiek bizi duten errealitatearen parte; baizik eta heteronormativitatearen ondorioz sortzen diren errealitate diskurtsiboak direlako. Adibidez, Ekain 14 urteko gaztetxoaren inguruau aipatutako diskurtso heterosexual erregulatzailea martxan da. Maskulinitatearen eredu hegemonikoarekin bat egiten ez duelako homosexuala izatea atxikitzen diote ingurukoek, pentsamendu heterosexualari jarraiki. Laguna duen Ikerrek horrela dio:

“Nik ikusten dut nire kurtsoan daudela homosexualak, a alguno se le ve que tiene pluma, se le ve que es gay, gay se nace. Ekain. Está intentando ocultar que es gay y dice que le gustan las chicas, porque le puede dar vergüenza. Pero ¿tú has visto algún chico que vista como vista Ekain? Va con tirantes y pantalones rosas, esas cosas no son... no lo veo para nada mal. Además baila y hace gestos, ya se sabe que

es gay. Mi tío es gay y yo sé que los gestos que hace mi tío, los hace parecidos Ekain. Igual también puede ser que sea femenino, igual le gustan las chicas, pero le gusta mucho andar con... Yo le noto que es un poco gay.” (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

Gorputz-jarreretan, janzkeran, izaeran eta zaletasunetan oinarrituta eratzen da diskurtso figuratibo hori, eta Ekaini homosexualitatea egokitzen zaio. Lagunen narrazioez gain, bere auzoan jakintzat ematen den zerbait dela adierazten dute nerabeek. Maitane Ekainen lagun minak “jakintzat” ematen du:

“Ekain adibidez kasu berezia da, ematen du neska dela mutila baino gehiago. Ramalazo batzuk ditut... Adibidez egun batean nire etxera sartu zen eta nire aitak pentsatu zuen Ana edo Paula zirela, Ekain sartu zen esaten ‘Maitane, ¡qué fuerte que he soñado con no sé qué y no sé cuantos’. Es en plan... puff... estoy aconstumbrada pero algunas veces es demasiado. Parece gay. (...) Neskak gustatzen zaizkio. Bainak dituen ramalazoak... Ez dira normalak. Jende guztia esaten dugu ez direla normalak, bere aitak ere esaten du. Behin bere aitak nire aitarekin comentatu zuen, ‘bueno, si me sale de la otra acera... qué se le va a hacer, también le queremos’. Asko nabaritzen zaio, ramalazo batzuk ditu... Gurekin dantzara joaten da eta adibidez mugimendu batzuk ez ditu mutil batek egiten. (...) Mutila da, baina hori ez du mutil batek egiten. Gero ere beti joaten da gurekin, ez du futbolean jolasten, gurekin dator al cotilleo. (...) Mutilak dira apur bat más bastos eta gu gara, más delicadas no, más así no sé. Mutilak adibidez idaztean letran ikusten da, askoz ere gutxiago ahalegintzen dira. Bainak denean horrela, kirolean izan ezik, beste guztian askoz gutxiago ahalegintzen dira. Neskak gara langileagoak gehienak, que luego nos entra la edad tonta y lo dejamos. (Maitane, 12 urte, institutu publikoa)

Ekainen irakasleak diskurtso figuratibo hori partekatzen du:

“Ba jarraitzen dute ‘maricón’ insulto bezala erabiltzen. Nik ez dut sartu aurten, beste urte batzuetan sartzen dituzu gauzak, baina nik ez

dut sartu aurten, ze nire klasean badago Ekain, adibidez, que se tiene que encontrar a sí mismo, bere bizitza. Ekain tiene una pluma que se le cae por las esquinas, baina berak momentu honetan ez du ikusten bere burua, zentzu horretan se tendrá que encontrar a sí mismo, tendrá que desarrollarse. Zuzenean ez dira sartzen berarekin, jarraitzen dute ‘maricón’ insulto bezala erabiltzen, baina berarekin ez dira sartzen. Berarentzat ez da izan, hori ez dagoelako argi planteatuta, arazoa, baina bera ibiltzen da neskekin, han dago asuntua, ez da asko atera klasean gaia, nire aurrean hori badakite, nik zerbait entzuten dudanean beti esaten dut: ‘badakizu zer den? Azaldu! Ze zuek esan nahi badiozue konnotazio batekin norbaiti zuek jakin behar duzue zer esan. Hablar de él sin saber, qué ignorancia no?....’ (...) Nik uste dut adin honetan ez dutela bikote harreman homosexualik planteatzen. Momentu honetan eta talde horretan ez da planteatzen. Nik ez dut ikusten. Igual izan da kasualitatez, baina ez da izan beraien intereseko gaia. Klasean beste kontu batzuekin bai, se puede hacer sufrir muchísimo, por miles de cosas, baina ez horregatik. Es más, Ekain izan ahal da tipo bat al que le fueran con el tema a quien le machacaran, eta ez. Bai izan da momentu batzuetan, beste batzuen trataera ez da izan ona, porque es un pelma, ez da izan beste ezergatik. Porque es un pelma, da den moduan, orduan éstos son como son también, orduan punpunpun. Orduan egon da bolada bat de ‘me marginan, bullying...a!!’ orduan vamos a colocar la cabeza todos aquí, baina ez da horregatik. Behin ama larrituta etorri zen eta nik esan nion ez nuela ikusten, egongo nintzela adi, baina ez zen izan arrazoia behintzat planteatzeko zeozer. Que es un pesado, que no calla, que es un cotilla... orduan bestean daude beste rollo batean... baina ez.. egia esateko ez... eta nik ya pasaden urtetik, esan nuen podemos tener problemas horregatik, baina ez. Zentzu horretan, bueno, uste dut normalizatuta daukatela, sin más.” (Institutuko irakaslea, emakumea)

Sinesmen orokortua da Ekain homosexuala dela. Horren inguruan, modu zehatz batean jokatzeko itxarobideak sortzen dira, baita bideratu ere. Diskurtso figuratibo zabal horiez

gain, indarkeriako egoerak agerikoak dira. Nahiz eta afera horrek azterketa sakona eskatzen duen, hemen ikerketa honetan jasotakoan oinarrituko gara, indarkeriaren zantzu batzuk baino ez azalduz. Izan ere, ageriko homofobiak indarkeria fisikoa edo hitzezkoa modu aktiboan eman ditzake, eta era sotilean, berriz, bazterketa isila (Generelo eta Pichardo, 2006:10). Indarkeria hori genero eta sexualitate arauak haustegatik jasotzen da (ibidem:19). Era berean, indarkeria estigma sozialari eta bazterketari ere loturik doa. Ekainen kasuan, kontrako indarkeriak molde sotil horiek hartzen ditu. Behin, bere bikotekide berriaren inguruan hitz egin zidan: guztiz maiteminduta zegoela, lau egun zeramatela elkarrekin, bere gurasoek ez zutela oso ongi ikusten neska zaharragoa zelako baina berak harremanagatik borrokatzeko zuela... Tuentian neskaren argazki-muntaketak, harremana hasitako egunari erreferentziak eta “maite zaitut” bezalako eskaintzak jarri zituen Ekainek. Handik eta pare bat egunetara harremanagatik galdetzean, esan zidan beste ikastetxe batekoak berari egindako txantxa bat zela eta neska ez zela existitzen. Batetik, esan genezake imajinazioak gertakizun horretan bere espazioa izan zuela, Ekainek harreman imajinario bat bizi izan zuelako, eta, horrela, gorpuztu zuen bere maitemina, beste kapitulu batean landuko den bezala. Baina, bestetik, gaira itzuliz, beste eskolako ezagun horiek egindako txantxa ez zen txantxa hutsa izan, Ekainen sexualitatea auzitan jartzeko erabili zuten: neskak gustukoak zituen edo ez jakiteko. Jarduera horrek bere ondorioak izan zituen: Ekaini sufriarazi zioten, alde batetik, desamodio prozesu bat bizi behar izan zuelako eta, beste aldetik, besteek bere kontura barre egiteak ekarri zion mina. Erregimen heterosexualak ezarritako indarkeria bizi izan zuen.

Indarkeriaren beste adibide bat, goi-klaseko nerabeen diskurtsoetan agertu zen: ustezko normaltasunaren barnean, nerabeek ez baitzuten larritasunez bizi, eskolatik alde egitera behartuta egon diren gazte homosexualak. Homosexuala izateagatik eskola aldatzea ez da zalantzhan jartzen, onartzen da eta narrazio horrek eskolako nerabeen artean irauten du:

“No hablamos sobre la homosexualidad. Si hay algún homosexual. Hay un chaval, amigo mío no, pero sé quién es, que tiene un novio. Antes estaba en el colegio pero se ha ido, no sé donde está ahora. Son novios y los ves así, ver dos tíos me hace gracia, te quedas como... no sé en qué escuela está ahora. Tiene un año más, estaba en A con los

de mi curso, se fue en primaria. En este colegio no hay parejas gays.”

(Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Gorkak argi uzten du ez dela bera laguna, ezaguna da. Beste kasuetan bezala, hirugarren pertsona urruna dela zehazten du. Istorio anekdotikoetan zirkulatzen du homosexuala izatearen narrazioa. Baino lesbianismoari dagokionez, ikusezintasuna nagusitzen da. Nesken arteko afektuak, ukipenak eta sentimendu adierazpenak onartzen dira, esandako emakumeen emozioen espezializazioa eta feminitateari atxikitzen zaion izaera txeratsua mantentzen direlako. Lesbianismoa objektu sexuala bihurtzen da nerabeen diskurtsoetan diskurso pornografikoaren ondorioz. Ziortza 14 urteko neskak kontatzen du:

“Gure inguruan ez dago harreman homosexualik, ¡qué va! Igual Urkidin igual bai, nik batzuetan ikusi dut. Nire adinean, adibidez ezagutzen dut lesbiana bikote bat urte bat gehiago daukate. Ez dakit zein instikoak diren, jendeak esaten du elkarrekin daudela. Niri me parece normal, me parece bien. Los tios me imagino que dirán si son bollerías y no sé qué. Orain polemika dago Ana eta Sandra musukatzen agertu direlako argazki batean. Geuden hondartzan eta Anak esan zuen berak nahi zuela argazki bat neska batekin musukatzen. Parece que está ahí... No se porque querían eso, pero hay una polémica. Esaten dute Anari buruz ‘la secretaría porno-star además es bollera’, es que behin txamarra bat jarri zuen eta esan zioten, si la secretaría porno-star. Eta baten batek esan zuen ‘además es bollera’.”(Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Sare sozialetan, behin baino gehiagotan aurkitu izan ditut horrelako egoerak: bi nesken artean ahoan musu ematen edo bestelako harreman sexuala simulatzen dituzten argazkiak. Ziortzak kontatu zidan beraiekin zegoela, Anak eta Sandrak esan zutela argazki bat nahi zutela neska batekin musukatzen. Argazkia atera eta Tuentian jarri zuten. Argazkia ikasgelan zein aisiaidiko guneetan asko komentatu zen. Beraien gelako mutilen artean entzun ahal izan nuen, “*Me hubiera gustado estar allí*”, “*Se lo dieron con lengua*” edo “*Vaya foto*” bezalako esamesak, betiere zentzu sexuala emanaz.

Era horretara, esan genezake, pentsamendu heterosexualak bere baitan hartzen dituela homosexualari eta lesbianismoari buruzko zenbait diskurso. Homosexualitatea aukera

bezala agertzen da, “*onartzen dut*” esatea ohikoa da, diskurtso hegemonikoak barneratu dituztelako. Bainak aukera hori ez da norberaren larrutan sentitzen. Pertsona homosexualak “onartzen” dira –horrek ekartzen duen botere harreman mailarekin kontziente izan gabe–, baina ez da norberaren aukeratzat hartzen. Lesbianismoarekin, aldiz, ez dago etsaitasun handirik. Pentsamendu heterosexualak zenbait irudikapen pornografikoen barnean kokatu du lesbianismoa, eta nerabeentzat, hortik urruntzen dena, maila batean ikusezina da tamalez.

2.4 Esklusibotasuna gorpuzten: izen-tankerak, gorputz-markak, opariak eta emozio mingarriak

Esklusibotasunak ez ditu soilik harremanak eta jokaerak bideratzen, gorpuztu eta materializatu ere egiten ditu, era anitzetan: izendatze-tankerekin, marka sinbolikoekin, objektuekin, emozioekin... Hainbat bide daude gorputz markak edo gorputz estilizazioak⁵⁴, Butlerri (2009) jarraiki, gauzatzeko. Sentipenek sortzen dituzte gorputz marka horiek, baina baita objektu eta marka horiek izan dezaketen rol aktiboa ere emozioen sorreran eta adiskidetasunaren esperientzia emozionalean. Ikus ditzagun, bada, banan-banan.

⁵⁴ Butler (2009) gorputz estilizazioaz ari da genero performatibilitatea azaltzeko: “*La postura de que el género es performativo intentaba poner de manifiesto que lo que consideramos una esencia interna del género se construye a través de un conjunto sostenido de actos, postulados por medio de la estilización del cuerpo basada en el género. De esta forma se demuestra que lo que hemos tomado como un rasgo «interno» de nosotros mismos es algo que anticipamos y producimos a través de ciertos actos corporales, en un extremo, un efecto alucinatorio de gestos naturalizados.*”(ibídem:17). Jarraitzen du: “*El género es la estilización repetida del cuerpo, una sucesión de acciones repetidas dentro de un marco regulador muy estricto que se inmoviliza con el tiempo para crear la apariencia de sustancia, de una especie natural de ser.*”(ibídem:98). Laburbiltzen du: “*El género no debe considerarse una identidad estable o un sitio donde se funde la capacidad de acción y de donde surjan distintos actos, sino más bien como una identidad débilmente formada en el tiempo, instaurada en un espacio exterior mediante una reiteración estilizada de actos. El efecto del género se crea por medio de la estilización del cuerpo y, por consiguiente, debe entenderse como la manera mundana en que los diferentes tipos de gestos, movimientos y estilos corporales crean la ilusión de un yo con género constante.*” (ibídem:273)

2.4.1 Emozio mingarriak

Maitasuna adierazteko izen-tankeraz eta objektuez gain, esklusibotasuna zenbait emozioen bidez sendotzen da. Izan ere, hautaketa eta bazterketa ardatzaren bitartez taxutzen da, hots, pertsona bat aukeratu egiten da eta besteak, aldiz, alboratu. Pribilegiozko botere kokapena ematen zaio pertsona horri, berezitasun horiek berarengan proiektatzean. Horrela, gainontzeko harremanekiko bazterzailea den heinean, esklusibotasunak itxarobide batzuk dakartz, adibidez, elkarrekikoa izatea edota betierekoa izatea:

“Me gustaría que mi pareja fuera esa persona, Janire, porque es más guapa, porque... normalmente primero porque es más guapa, luego ya si es maja pues mejor, pero me da igual. Porque si estás saliendo con ella contigo es maja. Igual con los demás es una borde, pero si contigo es maja.” (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“La verdad que mejor amiga maps yo no suelo utilizar tanto, mejor amiga de verdad de verdad es de Burgos y si que le llamo, pero Best Friend me parece como más pijo, así que no lo suelo decir. Es estar un poquito más con la otra persona, estar todo el rato. Es como si tuvieses un novio pero en chica. Vas siempre con esa persona, te ríes con esa persona, compartes las mismas aficiones, las mismas cosas. Yo con la mía hago eso y siempre pensamos lo mismo a la vez. Eso que nos llevamos un par de años de diferencia. (Carmen, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Baina, ezeren gainetik, esklusibotasun horren tresna emozional sostengatzalea jeloskortasuna da. Pertsona horrengan proiektatzen diren ustezko berezitasunak elkarrekikoak izan beharko lirateke, eta, horregatik, elkarrekikotasuna galtzeko beldurak pizten eta elikatzen dira jeloskortasunaren bitartez. Hori dela-eta, harreman esklusiboen sustatzaile dira sufrimendua edo jeloskortasuna bezalako emozio mingarriak. Izan ere, ezaugarri berezi horiek pertsona batengan kokatzerakoan, bazterketa gauzatzen da gainerakoekiko. Esklusibotasunaren hauskortasunarekin batera, batez ere, sufrimendua eta jeloskortasuna agertzen dira. Mireiaren, Estherren eta

Mirenen bizipenen narrazioetan, bikote harreman afektibo sexualean eta lagunen onenen kasuetan atzeman den bezala:

“Bikotekidea baduzu ezin dituzu beste mutil batzuekin egon eta harremana izan. Hori bai, ezin duzu harreman berdina izan zure mutila jeloskor jartzen delako edo neska. Orduan nik uste dut adin honekin, nik hamabi urte ditut oraindik, ni pentsatzen egon naiz eta nik uste dut bikotea utzi ostean hoberena dela udan disfrutatzea, mutilak ezagutzea eta bide berri bat egitea.”(Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

“Por ejemplo Ana se enfada mucho porque mi amiga habla con Oier. Y yo me enfado con Ana porque tontea con mi novio. Cuando me enfado no me controlo y empiezo a insultar a los cuatro vientos. Empiezo a gritar a la persona con la que estoy hablando. Digo que es una zorra y que siempre está pasando el culo por la cara de los chicos. Y una vez ella estaba aquí y me estaba mirando, yo como diciendo ‘venga escúchame, que te enteres de algo’. Hoy por ejemplo en el pasillo, se me acerca mi amiga y me dice ‘¿Lo has visto? Que Ana le ha empezado a abrazar y a dar besos a tu novio’. Y yo ‘¿¡qué?!’, yo he empezado ‘¡bua qué zorra!, ya empieza así...’ Cosas así por el estilo. Luego yo le dije a mi novio que me había sentado mal lo del abrazo, me dijo que estuviera tranquila que es una amiga.”
(Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Amaia nire lagunik onena da. Berarekin konfiantza asko daukat, eta ezagutzen dut duela urte eta erdi baina konfiantza handiagoa daukat Itxasorekin baino. Ez dakit zergatik, baina berak ere konfiantza handia du nirekin. Adibidez Itxasok nigan Amaiarenengen baino gehiago fidatzen da. Baina biekin konfiantza dauka. Itxaso batzuetan txarto sentitzen da batzuetan esaten dit niri eta beste batzuetan esaten dio berari. Beti egon da hor erdian gu separatzeko. Normala da jeloskor jartzea, gara hirurak eta gero gu biak gehiago. Jada ez dugu MAPS eta hori guztia erabiltzen. Moda pasatu da, baina batzuek erabiltzen dute. MA esaten diot Amaiari batzuetan, Itxasori ez.

Amaiarekin konfiatu ahal dut beti, den dena kontatzen diot. Amaia beti dago hor." (Miren, 14 urte, ikastola)

Era berean, esklusibotasuna norbanakoaren askatasunaren mugatzailea ere bada, besteak beste, beste batzuekin harreman mota berdinak izatea ukatzen delako. Horrela, praktikan, erantzukizunak bilatzen dira, eta horrek lana eskatzen du. Jarrera eta jokabide zehatzak izatea espero da, gorputzak mugatuz eta bideratuz, eta, bidenabar, maitasun aukeren murriketak eta debekuak indartu egiten dira. Horrek guztiak inguruko lagunak tokiz kanpo sentiaraztera eramatzen ditu sarritan, eta esklusibotasun horren baitan ez egoteak ondorioak ditu, eta modu mingarrian bizi daiteke, sufrimendua bultzatzen baitu:

"Aquí no tengo mejores amigas porque todas son diferentes, todas me caen genial por una cosa o por otra. Por cosas que tiene cada una de ellas, así que no me parece bien etiquetarlas con mejor amiga a alguna de ellas. Algunas no se dan cuenta, pero al hacer eso excluyes a todas las demás, y las demás se enfadan. Y claro, si no quieres que las demás hablen mal de ti, a tus espaldas diciendo que vas con otras antes que con ellas. Eso suele pasar. La gente se siente dolida, o se medio pican porque están de abracitos, y ay ay mejor amiga y no sé qué. Te quedas como venga vale que estoy aquí. Alguna vez me he sentido mal. No está bien, la otra persona no se merece estar ahí, mirándote mientras las otras se dan un abrazo y dicen mejor amigas y tal." (Carmen, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

"Sentitu naiz tokiz kanpo porque son novios dos y yo no tengo que estar ahí. Igual está la pareja y yo me tengo que ir para dejarles solos. Eso con todo el mundo." (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

Horrez gain, fidelitasunaren eta monogamiaren izenean, gorputzak mugatzen dira. Illouzek (2010) aipatutako sentipen erromantikoaren bakartasuna arau monogamikoen ondorioa da. Esklusibotasuna indartzeko, sexualitatea mugatu egiten da eta zenbait emozio ukatzen dira. Ikerketako neska-mutilen narrazioetan, modu anitzetan agertzen dira adierazpen mugatzaile horiek, adibidez:

"Adibidez, mutil batetk nobia badauka ez da joaten musuak ematera guztiei, neskei. Horrela, konportatzen da de que solo me gusta mi

novia y nadie más. Nik ere egiten dut, edukitzan nuenean nobioa, nik ematen nituen bi muxu eta ya está. Ez nintzen bati egoten besarkadak ematen.” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

“Nire bikotekidea izan behar da no vaya zorreando con los demás, por celos... porque no te puedes ir dando besitos por todas las esquinas con todo el mundo... Yo en Ana [ikaskide bat] veo mucho, mucho mucho. Lo hace con todos. Yo no sería su novio, está super buena pero si es como es, por muy buena que está, si tontea con los demás y luego se va con otros chicos. Pero también daba abracitos y besitos a los demás, cuando estaba con Oier yo no lo veo normal.” (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

“Yo no quiero tener pareja porque yo estoy mejor libre, imagínate que estoy saliendo con una pasa una por la calle y no me voy a poder fijar, tiene su atractivo pero no me voy a poder fijar, pasa una y seguro que ella también mirara a alguno, o sea que...” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

Jeloskortasunaren, sufrimenduaren eta emozio mingarrien ondorioz, esklusibotasunak indarkeria bidera dezake. Izan ere, esklusibotasuna jabetza parametroetan ulertuz gero, autonomiaren galera ekartzen du, kasu horietan, emakumeen kalterako. Mirenek horrela adierazi du lagun onena den Amaiaren bikote harreman afektibo sexualaren inguruan:

“Adibidez mutil batzuk dira oso jeloskorra etabadaude neska batzuk tonteatzen dutela guztiekin nobioa izan arren. Orduan ba horiek ez dute nahi, batzuk dira ‘ésta es mía y no la vas a tocar’. Adibidez Aritz, Amaiak ezin dizkio mutil bati bi muxu eman, dos besos de hola. Aitzek esaten du ‘no la tocas que te reviento’. Aritz holakoa da, orain ez hainbeste kontrolatzen da gehiago. Hace mucho que no se pega con nadie. Horregatik eta nahi duelako jotzen da. Adibidez Aitzekin jendeak ez du nahi. Lehenago por que las lía mucho eta gero porque igual cada fin de semana se lía con una con dos. Amaiak badaki. Ez dakit zer ikusten dioten. Baino si te gusta te gusta baina no sé. Sin más, Amaiak ez du ezer egiten. Batzueta dago horrela. Adibidez

jaietan begiratu zioten Amaiari. Geuden Aritz, beste lagun bat, Amaia eta ni. Aldapa bat zegoen eta gu igotzen geunden eta mutil koadrila bat jeisten. Amaia pasatu zen eta mutil koadrila begira geratu zitzzion, denak atzera begiratu zuten. Orduan Aritz konturatu zen eta esan zien ‘¡qué miras tú! ¡qué es mia!’ eta igual ziren hamaiak pertsona edo horrela eta Aritz bakarrik zegoen. Bain a Aritz no le importa que le revienten. No se pegaron. Amaiak barre egiten zuen, eta nik Aritzi esan nion que se parara. A Amaia parece que le gusta que diga eso.’ (Miren, 14 urte, ikastola)

Hortaz, esklusibotasunak lotura sendoak sortzeaz gain, emozio mingarriak eta indarkeria bultzatu ditzake.

2.4.2 Izen-tankerak: BF, MAPS eta beste batzuk

Esan dugun bezala, lagun minak edo lagun onenak laguntasunaren maila gorena lirateke. “Benetako” lagun onenak, “benetako” maitasunean bezala, betirako direla sinesten da. Berezitasun hori sortzen eta indartzen da nerabeen artean erabiltzen den izendegi oso batekin: Best Friend (BF), Mi Mejor Amiga/o (MMA), Mejores Amigas/os Para Siempre (MAPS), Mejor Amiga/o (MA), bezalako izenak erabili dituzte ikerketako nerabeek. Izen eta sigla horiekin batera, familia biologikoari dagozkion izenak aplikatzen dira laguntasun harremanen baitan, eta horrela lagun arteko lotura sendotu eta irmotu egiten da, amodioaren sailkapenean maitasun mota garrantzitsuena eta tinkoena baita familia. Era horretara, ohikoa da lagun minei *ahizpa, lehengusina* edo antzerakoak erabiltzea, beraien arteko maitasun harremanak indartze eta azpimarratze aldera:

“Nire laguna da MMA, baina beti ay primo, ay mi tata, ay mi hermana, horrelako hitzak erabiltzen ditugu.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

“Bera da nire tata, Maialen eta ni gara tatak. Mote bat de hermanas. Pasa den urtean ginen las mejores amigas que había eta beti esaten

genuen que ojalá fuéramos hermanas, eta horrela, eta esan genuen ea zergatik ez genuen jartzen mote bat eta jarri genuen. Eta hortik gara ‘tatak’. Gero berak badu bere ‘tetea’ da bere lagun onena. Nik daukat tatoa, ze tetea da katalanez. Nire tatoa da nire lagun onena, nirea da La Campako bat eta baina ja ez da. Hitz egin genuen eta berak dauka beste mejor amiga. Nik ondo hartu dut, nik ez dut ezer esango baino. Baina fastidiatu dit ze ni nintzen bere lagun onena eta orain da beste bat, nik onartu behar dut. Besteak kontatu dizkio gauza guztiak eta lagundu dio eta horrela, nik ere lagundu nion baina ez dakit zergatik aldatu dituen.” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

Neskek soilik erabili ohi dute lagun onenaren inguruan sortutako izendegia. Izan ere, erabilpen hori “nesken gauzatzat” hartzen da, eta, horrela, adinean aurrera joan ahala emakumeei atxikitzen zaienemozioen espezializazioari bidea irekiko dio, maitasuna eta emozioak adin horretan “nesken gauza” bezala hartuz eta maitasunaren trebakuntzarako pribilegiozko kokalekua emanez.

2.4.3 Gorputz-inskripzioak: idazkiak eta zauriak

Nerabeen bizipenen abiadura azkarra afektibotasuna aztertzeko traba metodologikoa bilakatu zen arren, oztopo horri kontrajarriz, nerabeen gorputzetako amodio-irudikapenak (eskumuturrekoak, markak, esate baterako) zantzuak izan dira maitasun-bizipenetara iristeko. Izan ere, harreman esklusiboak “publikoak” egiten dira eta ingurukoei jakinarazten zaie, besteak beste, gorputzaren bitartez. Gorputza bitartekari bilakatzen da adierazpen horiek agerian jartzeko, marka ezberdinen bidez, zenbait nesken kasuan ikusi izan denez. Eskuetan, nagusiki, baina gorputzaren beste guneetan ere: hanketan, besoetan, zilbor aldean, zapatetan... bolalumaz idatzi ohi dituzte lagun onenaren edo bikotekidearen inizialak. Ingurukoei harreman horien berri emateko modua da. Behinola, 14 urteko neska baten eskuetan M.O. letrak idatzita zituela ohartu nintzen. Letra horiek bere mutil lagunaren lehen hizkiak ziren. Beste lagun batek eskuko atzamar bakoitzean letra bana zuen: T, E, A, M eta O.

Gorputz marka horiek epe labur baterako egindako irudiak dira, bolalumaz edo koloredun errotuladorez egindakoak gehienetan. Alta, zauriz ere egin ditzakete. Sandrak, 14 urteko neskak, bere eskua erakutsi zidan harro-harro: DAV. Bainaz zen tintaz egindakoa, zauriz baizik. Konpasarekin egin zuela kontatu zidan. I eta D falta zitzazkion izena amaitzeko, baina min handia zuenez itxarongo zuen. Interneten bidez ezagutu zuen mutila da David. Telefonoan mutilaren argazkia erakutsi zidan. Asteburuan “liatzeko” geratu ziren. Bere kontakizunean aurrera joan ahala, konturatzen nintzen ez zela inoiz pertsonalki Davidekin egon, sare sozialatik hasi baitzuten harremana. Izenaren inskripzioa amaitzean argazkia bidaliko dio.

Adriana 14 urteko neskak eskuan zuen zauria erakutsi zidan, amodiozko jolas baten ondorioa. Alfabetoko hizkiak esaten zituzten bitartean beste nerabe bat, tresna zorrotz batez, eskua urratuz zihohan, mina gehiago ezin jasan arte. Horrela, minaren jasangarritasunak alfabetoko hizki bat markatzen du, jokoa amaitzean esandako azken hizkia. Horixe da “maiteko duenaren” izenaren lehenengo letra.

Sandraren eta Adrianaren gorputz marka horiek autolesiotzat har daitezke, autolesioen kontzepzio patologikotik harago. Lina Casado Marin antropologoak, bere *Los discursos del cuerpo y la experiencia del padecimiento. Acciones autolesivas corporales en jóvenes* (2011) ikerlanean, gorputz-autolesioak hartu ditu ikergai hainbat gunetan (espetxeetan, gazteen azpikulturetan, estetika komertzioetan...). Gorputz autolesiorako ekintza horiek, gazteen artean, emakumezkoen gorputzetan gertatzen dira sarriago, 12-14 urte bitartekoan artean hasi eta 20-30 urte bitartera iraunez (Austin y Kortum, 2004 in Casado, 2011:78). Autolesioak batzuetan talde identitatea indartzeko baliagarritzat jotzen ditu egile horrek (besteak beste, tatuajeek talde baten kidetza adieraz dezakete). Bainaz, era berean, marka horiek individualismoaren ikurrak dira, norbanakoak gorputz “bakarra” eraikitzeko ahalegina (ibidem). Dena den, tatuajeak eta piercing-ak jendartean, orokorrean, onartutako gorputz inskripzioak lirateke. Casadoren lanean, “onartzen ez diren” autolesioetan oinarritzen da gehienbat, norbanakoak gorputzean nahita egindako zaurietan, hain zuzen ere.

Heriotza asmorik gabeko auto-lesioak gorputzean inskribatzen dira, eta, horien bitartez, adierazten dira gorputz-esperientziak, bizipenak eta sentimenduak (Casado, 2011:28). Ikuspegia patologikoa saihesten, Casadok autolesioak hartzen ditu sufrimendua adierazteko bidetzat, bere hitzetan, “*encarnación simbólica de su tormento*”(2011:75).

Izan ere, bere ikerketan, jarduera horien bitartez, neskek sufrimenduzko esperientziak ikusaraztea dute helburu, hitzez esateko gai ez direna gorputzaren bitartez adieraziz. Ildo beretik, gure ikerketako Sandraren eta Adrianaren praktika horiek ez nituzke sintoma patologikotzat hartuko, adierazpen emozionalerako bidetzat baizik. Baino, kasu horretan, sufrimendua beharrean, maitasunaren marka sinbolikoak dira.

2.4.4 Objektu afektiboak: eskumuturrekoak eta beste opari batzuk

Gorputz-inskripzioez gain, harreman esklusiboen loturak oparitutako eskumuturrekoen bidez adieraztea oso ohikoa da nerabeen artean, estetika hutsetik harago doana. Mendebaldeko jendartean, opariak maitasuna adierazteko modu bat izan dira. Maitasun erromantikoko harremanen berezitasuna objektuen sakralizazioaren bidez lortzen da sarritan. Illouzen (2010) arabera, amodiaoren une zehatzekin lotzen diren objektu arruntei esanahi berezia ematen zaie. Gauza horien bitartez, esklusibotasunari muga jartzen zaio, muga instrumentalala hain zuzen ere (2010:164). Illouzen teoria hori aplika dokieke harreman esklusiboei, non oparitutako objektu horiek sakralizatu ere egiten diren, opariek duten berezitasun sinbolikoa erabiliz. Izan ere, opari horiek harreman eta une berezi horietara eramateko gaitasuna izango dute, oroimenaren bitartez.

Halaber, harreman esklusiboak opariekin sakralizatzeak kontsumoarekin lotura zuzena du: bikote harreman afektibo (hetero)sexualen irudiaren bidez indartua izan da kapitalismo garatuan gertaturiko aisialdiaren eta kontsumoaren goraipamena (*ibidem*). Ikus ditzagun bikote afektibo sexualen eta lagun minen arteko oparien inguruko testigantza hauek:

“Niri urtebetetzeagatik oparitu zidan pultsera bat bere izena eta datarekin. Eta pelutxe txiki bat eta bihotz bat barrutik daukala bi esku eta jartzen du “te quiero” eta lakasitoak. Nik berari kuxin urdin bat, bere kolore gustukoena delako, eta bere argazkia bihotz forman.”
(Esti, 14 urte, institutu publikoa)

“Hace tiempo nos compramos un collar con medio corazón y medio corazón que ponía Best Friend. Se nos rompió y hace poco ha sido su

cumpleaños y le he regalado otro. Pero solo eso. Luego ella también es mi bandida, no sé por qué le llamo así. Y yo para ella soy caramelo porque se supone que tengo los ojos de color caramelo. Luego la gente tiene BFF que es Best Friend pero en chico. Yo antes tenía a un BFF pero ya no me hablo con él así que paso, a uno de otro cole. (...) En un trozo del corazón pone Best y en el otro pone Friend. Entonces tiene un imán y se juntan. Si es un poco de novios pero da igual, pone Best Friend (...) Porque con ellas me llevo más, desde muy pequeñas estamos, entonces siempre ha sido tengo un secreto, ‘ja sí pues cuéntamelo!’ Y nos lo contábamos todo (...) Nosotras cada tres de febrero que conocí a mi mejor amiga hace once años y solemos ir a casa de una a dormir.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Amodioaren inguruko erritualizazioak objektu horien inguruau gertatzen dira, harreman afektibo sexualetan zein lagun onenen artean. Hain justu, hori lotuta dago gaztaroa eta nerabezaroa kontsumoaren munduan sartzeko joerarekin: gazteria gero eta kontsumitzaleagoa da. Kontsumo erromantikoan ere aparteko tokia eraiki zaie, batez ere, lagun onenen kasuan. Izan ere, arestian esan bezala, haurrei eta nerabeei sexualitatea eta bikote afektibo sexualak ukatzearekin, lagun onenen arteko harremanei zuzendutako kontsumo erromantikoa garatu da.

Pultseren presentziaoz ohartu nintzenean, harrigarria egin zitzaidan hainbat neskak zuten kopuru handia. Eskumuturreko horietako batzuk ikur gabekoak dira eta beste batzuek izendapenak zituzten (*BF, MMA...*). Behin, 12 urteko neska talde batean nengoela, Izaskun eta bere lagunek koloretako pultsera bi zituzten, zilar koloreko zintzilikarioekin, “BF” siglekin. Nerabe neskei zuzendutako aldizkari batean eskuratu zituzten, bi koloretakoak oparitzen zituzten batera, bat eroslearentzat eta bestea lagun onenarentzat. Bitxi horiek, beraz, ezkongaien eratzunek duten simbolismo berbera dute, bi pertsonen arteko aliantza adieraziz.

Izan ere, nerabeen kasuan, eta beste batzuen artean, nerabeei zuzendutako aldizkarietatik bideratzen da maitasun ikasketa, ikerketako seigarren kapituluan aztertuko denez. Aldizkari horietako batean, jarraian dauden bi aletan argitaratutako eta lagun onenei eta bikote harreman afektibo sexualei zuzendutako dekalogoak horren adibide dira. Harreman esklusibo horiek ezberdintzeko ikasketa pautak bideratzen

dituzte, heteronormativitateari jarraiki. Lagun onenarekin harremana izateko dekalogoak ondorengoa adierazten du:

“Decálogo de la amistad:

- 1. Trataras a tu mejor amiga como a ti misma.*
- 2. No colgarás jamás en tu Facebook una foto suya en la que salga fatal.*
- 3. Aceptarás y comprenderás a tu friend tal y como es.*
- 4. Sus secretos siempre estarán a salvo contigo.*
- 5. Prometes no envidiar su tipo ni su buena suerte con los chicos.*
- 6. Compartirás con ella tus cosas, incluido ese outfit que tanto le gusta.*
- 7. Jamás de los jamases te liarás con ninguno de sus ex y menos con su chico.*
- 8. Nunca caeréis en el aburrimiento. ¡Lo pasareis genial juntas!*
- 9. En momentos delicados le darás apoyo incondicional ¡siempre!*
- 10. Una verdadera amiga es capaz de perdonar los errores de la otra.” (Bravo aldizkaria, 424. alea)*

Dekalogoaren funtzioa honakoa da: lagun onenen artean irakurri eta eskumuturrekoak jarri, adierazpen horiekin bat egitea sinbolizatzeko. Horrez gain, hitz femeninoen erabilerak argi uzten du neskei zuzendutako aldizkariak direla, eta lagun onenen figura nesken arteko harremana dela ondorioztatu daiteke: zaintzarako, sekretuen elkar trukerako, bikote harreman afektibo-sexualen inguruko debekuak, maitasun baldintzagabea eta betierekotasun diskurtsoak bideratzen dituzte.

Lagun onenarekiko harremana era horretara egituratzen den bitartean, bikote afektibo sexualari dagokion aldizkariko beste dekalogoak horrela dio:

“Diez cosas que debes evitar con ellos

- 1. ¡Por nada del mundo se te ocurra hablarle de un ex! Puede sentir que le estás comparando.*

2. Una cosa es ser espontánea y otra una brutita: ¡evita decir palabrotas o burradas!
3. ¿Quién no ha soñado con llevar a su chico de “shopping”? ¡Modérate! Para ellos no es divertido.
4. Delante de sus colegas no hace falta que cuentes lo megarromántico que es contigo, ¡Ok?
5. Presentarte en una de vuestras primeras citas con tus primas o con tu tropa de amigas. ¡No, no y no!
6. Deja de contarle la vida de tu mejor amiga al detalle: que si le mola menganito, que si ha suspendido, etc. ¡Le aburrirás!
7. Bajo ningún concepto hables mal de su equipo de fútbol favorito. Recuerda, ¡hay cosas que son sagradas!
8. Que si Justin Biebes es guay, que si Mario Casas está buenísimo... ¡Reserva el tema cañones para tus amigas!
9. Tu archienemiga del insti es lo peor, sí, pero a él no le interesa. ¡No seas criticona o saldrá pintando!
10. La hamburgues engorda, si me siento en césped me voy a manchar... ¡Come on, bravera! No seas tiquismiquis en las citas.”(Bravo aldizkaria, 425. alea)

Dekalogoan, neska irakurleek mutilekin bikote harremanetan nola egon eta izan behar duten zehazten da, betiere, heterosexualitatea oinarrian izanik. Xamurtasun adierazpenak areagotzeko, autokontrola indartzeko, isiltasunak irmotzeko... debekuen zerrenda luze horrek mutilaren ongizatea bermatzea du helburu, bikote harreman afektibo sexuala hautsi ez dadin. Horrela, maitasun sailkapenean trebatu egiten dira aldizkarien bitartez.

Era horretara, hainbat objekturen bitartez maitasuna sinbolizatzen da, eta horren ikasketarako nerabeen aldizkariek eragin nabarmena dute, beste batzuen artean. Horren ildotik, maitasun harremanak haustean irudiak eta sinboloak ere desagertu behar dute. Mireia 12 urteko neskak, esate baterako, eztabaidea handia izan zuen ikasturte hasieran Paularekin erositako eskumuturrengatik, *Best friend* idatzirik zuena. Zenbait gorabehera zirela-eta, harremana hautsi egin zen. Mireiak horrela kontatu zidan:

“Son unas cabronas. Larunbatean beraiekin joateko esan zidaten Paulak eta besteek. Paulak aspaldian elkarrekin ez ginela egoten esan zidan. Konbetzitu ninduten eta nik baietz esan nien pentsatuz gauzak hobeto zeudela. Litroak erostera joan ginen. Beste lagun batekin hartuko nituen litroak, nik likorea nahi nuen baina bestea vodka hartu genuela esan zidan, gehiago mozkortzen zuelako. Bat-batean Esti negarrez hasi zen, asko kezkatu nintzen. Zerbait arraroa somatzen nuen... Estiri galdetu nion ea zergatik egiten zuen negar, beragatik ala nigatik. Hitz egitera joan ginen. Estik aitortu zidan nigatik ari zela negarrez. Paulak eta Ainhoak mozkortu nahi nindutela, kurtso hasieran erosi genuen Best Friend-eko pultsera kentzeko. (...) Gainera pultsera hori ezkutuan erosи genuen, bestea ez enteratzeko. Orain oso minduta nago. Ez diet hitz egingo.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

Maitasunerako ez ezik, hainbat gatazken iturri izan daitezke amodiozko objektu sinboliko horiek.

2.5 Laburbilduz: maitasunaren gorputz heterosexuala

Maitasunaren gorpuztasun heterosexualaren inguruari aritzea izan da kapitulu honen helburua. Horretarako, pentsamendu heterosexualak maitasun diskursoetan hartzen duen forma aztertu nahi izan da. Nerabezaroan heteronormatibitatea nabarmenzeko asmoz, sexualitatea modu zehatz batean ulertzeko modua ezbaian jarri da, kontzeptu zabalago batera abiatuz. Horrez gain, nerabeek egindako maitasunaren sailkapenaren artean sortutako kontraesanak eta zalantzak izan dira pentsamendu heterosexualaren erregulatzeko eraginaren erakusle.

Hausnarketa horietatik, *harreman esklusiboen* kontzeptua eraiki da, lagun onenei eta bikote harreman afektibo sexualak parekatzeko ahaleginez. Izan ere, logika heteronormatiboaren ondorioz banatzen dira erlazio horiek. Halaber, genero identitatea sostengatzen dute neskei eta mutilei jarrera eta jokaera ezberdinduak ezarri. Nesken arteko harreman esklusiboak lagun onenen arteko erlaziotzat hartzen dira, neska eta

mutilen artekoak bikote harreman afektibo sexualak izatera bultzatzen diren bitartean. Horrela, heterosexualitatea nagusitzen da. Ikerketan ikusitakoaren arabera, nerabeen narrazioetan homosexualitatea hirugarren pertsonekin loturik agertzen da, ezagun bat buruz edo ezagun baten ezagunari buruz aritzen dira horren argibideak emateko, inoiz ez lehenengo pertsonan, beraien bzipenei buruz. Gay izatea modu anekdotikoan agertzen da, lesbianismoari buruzko aipamenak urriak diren bitartean. Pentsamendu heterosexual horrek lesbianismoaren inguruko irakurketa egitean parametro heteronormatiboa egitera bideratzen du, lesbianismoa pornografiaren irudikapen bezala agertuz.

Horrekin guztiarekin, maitasunaren diskurtsoek pentsamendu heterosexualaren erregimenean laguntzen dutela esan genezake. Maitasunaren bidez, esklusibotasuna gorpuzten da zenbait emozio, izen-tankera, marka sinbolikoa, jarrera eta harremanen bidez, baina baita harremanen pertzepzio heterosexual bat ere. Era horretara, konplexutasunean, nerabeek gorputz-heterosexuala haragiztatzen dute.

3. MAITEMINAREN ETA DESAMODIOAREN IRUDIKAPENEN GAKOAK

Nerabeen maitemin eta desamodio narrazio eta bizipenak aztertuko dira kapitulu honetan. Narrazio horietara heltzeko bi ardatz nagusi planteatu dira, bata gorputzaren eragina, eta bestea adinarena. Lehenengo pasartean, maiteminaren gorpuztasunari erreparatuko zaio, baita horrek ahalbidetzen dituen genero aldaerei eta emozio-lanei ere. Bigarren pasartean, maiteminaren narrazioak aztertuko dira, zehazki, sentipen horren inguruau eraikitako “egiazkotasuna” eta diskurso horietan adinak duen eragina. Era horretara, gaztetxoen maitemintze zein desamodioaren ikuspegieta, eiteetara eta bizipenetara iristea da helburua.

3.1 Maiteminaren eta desamodioaren zaurgarritasuna, somatizazioa eta lanak

Maitemina da, maitasunaren kontzeptualizazioari dagokionez, ikerlan honetan agertu den amodioaren aspekturik irrazionalena. Izan ere, nerabeen narrazioetan, maiteminaren irrazionaltasuna azpimarratua izan da, eta prozesu naturaltzat hartu dute, arrazionaltasun oro ukatu duten bitartean. Horrela, naturaltasuna eta bat-batekotasuna izan dira diskurso horien ezaugarri nagusiak:

“Por ejemplo yo pienso que el amor, si no eres correspondido, no pasa nada, es algo muy bonito que te pase. Es algo que es natural, no pasa nada, si te gusta alguien. Es natural... es como decir ‘a ver yo tengo dos ojos, dos orificios nasales y una boca, y me gustas además’. No, no sé, por qué la gente se escandaliza un poquito, o igual son muy recatados o lo que sea nunca lo dicen o no les gusta alguien. Yo creo que es bonito y que no debería de ser tan especialito.” (Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Maitemintzeko ez dakit esfortzuren bat egin behar den, nik uste naturalki maitemintzen garela. Cien por cien natural.” (Kerman, 13 urte, ikastola)

“Yo creo que cuando te enamoras tiene que ser de corazón. Yo esfuerzo no, que se expresen mis sentimientos solitos. No te puede gustar alguien por la fuerza. En mi clase ha pasado que salió un chico con una chica también, y no le gustaba pero decía que tenía que salir con alguien porque hacía mucho tiempo que no se liaba, es el típico chico que dice eso. Muchos chicos dicen eso, que necesitas liarte y salir con una chica que tienen asegurada que les gusta. Eran Fer y María, las amigas de María le habían dicho a Fer que le gustaba entonces le pidió salir, porque tenía ya todo asegurado. Luego me contó que le empezó a caer bien, que era muy maja y que le gustaba. Pero como se dio cuenta de que no podía ser para siempre pues cortó con ella. Se dio cuenta de que empezó a salir con ella por eso, y se dio cuenta de que no era amor de verdad. Yo creo que no se tiene que hacer esfuerzo, que tiene que salirte.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Maiteminaren ezaugarrietako bat irrazionaltasuna da. Oro har, teorikoki prozesu irrazionaltzat hartu izan da, baita ihesbidetzat ere, arrazionaltasunaren mende dagoen jendartean; hau da, indibidualismoari eta arrazionaltasunari ihes egiteko modua. Illouzen (2012) aburuz, badira zenbait autore, Weber barne, arrazionaltasuna emozioen aukakotasuntzat jotzen dutenak. Illouzek, aldiz, beste proposamen bat egiten du dikotomia horren aurrean: elkarrekin jarduten duten aliatutzat hartzean arrazionaltasuna eta bizitza emozionala:

“La racionalidad es, en efecto, una fuerza cultural institucionalizada que ha llegado para reestructurar la vida emocional desde adentro, es decir que ha cambiado los esquemas o ‘guiones’ culturales a través de los cuales se comprenden y negocian las emociones. Mientras que el amor romántico conserva una posición emocional y cultural única y consolidada en nuestros deseos y fantasías, las herramientas y los esquemas culturales que están a nuestra disposición para darle forma entran cada vez más en conflicto con la esfera erótica, e incluso la están socavando. Así, existen al menos dos estructuras culturales que operan en la emoción amorosa: por un lado, una estructura que se basa en la potente fantasía de la fusión emocional y la entrega absoluta a los impulsos eróticos; por el otro, una estructura que se basa en los modelos racionales de autorregulación emocional y

optimización de las elecciones. Estos dos últimos modelos han modificado desde lo más profundo la estructura del deseo romántico al quebrantar los recursos culturales que, históricamente, funcionaban como vía para la experiencia de la pasión y el erotismo.” (Illouz, 2012:209)

Illouzek arrazionaltasunaren eta irrazionaltasunaren arteko bidea proposatzen du. Izañ ere, dikotomiak errealityea sinplifikatu besterik ez du egiten, baina, era berean, gatazkatsu ere bilakatzen du. Dikotomiaren bitartez, zenbaitetan, kontzeptu edo mutur biren arteko bateraezintasuna ezartzen da, errealityaren konplexutasuna gatazkan jartzearekin bat.

3.1.1 Maiteminaren eta desamodioaren zaurgarritasun emozionala

Arestian azaldu den bezala, emakumezkotasunari atxikitzen zaion emozioen espezializazioak bultzatzen ditu emakume eta gizonen arteko zenbait botere-desabantaila egoera (ikus 1. kapitulua). Aurretiaz gai hori maitasunarekin uztartu badugu ere, hemen maiteminaren eta desamodioaren irudikapenetan, zehazki, zer gertatzen den aztertu da. Izañ ere, emakumezkotasuna ere naturaren eta parametro deterministen menpe kokatzen baitu, bizipen horiei egokitzen zaien berezko irrazionaltasunak, hala nola, emakumezkotasuna faktore biologiko eta naturalen mende dagoela onartzeak. Errealitatea sinplifikatu eta gatazkatsu bilakatzen dute oinarri dikotomikoek –irrazionaltasuna arrazionaltasunaren aurrean, edota feminitatea maskulinitatearen aurrean–. Natura eta kulturaren amaigabeko dikotomiari jarraiki, emakume maitemindua naturaren menpe dagoen subjektu zaurgarri bezala konfiguratzeko, zapalketa ahalbidetzen delarik. Hala eta guztiz ere, maiteminari eta desamodioari loturik, gizonezkoek ere irrazionaltasunezko jarrera emozionalak dituzte, baina beste mota batekoak, eta horiek nabarmendu nahi ditut.

Batetik, sinesmen orokortua da emakumeak modu errazago eta sakonagoan maitemintzen direla, baita ikerketako nerabeen artean ere. Leire 12 urteko nerabeak sentimenduekin lotu du nesken izaera:

“Nik uste neskak askoz gehiago maitemintzen garela mutilak baino. Badaude mutil asko oso kariñosoak eta, baina nik uste dut neskak garela más sentimiento, te quiero mucho...”(Leire, 12 urte, ikastola)

Jadanik azaldu den “emozioen espezializazioaz” gain, emakume izaerarekin lotzen den “derrigorrezko” sentiberatasuna eta emozionaltasun neurrigabeak zaurgarri egiten ditu emakumeak, zenbait autore feministen narrazioetan azaldu izan denez. Emakumezkoen izaera maitasunerako zein maiteminerako subjektu bezala eraikitzen da. Era horretara, esan daiteke, maila batean, emakumezkotasuna hiper-irrationalizatu egiten dela, batez ere, Mendebaldeko maiteminaren diskurtso hegemonikoaren ikuspegiarekin loturik.

Hartara, maiteminak emakumeak jarrera irrazionalago baterantz eramatzen dituelako sinesmena zabaldurik dago, baita ikerketako nesken artean ere. Izan ere, sentipen horren aurrean, neska nerabeek euren burua subjektu irrazionalagotzat jotzen dute eta itsutze arriskua aurreikusten dute, neska nerabeen zaurgarritasuna handitu egiten delarik une horietan. Mireia 12 urteko neskatalak horrela dio bere inguruari erreparatuta:

“Neskak itsu bihurtzen gara, ez dut esaten mutilak ezetz, baina neskak itsu geratzen gara eta mutilak maitemintzen dira baina ez direla neskak bezain itsu geratzen. Adibidez, neska bat mutil batekin badago, eta bere lagunek esaten badiote mutil hori ez dela ona, baina neska hori itsu geratzen da eta ez du berarekin moztu nahi. Mutilari esaten badiote nik uste dut mutilak uzten duela. Gainera ez dut esaten kasu horietan, ze normalean mutilek nahi dute neska bat interesantearena egiteko, nire adinarekin. Mutilek nahi dute neska laguna kaletik joateko esaten ‘tengo novia’, eta nik uste dut neskak ezetz. Neskak erlazioa serioagotzat hartzen dugu.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

Nesken eta emakumeen irrazionaltasun horrengatik, maitemintzean ilusio handiagoa dutela diote. Sofiak onartzen du garrantzia handiagoa ematen diotela neskek. Hala ere, baieztapen horiek kontraesanak sortzen dizkiete berdintasunaren diskurtsoagatik, berdintasuna dagoela esateko joera baitago:

“Yo creo que sí. Las chicas se pueden hacer más ilusiones que los chicos. Las chicas yo creo que se interesan más, o si realmente están enamoradas están más ilusionadas que los chicos. Si a un chico le gusta mucho una

chica, puede que sea los dos iguales. Aunque yo creo que las chicas se ilusionan más. Porque yo creo que sí. Porque conozco a los chicos, los chicos son más pasotas. Es que tengo tres chicos en casa, son más pasotas."(Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Halaber, gehiegizko emozionaltasun horren arriskuetako bat da norberaren nortasuna galtzea. Jada, Simone de Beauvoirek, *El segundo sexo* (2005) lanean, emakumeek maiteminduta egoterakoan beraien nortasunaren eta bizitzaren gidaritza galdu egiten dutela azaldu zuen:

"El objetivo supremo del amor humano y del amor místico es la identificación con el amado. La medida de los valores, la verdad del mundo están en la conciencia de él; por esta razón no es suficiente con servirle. La mujer trata de ver por sus ojos; lee los libros que lee él; prefiere los cuadros y la música que él prefiere, sólo se interesa por los paisajes que ve con él; adopta sus amistades, sus enemistades, sus opiniones; cuando se cuestiona, se esfuerza por escuchar la respuesta de él; quiere en sus pulmones el aire que respira él; los frutos, las flores que no recibe de sus manos no tienen olor ni sabor; incluso su espacio ontológico queda transformado: el centro del mundo ya no es el lugar en el que ella está, sino aquel en que se encuentra el amado; todos los caminos salen de su casa y conducen a ella. Utiliza sus palabras, imita sus gestos, asume sus manías y sus tics." (Beauvoir, 2005:821)

Ildo beretik, Lagardek (2005) maitemintzean sortuko litzatekeen zaurgarritasunerako arriskua nabamentzen du, emakumeek maitatutako subjektua kokatzen dutelako euren bizitzaren erdigunean:

"¿Qué parte del yo se pierde? Se pierde todo lo que nos aleja del ser amado. A veces se pierde el interés en el trabajo, que hasta el día anterior era muy grande. O se pierde el entusiasmo por una causa política o el deseo de ocuparte de tu casa. Lo único que quieres es salir corriendo a encontrarte con el ser amado. Todo lo que te aleja del otro pierde interés. En México, muchas mujeres se han vuelto aficionadas a los toros, al fútbol y hasta al boxeo, porque a su amor le gustan el boxeo, el fútbol y los toros.

Porque enamorarse es buscar la misma sintonía. Una sintonía que es erotizante y sensual y que llega a ser también intelectual y afectiva.”(Lagarde, 2005:434)

Nortasun galera horren adibide da, esate baterako, Esther 14 urteko neskaren kasua, edota, Ekainen ustez, Ana Oierren mundura gerturatzeko ahalegina:

“Haces unos años me gustaba un chico que le encantaban los coches y el boxeo, era muy de pegar. Y el chaval me dijo eso y yo le dije que había pegado a un chaval, inventaba conquistarle con 12 años o así. Él me decía igual has visto ese coche y yo ¿Qué coche? Y me decía no sé cuál y yo le decía que mola mazo. E igual no sabía ni cual era. Con mi novio de ahora también, igual con algún cantante que a él le gusta sí. Le digo que me gusta y luego me acuerdo de su nombre y cuando estoy en Internet lo busco y me empieza a gustar. Yo para ligar saco temas y si él me empieza a seguir el rollo, pues sigo así y empezamos a hablar luego tema lleva al otro y así. Pasan días y ya está.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Nos enamoramos de forma diferente las chicas y los chicos, los chicos no hace tanto esfuerzo por enamorarse, y tienen que ser las chicas las que luchan por ellos y así, por ejemplo, muchas veces antes de salir Ana y Oier. Ana tenía que hacer todo por enamorarse y enamorarle. Tenía que hacer lo de él para enamorarse de ella y lo de ella para enamorarse de él. Es como aquí cada uno tiene que hacer lo suyo, Ana hacía de todo. Si a Oier le gustaba el beisbol un día llevaba una camiseta de beisbol, así puesta. ¡Anda que no tenía recursos y se pone esa camiseta! Podía utilizar muchos recursos... por ejemplo le podía enseñar a estudiar. Es que encima quedó fatal porque la camiseta era de su padre, le quedaba enorme. Los chicos son más que se dejan enamorar pero les cuesta también. No te digo que no, pero les cuesta un poquito más.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

Era berean, maitemina fasetzat hartzea ez da oso ohikoa izaten. Lagarderen (2005) ustez, betiereko den sinesmena zabaldurik dago emakume askoren artean. Emakumeek fantasien bitartez gauzatzen dira, batez ere, maiteminaren irudikapenak. Izan ere, mitoa da betiereko maitemina, autorearen aburuz: hasiera, prozesua eta amaiera dituelako,

hots, denborazko eta amaieradun egoera da. Lagarderen ildo beretik, hainbat emakumek uste dute betiko maitemintzea ideal dela eta sentipen hori agortzean harremana krisian dagoela. Zenbait neskek ere irakurketa hori egiten dute, Carmen 12 urteko neskak kasu. Ikuspegi hori ez da bakarra. Enara 14 urteko nerabeak, aldiz, fasetzat jotzen du, sinesmen orokorrarekin alderatuz:

“El amor se acaba cuando muere. El amor se acaba cuando nunca ha existido, cuando uno de los dos se da cuenta de que nunca ha existido. Me ha quedado bonito, te lo apuntas si quieras. Cuando una persona se da cuenta de que nunca ha querido realmente a la otra. Si la ha querido ya no es lo mismo, si la persona ha madurado, ha crecido o la otra persona esperaba que la otra cambiase pero al final igual se puede dar cuenta de que no quiere eso para su vida, no lo quiere.” (Carmen, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Errealitatean existitu ahal da la llama del amor deitzen dena, nik uste dut hasiera berezia dela baina gero ohitzentz zarela eta punto. Ez da maitemina galtzen. Bainan hasieran igual zaude ‘ai zein ondo! lortu dut gustatzen zaidan mutila!’ Bainan gero ez zara aspertzen baina hasierakoa hori galdu egiten da.” (Enara, 14 urte, ikastola)

Oro har, neskak maitemindu egin direla onartzen dute, eta mutilen artean, behe klasekoak batez ere, ukatu egin dute. Esate baterako, behe klaseko mutilen eztabaidea taldean ari nintzela, maiteminaz hitz egiteari uko egiten zioten, beraiek ez zekitela zer zen esanez, eta gaiaz paso egiten zutela argudiatuta. Maitemintzea ez da gizonezkotasunaren berezko ezaugarritzat hartzen nerabe horien artean. Azertutako gainerako maila sozialtan ukapena ez da hain hertsia izan. Hala ere, bzipen emozional hori ukatzea genero-erregulazioren ondorioa da, bestek beste, inguruko nerabeek gauzatzen dutena. Horrela, ikusitakoaren arabera, mutil batek adieraziz gero maiteminduta dagoela, ingurukoak dira praktika normatiboetara gidatzen dutenak. Javier 12 urteko mutilak Tuentiko *egoera personala* aldatzera beharturik ikusi zuen bere burua, eta Gorkak, aldiz, barre egiteko eta zirikatzeko arrazoia dela dio:

“El Tuenti igual sí que sirve para expresar sentimientos, tus amigos igual sí que pueden poner algún sentimiento en su estado o en el tablón, pero yo

sigo sin verlo como un modo de expresar sentimientos una red social, no me parece bien pedir salir por red social, ni eso. En el ‘estado’ yo también he puesto ‘te quiero mucho’, pero porque no sabía qué poner. Ya sé que no es un sitio para expresar sentimientos, sino para comentar lo que has hecho. En el estado tenía: ‘El verano va a ser muy largo sin ti, estamos llegando a finales de junio y no te he dicho lo que siento por ti, que sepas que te quiero mucho’ algo así. Pero la borré, porque todo el mundo me decía que a ver quién era, ‘es no sé quien...’, empezaban a poner nombres en los comentarios, y no eran aún así, y me daba un poco de corte que todo el mundo viese eso. Al final lo borré, borré los comentarios y borré la entrada.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“En mi curso si alguien se enamora suele ser más... te ríes de él, de que está enamorado, solemos vacilar con eso. Ugarte estaba enamorado y le vacilábamos.” (Gorka, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horrez gain, gaztetxoen narrazioetan baieztatzen da mutilek modu kalkulatuagoan eta instrumentalean egiten dutela bikote afektibo sexualaren aukeraketa. Mutilek bikote harremanak euren arrakastarako bezala hartzen dituztela interpretatzen da inguruko nesken artean. Neskek eurak sentimenduengatik maitemintzen direla diote, mutilek, berriz, irudi fisikoari ematen diote garrantzia:

“Nik uste dut gure adinean bai, agian gero nagusiagoak egiten garenean ez. Orain bai. Mutil guztiak ez, baina gehiago fijatzen dira fisikoan. Neskari ez, gero igual gustatzen zaio. Nik uste dut gehiago fisikoa dela, eta gero pertsonalitatea. Gero ez bazaie pertsonalitatea gustatzen ba ezer.” (Enara, 14 urte, ikastola)

“Las chicas cuando ven a un chico guapo dicen ‘qué guapo es’, y ‘qué bueno está y todo eso’. Pero los chicos son más ‘ostia que buena está esa pava me voy a liar con ella’. Sí que se enamoran de forma diferente. Los chicos se fijan mucho más en el físico. Les da igual que seas una borde.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Yo creo que nos enamoramos de forma diferente, las chicas van más a lo físico, las chicas van más a los sentimientos. Los de mi clase son unos

salidos, siempre mi novia tiene un culo que me encanta. Por ejemplo el de mi clase está saliendo con una chica solo por el culo. No se lo dice, pero que la otra que no lo sepa también... ” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Era berean, gorputzak ere baldintzaturik daude maitemina adierazteko unean. Gorputza maitemintzeko bitartekaritzat hartzen da eta instrumentalizatu egiten da, batik bat, nesken kasuan. Adin horretan mutilak ezaugarri fisikoetan oinarritzen dira bikotekidea aurkitzeko eta neskak sentipenetan oinarritzen dira. Horregatik, nesken artea ikusgarriagoa da gauzatzen den gorputz-lana, eta beraiek onartzen dute gorputzari eskaintzen diotela denbora gehiago:

“Apaindu normalean janzten zara normal, baina maiteminduta zaudenean nik denbora gehiago ematen nuen komunean, ispiluari begira. Nire amak esaten zidan ‘¡Mireia, qué llevas una hora en el baño!', eta nik esaten nion ‘es que geratu naiz’ orduan amak esaten zidan ‘a, bale’. Nik hori nabaritu nuen, baina ez asko. Mutil hori nirekin maitemindu bada da ni nolakoa naizen, eta ez ni nola janzten naizen, edo makilatzen. Baina nik onartu behar dut maiteminduta nagoenean pixka bat gehiago.” (Mireia, 12 urte, ikastola)

“Maiteminduta zaudenean nik uste que te preparas más. Zuk igual horretan badakizula mutil hori egongo dela hor, igual ipintzen zara guapago.”
(Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

“Igual cuando estás enamorada, te intentas poner más guapa. Pero a mí no me dejan maquillarme. Yo creo que si a una persona le gustas, le gustas si estás maquillada o no, si estás bien vestida o no. Bueno, si estás ridícula no.” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Estar enamorado sí que influye en el cuerpo, sí que te arreglas más pero no exageradamente. Igual piensas me va a ver con esto, igual me pongo esto otro. Te influye más depende cómo estás tú, y cómo se supone que quieres que te vea la gente o lo que sea.” (Carmen, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Ederrago egotea da gorputz-lan horren helburua, maitagarria izateko azken finean. Izan ere, maitemintzeko genero ezberdintasunagatik, nerabeek baieztagatzen dute, adin horretan, erakarpena sexualitatearekin lotzeko joera dutela mutilek, gehiegizko sexualitateari atxikirik. Horrela, parametro horietan, feminitate-maskulinitate eta irrazional-arrazional dikotomien arteko parekidetasuna haustuko litzateke: multitasunari erakarpen sexuala modu irrazionalean atxikitzen baitzaio.

Bestetik, desamodioaren diskurso eta bizipenei dagokienez, maiteminaren genero aldaera horiek ere eragina dute. Desamodioari buruz, mutilek modu lasaiagoan hitz egiten dute, ez dago hain baldintzatuta maiteminarekin gertatzen den bezala. Maitane 13 urteko neskaren aburuz, mutilek maitemintzeko duten eszeptizismoagatik sufritzen dute gutxiago desamodioan. Maitasunaren kontzeptualizazioan gertatzen den bezala, nesken zaurgarritasun emozionalak gehiago sufriazten die desamodio prozesuetan ere. Desamodioa sufrimenduarekin parekatzen dute, hau da, maitemintzeak dakarren ongizatearen antagonikotzat hartzen dute:

“Yo creo que sí, que a los chicos les da más igual que a las chicas, no sufren tanto. Yo creo, no les he visto, como a mí las chicas me cuentan más. Que joe con éste, y los chicos les da más igual si cortan con alguien. Parece que puf, enseguida se buscan otra. También lo pasan muy mal. Por ejemplo, mi tío ahora le acaba de dejar la novia, después de estar dieciséis años. Están con la casa y así, y lo está pasando muy mal, muy mal. Ezberdintasuna da, los chicos a veces quieren a las chicas por cosas distintas, que las chicas a los chicos. Por ejemplo, los chicos solo quieren manosear. Las chicas quieren estar con ellos.” (Maitane, 12 urte, institutu publikoa)

“Se siente un vacío dentro que no tienes ganas de nada.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

Horren adibide da Mireia 12 urteko neskatalak izandako desamodio prozesu gogorra eta sufrimenduz beterikoa. Harremana uzterakoan, mutil hori Mireiaren kontra jarri zen. Iraindu egiten zuen eta inguruko lagunak ere bere kontra jartzea lortu zuen. Egun batetik bestera, Mireiari “puta” deitzen hasi ziren, horrela adierazi baitzidan bere mutil lagun

ohiak, eta gaineratu zuen: “*Todas las tías son unas putas*”. Mireiak horrela kontatzen du bizi izandako desamodio prozesua:

“Adibidez, mutilarekin moztu nuanean bera haserretu zen asko asko asko asko eta egon zen bi aste haciéndome la vida imposible, insultatzen zidan. Jendeak esan zidan berataz pasatzeko bera izorratuta zegoelako. Maitasuna amaitzen denean, gorrotoa dator. Beti ez baina normalean bai. Nik ezagutzen dut nire lagun bat bere gurasoak dibortziatu zirela. Bainan handik aurrera oso ondo eraman direla eta beraien alaben antolakuntza oso ondo prestatu dutela, handik aurrera oso ondo eraman direla. Bainan gero adibidez Alex eta nire kasuan gero gorrotoa egon zen, orduan hori da pertsonaren arabera.” (Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

Horrez gain, Mireiak gaizki musukatzen zuelako zurrumurrua zabaldu zuen mutilak, horrek izandako ondorioekin: bazterketa, eta harreman afektibo sexual berriak izateko oztopoak. Mireiaren lagun batek horrela kontatzen du:

“Algunas veces sientes odio por la otra persona y otras veces puedes llevarte bien, quedar como amigos. Pero la mayoría de las veces se queda mal. Celos, odio... Desprecio. Alguna amiga mía si, ha dicho en plan le ha dejado el novio por no sé quien, el novio ha dicho que le ha dejado porque besa mal. Entonces luego piensa “¡que gilipollas! ¿¡cómo he podido estar con él?!” (Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

Gorrotoaren sentipena bestelakoa litzateke Alexek, Mireiaren mutil lagun ohiak, ezezkoa onartu izan balu. Bere identitatea eta arrakasta pertsonala kolokan jarri da, maskulinitatea bera, azken batean. Kasu horretan, Alexen irainak eta jarrerak gehiegizko emozionalitatearen zantzuak dira, baina bortizkeriarekin lotuta daudenak. Horrelako beste kasu bat bizi izan zuen bere gelako beste lagun batek, harremana utzi eta gaizki esaka aritu baitzen mutila neskaren inguruan. Desamodioaren aurrean indarkeriara jotzea batez ere behe klasekoen bizi penetan agertu den zerbait izan da, behe klaseetan maskulinitateak daukan egituratze hertiaren ondorioz.

3.1.2 Maiteminaren kultur somatikoa: nerabeen maitemintze narrazioak eta bizipenak

Ezinezkoa da maitemina gorputzen errealitate materialetik aldentzea; esan bezala, sentipenak, oro har, eta maitemina, zehazki, kulturalki gorpuzten baitira. Nancy Scheper-Hughesi (1997) jarraiki, gorpuztasuna da pertsonek gorputza bizitzeko duten modua, tokian tokiko aldaerak dituena. Marcel Maussen (1979) gorputz-tekniken teorian oinarrituta, kulturalki barneratzen dira munduan eta gorputzean egoteko eta erabiltzeko azturak; horrela, erlazio politiko, kultural eta sozial dinamikoek bideratutako gorputz praxiaren formak dira hauek: jatea, atseden hartza, lo egitea, sexua praktikatza edota gaixotza (ibidem:184). Hartara, maitemina ere gorputz praxian gauzatzen da. Scheper-Hughesek adierazi du norberaren kokapen sozialaren arabera sentimenduen egitura eta gorputzaren pertzepzioa aldagarrria dela, klase sozialaren edo generoaren arabera, esate baterako. Horregatik, biomedikuntzaren eta medikuntzaren antropologia tradizionalaren zenbait baieztapenen aurrean kritiko azaltzen da autorea, izan ere, ezohikotzat jo dituzte kulturalki eraikitako hainbat somatizazio, baita horiek patologizatu ere (ibidem). Horri aurre eginez, Brasileko Alto do Cruzeiron egindako ikerketan oinarrituta, Scheper-Hughesek nabarmentzen du bertan baztertutako kanabera-langileen klase sozialak eta kulturak gorputza pribilegiatzen dutela, eta sentsazioetara eta sintoma fisikoetara adi egotera bultzatzen dituela. Hori izendatzeko “kultura somatikoa” kontzeptua erabiltzen du (ibidem), gorputzen erabilera politizatzeko asmoz.

Maitasunari dagokionez, sentipen horrek duen zentralitateagatik, Mendebaldeko kulturan arreta berezia eskaintzen zaie, beste batzuen artean, maiteminak eragiten dituen sintomei. Scheper-Hughesen (1997) “kultura somatikoa” modu irekian ulertuta, “maiteminaren kultura somatikoa” aztertuko dugu hemen nerabeen narrazioetan oinarriturik. Izan ere, maiteminak gorputzean eragiten dituen sentsazioak parametro somatikoetan azaltzen dira. Gaztetxoen diskurtsoetan, sentipen hori justifikatzeko gorputz-bizipen zehatzetara jotzen da: “*tximeletak sabelean*”, “*urduritasuna*”... Gorputzean gauzatzen diren aktibazio fisiologiko horiek maiteminaren sintomatologia dira. Horren adibide litzateke maitemina sarritan gaixotasun bezala ulertzear, esate baterako “gaixotasun sakontzat” hartuz (Yela, 2000:139). Hartara, gorputza erdigunean da eta hainbat sentsazio eta sintoma fisiko dira horren adierazle. Izan ere, errealtitate

fisiologikoaren inguruan eratutako diskurtso horien sintomatologia oso bat dago, eragin normatiboa izanik (nola sentitzen den eta sentitu behar den adieraziz). Horrela, maiteminaren errealtitate somatikoa hedaturik dago nerabean artean ere, esate baterako, sarritan errepikatzen da honakoa:

“Dice que lo sientes, por ejemplo Edurne que ha estado enamorada dice que lo sientes como si estás en una montaña rusa, dice que parece eso.”(Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Cuando te enamoras sientes cosquillas en la tripa” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Maitemina pentsamendu irrazionaltzat jotzean, patologia psikikoarekin parekatu izan da, eta, horregatik, psikologia literaturatik, maitemina deskribatzeko ahalegin ugariak egin dira. Horren adibide da Tennov-en *Love and Limerence: The experience of being in love* (1979) lana, non Estatu Batuetan jasotako bostehun maitemintze kasu aztertu zituen. Bere ekarpenen artean, “limerence” izendatutako neologismoa dago, zeina erakarpen erromantikoaren borondatez kanpoko egoera emozionala izendatzeko erabili zuen (Harris, 2005:99). Horrez gain, nortasunaren eraldaketa zehatzekin lotzen du: objektu “limerentea”-rekiko pentsamendu intrusiboa; desira piztutako pertsonarekin egoteko desira sakona; dependenziazko gogo-aldartea; aldi berean pertsona bat baino gehiagorekin modu limerentean jokatzeko gaitasun eza; imajinazioaren bitartez, pasio limerentearen asebetetze arina; errefusatua izateri beldurra eta lotsa handitza; aurkakotasunaren eta distantziaren aurrean sentimendua sakontzea; sentimendu sakonak gainerako arazoak albo batera uztea; ezaugarri onenak ikusgarri egitea eta txarrak ikusezin bihurtzea; eta erakarpen sexuala, besteak beste (Harris, 2005:101). Ildo beretik, Carlos Yelak egoera pasibo eta saihestu ezin bezala definitzen du maitemina, eta erakarpen fisikoa eta aktibazio fisiologikoa dakarrena (2000:110). Zenbait autoretan oinarrituz, Yelak ere maitemin kontzeptua horrela laburbildu du: sentimenduaren gorapena; intimitate eta batasun uneen desira; bat-bateko agerpena; maitemina elkarrekikoa izateko desira eta beldur handia arbuioari; pentsamendu intrusiboak; kontzentrazioaren galera; beste pertsonaren presentziak, erreala zein imajinatua izan, aktibazio fisiologiko sakona sortzea; zaurgarritasun psikologikoa; sentimendu anbibalenteak; atentzio selektiboa; bestearren idealizazioa; eta, azkenik, sentimendu horien kontrol boluntarioaren absentzia (2000:131). XX. mende amaierako maitasun

ikerketetatik abiatuta, Helen Harrisek maitemina⁵⁵ definitzen duten zazpi ezaugarri bateratu ditu: batasunerako desira, idealizazioa, esklusibotasuna, pentsamendu intrusiboak, dependentzia emozionala, norberaren lehentasunen berregituraketa, enpatia eta ardura sentimendu sakona beste pertsona horrekiko. Oro har, aipaturiko hiru egileen definizioetan antzekotasunak daude, denek gorputz barnetik eragindako sentimendu psikologiko eta fisiologiko kontrolagaitzat hartzen baitute maitemina.

Gure jendartean jakina da zein aktibazio fisiologiko eta psikologiko ekartzen dituen, eta horregatik, somatizazio horiek guztiak maiteminaren erakusle bilakatu dira. Aktibazio fisiologiko horiek maitemina sentitu izanaren neurgailu bilakatzen dira eta, zenbaitetan, somatizazioa metaforen bitartez ere irudikatzen da, jadanik aipatutakoekin: “*cosquillas en la tripa*”, “*mariposas en la tripa*”.... Nerabeei dagokienez, esan daiteke somatizaziorako prestutasuna dagoela: maitemindu ez diren arren, jakin badakite hori sentitu behar dela edo sentituko dutela:

“Yo creo que no pero no lo sé. He oído que cuando estás enamorado de alguien se nota. Yo no sé si lo he sentido, sí que me han caído mejor unos chicos que otros, pero no para enamorar.” (Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Ni ez naiz maiteminduta egon, gustatu bai, baina maiteminduta ez. Gustatu da que te atrae, eta maitemindu da que llevas mucho tiempo pensando en ella. Ez dakit zer gertatzen den, ez naiz inoiz egon maiteminduta. Dicen que mariposillas en el estómago.” (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

Maitemina egoera normaletik bereizten da, eta “patologizatu” ere egiten da, zenbaitetan zoramendarekin parekatzeraino. Itziar 12 urteko neskak ez du maiteminduta egon nahi, pertsonak zoratzen dituelako. Horretarako, gorputz adierazpenetara jotzen du erreallitatea deskribatzeko:

“Ez naiz inoiz egon maiteminduta baina jendea maitemintzen denean se vuelven locos. Se motivan. Hori esaten dute hori ‘tengo novio, tengo novio’ joaten dira esaten hortik. Maitemintzen daude en su mundo, en el mundo de

⁵⁵ Harrisek “maitasun erromantikoa” erabiltzen du, maitemina beharrean. Aurretiaz aipatutako autoreei jarraiki, Tennov kasu, maitemina erabiltzea egokiagotzat jotzen dut, maitasun erromantikoak eremu zabalagoa hartzen duelakoan, defendatu izan den bezala.

los enamorados. Están mirando para arriba, urduri daude eta zerbait galdetzean ez dakite erantzuten. Nik ikusi dut gelako mutil batekin, zegoen maiteminduta.” (Itziar, 12 urte, ikastola)

Nerabeen gorputzetan maitemina salbuespen egoeratzat hartzen da. Ezohiko egoera horrek nerabeen errerealitaterik hurbilena eta egunerokotasuna eraldatzera daramatza; gorpuztutako somatizazioagatik, norbanakoaren errerealitatea berrantolatzea baitakar. Esate baterako, gaztetxoek ikasketen emaitzak kalteturik ateratzeko arriskua dakusate, maiteminaren definizioetan aipatutako pentsamendu intrusiboen eraginez. Maialen 13 urteko neskak maitemina patologikoki bizi du, ikasketen emaitzetan izandako beherapena atxikitzen dio bzipen emozional horri:

“Ni maiteminduta egon naiz. Enparanoiatzen zara y he dejado cuatro en el segundo trimestre. Por el amor, me enparanoiaba, ez nuen ikasten, konektatzen nintzen berarekin hitz egiteko. Sesenta euros cada mes de factura del móvil, una llamada de teléfono a las cinco de la mañana. A las cinco de la mañana hablaba con él, con mi tete, no dormíamos hablábamos primero por el móvil, ‘¿se han dormido tus padres? –sí, -te llamo!’... Nire egunerokotasunean eragina izan zuen maiteminduta egoteak, fantasía gehiago nituen, denbora guztian pentsatzen nuen berarekin. Toki guztieta jartzen nuen bere izena, baina ya ez. Maitasun kanta gehiago entzuten nituen.”(Maialen, 13 urte, ikastola)

Aipatutako pentsamendu intrusibo horien seinale da egunerokoan fantasiak ugaritzea, hala nola, nerabeen kasuan sarritan gertatzen da maitemindutako subjektuaren izena etengabe idaztea. Obsesio itxura hartuta, norberaren praktiken eraldaketa dakar:

“Todo el rato estás pensando en lo mismo. Ganas de estar con el que quieras. Estar agarrados de la mano, ir a ver una peli y sentarse juntos. ¿Cuando le ves? Si le ves y sabes que él no te quiere estás como temblando. Y si sabes que te quiere pues también. Yo por ejemplo no sé y algunas veces siento algo raro, no sé qué me pasa.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Beti pentsatzen duzu pertsona berdinean eta ikusi nahi duzu. Hasten zara fantasia gehiago izaten, edozein gauzarekin entretenitzen zara. Pentsatzen

duzu berarekin egon zaren denbora gutxi hori, pentsatzen eta pentsatzen egoten zara.”(Enara, 14 urte, ikastola)

Erdigune bihurtzeaz gain, denbora guztian pertsona horrekin batera egotearen beharra adierazten dute zenbait nerabek: berarekin egon nahi, egon behar izan... Obsesio horrek modu errepikakorrean eragiten dio somatizazioari. Maitemindutako horrekin egondako tarteak etengabe errepruduzitzeak, esate baterako, fantasiak elikatu egiten ditu eta maitemina areagotu. Maitemina Nataliaren bizitzaren erdigune bilakatzearen ikurrak dira gertakizun horiek, eta Ekain 14 urteko mutilak maitemintzean maitasuna erdigune bilakatzen dela dio, horrek ekar diezaiokeen kalte guztiekin:

“Yo he estado enamorada, cuando sales con una persona sí sientes que tienes que estar todo el rato con él. Necesitas estar con él, te gusta, te sientes más cómoda... Depende, cuando estas saliendo con él, yo creo que no tienes fantasías, porque si estas saliendo con él pues dices que ya lo tengo logrado pero, cuando no sales con él, pues te lo piensas más, lo que puede pasar y así.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Si he estado enamorado... se siente como estar en las nubes, como estar... cuando estás de pareja es como al principio me siento como si estuviera en una nube como si todo no me importa ya. Si tú me dices feo, pues no me importa ya. Influye en tu día a día, por ejemplo en los estudios mucho, estás abobado y no te enteras de lo que dan en clase. Luego lo tienes que hacer en casa tú solo. Influye un poco porque estás todo el rato ay no se qué... y al final pues sí. Porque lo he visto y a mí me ha pasado alguna vez. Por ejemplo Paula, antes de todo eso, Naia sigue en la nubes, Ana cuando estaba con Oier y ya está.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

3.13 Maitemintze eta desamodio lanak

Maiteminari eta desamodioari dagokionez, zenbait emozio-lanen erreferentziak agertu dira nerabeen narrazioetan. Izan ere, zenbaitetan maitemintzeko esfortzua egin behar dela onartzen dute. Halaber, esfortzu horiek ezin dira irrazionaltasunaren ukapen

arrazialak hutsak bezala ulertu, gorputzaren eta emozioen eraldaketa prozesu konplexuak direlako. Estebanek “El desamor como conocimiento: narrativa, corporalidad y cambio” (2013) artikuluan, aipatutako eraldaketa hori deskribatzen du desamodioan oinarrituta:

“Así, modificar una conducta (por ejemplo, modular o cambiar la emoción que te produce una situación) no se produce a partir de una mera racionalización, sino que supone una reeducación corporal, en el sentido expresado previamente. Y a la inversa, una remodelación de la experiencia motriz o sensitiva puede generar interrogantes y planteamientos vitales igualmente nuevos.” (Esteban, 2013: 420)

Estebanen ustez, Mendebaldeko kulturan egindako emozioaren eta arrazoiaren arteko banaketagatik, norbanakoaren barnean bat-batean sortutako indar biologikotzat jotzen da maitemina (ibidem). Alta, Estebani jarraiki, maitatzen ikasi eta moldatu egiten da hezkuntza sentimentalaren bidez, zeina gorputzaren gaineko diziplina molde bat besterik ez den, adin tartaren arabera eraldatzen dena. Ildo horretatik, Holchschild-en “emozio-lana” kontzeptutik abiatuta, Loïc Wacquantek gorputz-lana terminoa landu du. Gorputz-lana da organismoaren manipulazio erregulatua, zeinaren helburua gorputz eskeman zenbait jarrera, mugimendu eta egoera subjektibo emozional-kognitibo txertatzea den (1995:73). Termino hori boxeolarien ikerketan sortu du, nahiz eta bizitzaren beste zenbait arlotarako erabili daitekeen. Halaber, Hochschild eta Wacquanten kontzeptuetan oinarrituta, Estebanek horrela definitzen ditu emozio eta gorputz-lana:

“Hablar de trabajo corpóreo-emocional significa hablar de una manipulación intensiva del organismo, que organiza en una determinada dirección la capacidad sensorial y cognitiva, y resalta unos órganos, unas habilidades, unas actividades, unos usos y presentaciones del cuerpo sobre otros, siempre en estrecha interacción con los diferentes entornos.”
(Esteban, 2013:419)

Horrela, gorputz/emozio lanek kontraesanak sortzen dituzte nerabeen diskurtsoetan. Nerabeen diskurtsoetan, maiteminaren irudikapen naturala eta irrazionala emozio-lanekin eta gorputz-lanekin korapilatzen da. Maiteminari dagozkion emozio-lanetan

gako bi agertu dira: prestutasuna eta idealizazioa. Batetik, emozio horri atxikitzen zaion patuzko izaera naturalaren aurrean, norberaren maitemintzeko prestutasuna nabarmentzen da. Javier 12 urteko nerabearen narrazioan, bizipen emozionala izatea ala ez izatea erabaki egin zuela kontatzen da:

“Ese amigo, yo alguna vez he estado algún tiempo sin que me guste nadie, pensaba que ojalá que encuentre a mi Julietita y tal, pero tampoco hice mucho esfuerzo por enamorarme, a veces pesaba: ¿me enamoro o no me enamoro? Dije bueno ya vendrá y ya ha venido. Me he enamorado sin darme cuenta, poco a poco. Poco a poco me di cuenta. La chica que me gusta ha estado conmigo desde los tres años y durante dos y medio no le he prestado atención. Poco a poco me di cuenta de que era algo especial y me enamoré. Sin más. No me he ido obsesionando, me di cuenta que esa chica significaba algo para mí. Y que me había enamorado. Yo creo que es posible hacer un esfuerzo por enamorarse. Hay gente que seguro que lo hace porque quiere enamorarse, se ha enamorado y sabe que es muy bonito y quiere enamorarse. Y hacen un esfuerzo por enamorarse.” (Javier, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Bestetik, maiteminaren beste faktore bat idealizazioa da, eta hori ere lan emozionalarekin lotuta dago. Maitemintzeko prozesuan, norberaren desira eta nahien arabera gidatzen da idealizazioa, eta imaginazioaren zein fantasien bidez indartzen. Horren adibide dira Ekainen bizipenak, Interneten ezagututako neska batekin maitemindu zenean. Horrela, adierazi zidan, bere inguruan hitz eginez neskaren izaera eraiki zuela. Idealizazioa nabarmendu nahi da hemen, gerora neska hori ez baitzen existitzen:

“Para enamorarse hay que hablar con ella, quedar con ella... pero hacer esfuerzo por enamorarte, no. Pero si puedes hacer un esfuerzo por enamorarte si te piden salir... yo no lo he vivido pero sí me lo han contado, que igual viene uno del pueblo. Por ejemplo cuando pasó lo de la chica esa me llegué a enamorar, pero luego... al final, no... yo no hice esfuerzo por enamorarme porque veía sus fotos y me gustaba físicamente. Me hice la idea de cómo era, también pensé que era un poco infantil porque llevaba un tamagochi colgado en varias fotos.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

Era horretara, maitemintzeak eskatzen duen denbora eta prozesuarekin batera, idealizatzeko prestutasuna dago. Sarritan, nerabeek bikote harreman afektibo sexualak hasten dituzte, baten batek proposatu dietelako elkarrekin “ateratzeko”. Aldez aurretik ezagututako pertsonak izan daitezke, edota unean bertan ezagututakoak. Hori dela-eta, kasu horietan, harremana eratu eta gero sortzen da maitemina.

“Nik eduki ditut lagunak esaten dutela baten oso itsusia dela, ez zaiola ondo jausten eta horrela eta gero atera dira elkarrekin. Lehen zeuden kuadrilla ezberdinetan eta ez ginan insultatzen ez ezer, baina ez ginan ondo eramatzen. Bainan egun batean egon ginan guztiak batera eta horiek biak hasi ziren hitz egiten eta hitz egiten eta ondo ezagutzen hasi ziren eta gustatzen hasi ziren, eta ateratzen hasi ziren. Batzuetan gertatu da, ez zaizu gustatzen baina gero [bikote izateko] eskatzen dizunean sentitzen duzu zeozer. Ez dakit nola gertatzen den, niri ez zait gertatu. Nire lagun bateri gertatu zitzaison, hasieran ez zitzaison gustatzen eta gero eskatu zion eta orduan hasi zitzaison gustatzen, baina ez dakit zergatik.” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

Bikote harreman afektibo sexualek nerabeen botere harremanetan duten eraginagatik gauzatzen dira emozio-lan horiek. Horrela, bikotekidea izatea lehenesten dute maitemintza baino.

Emozio-lanak desamodioan ere agerikoak dira. Iza ere, desamodioaren berezko izaera ez dago hain zabalduta eta emozio-lanen bidez eraikitzen dituzte desmaitemintzeko estrategiak: pertsona horrengan pentsatzeari uztea, gauza txarrak azpimarratzea... Ahazmena da estrategia horien helburua:

“Hay que hacer un esfuerzo por desenamorarse. Los recuerdos borrarlos, porque al final lo único vas a hacer es sufrir. No borrar los recuerdos, porque si se muere tu madre o lo que sea no hay que borrarla, pero dejarlo un poco... Lo he vivido ese esfuerzo, con mi abuela lo he vivido.” (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Por ejemplo, la de Ana y Oier poco, otras que más porque sigues pensando en él. Y entonces los momentos juntos, buenos y malos, que no, hay que hacer un esfuerzo por desenamorarse, un poquito. Como ya olvidarte de él, porque si ves que ya no va haber nada, pues... hay que

olvidarse de todo aquello, por ejemplo fotos que tengas de él o de ella juntos, no las rompas porque fueron un recuerdo bonito de que estuvieron saliendo, vale, pero es un recuerdo bonito. Yo nunca he roto ningún recuerdo, solo el de la foto que salen mis abuelos conmigo en la comunión.” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

“Hor bai egin behar dela esfuerzo bat desmaitemintzeko, bestean baino gehiago. Piensas en otra persona, o te vas de litros... luego te enborrachas y te lo pasas bien.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

Ahazteko ahalegina eta gauza txarrak gogoratzea, lagunekin egon edota bikotekide berri bat bilatzea dira estrategiak, bestek beste. Borja eta Karlos nerabeek azaldutako jarduerak desamodioaren emozio-lanerako urratsak dira:

“Para desenamorarte sí que hay que hacer algún esfuerzo, por ejemplo puede ser que tú creas que es una persona... hay gente que te cuenta que es otra persona, y que hace ciertas cosas y al final tienes que hacer el esfuerzo de desenamorarte. No sé cómo explicarlo, es la situación. El esfuerzo hay que hacerlo para olvidar y recordar lo malo de esa persona.” (Borja, 13 urte, institutu publikoa)

“Desmaitemintzeko esfuerzo bat egin behar da. Utzi neska horretaz pentsatzeari eta lagunekin egon edo beste bat bilatu. Baino bigarrena askoz zailagoa da, errazagoa da lagunekin egotea eta hauei zure penak kontatzea eta horrela. Zailagoa da beste batekin maitemintzea.” (Karlos, 12 urte, ikastola)

Pertsona hori ahazteko beharra dago eta idealizatutako proiektu maitagarria bertan behera utzi. Horrek idealizazioaren prozesua modu antagonikoan gauzatzea dakar: gauza txarretan pentsatu, ez pentsatu... Pentsamendu intrusibo hori ordezkatzen beharrizana nabarmentzen dute, hainbat praktikarekin:

“Yo me enamoré de un chico y para quitármelo de la cabeza, pues empezaba a pensar en todo lo malo que tenía. De las cosas que él hacía y así.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Hay que hacer un esfuerzo por desenamorarse, porque te das cuentas de que el chico es desfigurable, entonces básicamente decides eliminarlo de tu mente. Piensas en otras cosas, intentas llenar todo tu tiempo.” (Carmen, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Sí. Pues intentas sacar lo peor de él, lo peor peor. Pues del de Rekalde por ejemplo que lleva pendiente, que va con los chonis y las canis, está todo el rato con chicas. Claro porque si está con chicas, no está contigo. Que le gustan un montón, que se han liado veinte mil veces. Al final lo odias al chaval.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Intentas olvidarte de él para que no sigas pensando en él y no quererle.”
(Iratxe, 13 urte, ikastola)

“Nik uste desmaitemintzeko esfortzua egin behar dela. Lehenengo eta behin egin behar dira hobby ezberdinak pixkatxo bat ahazteko. Eta gero joan behar da beste mutil baten bila. Batzuetan badago...” (Leire, 12 urte, ikastola)

“Para desenamorarte, si sabes que no va a pasar nada, intentas desenamorarte, por ejemplo con el de un año menos, no me puede gustar siempre. No voy a poder salir con él nunca, así que me tengo que olvidar. No viéndole, siendo borde con él para que se enfade, nos dejamos de hablar o algo. Es lo que más funciona, porque si tú te llevas mal con una persona él se lleva mal contigo, tú le dejas de hablar y el te deja de hablar y punto.”
(Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Emozio-lan horiek, batzuetan, pelikuletatik hartutako pautak izan daitezke. Desamodioan zer egin behar den galdetzean, askok esaten dute Inglaterrara urte batzuetan joatea, *Tres metros sobre el cielo* nerabeei zuzendutako maitasun pelikulan gertatzen den bezala. Era berean, emozio-lan horri laguntzeko lagunek fase horretan daukaten garrantzia azpimarratzen da.

3.2 Nerabeen maitemina ezbaian: helduzentrismoaren eragina egiazko maiteminaren eraikuntzan

3.2.1 “Egiazko” maiteminaren eraikuntza

Maiteminean adinak duen eragina aztertu da nerabeen narrazioetan. Hortik, egiazko maiteminaren eraikuntza azpimarratu nahi da, eta, bide batez, emozioen eraketa helduzentrikoan sakondu. Izan ere, ohikoa da, neska gazteen artean batez ere, benetan maitemindu ote diren zalantza egitea. Esandakoa lotuta dago Mendebaldeko kulturaren maitemintzearen ideiarekin, gertaera bakar, kasik magiko eta natural bezala hartzen delako. Irakurketa esentzialista eta mistiko horiek balio handiegia ematen diote bizipen emozional horri. Senticendu hori goraipatzen da, gure jendartean gizarte antolaketaren eta pertsonaren erdigunean daudelako bikote harremanak. Horrela, maitasun erromantikoaren ideología zehatza mantentzen da eta erlazioen zein bizitzaren eraikuntza heteronormatiboa sostengatzen da (Esteban, 2011:55,71). Horregatik, nesken narrazioetan ziurgabetasunezko esperientzia gisa agertzen da, eta beti hertsiki lotuta berau goresten duten diskurtsoei:

“Me ha gustado gente, pero enamorada no creo que haya estado nunca de verdad. Yo creo que cuando estás enamorada te gusta alguien pero de una manera más fuerte, te gusta mucho más y te dura mucho más, mucho más en serio, que la típica tontería, es algo que a veces me da miedo.” (Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Segurtasun-gabezia areagotu egiten da esapideekin: esate baterako, “*gure harremanak oraindik ez dira benetakoak*”, “*helduak garenean, gure harremanak normalizatuko dira*” edo “*etorkizunean gehiago maitemintzea espero dut, ezberdina izango da*”. “Benetako” zirrara etorkizunean kokatzen dute. Era horretara, lehenagotik erakusten dute adin helduago baterako prestutasuna benetan maitemintzera iristeko.

Nerabeen diskurtsoetan, “benetan maitemindu” edo “egiazko maitasuna” bezalako terminoak azaltzen dira. Senticendu horren benetako izaera baieztagatzen dute gazteek; dena den, gizartearren gainerako sektoreetara orokortu daiteke sinesmen hori. Horrela,

maiteminaren gorespina indartzen dute aspektu fisiologikoak eta kognitiboak azpimarratzen dituzten baieztapenekin, “*sentir cosquillas en la tripa*” edo “*berarengan pentsatzen egoteagatik, ezin nuen ikasi*” bezalakoak.

Ikuspegi foucaultiar batetik, jakintza zehatza eta botere molde zehatzak sortzen dituen diskurtsoa da maiteminaren eta maitasunaren inguruan eraikitzen den egia hori. Izan ere, gizarte bakoitzak benetakotasunaren erregimen bat du. Eremu horretako diskurtsoek jakintza zehatza eratzen dute eta, era horretara, boterea sortzen. Foucaulten aburuz, egiak zein gezurrak botere-logika beraren ondorio dira, nahiz eta bietatik gezurra zigortzen den. Hartara, egiaren erregimen horren baitan maitemina modu zehatz batean irudikatzen da:

“La verdad es de este mundo; está producida aquí gracias a múltiples imposiciones. Tiene aquí efectos reglamentados de poder. Cada sociedad tiene su régimen de verdad, su «política general de la verdad»: es decir, los tipos de discursos que ella acoge y hace funcionar como verdaderos; los mecanismos y las instancias que permiten distinguir los enunciados verdaderos o falsos, la manera de sancionar unos y otros; las técnicas y los procedimientos que son valorizados para la obtención de la verdad; el estatuto de aquellos encargados de decir qué es lo que funciona como verdadero.” (Foucault, 1992:187)

Hortaz, esan daiteke aipatutako egiaren erregimenak sentimenduen eta maitasunaren esparru diskurtsiboa zeharkatzen duela. Alderdi hori nerabeen narrazioetan ikus daiteke modu ageriagoan; izan ere, euren esperientziak eta bizipenak urriagoak dira pertsona umoekin alderatuta. Horregatik, benetakotasunaren diskurtsoari heltzeko joera handiagoa dute, iritziak eta bizipenak justifikatzeko asmoz. Beraz, esan dezakegu helduen jakintzan oinarriturik tinkatu egiten dela amodioaren egiazko narrazioa.

Hartara, “egiaren erregimena” eta “emozioen erregimena” gurutzatzen dituzten gakoak daude nerabeen diskurtsoan. Jakina denez, Foucaultek adierazten du zientziak eta zenbait erakundek egiaren diskurtsoa eratzen dutela hainbat baieztapenen bitartez (Foucault, 1992:187). Zentzu horretan, Illouzek (2010) frogatzen du amodioaren narrazio terapeutikoak nola funtsatzen diren autoritatean eta diskurtso zientifikoan; horretarako, emakumeei zuzendutako aldizkarien artikuluen azterketan oinarritzen da.

Autorearen aburuz, maitasunaren inguruau zabaldu den diskurtso terapeutikoa ondorengo proposamenetan oinarritzen da: harreman “osasuntsuak” ala “gaixoak”; bi pertsonen arteko lotura aztertzeko eta ebaluatzeako xede bilakatzen da; subjektuek haien harremanak kontrolatzeko lanen eta estrategien jakintza eskuratzentz dute; porrot erromantikoa lehendabiziko esperientziekin lotzen da; iraganeko harremanak ulertzea giltzarritzat jotzen da etorkizunean harreman osasuntsuak izateko; eta, harreman osasuntsuetan, autoezagutzan eta hori bizitzaren hainbat alderditan aplikatzeko gaitasunean oinarritzen da arrakasta (ibidem:264). Illouzek azpimarratzen du izaera zientifikoa ematen saiatzen direla agerkari horietan zabaldutako datuei; zientzia funtsezkoa izanik diskurtso erromantikoaren autoritate sinbolikoa berresteko (ibidem:264). Horrela, egilearen ustez, aldizkariek ez dute ikerketa zientifikoen deskribapen hutsa egiten, baizik eta diskurtso normatibo bat eratzen dute. Arau bezala agertzen dira adierazpenak, esate baterako, zein harreman diren osasuntsuak eta zeintzuk ez zehazten dutenean. Era horretara, zientzia erabiltzen dute egiaztapen moralak egiteko (ibidem:266).

Estrategia diskurtsibo horiek neska gazteei zuzendutako aldizkarietan ere errepikatzen dira. Aldizkari horiek, helduei zuzendutako antzera, aholkularitza psikologikorako atal zehatz bat izan ohi dute. Adibidez, neska gaztetxoei zuzendutako estatu mailako aldizkari batean, “Desahógate” izendun atalean, neskek adiskidetasunaren, familiaren edo bikoteen inguruko arazo eta zalantzak aitortzen dituzte; eta ondorengo aholkuak bezalakoak jasotzen dituzte:

“Te entiendo, Luci. Una relación tan absorbente como la que tienes con tu amiga, además de ser aburrida, no es sana para nada. ¡Con lo que mola salir en pandilla y hacer cosas fuera de casa! ¿Verdad? Habla con ella, puedes empezar la conversación diciéndole algo positivo (...)” (Revista Bravo, 2012:46).⁵⁶

“Sé sincera, pero ten mucho tacto. Cuéntaselo del mismo modo que a mí, es decir, dile que te encanta hacer el amor con él, pero que echas de menos otras cosas que solíais hacer antes. Y le puedes poner algún ejemplo: ir al cine, al parque, al centro comercial, etc. Hazle entender que todo es

⁵⁶ Nerabeei zuzendutako aldizkaria da, Estatu Espainiarrean argitaratzen da. Aipatutako alea ondorengoa da: (2012) BRAVO por ti Nº424, Madrid: Bauer ediciones, 46.

compatible y que, por ejemplo, quedar con toda la peña del barrio puede ser igual de divertido. Además seguro que si os dosificáis un poco, los dos lo cogéis con más ganas” (ibídем:47)

“Laura, ¡menuda sorpresa te tuviste que llevar! ¡Seguro que te pillaste un enfado monumental! Entiendo que la situación no debió ser fácil, pero aunque parezca lo contrario, el hecho de que tu novio mire de vez en cuando revistas porno o eróticas no significa que te haya dejado de querer, ni que le gustes o le atraigas menos. Hay personas que consultan este tipo de revistas por curiosidad. Recuerda que para él significas algo más que todo eso, y la relación que tenéis juntos es especial en todos los sentidos. Si lo consideras necesario, puedes hablarlo con él para quedarte más tranquila.” (Revista Bravo, 2012: 48)⁵⁷

Psikologoaren aholku horiek zilegi egiten dituzte jarrera adituak, eta kontzepzio ideologiko zehatzetatik abiatzen dira: esate baterako, afektibilitatea eta zaintza esplizituki azpimarratzen dira nesken profiletan, mutilei sexualitate ezberdina eta kontrolagaitza atxikitzen dieten bitartean, betiere marko heteronormatibo batean; edota harreman kaltegarritzat hartzen dira nesken arteko harreman estuegiak, eta bikote harreman estuegiak, aldiz, ez dira zalantzan jartzen.

Maitasunaren eta maiteminaren egia baiezatzen eta normativizatzen den aldizkariaren beste atal bat horoskopoa da. Aipatutako aldizkarian, “Enamórate” izenburupean eta azpititulu hauekin: “*El universo ha conspirado para que esta primavera ¡por fin te enamores! Besos tiernos, caricias, miradas cómplices y ¡un montón de momentos románticos! Averigua qué te espera en los próximos meses*” edo “*El amor es sentir cómo el latido de tu corazón se acelera*”; eta ondorengo galdeei erantzuten zaie: “*¿Qué efectos tienes en un chico?*”, “*¿Dónde le encontrarás?*”, “*Consejos para ligar*” y “*Tu momento más bonito esta primavera*”. Ikus ditzagun normativitate horren adibideak:

“ARIES. ¿Qué efecto tienes en los chicos? Irradias seguridad y confianza en ti misma. ¡Eso les gusta a los chicos! En cuanto te ven saben que contigo no se aburrirán ni un segundo. ¡Tendrán que esforzarse por seguirte el

⁵⁷ Aipatutako alea: (2012) BRAVO por ti Nº425, Madrid: Bauer ediciones, 48.

ritmo o tendrán ninguna posibilidad contigo! ¿Dónde le encontrarás? Aprovechas las salidas con la pandi para poner en práctica tus estrategias de ligue. Por eso es muy probable que sea en una de estas donde conozcas al chico de tus sueños. De ti le llamará la atención que eres sociable y muy comunicativa. Las estrellas lo saben: tú darás el primer paso y te lanzarás a hablar con él. Consejos para ligar: Te gusta ir a saco a por un chico, pero a veces eso les asusta. Relájate y deja que se acerque, que tontee contigo, que luche por tenerte. No está mal que un chico se esfuerce tanto por ti ¿no? Tu momento más bonito esta primavera: Es de noche. Hace calor. Estás en una fiesta al aire libre con tu pandi. Tu fichaje y tú os alejáis del grupo y bajo el cielo estrellado él te besa como nunca. ¡Qué pasión! Te arden los labios.” (Revista Bravo, 2012:58)⁵⁸

Hortaz, nerabeen bizi-gidatzat har daiteke horoskopoa, maiteminaren irudikapenen inguruko egiak sortzen dituelako diskurtso zientifikoan eta terapeutikoan oinarrituz. Diskurtso horietaz neskak baliatzen dira batez ere bizi proiekzioak egiteko orduan, hala nola, bizitza gidatzeko. Gainera, horien aurrean nerabeek helduek baino jarrera zaugarriagoa izaten dute, une horretan eraikitzen ari direlako oinarri kritikoak.

3.2.2 Egiazko maitasuna: nerabeen bizi-helburua eta etorkizunerako asmoa

Nerabeen narrazioetan antzeman daiteke maitasunaren egia mundu umoarekin lotuta dagoela. Alde batetik, ikusi dugunez, etorkizunean txertatzen dute zirrara hori “benetan” sentitzeko aukera, hau da, bizipen-emozionalerako abagunea helduardoan kokatzen dute. Gainera, beraien hitzetan eta adierazpenetan, helduzentrismoa nabamentzen den bestelako arlo bat ere ikus daiteke: elkarrizketetan zehar, behin baino gehiagotan aipatzen dira “*gau bateko rolloak edo ligeak*” pertsona nagusien aisialdiari lotutako hitzak barneratuta dituzten seinale. Izan ere, ikerketako gazteek arratsaldez izaten dituzte erlazioak, gaueko hamarrak aldera etxeán egon behar dute-eta.

⁵⁸ Alea: BRAVO por ti (2012) Nº425, Madrid: Bauer ediciones, pp. 58.

Bestetik, maitemintzea bera hazteko eta umoagoa egiteko eragiletzat hartzen da. Aitortzen dute esperientzia emozional horrek bizitzaren eta harreman sozialen ikuspegia zabaltzeko aukera ematen duela:

“Enamorarte te hace más mayor, te hace comprender las cosas un poquito mejor. Te hace tener más experiencia, saber más... Nos podemos enamorar de cualquier persona, sea como sea... yo creo en lo del flechazo, tengo experiencia... Sin conocerle me he enamorado, el primer día del curso, le vi y como... ahora también. Ya paso el tiempo y se fue yendo, cuando conoces a una persona ya te das cuenta de que es una persona descerebrada.”

(Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horrez gain, genero ezberdintasunak justifikatzeko tresna bihurtzen dute heldutasunaren eta amadioaren egiaren arteko lotura. Elkarrizketatutako neskak kexatu egiten dira beraien adineko mutilak benetan maitemintzeko oraindik haurrak izateaz:

“Yo creo que en cuestión de enamorarse las chicas y los chicos no es lo mismo. Los chicos son un poco más inmaduros, no piensan en enamorarse, no creo que vaya a pasarles hasta dentro de mucho tiempo. Las chicas ya lo pensamos. Igual nos ha pasado o no nos ha pasado, pero tenemos un poco de experiencia con ello. Con los chicos tenemos que esperar a que se mentalicen de que hay algo más que su camiseta de Pull and Bear y sus pantalones de marca.” (Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Maitasunaren ikusmolde helduzentrikoren ondorioz, frustrazio sentsazioa sumatu daiteke nerabeen artean. Beraiek betiko amadioan sinesten dute, eta euren edadean erlazio laburrak baino ez dituzte. Gazteek jakin badakite euren bikote harremanek ez dutela luzaroan iraungo, ez dute uste betierekoak izango direnik, epe motzera begira eraikitzen baititzte. Alta, horrek ez du esan nahi maitasun praktikak umoen mundura hurbiltzeko bidea ez direnik.

“La gente se cree más madura, pero yo creo que no. Dicen ‘¡ay estoy enamorada, qué bonito!', pero al final lo que va a pasar va a ser que te va a gustar y le vas a gustar y vas a salir con él y luego va a acabar mal, porque dudo mucho que vaya a acabar bien... porque no te vas a casar con esa persona. Yo no creo que sea eso hacerte más mayor, ¡qué va! todo lo

contrario. Yo creo que eso es de críos.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Maitasunaren egiak helduen praktikak ez direnak baztertzen ditu, eta harreman horiek kolokan jartzen dira haurtzaroan eta nerabezaroan. Sinesmen hori ez da soilik gazteen inguruau egindako interpretazioa, nerabeen artean ere sinesmen horiek errepikatzen dira-eta. Duartek (2006) ikerketa batean azaltzen duenez, Txileko hiriburuko lizeo batean, ikasleek gazteagoak diren ikasleak erasotzen dituzte modu sinboliko zein fisikoan, nagusi izateagatik eta pribilegio gehiago duten iruditeriaren ondorioz: gazteak barregarri uzten zitzuten, haien balio intelektuala gutxiesten zuten eta osatugabetzat hartzen. Argudio horiek erabiltzen zitzuten beraien burua balioesteko, nagusiek hobetzat, argiagotzat, azkarragotzat... hartzen baitzuten beraien burua (Duarte, 2006:16). Era horretara, adoleszenteek beraien bikote erlazioak bizi-zikloaren arabera eta modu linealean eraldatzen direlako ideiarekin bat egiten dute:

“El primer amor de verdad es... no se puede pensar en cualquier curso anterior a primero de la ESO, bueno, depende si eres muy madurito... Anterior a quinto, digamos que son amores de mentira, que solo te conformas con verla. Pero claro, si es importante para ti cuando has mantenido esa relación, depende qué hayáis hecho y luego si ha cortado contigo o has cortado tu, por qué... Es decir, anterior a primero de la ESO o anterior a quinto, el amor de verdad depende como vayas de madurez, porque ya sabes que ese tipo de parejas al final solo te conformas con verla, y eso no es una pareja de verdad, es solo, a ver... no sales ni con ella, solo te gusta con verla, no es amor de verdad, tu ya me entiendes. El amor de verdad empieza en primero de la ESO, porque enamorarte de una chica de verdad tiene que ver con... no te voy a decir por años, pero alcanzas esa madurez ya te enamoras de una chica y quieres estar con ella, pasártelo bien... ” (Javier, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Amodio ekintzekin loturik dago maitasunaren ikuspegি helduzentrikoaren beste ezaugarri bat, izan ere, helduen bizitzetako aukerek erraztu egiten dute Illouzek (2010) “amodioaren utopia” deiturikoa gauzatzea. Mugatuak dira kapitalismoak erromantikotasunaren gainean ezarritako balioak eta arauak (hainbat irudi, sinbolo, tresna edota istorio, esate baterako), eta helduek soilik izan dituzte horretarako

baliabideak (ibidem:22). Kontsumoa maitasunerako bidea delako imajinarioa dago, non kontsumoaren bidez lotzen den bikotea lortzearen ideia erromantikoa objektu zehatzekin eta klima bereziekin (ibidem:170): hondartza huts batean ilunabarraz gozatzea edo kandelaz argitutako afaria, kasu. Illouzek azaldutako utopia hori gizarte kapitalistaren eta kontsumistaren logikan sartzen da, hain zuen ere. Baino horrek ez du tokirik izango nerabeen praktiketan, horiek baliabide ekonomiko mugatuak dituztelako, nahiz eta goi-klaseko gazteak izan, beti baitaude gurasoen menpe. Hala ere, iruditegi erromantiko generizatu⁵⁹ hori guztiz barneratuta dago beraien narrazioetan:

“Yo iría con ella, la invitaría obviamente yo, la invitaría a comer o ir al cine, a dar un paseo o cualquier cosa, yo seguro que hay una pregunta luego de si has tenido novia y así, me gustaría entrar luego en más detalles, pero yo sé lo que haría, la invitaría a cenar, a comer un día, la invitaría al cine, haría planes con ella. (...) Yo me imagino más mayores, me gustaría cosas románticas como esas, estar sentados en una puesta de sol y de la mano, darte un beso, y hacer cosas habituales con amigos pero en plan, salidas con novia.” (Javier, 13 urtea, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Hemendik eta hamar urtetara ikasten egongo naiz edo amaitzen, kazetaritza, izan nahi dut reportera de las noticias edo de deportes, edo amaitzen nire karrera, con novio... si daukat novio nire etxean y con un perro... 20 urte barru para casarme...a no! ¿Cuantos años se casa ahora la gente? Oye, antes con dieciseis años, orduan pues para casarme o casada, ezkondu banaiz familiarekin, hiru seme-alabekin, baina que el mayor cuide al pequeño y asi, porque sino. Etorkizunean mutil batekin ikusten naiz, atzerritar batekin izan daiteke, zergatik ez? Nire bizitza ideal como la de las Barbies, son muy guapas, su novio tiene un descapotable, tienen hijos muy guapos, perro, salen en la tele, tienen de todo, carroza...”

(Maialen, 13 urte, ikastola)

⁵⁹Illouzek eta Bachenek egindako ikerketan, “Visions of romance: A cognitive approach to media effects” (1987), 8 eta 16 urte bitarteko 180 neska-mutil estatubuarren lagina hautatu zuten ikerketa egiteko. Elkarrizketatuei “afari erromantiko bat” deskribatzeko eskatu zitzaien, eta denek aukeratu zuten jatetxe dotore bat afarirako, nahiz eta parte hartu zuen inor ez zen inoiz egon horrelako eszenatoki batean. Horregatik, Illouzek eta Bachenelek ondorioztatzen dute afariaren irudikapen bisuala jatetxe horretan egitea kognitiboki etxearen afaltzea baino aurretikoa da eta, era berean, ordezkatu egiten duela, hau da, erromantzea eta kontsumoa elkarlotzea lehenesten da kontsumorik gabeko une erromantikoen irudikapenen gainetik (2010:175).

Erromantizismoaren eta kapitalismoaren loturak nabariak dira maitasun-gida bezala funtzionatzen duten nerabe-aldizkarietan ere. Horoskopoarekin jarraituz, ondorengo baieztapenak bezalakoak aurki daitezke:

“PISCIS. Tienes un corazón que no te cabe en el pecho y eres una de las personas más comprensivas del mundo. Te gusta soñar despierta y los que te conocen saben que contigo pueden viajar a mundos exóticos, tierras desconocidas, Les encantas, porque conocerte es toda una aventura (...) Tu momento más bonito de la primavera: Tu chico y tú habéis ido de excursión. Estás sentado a tu lado contemplando la puesta de sol. Tú te apoyas contra él y te pasa su brazo por encima de los hombros. Parece un sueño, nunca habías imaginado una escena tan romántica. Os besáis y él te acaricia el pelo. ¡Es como el cine!” (Revista Bravo, 2012:60)⁶⁰

Hartara, agertoki erromantiko horiek bidaietan edo bestelakoetan oinarritzen dira, eta zaila da nerabeek horiek gauzatzea, gurasoen babespean daudelako eta muga ekonomikoa dutelako. Halaber, aldizkari horietako horoskopoek ere zenbait objekturen publizitatea egiten dute, esate baterako, azazkal-bernilzak edota makillajeak, eta produktu horiek maitatutako pertsona konkistatzeko baldintza bezala aurkezten dira. Espazio horietan, kontsumoa eta gorputzen hiperfeminizazioa hartzen dira maitasun harremanak gauzatzeko bidetzat.

Azken batean, maitasunaren egia helduzentrikoa bi ardatz nagusiren arabera eratzen dela esan genezake: batetik, benetakotasunaren erregimena eta, bestetik, adinak ezarritako araudia. Nerabeek parametro horietan edukitzen dituzte harremanak, non massmediek funsezko papera jokatzen duten hainbat maitasun sinesmen eta konfigurazio ezarriz.

⁶⁰ Aldizkariaren alea: *BRAVO por ti* (2012) Nº425, Madrid: Bauer ediciones, 60.

3.3 Laburbilduz

Maitemina maitasunaren alderdi irrazionaltzat hartzen denez, fenomeno natural eta batbatekoa bezala definitzen dute ikerketako nerabeek. Era berean, maiteminaren irudikapen hori emakumezkotasunari atxikitzen diote, emakumeek gehiago eta sakonago maitemintzeko duten joera azpimarratuz. Gehiegizko sentiberatasun horrek zaurgarri egiten ditu neska nerabeak hainbat egoeraren aurrean. Zaurgarritasun emocional horren eraginez neskatilek indarkeriazko egoerak jasateko arrisku handiagoa dute, hala nola, nortasuna bikotearen arabera eraldatzeko. Gehiegizko emocionalitatezko jarrerak eta irrazionalitatezko zantzuak mutilengan ere aurkitu dira, baina beste mota batzuetakoak: esate baterako, sexualitatearen aurrean burua galtzea edota desamodio prozesuetan erakutsi ohi dituzten haserrealdiak.

Halaber, nerabeen maiteminaren narrazioetan nabarmena da gorputzaren presentzia. Sentipen horren inguruan aritzeko hainbat aktibazio fisiologikotara jotzen dute eta gorputza tartean sartzen duten metaforak erabiltzen dituzte: “*tximeletak sabelean*”, “*urduritasuna*”... Horrela, maiteminaren errealtitate somatikoa agerian jarri da. Bainaz gorpuztasun horren aurrean, modu aktiboan jarduteko aukera aurreikusten dute nerabeek, batez ere, desamodio prozesuetan. Emozioak eta gorputza aktiboki kudeatzen dituzte zenbait estrategiaren bidez: pentsatzeari uztea, beste zaletasun batzuk aurkitzea...

Era berean, “benetako maiteminaren” inguruan aritu dira, etorkizunean biziko duten itxarobidea nagusitzen baita, helduen munduan txertatzen dutelako. Egiazko amodioaren kokapen helduzentrikoak gazteen harremanak ezbaian jartzen ditu, jolas hutsak direlakoan, hain zuzen. Era berean, ideologia errromantikoaren eta kapitalistaren arteko uztarketa dela-eta, gazte askok ezin dituzte maitasun errromantikoaren ekintza batzuk egin, dirurik ez dutelako. Halaber, beraien jomugan egoten jarraitzen dute berdin-berdin.

Alta, ikusmolde helduzentriko hori ez da umoek soilik bideratutakoa, nerabeen artean ere finkatuta baitago, eta beraiek ere izaten dute sarritan erlazioak zalantzaz jartzeko joera. Maitasun bzipenekiko mesfidantza zabaltzen da eta, urteak pasa ahala, izandako harremanak zalantzaz jartzen dituzte, amodioaren egiara hurbiltzen ari diren bitartean.

Eurek jartzen dituzte beraien erlazioak ezbaian, baita gazteagoen esperientziak dudan jarri ere. Horrela, belaunaldien arteko botere harremanak errepikatzen dituzte.

Amodioa umotasunari lotutako esperientziatzat jotzeak genero desberdintasunak eta botere harremanak kolokan jar ditzake. Mutilekin alderaturik, nesken sentimenduen trebakuntza ageriagoa da eta zuzenagoa, etengabe animatzen dituzte maitasunari arreta eskaintzera (pelikuletan, kantetan...). Horregatik, neskek euren burua nagusitzat hartzen dute eta zalantzaz jartzen dituzte mutilen maitasun ekintzak, bai horien heldutasun faltagatik, bai horiek praktika sexualari ematen dioten garrantziagatik (nahiz eta ez duen zertan bat egiten praktikarekin).

Hainbat arlotan, ideologia erromantikoak genero bereizketa bultzatzen duela ikusi izan badugu ere, jarrera horrek bideratzen ditu 12-14 urteko neskak “benetako” maitasunaren botereaz jabetzera eta heldutasunerako gakoak lortzera. Horrez gain, heteronormatibitate erromantiko hegemonikoak patroi zehatzak errepikatzen ditu nerabezaroan, baina jendarteaek gazteak zokoratzen dituen heinean, maitasun normatiboa hankaz gora jarri dezakete “egiazkotzat” jotzen ez diren praktika horien bitartez. Nahiz eta kapitulu honetan modu zuzenean ez den landu, ideia bat azpimarratu nahi dut amaitzeko: “nerabean maitasuna” kategoriaz jabetzeak amodiozko narrazio eta praktika normatiboak iraultzeko bidean jartzen gaitu, edo, behintzat, normatiboarekiko bide kritikoagoa hartzera eramatzen gaitu.

4. ADISKIDETASUNA ETA ISILPEKO MAITASUN-AFERAK: JARDUERA EZBERDINDUAK ETA HARREMANEN ANTOLAKETA

Nerabeen arteko adiskide harremanen artikulazioa aztertzea du helburu kapitulu honek. Izan ere, adiskidetasunari modu zuzenean erreparatzeko beharra sortu da, gaztetxoen bizipenen hainbat arlotan oso garrantzitsua delako (maitasunaren konfigurazioan, heteronormatibitatean...). Gaiari heltzeko ardatzak ondorengo biak izan dira: batetik, nerabeek adiskidetasuna ulertzeko eta bizitzeko dituzten ereduak, eta bestetik, erlazio afektiboen kudeaketa eta botere harremanak. Horretarako, toki berezia eskainiko zaie gaztetxoen artean oso ohikoak diren sekretuei, hau da, elkarri kontatzen dizkioten isilpekoei eta biziaren konfidentzialei, batik bat, maitasunaren ingurukoak izan ohi direlako eta, gainera, nerabeen arteko harremanak sendotzeko zein hausteko gaitasuna dutelako.

4.1 Adiskidetasuna: berdintasun harreman boluntarioak edo kuadrillak

Adiskidetasuna azterketaren erdigunean jartzeko hainbat arrazoi daude. Lehenik eta behin, adiskidetasuna maitasunaren konfigurazioan sartzeko hautua egin dugu. Izan ere, maitasuna eta laguntasuna bereizteko joera dago, harreman afektibo sexualekin eta familia eremuekin lotzen delako gehienbat amodia. Horregatik, bestelako loturatzat hartzen da adiskidetasuna. Robert Brain antropologoak, *Amis et amants* (1980) lanean, bereizketa horren konplexutasuna eta anbiquotasuna nabarmendu du. Mendebaldeko kulturan, maitasun erromantikoaren indarrak bultzatzen du harreman afektibo sexualak adiskideen arteko maitasunaren gainetik jartzea; baina adiskidetasuna beste lotura afektibo batzuk (guraso eta seme-alaben arteko harremanak, bikote harremanak...) bezain garrantzitsua dela dio autoreak.

Halaber, erronka antropologikoa da laguntasunaren azterketari ekiteko beste arrazoietako bat. Sandra Bell-ek eta Simon Coleman-ek editatutako *The anthropology of friendship* (1999) laneko hitzaurrean, Raymond Firth antropologoak adierazi du adiskidetasunari buruz, modu batean edo bestean, idatzi izan dela hainbat diziplinatan

(filosofian, erlijioan, psikologian...), eta ibilbide historiko luzea duen gaia dela. Literatura antropológikoan zeharka azaldu da eta ez du beste harreman batzuek (senidetasunak, ezkontzak...) izan duten tokia izan. Laguntasunaren azterketa antropológikoan aitzindarietako bat Robert Paine (1969) da, klase ertain estatubatuarraren inguruan egindako azterketarekin. Haren aburuz, nahiz eta historikoki antropologoen jatorrizko kulturetan adiskidetasunak eta senidetasunak antzeko garrantzia izan, idazkietan eta analisietan ez da horrela islatu eta betiere senide-harremanak gailendu dira. Horren adibide da, esate baterako, tokian tokiko lana egiterakoan, sendi barruko harreman bezala definitu izana antropologoek lehengus-lehengusinen harremana, eta lotura horren laguntasunari, ordea, erreparatu ez izana (ibidem:505). Paine-ren ustez, Mendebaldeko laguntasunaren ulerkeragatik gertatu da ikerketetako absentzia hori. Izan ere, testuinguru ekonomiko eta sozial zehatz batzuetan soilik gerta daiteke adiskidetasunaren konfigurazio hori, kulturalki aldagarrria baita. Josepa Cucóren (1995) arabera, absentzia horren arrazoiak honakoak dira: alde batetik, pentsamendu antropológikoan instituzio formalek izan duten zentralitatea; eta, beste alde batetik, emozioen analisia bigarren mailan geratu izana.

Mendebaldeko gizartearen definizio modernoaren arabera, adiskidetasuna instituzionalizatu gabeko instituzioa da (Paine, 1969; Uhl, 1991), baina baita modu boluntarioan gertatzen den eta arrakastarekin lotu daitekeen harreman sozial informala ere (Beer, 2001). Horrez gain, Cucók gaineratu du boluntarioa, pertsonala eta berdintasunezko harremana dela; eta berdintasun harreman horiek bereizten dute bestelako harremanetatik: senidetasun harremanak, patroi-langile artekoak... (1991:30) Definizio horretarako Cucók bere egingo du Graham Allan-en (1989) berdintasunaren nozioaren ulerpena: laguntasunean hierarkiak eta autoritate harremanek tokirik ez dutela, hain zuzen ere. Era berean, elkarrekikotasuna azpimarratu du –adibidez, maila emozionalean zein zaintzan gertatzen dena–. Hain justu, elkarrekikotasun hori laguntasunaren oinarrizko ezaugarritzat hartzeagatik eta aspektu anti-instrumental hori beste gizarte batzuetara zabaltzeko nahiagatik, bestelako adiskidetasun ereduak kanpoan utzi dira azterketa antropológikoetan (Silver, 1989; in Cucó, 1991:28).

Ikerketa honetako nerabeen narrazioetan adiskidetasunaren definizio horren zantzuak aurkitu dira. Berdintasunaren ulerpenari dagokionez, gaztetxoek “*Hemen denak berdinak gara*” edota “*Hemen ez du inork agintzen*” bezalako baieztapenak egiten dituzte etengabe. Narrazio horiek kontrajarrian daude praktikan dituzten harremanekin,

horiek konplexuagoak baitira. Bestelako lotura afektiboetan bezala, botere harreman asimetrikoak gertatzen dira. Izan ere, berdintasun eza izan da ikerketako nerabeen arteko laguntasun harremanen adierazgarria. Ildo horretatik, Vered Amit-Talai antropologoak (1995) azaldu du nerabezaroaren inguruko azterketetan adiskidetasuna norbanakoaren garapenaren teoriekin lotu izan dela, baina, botere harremanak agerian jartze aldera, harremanen egiturari erreparatzeko beharra ere adierazi du (1995:145).

Izaera boluntarioari dagokionez, aspektu hori ere azpimarratu egiten da elkarritzetatu diskurtsoetan, bestelako afektuzko harremanetik bereiziz. Ikerketako nerabeek horrelako aipamenak egin dituzte: “*Lagunak dira zure lagunak, zuk aukeratzen dituzu*” edota “*Askapen unea da*”. Allanen ustez (1989; in Bell eta Coleman, 1999), autonomiaren eta askatasunaren nozio horiek testuingurutik kango gauzatzen dira. Izan ere, erlazio boluntariotzat, informaltzat eta pertsonaltzat hartu arren, erabat baldintzatzen dute hori klasea, etnia, generoa, adina eta kokagune geografikoa bezalako aldagaiet. Horrela, nahiz eta norbanakoaren pertzepziotik borondatezko harremantzat hartu, esan genezake aldagai sozialen arabera gauzatzen dela eta modu ezberdinetan uler daitekeela. Hori dela-eta, Cucók (1995) adiskidetasunaren aztertarako eredu analitikoa proposatu du, zenbait lanetan (Allan, 1989; Blieszner eta Adams, 1992) oinarritura. Laguntasuna kulturalki modelatutako eraikuntza soziala denez, autoreak ondorioztatzen du aldagaria dela testuinguru sozial, kultural eta garai historikoen eta, nagusiki, lau faktoreren arabera: senidetasuna, generoa, bizitzaren zikloa eta mailaketa soziala. Era horretara, adiskidetasunak espazio soziala eratzen du, non norbanakoaren agentzia eta harremanak egokitzen diren (Cucó, 1995:24). Beraz, harreman askea eta boluntarioa da, baina betiere aldez aurretik aldagai sozialak egituratuta.

Hartara, euskal gizarteari dagokionez, lagun taldeak “kuadrilla” izendatzen dira. Eugenia Ramirez Goicoechea antropologoaren (1991) ustez, kuadrilla instituzionalizatutako taldekidetza informalda da, non kideen arteko harremanak diren oinarri. Batzuetan, haurtzaroan edota nerabezaroan sortutakoak dira, adin eta sexu berekoak, eta elkartzeko espazio komunagatik (eskola edota auzoa) eratzen dira. Horrela, antropologian “adiskidetasun errituak” izendatu dira, hots, denborak eta espazioak mugatzen dute lagunen aukeraketa (Esteban koord., 2013:162). Ramirezi (1991) jarraiki, euskal gizartean, tradizionaleki, gazteen soziabilitatea monosexuala izan da, gehienetan gizonez osatuta egon baitira kuadrillak, nahiz eta egun gizon eta emakumez osatzen diren:

“La cuadrilla es el nombre del grupo de iguales por antonomasia en Euskadi. Su historia viene asociada a los procesos de transformación de la sociedad urbana moderna en conexión con algunas formas tradicionales de organización basadas en la separación entre los sexos, tales como las levas militares, que se hacían por cuarteles o cuadrillas (Arpal, s.f.:51-61), las cofradías profesionales, de artesanos y pescadores, las cofradías religiosas, o incluso los grupos de danza y hasta la reunión de trabajadores del mismo sexo en función de la división del trabajo. Se perfila así como una institución de la sociedad masculina, que cristaliza en el encuentro de la sociedad urbana industrial, sus ritmos y sus tiempos, con un sustrato tradicional que consagra la segregación entre los espacios masculino y femenino. Puede decirse que es con la especialización de un tiempo de ocio desvinculado del periodo de trabajo, en un momento de redimensionalización de lo público y lo privado, cuando aparece la cuadrilla como una forma de grupalidad específica. El nacimiento de otras formas de sociabilidad como las sociedades populares y gastronómicas (cf. Infra) se halla también ligado a estos procesos.”(Ramírez, 1991:287)

Adin goiztiarretan kuadrillak neskez eta mutilez osatzen dira, baina, nagusitu ahala, genero bereizketa hori indartu egiten da, nesken kuadrillak eta mutilen kuadrillak bereiziz (Esteban koord., 2013:162). Denborak aurrera egin ahala, egiturazko egoerek (lana edukitzeak, bizilekuz aldatzeak...) kuadrillak handitzea edota zatitzea ekar dezakete (Ramirez, 1991:288). Ikerketa honetako gaztetxoen kasuan ere, oinarrizko lagun taldeak generoaren arabera banatuta egon dira, batez ere, jolas garaiko eta aisialdiko praktikek bultzatuta, nahiz eta jarduera konkretu batzuetarako neska-mutilen adiskide taldeak uztartzen diren (larunbat arratsaldeetako hitzorduak; sarritan, elkarrekin geratzen baitira).

4.1.1 Intimitate partekatze ikusezina eta ekintza partekatu publikoa

Generoa giltzarria da bai adiskidetzaren ulerpenerako, bai bere egituraketarako. Gizarte Antropologian, Uhlek (1991) kritikatu du ikerketa antropológikoak gizonezkoen praktikak izan dituela oinarri, eta gizonezkoen fenomenotzat definitu izan dutela

laguntasuna (ibidem:91). Ildo horretatik, Bellek eta Colemanek (1999) adierazi dute Mendebaldean adiskidetasunaren inguruan 70eko hamarkadatik aurrera egindako zenbait ikerketa sexu bereko lagun taldeen ezaugarrietan oinarritu direla, emakumeen arteko laguntasun eta gizonen arteko laguntasun ereduak bereiziz:

“A number of studies produced over the past twenty years have approached the issue of gender by focusing on the quality of same-sex friendships in West. They have reflected general agreement that men are inclined to share activities with their male friends whereas women prefer to share feelings with female friends (Davidson and Duberman, 1982; Allan, 1989)” (Bell eta Coleman, 1999: 13)

Ikerketa horien arabera, gizonezkoen adiskidetzan ekintza partekatuak nagusitzen dira, eta emakumeek, berriz, harremanekin loturiko edukiak etaemozioak partekatzen dituzte. Egun, euskal gaztetxoen kasuan, adiskidetasunaren banaketa ezberdindu hori mantendu egiten da (Rincón, 2001; Medrano, 2009; Fernández, 2009, 2010; Esteban koord., 2013; Esteban eta Díez, 2014). Halaber, genero banaketak berdintasunaren diskursoarekin batera artikulatzen dira. Rincónek, *Portaera maskulino eta femeninoen ereduak eta erreferenteak euskal gazterian* (2001) lanean, beste arlo batzuekin batera, gazteen arteko lagun harremanak aztertu ditu. Bertan, kuadrillan zein lagun artean berdintasun harremanak dituztela diote gazteek. Era berean, kuadrilla barnean aukera eta zaletasunak bateragarriak izaten saiatzen dira. Hala ere, autorearen aburuz, berdintasun diskurtsiboa gaindituta, mutilen eta nesken komunikazio sistematan ezberdintasunak daude: bestek beste, aisialdiko jarduera asko sexuaren arabera planifikatzen dituzte gazte horiek, hainbat aurreiritzi eta estereotipo sexista mantenduz. Beraz, nahiz eta gazteen artean berdinak direlako diskurtsoa hedaturik egon, esan genezake praktikan genero ezberdintasunek indarrean jarraitzen dutela laguntasunari dagokionez.

Genero ezberdintasunaren zantzu horiek gure ikerketako nerabeengan ere aurkitu dira. Neskek intimitatearen kudeaketa jarri dute adiskidetasunaren erdigunean, mutilek partekatutako ekintzez jarduten duten bitartean:

“Mi cuadrilla es de chicos. Pero no hacemos las mismas cosas. Los chicos igual estamos jugando al fútbol y luego las chicas van con nosotros también

pero se sientan en un banco a hablar de cosas mientras nosotros jugamos.”

(Igor, 13 urte, institutu publikoa)

“Los de las chicas ves los comentarios y son más de ‘te quiero cariño’, ‘gracias guapísima’ y así. Los de los chicos son más de ‘oye no sé qué día vamos a liarla no sé donde’... a hacer litros y así.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“De nuestra edad yo creo que todos somos iguales, todos piensan en lo mismo. Siempre piensan en los gustos. Toda la gente habla de lo mismo. Todas las chicas hablan de lo mismo. Luego los chicos del fútbol o de eso, eso es como lo más curioso como lo que más.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Aisialdiaren eta dibertimenduaren ulerpena ezberdindua da: mutilak gorputzaren erabilera aktiboagoa egiten dute, mugitzu eta kiroletan jokatuz; neskek, ordea, jarduera lasaiagoak egiten dituzte, hitz egiten egon, esate baterako (Esteban eta Díez, 2014). Batetik, mutilen ekintza partekatuan gorputzaren erabilera aktiboaz gain, kanpo jarduera subertsiboak (zerbait apurtzea, lapurtzea...) goraipatzen dira. Izan ere, araua haustea ere bada maskulinitatea eratzen duen ezaugarrietako bat. Ikerketako mutilen ahotan ohikoa izan da “*Vamos a liarla*” bezalako esamoldeak entzutea. Horren adibide da, tokian tokiko lanean, goi klaseko mutil talde bati asteburuetako aisialdiari buruz galdetzerakoan “*Vamos a liarla*” erantzun izana, eta mutil batek harrotasunez eta ziurtasunez esan zuela “*Los que nunca la lían son...*”, batzuk atzamarrarekin seinalatzu, eta beste batzuek eskua altxatu zuten. Ausardia eta maskulinitatearen elkar lotzea agerian jarri zuten “*Los que tenemos huevos somos...*” bezalako esamoldeekin. Horregatik, esan daiteke baldarkeriak egitea ez dela soilik behe klaseetan gertatzen den zerbait, klase sozialaz gain, generoak zeresan handia baitu. Griffinek (1993) gazte eta nerabeen inguruan Britainia Handian egindako ikerketen analisian, gazteria eta delinkuentzia uztartzeko joera azpimarratu du. Horrela, gaztetasunaren iruditegia behe-klaseko mutil gazteekin eratu dela dio, nesken praktikak bigarren maila batean utzi diren bitartean. Ikerketa honetan ere delitua edo baldarkeriak egitea maskulinitatearen eta nerabezaroaren ezaugarri bezala agertzen da, baina klase sozial guztieta jazotzen da. Izan ere, delitua debekuarekin bateratzen dute, gurasoen zaintzatik kanpo lagun

artean aritzeko jarduera bezala. Horrela, mutilen aisialdiko ekintza horiek transgresioari lotuta daude:

“Con los amigos solemos estar dando vueltas, jugando a fútbol o liéndola. Tocamos timbres... por ejemplo, una vez el tonto de Ignacio cogió un vaso puso un petardo y puso el vaso encima, saltó todo y toda la gente chillando. Lo que se nos ocurre. Los amigos son para pasarlo bien. Para hacer las cosas que con los padres no haces, lo haces con ellos. Yo por ejemplo no voy con mi padre tirando petardos.” (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Delituarekin” edo baldarkeriekin batera, kirola da nerabe mutilen artean nagusitzen den ekintza, eta horrek, futbolak batez ere, bideratzen ditu mutilen arteko harremanak.⁶¹ Kirolen artean hierarkiak sortzen dira, eta futbola besteen gainetik dago. Mutilek arrakastaren parametroetan ulertzen dituzte praktika horiek: futbolean jokalari ona izateak bizitzaren hainbat eremutan arrakasta izatearekin lotzen dute, behintzat, adin horri dagokionez. Institutu publikoaren kasuan, erabat markaturik dago futbolean aritzen direnen eta esku-pilotara aritzen direnen arteko banaketa. Mutil arrakastatsuek futbolean jokatzen dute, gainerakoek esku-pilotan. Noizbehinka futbolean aritzen direnak esku-pilotan ere ibiltzen dira, baina alderantziz inoiz ez. Itunpeko ikastetxe erlijiosoan jolastokiaren handitasunak beste kirol batzuetako espazioa eskaini arren, futbolak erdigune berezia hartzen du, batez ere eskolaz kanpoko jarduera bezala. Hockeyko jokalari gaztetxo baten aburuz, futbolean aritzea beste kirol batean ibiltzea baino arrakastatsuagoa da. Gainerako nerabeek iritzi berbera partekatzen dute, eta neskek arrakasta izateko moduetatik bereizten dituzte:

“En algunas clases se conocen más a unas que a otras. Chicos los populares son los que juegan al fútbol, se les conoce más. Porque quizás uno que juegue a hockey, no se le conoce tanto. Los que juegan al fútbol, que tienen equipo. De chicas cada una está a los suyo y no hay mucho. Sí, a los chicos se les conocen más porque juegan al fútbol. Entre las chicas como siempre hablamos, no hay mucha diferencia. Salvo alguna que se queda atrás. No salen nunca y por eso no se les conoce mucho. Igual

⁶¹ Aipa dezadan, bide batez, tokian tokiko lanean ikusitakoa. Jolas-ordu guztietan futbolean aritzen zen ikastolako mutil taldea, eta behin baloia ahaztu zitzaien. Denak futbol zelaira begira eseri ziren, euren artean hitz egin gabe apena, irudi adierazgarria.

alguna se le conoce más por salir más los sábados. Por ejemplo, si no salen los sábados, a ellas se les conoce solo del colegio, entonces se les conoce menos. Nosotras no intentamos ser populares, intentamos ser lo más normales posible. Cuanto más normales mejor.” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Bestetik, neskek ez nabarmentzeko joera dute, Sofiak dioenez. Uhlek (1991) azpimarraturiko emakumeen adiskidetasunaren konfigurazioaren ikusezintasunaren zantzuak azaltzen dira. Ikerketako nesken artean ere “*Guk ez dugu ezer egiten*” edo “*Gu aspertu egiten gara*” bezalako baieztapenak egiten dira, elkarrekin hitz egiten egotea nahikoa ez balitz bezala, eta beraien jarduera mutilen aisialdiko ekintzakin (futbolarekin, esku-pilotarekin...) alderatzearen ondorioa litzateke hori. Mutilek ere badute sinesmen hori, “*Las chicas no hacen nada, son unas aburridas*”, nesken arteko harremanak gutxietsiz. Neska eta mutilen arteko ezberdintasunak justifikatzeko erabiltzen dituzte argudio horiek:

“Los fines de semana salgo con las amigas que estamos en el recreo, las de clase. Solo somos chicas, los chicos a veces vienen. Pero ellos pasan de nosotras y nosotras de ellos. Hay algunos que vienen a veces, igual se aburren o algo así. Porque nosotras estamos hablando siempre de cosas de chicas, de ropa o de cosas así. Y a ellos no les interesa mucho, no les interesa la ropa de chicas. No les interesa que vayamos al centro comercial a comprarnos algo. También hablamos de chicos o de malos rollos, de por ahí. Si sale la conversación del telediario también, pero no mucho.”(Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Lagunak sailkatzeako modu konplexuagoa dutela onartzen dute ikerketako neskek. Uhlek (1991) Andaluziako kasuan planteatu duen bezala, adiskideak sailkatzerako unean gizonezkoen artean orokortzeko joera dago; horrela, gizonezkoek adiskidetzat jotzen dituzte esparru ezberdinan dituzten harremanak (laneko lagunak, gaztetako lagunak...) eta horrek gizonezkoen lagun sarea zabalagoa izatea dakar (1991:94). Nesken laguntasunaren ulerpena zehatzagoa da. Adiskidetasunaren konfigurazio horrek emakumezkoen harremanen eremu murritzagoa dakar; ikerketako nesken arabera, laguntasunak elkarren ezagutza baino gehiago adierazten baitu:

“Las relaciones entre chicas y chicos no son iguales. Los chicos, si te llevas bien con ellos... las chicas somos más... tú apartas un poco, en plan esta es mi amiga, aunque ha esta la conozco... a los chicos les da igual, es: tú eres mi amigo y te conozco. Las chicas es: pero esta es mi amiga pero no le puedo contar ciertas cosas, a los chicos le da igual es su amigo o no es su amigo y ya está. No es su amiga, su mejor amiga, la otra para contarle cosas, la otra para jugar... Los chicos no tienen mejor amigo, si es su amigo le cuenta todo juega con él a fútbol, habla con él y queda con él. Si no son amigos pues ni les dirige la palabra, y yo por ejemplo con otras te ves por la calle y te saludas, no le cuentas nada, luego a tu mejor amiga le cuentas las cosas.” (Iratzi, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Oro har, nesken eta mutilen adiskidetasuna ulertzeko banaketa horrek antzekotasunak ditu espazio pribatu eta publikoarekin. Era berean, eremu pribatu eta publikoaren artikulazia beste modu batean gertatzen dela esan daiteke, eremu pribatutzat jotzen da intimitatea, eta, ekintza, aldiz, espazio publikoaren erabilerari dago lotuta. Horrela, mutilak espazio publikoan egoteko eta mugitzeko trebatzen dira, eta, bidenabar, etorkizunean espazio horietan egoteko erosotasuna garatzen dute. Cucóren arabera, hainbat ikerketa antropológikotan, eremu publikoan gertatu direlako oinarritu izan dira laguntasun maskulinoan (1995:75). Publikotasun horrek antropologoen begi bistan jarri ditu mutilen arteko harremanak, eta komunitateen azterketetan toki gailena izatera eraman du. Antropologoek adiskidetasun maskulinoetan inplikatzeko eta ikertzeko erraztasunak izan dituztela esan daiteke, nahiz eta ikerketa honetan metodologikoki kontrakoa gertatu den⁶². Uhlen (1991) arabera, ikerketetan, emakumezkoen harremanak baztertu egin dira, bereziki, emakume helduei atxikitzen zaien emazte edo amaren paperagatik. Berak egindako ikerketan, elkarritzetutako emakume andaluziarrek adiskide-harremanak izatea ukatu zuten, ama-emazte identitatea guztiz barneratuta baitzuten. Testuinguru horretan, baldintzarik gabeko prestasundun eta sakrifikatu bezala eraikitzen da ama-emazte izaera hori. Horregatik, aisialdiaren eta espacio publikoarekin lotu ohi den adiskidetasuna ukatzen zuten emakumeek. Horren aurrean,

⁶² Metodologiako kapitulua azaldu denez, mutilen jarduerak kirolak eta ekintzek duten tokiagatik, behaketa parte hartzalea egitean antropologoaren lana oztopatua izan dela esan daiteke, haien hitz egiteko tarte urriengatik. Laguntasunei erreparatzeko orduan, marko egokiagoa eskaini dute nesken arteko harremanek. Nesken hizketaldiek laguntasunaren, maitasunaren eta beste gai batzuen inguruari aritzean, modu agerriagoan islatu dituzte euren arteko loturak eta gatazkak. Mutilei dagokienez, ordea, futbolean edo bestelako kiroletan aritzeak euren arteko sentimendu eta harremanetan sakontzea galarazi zuen.

Uhlek nabarmendu du errealtatean emakume horiek lagun loturak zituztela, baina etxeko eremu hurbilaren baitan (auzokideekin, zenbait seniderekin...), nahiz eta horiek ez zituzten horrela definitzen. Gainera, emakume helduen bizipenetan oinarrituz, ezkontzak haien lagun-harremanak eteteko duen joera azpimarratzen du autoreak, eta seme-alabak hazita daudela zenbaitek erlazio horiek berreskuratzeko ahaleginak egiten zituztela, gizonezkoen artean horrelako eten unerik gertatzen ez den bitartean.

Halaber, aipagarria da aisialdiaren espazio berriek azken urteetan jaso duten etxekotzea, eta adiskide-praktika asko etxeen egitera bideratu ditu domestizazio horrek (Cucó, 1995:79). Ikerketako nerabe mutilen artean ohikoa da norbaiten etxeen bideo-jokoetara jolastea. Aisialdiaren eraldaketek adiskidetasunaren birmoldaketa berriak dakartzate:

“Seguro que las chicas hacen cosas diferentes que los chicos, se quedan en sus casas a hablar de cosas de chicas. Yo, no sé, son cosas de chicas, porque yo tengo una hermana pero es pequeña está en quinto. Pero supongo que cosas de chicas serán los chicos, obviamente como cosas de chicos son las chicas, pues más belleza seguro, cotilleos sobre otras amigas, las cosas que hacen ellas que no sé muy bien cuáles son, pero hablarán de las cosas que hacen, pero más su tipo de cosas. El tipo de cosas que hacen son diferentes a las que hacemos los chicos, los chicos somos más de quedar y no hablar, hacer algo completamente diferente y no hablar, quedar comprar chuches y luego e ir a algún sitio, a casa de un amigo a jugar. En cambio las chicas son más de quedarse hablando con no sé quien, en un sofá, charlando, o cotilleando de otra persona. Son cosas diferentes.” (Javier, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horrela, hainbat eremutan nagusitzen da nesken eta mutilen adiskidetasunaren ulerpen ezberdindua, genero identitate bereiziak indartuz.

Adiskidetasunaren ulerkera ezberdinduagatik, nerabeek uste dute nesken arteko harremanak modu simplean edo errazean gauzatzen dituztela; eta mutilenak, ordea, irekiagoak direla, eta modu demokratikoagoan gertatzen direla. Hori guztia lotuta dago Mendebaldeko adiskidetasuna eredu maskulinoarekin identifikatu izanarekin, hala nola, emakumeen arteko laguntasunaren inguruan eratutako gaitzespen mitoengatik. Horrela,

mutilen arteko adiskidetasuna goraipatzen da, ezaugarri demokratiko eta irekiak azpimarratuz, neskekin lotzen den laguntasun eredua gutxietsi egiten delarik.

Estebanek, Bullenek, Diezek, Hernandezek eta Imazek (2013) eginiko lanean, laguntasun ezberdindu hori estereotipo hutsei edo ideal kulturalari jarraiki eraikitzen dela adierazi dute. Ikerketa honetan ere, neskek euren burua mutilak baino konplexuagoak izatearekin arrazoitzen dute, eta adiskidetasunaren ideal demokratiko horretan sartzeko zailtasunak izatea onartzen dute:

“Gu gara tikismikisak lagunekin. Adibidez mutilak dira guztiak guztiekin. Neska gara... ez da apartatzea baina aukeratzeko ezberdina da. Ni ez noa lagunekin gauza batengatik, baina ere bai gara. Guri adibidez ez zaigu etorri neska berri bat ere ez. Adibidez etorri izan dira mutil berriak eta da “kaixo, benga! Etorri jolastera!” Nola da futbola, ez da izan behar ez pertsona ona ez, txarra, ez popularra ez ezer, nola futbolean hori ez denez ikusten, bakarrik da ondo jolastea. (...) Neskak bai egon ahal gara beraiekin, adibidez jantoki batzuetan ondo. Beste batzuetan da a fútbol eta ya está, nola sartuko zara hor? Jolasten sartzen zara eta ya está? Eta gainera gero entzun beharrekoak, “si no sirve para nada, es una...”. Hori ez. Gero beraiek gugana datozenean hitz egitera ere da apur bat... txarragoa” (Leire, 12 urte, ikastola)

Estebanek eta Diezek (2014) aipatu dutenez, honakoa izan daiteke adiskidetasunaren banaketa hori gertatzeko arrazoietako bat: batetik, neskek komunikazioa harremanak eratzeko oinarri sendoa izanik, bizitzaren alderdi intimoak partekatzen dituzte, eta horiek harremanen sendotasunaren adierazle dira, baina baita zaurgarritasunarena ere. Bestetik, mutilen harremanak fisikoagoak dira, ekintzetan oinarritutakoak, eta ez dute hainbeste “hitz egiten” eta “sentitzen”. Elkarrekiko sentimenduen eta arazoien berri ez izateagatik, haien arteko gatazkak beste ildo batzuetakoak dira. Aferak ez dira hain pertsonalak izaten, eta ekintzei lotuta egoten dira, hau da, arazoak azalekoak izan daitezke, eta horrek gatazkak errazago konpontzea ekar dezake (ibidem). Sinesmen horiengatik, nesken adiskidetasunaren inguruko estereotipoak nagusitzen dira gaztetxoen artean. Gaiztoak, gatazkatsuak, lehiakorrak eta bestelako ezaugarri ezkorraak izatean leporatzen zaie, nesken arteko laguntasuna eragotziz, horren inguruko

Mendebaldeko mito eta estereotipoak eta gutxiesteko joera ageria jarriz (Cucó, 1995:73):

“Siempre estaba en la clase en la que todo el mundo era falso y así, las chicas sobre todo. Por eso me he llevado mejor con los chicos que con las chicas. Los chicos son más de decir la verdad, no te miente... Las chicas son más de ‘oye que esta me ha dicho esto... ¿Luego le pegamos?’ Son mucho de hablar de vamos a pegar a esta, pero luego no hacen nada.”

(Esther, 14 urte, institutu publikoa)

Horrek guztiak ez du esan nahi mutilen artean gatazkariak ez denik, konponbidea ezberdina dela baizik: *“Mutilek ostikada batekin konpontzen dituzte gauzak, guk ez; gu azkarragoak gara eta min eman nahi badiogu pertsona bati beste modu bat erabiltzen dugu”* (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa). Mutilen arteko adiskidetasuna “osasuntsuagoa” den sinesmena dago, eta uste da nesken arteko gatazkek, aldiz, denbora gehiago irauten dutela, harremanen kudeaketa modu zehatzagoan gauzatzen delako: negoziazioa dago mutilei atxikitzen zaien ukaldi borrokekin alderaturik. Nesken artean intimitatearen eta maitasunaren negoziazioa ageriagoa den heinean, adiskidetasunaren kontzeptualizazio konplexuagoa dutela esan daiteke. Nesken lagunen artean eskaera maila handiagoa da eta itxarobide zehatzak daude jokatzeko moduei begira. Horrela, nesken artean, lagun arteko fideltasuna eta konpromisoa azpimarratzen dituzte:

“Quedo más con mis amigas que con mi novio. Para que ellas no se sientan solas y digan que la he abandonado. Pero a él tampoco le voy a dejar solo. Empecé a quedar un poquito más pero casi nada, y se enfadaron conmigo y tuve que dejar de quedar con él, si es que nunca puedo quedar con él. Por ejemplo a la hora de comer siempre estaba con él al principio y después de comer. Y ellas se enfadaron conmigo y yo, como diciendo, si vosotras me decís que esté con él... Y pensé pues me estoy con él un ratillo pequeño y luego voy con estas.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“La última vez fue el año pasado por Navidad; nos dividimos porque Maider estaba mucho con los chicos. Entonces como estaba más con los chicos que con las chicas pues nos picamos, entonces empezamos a decir cosas que no deberíamos haber dicho, como que es un poco puta, como que

tiene la nariz rara, que tiene la cara tipo ratón. Eso lo dijo mi hermano y yo lo conté. Y Maider se enfadó con nosotras. Pero nosotras estábamos enfadadas por eso. Pero luego al de una semana estaba normal. Pasa el tiempo y ya te hablas normal, porque necesitas algo de esa persona o esa persona necesita algo de ti.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Zaintza, leialtasuna, konpromisoa, fidelitasuna eta elkarrekikotasuna adiskidetasunerako giltzarritzat hartzen dituzte, eta parametro horietatik ihes eginez gero, bazterketarako arriskua dute. Irainak, zurrumurruak, haserreak... piztu daitezke lagun batek behar bezala jokatzen ez badu. Ikerketako neska batek bere ikasturteko nesken bazterketa jasan zuen, jolas-ordu batzuetan beste ikas-maila batzuetako neskekin egoten zelako. Bere gelako nesken arabera, eurekin joaterakoan “*akoplatu*” egiten zen, horrela lagun talde horretatik kanporatu egin zuten traizioaren eta leialtasun faltagatik.

Laguntasunaren aurrean nahi ezberdinak dituzte neskek eta mutilek, eta horrek oztopoak dakartza batzuetan elkarren adiskideak izateko, itxarobide ezberdinak dituztelako. Esate baterako, neskek laguntasuna ulertzeko dituzten moduak modu zehatzean ahalbidetzen ditu harremanak, eta zenbait mutil kanpoan geratzen dira. Nesken arteko hizketaldietan intimitatea, gorputz-irudia eta maitasunarekin loturiko gaiak nagusitzen dira, sarritan mutilen aldetik gutxietsi egiten direnak, eta emozioen espezializazioaren irudia indartzen da emakumeengan.

“Adibidez mutilek lotsa gutxiago daukate eta neskei arrankatzea gehiago kostatzen zaie. Adibidez beste pertsona batekin hitz egiteko mutilak, ez guztiak batzuk lotsatiak direlako, adibidez esaten dute ‘echamos un partido’ eta listo, guri kostatzen zaigu gehiago.” (Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

“Neskak hitz egiten dugu gauza batzuez, ez dakit gai serioak edo guretzat serioak diren gaiez. Gero mutilek entzuten badute barre egiten dute. Adibidez hilekoaren inguruau hitz egitean lehen barre egiten zuten. Oso arraroak dira mutilak. Hitz egiteko gaiak ezberdinak dira. Gure gaiak beti dira kotilleo moduan, asteburu batean bat egoten da edo liatu dela eta guk kontatzen dugu. Mutilak ez dakit, normalean futbola edo eskupilotari buruz aritzen dira.” (Esti, 14 urte, institutu publikoa)

“Adibidez mutilekin lagunak izatea niretzako da inposible, bai hitz egin ahal dut baina amigo best forever inposible. Adibidez Maialenek dauka lagun bat eta da para todo con él, como si fuera una chica. Sartzen da berarekin txiza egitera eta dena. Kontatzen dio dena, mutil bat gustatzen bazaio... Tu tato, tu hermano, que no le quieres como... que quieres tenera tu lado a un chico guapo, pero sin ser tu novio por si viene otro.”(Leire, 12 urte ikastola)

Banaketa horrek, maila batean, trabak jartzen dizkio neska eta mutilen arteko adiskidetasunari, baina horrekin ez da ukatu nahi lagun talde mistorik egotea. Izan ere, nahiz eta joera dikotomiko horiek indarrean egon, ez dago laguntasunaren eredu hertsirik. Horren adibide da, esate baterako, nesken taldean ibiltzen den mutilaren kasua edota mutil taldean aritzen den neskarena. Ohikoena izaten da talde horietako kodeak barneratzea eta maneiatzea:

“¿Amigos? Pues son como mis hermanos para mí, en los que puedo confiar y les puedo contar cosas, con los que me puedo reír, los que puedo llorar, con los que puedo hacer de todo. Esta para los momentos buenos y para los momentos malos, para las risas, para todo, para apoyarnos los unos a los otros y para no estar solos. Yo lo veo así, porque vivir en este mundo amargado y solo, y así como que no. (...) Con las chicas hay que estar como más formal, y con los chicos como más juguetón, como más bruto, lo veo así. Yo cuando estoy con los chicos, soy un poco así. Bruto soy siempre, pero con las chicas me cuido más, soy más formal, guardo más las formas.”

(Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

“Nik jolasketetan egoten naiz futbolean jolasten edo bestela ikasi. Neska eta mutilen artean banaketa dagoela ikusten dut, Leire eta hauek egoten dira hemen eta besteak futbolean jolasten, ni mutilekin futbolean jolasten. Neskak beti daude que si los exámenes, que si no sé qué. Niri gehiago gustatzen zait futbola, futbolagatik neskak futbolean jolasten egongo balira nik ere jolasten egongo nintzateke. (...) Harremanak nesken eta mutilen artean batzuetan berdinak izaten dira. Bainaz ez dute gauza berdinez hitz egiten. Ze mutilak hitz egiten dute de las chicas eta besteak de los chicos. Ni mutilekin nagoenean neskei buruz hitz egiten dute. Neskak gehiago hitz

egiten dute aurpegiari buruz eta mutilek titien eta aurpegiaren inguruan. (...) Sekretuak daude gure artean, normalean adibidez de insultos eta de peleas, baina nireak ez, de otras personas borrokatu direnak, eta ezer gehiago. De amor ninguna, horrelakorik ez, horrelakoen inguruan ez dut hitz egiten. Ez zait gustatzen, ez daukat hori buruan. Normalean jendearen sekretuak izaten dira gauza berdineng inguruan. Mutilen sekretuak eta nesken sekretuak ez dira izaten gauza berdineng inguruan. Neskenak dira me gusta este eta mutilenak berdinak baina neskekin. (eta zu zer zara?) Ez dakit. Ez zait gustatzen hori esatea.” (Itziar, 12 urte, ikastola)

Era horretara, laguntasun moldeak imitatu eta errepikatu egiten direla esan daiteke, generoa bezala.

4.2 Sekretuak: isilpeko maitasun-aferak eta harremanen antolaketa

Sekretuak garrantzitsuak dira nerabezaroko adiskidetzan, non konfiantza, leialtasuna eta intimitatea partekatzea gakoa den harremanen garapenean. Hartara, oso ohikoa da isilpekoak edukitzea adin tarte horretako nerabeek eta, batez ere, neskek. Sarritan, ezkutu horiek, helduen ikuspuntutik begiratuta, hutsaltzat jotzen diren arren, gaztetxoen harremanen sorreran eta antolaketan eragin nabarmena izaten dute. Claude Giraud soziologoak, *Acerca del secreto* (2007) lanean, sekretuaren eginkizuna aztertu du hainbat erakundetan, esate baterako, burokrazian edota mugimendu sozialetan. Autorearen aburuz, isilpekoaren erabilera ordenu sozialen arabera aldatzen da (ibidem:54), harremanak sekretuen inguruan artikulatzen direlako. Giraudi jarraiki, maila sozialean debekatu den horixe irudikatzen dute, modu irekian esan ezin dena, alegia. Gizartearen onarpenaren mugak agerian jartzen ditu, zilegi denaren eta ez denaren artean. Hortaz, esan daiteke isilpekoak konplexutasunean eratzen den praktika soziala dela:

“El secreto no se comprende sólo como un discurso indirecto o una palabra retenida sino como una práctica social, es decir, como una variedad de usos sociales que tienen su estética. Estos usos resultan de la palabra y del silencio, de la mentira y del travestismo, de la norma política y de la

estrategia, de la identidad social, de la iniciación, del desvío, etc.”
(ibidem:53)

Edukiak ez ezik, sekretuaren agertoki soziala ere gakoa da; izan ere, transmisió horrek biltzen duen konplexutasuna aintzat hartu beharra dago. Batetik, debekua dela-eta, misterioa sortzen da, eta horregatik da erakargarria; eta, bidenabar, partaide izatearen sentimendua bultzatzen du, lotura sentsazioa sortzen baitu ezagutza partekatzen dutenen artean, batzuen bazterketa bideratzen duen bitartean (Giraud, 2007:18). Hartara, ezkutuaren berezitasuna ez da edukia soilik, baizik eta isilpekoak egiten duen ibilbidea bera (ibidem:20). Horrek guztiak gazttxoen laguntasun harremanak antolatu eta hierarkizatzen ditu, Beatriz Medranok egindako *Nesken arteko adiskidetasuna, sartz-bazterte prozesuak, boterea eta genero aginduak* (2009) lanean erakutsi zuen bezala, non 12-13 urteko nesken adiskidetasuna azertzen duen genero arauei erreparatuz.

4.2.1 Isilpeko gaiak: gorputz bizipenak eta genero kontuak

“*Te tengo que contar*”, “*Ez dakizu zer gertatu den*” edo “*Hitz egin behar dugu*” bezalako esamoldeekin hasten dira ikerketako nerabeen sekretuak. Kontakizun horiek aitorpen forma hartzen dute, aitorta-kristauak bezala: ekintza individuala izan arren, funtzio soziala du kristau komunitatearen baitan (Giraud, 2007:26). Gaztetxoen kasuan, kristautasunaren eredutik urrundu egiten da aitorpen horien eraketa, maila batean; ez baitago aitorta hori doitzen duen figura zuenik -apaizak duena esaterako-. Alta, praktikan antzerako aspektuak errepikatzen dira. Izan ere, Mendebaldeko gizartean, aitorta hainbat modutan dago hedaturik subjektibotasun modernoaren baitan. Foucaultek (2009) ere sexualitate diskursoetan aitortzak izandako kokalekua aztertu du eta, haren arabera, norbanakoak bere burua agerian jartzeko beharra sentitzen du, norberaren askapen une bat bezala (ibidem:63).

“(...) la confesión se convirtió en Occidente, en una de las técnicas altamente valoradas para producir lo verdadero. Desde entonces hemos llegado a ser una sociedad singularmente confesante. La confesión difundió hasta muy lejos sus efectos de justicia, en la medicina, en la pedagogía, en

las relaciones familiares, en las relaciones amorosas, en el orden de lo más cotidiano, en las más solemnes; se confiesan las enfermedades y las miserias; la gente se esfuerza en decir con la mayor exactitud lo más difícil de decir, y se confiesa en público y en privado, a padres, educadores, médicos, seres amados; y, en el placer a la pena, uno se hace a sí mismo confesiones imposibles de hacer a otro, y con ellas escribe libros.”

(Foucault, 2009:62)

Esan bezala, ohikoa da nerabeek adiskideen artean aitorpenak egitea, batez ere, gorputzari eta intimitateari loturikoak, nesken artean. Adiskidetasunaren konfigurazio ezberdinduagatik eta intimitatearen eta emozioen kudeaketak duen garrantziagatik, nesken helburua lagunekin egotean barrenak hustea eta lasaitzea izaten da: “*Lagunak desahogatzeko daude*” (Mireia, 13 urte, institutu publikoa). Horregatik, mutilen diskurtsoekin alderaturik, isilpekoak izatea praktika ohikoagoa da nesken artean. Gustu afektibo-sexualei, maitemintzeei, sexualitateari eta bestelako gaiei buruzko konfidentziak direnez, eta jadanik azaldu den emozioen espezializazioa dela-eta, neskak daude sekretuen zirkulazioaren erdigunean:

“Mutilek adibidez neskak baino askoz sekretu gutxiago dakite. Adibidez gai batzuk soilik nesken artean aipatzen ditut. Adibidez, hilerokoa edo mutilak.”
(Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

“Mis amigas saben gran parte de mi vida sobretodo. Pues por ejemplo que me ha salido no sé que ahí, o algo que a mi amiga le ha bajado la regla hace poco pues me pregunto a ver que tenía que hacer y esas cosas. Es que como estaba sola en casa y su madre nunca suele coger el móvil, pues me llamo a mí, y yo le dije que tranquila pues haz esto y lo otro. U otros secretos suelen ser cosas que me ha dicho mi novio y así, o cosas del chico que le gusta a ella. De novios y amor.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Yo con las chicas les puedo contar más cosas y a los chicos no porque no les pasa las mismas cosas que a mí. Por ejemplo, los cambios en el cuerpo. Por ejemplo si me gusta un chico los chicos enseguida se lo van a decir a él. Porque como son sus amigos... Por ejemplo Borja es una excepción, él no se lo dice a nadie.” (Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

Gorputz aldaketak, maitasuna eta sexualitatea errepikatzen diren gaiak dira, eta, horien artean, hilekoa eta mutilen inguruko gustuak nagusitzen dira gehienbat nesken narrazioetan. Girauden arabera, adin horretan bizi dituzten hainbat aldaketa sekretu bihurtzen dituzte; horiek isilpean izatea gorputza maneiatzeko saiakerak baitira, haurtzaroa uzteko erresistentzia txikiak finean (2007:55). Halaber, gai horiek ezkutuan izatea gizarte ereduaren adierazlea da, sozialki isilarazi nahi dena baita. Konfidentzia horiek oso lotuta daude nerabetasunaren iruditegiarekin: sexualitatea eta maitasuna helduen praktikatzat hartzen direnez adin horretan, gai horiek isilarazita daude. Horrela, Foucaulti jarraiki, gizarte modernoan, haur zein nerabeen sexualitatea ez da ukatu, izan ere, diskurso horiek sekretu bilakatu dira (2009:36).

Isilarazitako bizitzaren aspektu horiek ere hertsiki lotuta daude genero identitatearen eraikuntzarekin; izan ere, gorputza, maitasuna, hilekoa edota sexualitatea emakume bihurtzeko ezaugarriak dira. Nesken artean, sekretuak intimitatea konpartitzeko bitartekariak dira. Esan bezala, isilpeko nagusietako bat hilekoa da, mutilei kontatzeko erresistentzia handienak dituena. Izan ere, nesken hilekoa ulertzeko dituzten moduak lotuta daude emakumeen gorputzeko tabuei, zein higienearren ulerkerari ere (Merskin, 1999), eta, horregatik, sekretu bihurtzen dira horiek. Mutilei ez kontatzeko aitzakia gisa, haien ulerpen eza eta sekretua lau haizetara zabaltzeko arriskua nabarmentzen dituzte. Hartara, nesken praktikatzat hartzen da isilpeko mandatuak izatea, eta “nesken gauzakin” lotzen da hori. Horrek ez du esan nahi mutilen arteko sekreturik ez dagoenik. Mutilen artean ere badira intimitarako uneak, baina beste molde batzuk dituztenak:

“No lo sé si tenemos secretos. Normalmente suelen ser de quién te gusta, que son unos cabrones todos, que se lo dices a uno y se acaban enterando todos. Yo solo se lo suelo decir a Ignacio, y él a mí. Pero los otros los cuentan. Entre nosotros Ugarte igual se entera de más cosas, como suele estar con las tías, sabe más de las tías que de nosotros. Sabe más pero le matan... (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Yo no tengo secretos, lo de gustar y eso no es un secreto porque sabemos quién le gusta a cada uno, pero todos saben quién me gusta. Lo saben todos de mi cuadrilla, es secreto de cuadrilla (...) No hay secretos pero solo sabemos los de la cuadrilla quien le gusta a quien. Las chicas no saben quién me gusta, solo si alguien ha dicho algo de la cuadrilla. Estamos en

cuadrilla y decimos venga quien te gusta a ti a ti y a ti. Hacemos una ronda. A veces nos sorprendemos con las que gustan. Igual porque es un coco, porque es muy fea pero le puede gustar. O igual porque la chavala es mala. Borja sabe muchos secretos, le cuentan todo. Yo también sé algunos pero no tantos. Los secretos son más de chicas pero si te lo cuenta a ti, el secreto de la chica lo tienes tú también, entonces... las chicas cuentan más secretos, los chicos contamos menos. Yo no les cuento secretos a ellas. Igual hay gente que sí, pero no creo.” (Iker, 13 urte, institutu publikoa)

Mutilen arteko narrazio horiek, batez ere, taldean kontatzen dira eta sexualitateak toki nabarmenagoa izaten du. Nahiz eta mutilek adierazten duten kuxeluak “nesken gauzak” direla, onartu egiten dute badaudela kontakizun edo konfidentzia batzuk zenbait lagun hurbilekin baino partekatzen ez dituztenak. Horrela, ohikoa da mutilek ere maitasun-aferek neskekin konpartitzea, alderdi emozionaletan “espezialistatzat” hartzen dituztelako neskak:

“Estoy formulando con mis amigas cómo les gusta a las chicas, cómo harían una primera cita buena, cómo pedirle salir a una chica, cómo ser romántico, qué cosas no hay que hacer... De eso me informo con mis amigas, tengo un montón de amigas chicas. Con todas esas confío un montón en ellas, y se lo pregunto y ellas me lo dicen. Irene me aconsejó que le pidiera salir en la playa, que en la arena haría un coroncito, y que sí quería salir conmigo, en plan romántico. Otra chica me dijo que si en el verano no la iba a ver mucho que esperase a segundo de la ESO para verla todos los días, otra me dijo que no hiciese porque sino la iba a perder como amiga y me iba a ver de otra forma. Me han dado un montón de opiniones distintas (...) Es diferente, no le vas a preguntar a un chico un consejo de cómo pedirle a una chica, yo le pediré a una chica el consejo de que le gustaría, a una chica. Cómo le gustaría a ella que le pidieran salir. Pero en plan un poco general no específicamente por ella, a los chicos además... te digo yo que a mis amigos el romanticismo... nada. El amor no saben lo que es. Se ve que no están interesados en las chicas, no hablan con ellas, no intentan ligar, les preguntan si tienen novia y no quieren saber nada de eso.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Arestian esan bezala, “emozioen espezializazio” horrek genero desabantaila egoeretara bideratzen ditu neskak, gehiegizko emozionalitatearen zaurgarritasunaren bidez. Halaber, sekretuen eta ezagutza horien kudeaketari dagokionez, espezializazio horrek gune pribilegiatuau uzten ditu neskak, maitasunaren aditu bezala jokatzen baitute, sarritan, mutilen ezjakintasunaren aurrean.

4.2.2 Zirkulazio bideak: ahozko eta idatzizko sekretuak

Erving Goffmanen (1973) ideiek gidaturik, Giraudek sekretuen elkarrekintza aztertu du; izan ere, isilpekoen transmisioa agertoki sozialean gauzatzen da, non harremanen materializazioa, sinbolizazioa zein artikulaziaoa gertatzen diren (Giraud, 2007:27). Horrela, bizitza soziala hainbat ezkutu hutsalen bidez artikulatzen da, eta pertsonak dira horien zirkulazioaren aktoreak; eta kuxeluen eszenifikazioa aktoreen eta harreman partikularren taularatzea litzateke, Goffmanen teoriari jarraiki (in Giraud, 2007:155). Nerabeen eta, batez ere, nesken kasuan, sekretuak transmititzeko prozesua errepikakorra izaten da, eta bi bide nagusi atzeman dira: ahozkoa eta idatzizkoa.

Batetik, ahozko prozedurari dagokionez, prozesua ondorengoa da: gaztetxo bat beste bati “*Hitz egin behar dugu*” esanez hurbiltzen zaio eta, horrela, talde handitik aldendu egiten dira. Medranok (2009) ere prozesu bera atzman zuen bere ikerlanean. Une horretan beste lagunen bat ere hurbildu daiteke, beti baimena eskatuz, “*¿Puedo estar?*” edo antzerakoak esanez. Sekretua kontatuko duenak erabakiko du hirugarren pertsona hori egon daitekeen ala ez. Taldetxo horiek bi edo hiru pertsonak eratzen dituzte, eta gainerako nerabeei hurbiltzea ukatzen diete, zilegi eginez debeku hori “*Están hablando*” bezalako baieztapenekin. Esamolde horrek argi uzten du pertsona horiek kuxeluak partekatzen ari direla eta besteen presentzia tokiz kanpo dagoela:

“Algunas veces porque tú puedes tener un secreto, y te dicen en el momento e igual estamos unas cinco y vienen otra corriendo y nos dice ‘¡ay chicas que os tengo que contar un secreto a Izaskun y Natalia!', y las otras se quedan como... que las demás también estamos aquí no lo puedes contar en otro momento. Tú te sientes mal porque se lo están contando a otras y a

ti no, es como... ” (Irati, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoko nesken eztabaidea taldean)

Idatziz da ezkutuak transmititzeko beste modua. Bide hori eskola orduetan erabiltzen dute; neskek, batez ere, elkarri mezuak edo gutunak bidaltzen dizkiote paper zatietan idatzirik. Hala ere, mezuak lapurtzeko arriskuagatik, idatzitako sekretuek intimitate maila txikiago izan ohi dute. Neskek ohartxo horiek lapurtzeko arriskua hautematen dute eta, babes bezala, ohartxoetan isilpe hutsalak idazten dituzte. Garrantzitsuak direnak kontatzeko ez dute idatzizko bidea aukeratzen. Adierazgarria da nola kontatu duen Asier 13 urteko behe-klaseko mutilak, harrotasun puntu batekin, nesken estutxeetatik ohartxoak lapurtzen dituztela. Horrela, neskek dituzten isilpeak ezagutzen dituztela dio, eta neskak ez direla horretaz jabetzen, gero berriz ere ohartxoak bertan uzten dituztelako. Era horretara, mutilek egiten duten informazio lapurreta aldez aurretik baldintzatuta dago, neskek hartzen dituzten babes neurriengatik. Gutunen eta sekretuen zabalpena jolas bezala interpretatu daitekeen arren, Medranok (2009) bere lanean nesken intimitatearen kontrako erasotzat hartu du. Nesken kuxeluak “nesken gauzak” izateagatik gutxietsi egiten dira, eta mutilek nesken intimitaterako espazioa okupatuz, neskak lotsarazten saiatzen dira horien ustezko ahulezia agerian uzte aldera (ibidem:49). Badirudi eraso txiki horien bitartez, mutilek gizon identitatea eraikitzen dutela.

Isilpekoak idatziz partekatzeko nagusitzen den beste bide bat sare sozialak dira, batik bat, Tuentiko txat pribatuko elkarritzeten bitartez. Idatzizko elkarritzketak aurrez aurre ez izatea abantaila da beraientzat, lotsa gutxiago dutelako horrela. Sekretuen transmisorako bide hori, besteekin alderaturik, ikusteko zailena eta diskretuena da eta, horregatik, bide hori da mutilen artean gehien erabiltzen dena. Izan ere, “nesken gauzak” direnetatik aldentzeko eta bereizteko estrategia da era ez-ikusgarrian gauzatzea:

“Las chicas tienen secretos. Los chicos no vamos a decirle a nadie a la oreja ‘no sé qué no sé cuantos’. Las chicas dicen ‘ven, ven’, y los chicos no hacemos eso. Los secretos suelen ser de te han pedido salir no sé quien, de que tienen novios... Nosotros hablamos por Tuenti o yo qué sé. Sin más. Pero cuando quedas también hablas con ellos, pero pueden estar ellas delante también. Al final todo el mundo se entera. Por ejemplo, igual una chica me dice por Tuenti: ‘¿Qué me cuentas? ¿Sabes que no sé quien le ha

pedido salir a no sé quién?'. " (Adrian, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

"Algunos secretos los comentamos por el Tuenti, ahí no está mirando nadie, es más fácil." (Mikel, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Euren maskulinitateari uko ez egiteko eta, bide batez, feminitatetik bereizteko erabiltzen dituzte estrategia horiek. Horrela, esan daiteke mutilek ere haien intimitatea partekatzen dutela maila batean, baina modu sotilagoan eta garrantzia handirik eman gabe.

4.2.3 Sekretuak adiskide harremanen antolaketan: konfiantza eta konfiantzarik gabeko zirkuluak

Sekretuen hedapena mugatua da, horixe baita isilpeko aferen funtsa. Girauden arabera, liluragarritasun kontua litzateke: zenbait ezagutzaren zirkulazioa mugatzen eta kontrolatzen delako, eta nahitaez zenbaiti informazio hori partekatzearen ukapena dakar. Zirkulua mugatuz, isilpekoaren alderdi misteriotsua eta erakargarritasuna indartzen dira (2007:24). Hartara, heterogeneoa eta konplexua da sekretuen zirkulazioa. Izan ere, esperientzia horren parte dira ez soilik edukia dakitenak, baizik eta ezkutuaren jabe izan nahi dutenak, eta izan nahi ez dutenak (Giraud, 2007:117):

"La experiencia del secreto es indisociable de la relación con los otros, los que están dentro del secreto, los que querrían formar parte de él, los que estarán involucrados por su recorrido, los que se querría que no estén, los que querrían simplemente comprender por qué no comprenden, los que denuncian lo que piensan que es un secreto" (ibidem)

Horrela, konfidentzien esperientzian nerabe gehienak implikatuta daude modu batean edo bestean, maila batean edo beste batean. Horrek guztiak adiskideen arteko botere harremanak modu agerian antolatzea dakar:

"El secreto estructura las relaciones sociales y crea un orden local en el cual cada protagonista dispone de señalamientos de acción ignorando cabalmente la dinámica de la relación pero siendo confrontado por a esa

incertidumbre y a los efectos inducidos. Si ello es así es porque el secreto participa de las relaciones de poder y de confianza, de indiferencia y de deseo, y porque es creador de situaciones singulares en el curso de las cuales la manipulación contribuye a la dificultad de indicar lo que es dicho, lo que es omitido, lo que es ocultado, lo que es travestido.” (Giraud, 2007:54).

Harremanak isilpeko ezagutza horien bitartez antolatzen dira, eta hierarkizazioak sortzen dira. Foucaulten (2009) aburuz, diskurtsoaren botere harremanek eratutako errituala da aitorta: konfesioan entzulearen beharra dago, solaskide hutsa ez litzatekeena, izan ere, aitorta inposatu, balioetsi eta eragin ahal du: epaitzeko, zigortzeko, barkatzeko... Beraz, nagusitasuna ez lego ke hitz egiten duenaren alde, baizik eta sekretua entzun eta isilik mantentzen denaren alde (ibidem:63). Zantzu horiek nerabeen adiskidetasun aitortzetan ere ageri dira, entzule den lagunak toki berezia baitu. Nahiz eta erakunde formaletako erritu-egitura ez izan (kristautasunean apaizaren kasuan, esate baterako), lagun entzulearen iritzia edota aholkua da isilpearren berriemaileak espero duena. “*Lagunek beraien iritzia ematen dizute*” argudioa errepikatzen dute gaztetxoek. Horrez gain, autoritate harremana dakar sekretua dakienaren aldetik, botere posizioan baitago, eta horrek lotura hertsia du lidergoarekin, nahiz eta sarritan nerabeak liderra dagoela ukatu (Medrano, 2009:44). Horren adibide argia da institutu publikoko neska-mutilen eztabaidea taldean gertatutakoa, gaztetxoek honakoa aitortu zuten-eta: “*Hay un círculo de personas que saben todos los secretos y, como los demás no los saben, estos tiene prioridad, a estos porque no lo saben, entonces así, se va haciendo una escala*”. Ainara 13 urteko neskari leporatzen zioten isilpeko gehien jakitea, besteen aburuz: “*Ainara liderra delako dakizki sekretuak*”. Aipagarria da Medranoren ikerketako neskek liderraren figura ukatu izana, eta mutilak izatea botere harreman horiek salatzen dituztenak (2009:61). Gure ikerketako beste lagun talde batean ere berdina gertatzen dela atzman da:

“Nire inguruan sekretuekin gehien enteratzen dena Maialen eta Iratxe dira. Nola dira como las más guays, denek esaten diete guztia. Guk ez diogu ezer kontatzen, baina klaseko ia guztiak kontatzen dizkiete gauzak. Neskak batez ere. Baina adibidez Leirek ia inoiz ez dauka sekreturik. Inoiz ez diot ikusi esaten etorri hona eta ez dakit zer. Jende guztiak egiten du etorri hona esan

behar dizudala gauza bat, esateko gauza bat jende guztiak egiten du hori, etortzeko esan.” (Karlos, 12 urte, ikastola)

Isilpeko ugari jakiteko, lehendabizi, sekretu horiek eratu behar dira. Beste gai batzuekin batera, bikote harreman afektibo sexualak izateak pisu handia du isilpekoen eraketan, eta harreman horien protagonistaz gain, esan bezala, konfesio horien entzuleak paper bereizgarria izango du harremanetan. Institutu publikoko Ainarak bere burua zuritzen zuen berari Olatzek kuxeluak kontatzen zizkiola esanez, bera baita bikote harreman afektibo sexualetan gehienbat ibiltzen dena. Kasu horretan, Olatzek sortzen zuen transmisioa, berak bere mutil lagunarekin izandako bizipenen berri emanez.

Halaber, sekretuaren zirkulazioa konfiantzaren eta fusioaren bidetik gauzatzen da, batez ere, autoritatea duen liderraren inguruan biltzen diren kasuetan (ibidem:166). Konfiantzak norbanakoak lasaiago egotera bultzatzen ditu, eta, elkarrekikotasun eta konfiantza horien ondorioz, erabaki demokratikotzat hartzea dakar (ibidem). Horrela, isilpekoak konfiantza sentimendua indartzen du eta “besteen” identifikazioa bultzatzen (etsai, guraso...), beste mundu ulerpena izateagatik, zirkulu horretatik kanpo geratzen dira-eta (ibidem:167). Ikerketako neskek isilpe konfidentialenak konfiantzazko lagunekin soilik partekatzen dituzte, Medranok (2009) bere ikerketan ikusi zuen bezala. Hala ere, institutu publikoko eztabaida taldean, Marina ere bazegoen, Olatzen lagunik onena; baina Marinak tristeki adierazi zuen, azkeneko boladan, Ainarari isilpeko gehiago kontatzen zizkiola Olatzek. Gainera, sekretuak ez zekizkitenek haserre adierazten zuten aisaldi uneetan, Olatz eta bere inguruko lagunak kuxeluak kontatzen egotearen ondorioz, sarritan, alde egin edota urrundu egin behar izaten zutela lagun taldetik. Marinak tonu tristez aipatu zuen hurrengoa: “*Askotan igual imajinatu, sekretu bat dago, eta daude hizketan horretaz eta orduan, bestea etortzen dira eta esaten digute joateko.*”

Hala ere, ez da betidanik horrela izan. Nerabe horien ustez, sekretuen praktikan aldaketak izan dituzte, lehendik ere isilpekoak sortzen baziren, baina, orain, horien transmisioa gero eta itxiagoa zela adierazten zuten: “*Es que antes igual teníamos un secreto y contábamos ese secreto y estábamos todos juntos, pero ahora los que tienen el secreto ya son más guays entonces los demás no les hacen nada*” (Erlantz, 12 urte, institutu publikoa). Zentzu horretan, mutilak dira gehienbat kexatzen direnak, ez baitute gustuko informazio zirkulazio horretatik kanpo egotea:

“Normalmente las chicas tienen prioridad las chicas a la hora de contar los secretos, y siempre se lo cuentan a las chicas pero los chicos también tienen derecho a saberlo. Por ejemplo estás un día que están de secretos y te marginan con otro tío, pues te vas y empiezas a hablar...” (Erlantz, 12 urte, institutu publikoa)

Horrela, konfiantza eta konfiantza gabeko zirkuluak eratzen dira, isilpekoak partekatzen dutenekin eta ez dutenekin (Medrano, 2009). Haatik, esan daiteke sekretuek partaidetza estrategia bultzatzen dutela, talde izaera indartzen dutelako (Giraud, 2007:40). Nerabeei dagokienez, badaude automatikoki isilpetik kanpo geratzen direnak –esan denez, mutilen gehiengoa eta neska batzuen kasuan–, eta, bestetik, kuxeluaren arauak hausten dituztenak. Hierarkia horiek bideratuta, talde batasuna eta mugak zehazten dira:

“Primero se enteran las tíos y luego algunos tíos. Yo soy de los chicos de los que me entero de los primeros. Las de A son las chicas que más saben, me llevo bien con casi todas. No tengo mucha relación pero me caen bien. A Ignacio le cuento los secretos porque sé que no los va a contar. Si lo cuenta le pego. Cuando nos enfadamos nos pegamos, no en serio. Cuando nos enfadamos, nos pegamos unas collejas y luego se olvida. No creo que las chicas hagan eso.” (Gorka, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Mutilei buruz hitz egiten dugu, edo arazoren bat baldin badago. Edo notei buruz, edo zer egingo dugun. Edo kotileoak. Nik sekretuak nire lagun onenari kontatzen dizkiot. Badaude sekretu asko ahal diedala kontatu guztiei, ez gara asko eta bueno. Baino badaude gauza batzuk sekretuagoak direnak eta hori bakarrik nire lagun hoberenari. Mutilen inguruan, gustatzen zaizula pertsona bat, horren inguruan izaten dira sekretuak. Las makarras o así. Euretariko bat dena jakiten du, ez dakit nola egiten duen. Bera DBHko gela guzietan egon da, eta gauza batzuetan guk ditugun arazoak DBH4koekin zerikusia daukate. Adibidez, laugarren mailako batzuk ateratzen dira gu gauden koadrilarekin. Arazo bat badago neska horri kontatzen diote. Nik ere kontatzen diot baina besteei kontatzen dizkiedan gauzak. Ez sekretu, sekretuak. Nire lagun hoberenarengan konfiantzen dudalako eta uste dut ez duela ezer esango.” (Enara, 14 urte, ikastola)

“Al principio las que no se enteran de los secretos se quedan marginadas, pero luego siempre se enteran. Cuando viene una diciendo, a mí no me los has contado. Y si sabes que es amiga de una buena amiga, pues se lo acabas contando pero al principio, siempre le cuentas a las que más, que suele ser dos o así.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Girauden arabera, harremanak sortu eta hausten dituzte isilpekoek (ibidem:54). Horrela, lagun taldean sartzeko aukera ematen dute; sarbiderako prozesua egituratzalea baita, isilpekoaren bitartez, kidea frogan jartzeko modua izaki. Adibide bezala, Giraudek masonen kasua aipatzen du, sekretu masonikoa sinbologia masonikoa jabetzearekin gauzatzen delako, leialtasuna frogatze aldera (ibidem:61). Lagunen artean ere isilpeko mandatua gordez frogatzen dira fideltasuna eta lotura, horrek aipatu konfiantza bermatzen baitu. Mutil gehienak isilpeen kudeaketan bigarren mailan badaude ere, mutil batzuk salbuespentzat hartzen dira. Horiek ezkutukoen entzuletzat jotzen dira, eta sekretuak gordetzen dakinenek “konfiantzazko mutil” izendatzen dituzte, besteetatik bereiziz:

“Mutilek adibidez neskak baino askoz gutxiago dakite. Adibidez gai batzuk soilik nesken artean aipatzen ditut. Adibidez, hilerokoa edo mutilak. Gero mutilen artean dago Borja dela neska bat bezala, kontatzen diozu edozein gauza eta bera beti dago prest laguntzeko. Mutilei normalean zerbait kontatzen diezu eta hurrengo egunean igual institutu guztiak daki, baina Borja ez. Bera enteratzen da eta ez du kontatzen. Hori poztekoa da, daukazula pertsona bat gehiago konfiantza izateko.” (Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

4.2.4 Bazterketarako bideak: isiltasunaz eta salatariez

Aipatutako hierarkia horiek ez dira modu harmoniatsuan gauzatzen, isilpekoa baztertzalea delako. Isiltasuna da bazterketarako estrategia nagusia, izan ere, jakin nahi dutenek isiltasunarekin edota gezurrarekin egin dezakete topo. Baino isiltasun hori ez da mututasun hutsala, mugimendu, jarrera eta sentsazio ezberdinek eragiten baitute:

“El silencio de unos y otros en torno al secreto da lugar a una experiencia singular en la medida que el silencio es un zumbido de signos. Las miradas, los evitamientos físicos, los apartados, los sobreentendidos, son interpretados por los protagonistas y estas interpretaciones refuerzan el ruido alrededor del silencio” (Giraud, 2007:137)

Hartara, isiltasuna da sekretuaren marka, ezkutukoa dakitenen artean konplizitatea sortzen du eta taldeko batasunaren faktoreetako bat da (ibidem:166). Nerabeen artean, isiltasuna kuxelua gordetzeko mekanismoa da eta, adibidez, ahozkoetan oso agerikoa da:

“Esa es a la que todo el mundo la echan y nadie quiere que esté. Dicen que es tonta y que no les cae bien, no suelen estar con ella nada. Hay veces que se acopla, como tiene piano, viene. Entonces cuando termina estamos por ahí y viene, y como soy yo la que menos vergüenza tiene, me dicen que la eche yo. Entonces el marrón para mí, una vez la eché pero no lo he vuelto a hacer. Porque luego me he muerto de pena, porque luego se queda sentada. Y luego siempre voy yo, y me dice, ‘me echas y ahora vienes’, y yo ‘que me han dicho...’ Las que siempre me dicen son las otras, me dicen que la eche que es tonta. Y yo, pero si es una persona, déjala. Para echarla siempre es la excusa de Javier, le decimos a Javier, que venga y que nos llame. Nos dice Natalia ‘¿podéis venir chicas que os tengo que contar una cosa?’, y nos dice los nombres y no dice su nombre. Entonces viene y entonces le digo yo, ‘a ver no te ha dicho’, y me dice ‘a ya’ y le digo ‘pues entonces vete’, y me dicen ‘es que si no me quedo sola’ y yo le digo que da igual que adiós. Ella bueno... pues me lo decís bien. ¡Ay pobrecita!”(Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Igual triste nagoenean izaten da, egunaren arabera. Edo denek dakte sekretu bat eta tienen que hablar. Igual gaude eta joaten dira bi hortik hitz egin behar dutelako. Ez dakit zertan aritzen diren. Ez dakit inoiz. Ez naute abisatzen.” (Enara, 14 urte, ikastola)

Horrela, isilpekoak ez dakizkitenak ere maila emozionalean implikatuta daude, bazterketak mindurik, hain zuzen ere. Sekretuaren jabe direnek, ordea, isiltzeko betebeharra dute, mututasunerako konpromisoak euskarri emozionala duelako:

“Sekretuak dira pertsona bat barrutik sentitzen duena eta kontatzen duena. Eta suposatzen da pertsona batek sekretu bat badaki, ezin du kontatu, ez da pertsona bat gaizki sentituko dela. Hori ere bai, baina bera ere txarto sentituko da sekretu hori kontatzean, ez da bere gauza bat. Bera gauza bat bada kontatu ahal du, baina beste pertsona batean bada barrutik txarto sentituko da. Nik uste dut sekretuak ezin direla kontatu. Bainan pertsona batzuek ez dute kontatu.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

Taldeari batasuna ematen dion heinean, Medranoren (2009) arabera, isilpekoen arauak ez jarraitzeak batasun hori hautsi dezake. Izan ere, zirkulazioa ez bada era harmoniatsuan gauzatzen, gatazkarako iturburua izan daiteke. Ezkutukoa gehiegi zabaltzen bada edota onartu gabe kontatzen bada, haserrealdiak sortu daitezke. Behaketa parte-hartzalean ikusle nintzela, goi-klaseko gaztetxoen artean, ustez sekretua gorde ez zuen neska baten kontrako epaiketa soziala bizi izan nuen. Neska batek beste bat isilpekoa gorde ez izana leporatzen zion, baina inguruko adiskide eta ikaskideak ere eztabaidan sartuta zeuden, eta epaile bezala jokatzen zuten: neskari galdetzen zioten ea berak kontatu ote zuen ala ez zuen kontatu. Neskak, hasiera batean ukatu egin bazuen ere, berak egin zuela onartu zuen azkenik. Iskanbila amaitzerakoan, berarengana hurbildu nintzen eta aitortu zidan berak ez zuela egin, baina lagunen presioagatik baietz esatera beharturik sentitu zuela bere burua.

Isilpekoa gordetzen ez duena “salatari” izendatu ohi dute gaztetxoek. Sekretuen kudeaketaren normativizazioa indartu egiten du izendapen horrek, bazterketarako mehatxua sinbolizatzen baitu. Esate baterako, Maitane 13 urteko neska salatari izendatu zuten, bere mutil-lagun ohi batek zabaldutako zurrumurruagatik. Haren arabera, lagunek edaten zutela esan omen zien Maitanek gurasoei, eta neska lagun taldetik aldentzea ekarri zuen horrek:

“Orduan ni hor nago eta batzuk mozkortzen dira eta beste batzuk trago batzuk eta listo. Nik hitz egiten egoten naiz besteekin, en plan ‘este se va a liar con no sé quien’. Ematen du marginatuta nagoela ez naizelako rollo

horietan sartzen. Ematen du ez baduzu edaten ez dizkizutela gauzak kontatzen. Adibidez nik denboraldi bat izan dut etxera negarrez joaten nintzela, denek esaten zidatelako nik etxeen txibatzen nuela edaten zutela.”(Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

Lagun talde batean sekretu bat zabaltzen bada, berau baztertuz zigortzen da salataria. Horrela deitzeak Maitanerengan sortu zuen egonezinagatik, amari kontatzea erabaki zuen, eta une horretan gurasoak istilu guztiaz jabetu ziren. Amak, gatazkaren aurrean, eskolara deitu zuen, alabari gertatzen ari zitzzion bazterketaren berri emateko. Deiaren amaieran amak irakasleari konfidentzialtasuna eskatu zion alaba berriz ere “salatari” ez izendatzeko, kontziente baitzen nerabeen gatazketa sartzen ari zela dei horren bitartez. Denborarekin, istilua konpondu egin zen. Izañ ere, isilpeen zirkulazioaren abiadurak nerabeen arteko harremanen abiaduraren antzeko erritmoa duela esan daiteke: haserreak, loturak, hausturak... Harremanak hauskorra bezain sendoak izanik, ez du esan nahi horrelako gatazkek harremanak betiko hausten dituztenik, eta, horregatik, harremanak berriz ere eratu daitezke:

“Se arregló todo y ella sabe que yo no fui, ya está. Hubo un malentendido, y ella pensaba que sí y el otro largó mucho. Dijo que fui yo, pero luego se enteró que no fui yo. Me pidió disculpas por no haber confiado. Se supone que yo conté a ese chico que a mi amiga le gustaba, como que hubiera dicho un secreto. Pero está todo arreglado, porque ella sabe que yo no fui. Nos enfadamos en el patio. Duró dos semanas el enfado. En tema se acabó en dos días, pero luego ella se marchaba por miedo que yo le dijera que era mentira y que le estaría todo el rato dando la tabarra. Se iba de nuestro grupo y le dijimos que se estaba marginando y que volviera y tal. Y dijo que vale. Es que ella pensaba que nosotras le íbamos a decir algo por ese malentendido, pero nosotras no podemos estar sin ella. La cuadrilla es una y se les echa en falta. Yo no puede estar sin alguna de ellas, somos de primero todas, nos llevamos tan bien. Aunque venga una chica igual la aceptamos porque nos cae bien, pero nosotras vamos a estar siempre juntas.”(Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horrelako gatazkek, sekretua gorde ez izanagatik sortutakoek, laguntasun harremanak banatu eta bideratzen dituzte. Ikusi denez, bi lagunen arteko arazoak lagun talde osoa

inplikatu dezake. Kideak alde edo kontra jartzen ditu, adiskidetasun harremanak artikulatuz. Gainerakoek gertakizunaren protagonistak epaitu ditzakete, aldeko zein kontrakoen jarrera agertuz. Adibidez, goi klaseko eskolan azaldutako gertakizun horretan, kuxelua gorde omen ez zuenaren alde jarri zirenak beste neskaren gorputza gaitzesteko argudioak erabiltzen hasi ziren aurka egiteko, “*porque tiene unas tetas enormes, además lleva camiseta de tirantes y se le marca todo el escote. El otro día iba enseñando el tirante del sujetador, ¿pero qué sentido tiene?*”. Feminitate eta sexualitate “egokiaren” mugak gainditzearekin argudiatu zuten neska horren gorputzaren gaitzespena.

4.2.4.1 Heldutasuna eta nerabeen sekretuen bateraezintasuna

Isilpekoen zirkulaziotik kanpo, zenbait gaztetxo gain, pertsona helduek paper garrantzitsua dute: gurasoak zein irakasleak kanpoan geratzen baitira nerabeen sekretuen zirkulaziotik. Izan ere, gaztetxoen isilpekoei garrantzia kentzekoa izaten da helduen joera, eta, horregatik, zirkulaziotik kanpo uzten dituzte helduak, bereziki, gurasoak. Bereien argudioetan, gurasoak ezin dira lagunak bezalakoak izan. Haatik, gurasoei oso gutxitan transmititzen dizkiete maitasun edo sexualitatearen inguruko gertakizunak, eta egiten dutenean oso neuriturik izaten da, nahiz eta gurasoek seme-alaben biziaren jakinaren gainean egon nahi duten. Hori dela-eta, nerabeek mugak jartzen dizkiete: beraiek erabakitzentz eute zer esan nahi dieten eta zer ez, zein gai diren “egokiak” eta zeintzuk ez. Natalia 13 urteko neskak amarekin gatazka izan zuen, amak ezkutukoak jakin nahi zituelako:

“Con mi madre me llevo mejor que con mi hermana. Pero de contar más cosas con mi hermana. A mí me da cosa contarle a mi madre, porque es mi madre. Tampoco puede ser tu mejor amiga tu madre, o amiga, amiga. Eso es muy raro. No le vas a decir ‘oye mami que hoy en clase me han pedido salir’. ¡No, por favor! Yo eso no le puedo contar a mi madre... me muero ahí mismo. Un día de repente me encierra en la cocina y me dice, vamos a hablar de mujer a mujer. No le conté nada, me quería salir por las paredes, estuve a punto de darme un golpe en la cabeza. Ella me decía que le habían

contado y a ver porque no le contaba que tenía relaciones. Y yo... por favor... y ella me decía que también lo quería saber. Y yo ‘a ver, si no te ha contado mi hermana sus cosas que es mayor, no te lo voy a contar yo’. Ella me decía que ‘sí’. Pero no me siento segura, como es mi madre. Es que vivir con mi madre y que sepa lo que me está pasando, ¡no, no! A mi hermana se lo cuento porque es mi hermana y ella ha pasado por lo mismo que yo. A mi madre ya...’ (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Nerabeek bizi izandako zenbait esperientziarengatik gertatzen da gurasoak sekretuetatik kanpo uzteko joera. Konfesioen aurrean gurasoek edukitzen dituzten jarrerek seme-alabak neurriak hartzera eraman ditu:

“Porque es familia no lesuento. Yo lesuento qué tal el día y así. Cómo llevo el día, no lesuento los chicos que me gusten. No les puedo contar eso porque estarían todo el rato ‘¿y quién es ese? ¿Y ya estás con él?’ Y me agobiarián mucho. Ya alguna vez me han pillado que me gustaba alguno. En primero de primaria hicimos una carta de amor para un chaval entre tres amigas porque nos gustaba a las tres. Entonces hicimos una carta de amor, pero no se la dimos, estuvimos a punto de dársela pero no se la dimos. Entonces la guardé yo. Era para Iker antes era muy mono pero ahora no. Ahora es horrible. Y la guardé yo. Y un día mi madre, hace un montón de tiempo, en quinto o así... Rebuscó entre la ropa y así, la empezó a leer y ¡qué horror! Me invadieron con preguntas, de ¿quién es éste? ¿Por qué? Con qué Iker eee. Fue muy duro.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“No lesuento todo. Lesuento las cosas básicas del colegio. ‘Mama que hay examen’, tales cosas, excursión, hoy alguien ha dicho tal, y que nos hemos reído mucho. No lesuento si he tenido alguna vez un novio, si... No tengo confianza para contárselo. Y cuando intento hablar de eso mi hermana siempre sale, y hace una broma. Si hablo de un chico, porque tiene que ser del sexo chico, tiene que llamarse Pepito mi hermana ya dice a ver si es el que me gusta. Yo le digo que solamente es un tío, mencionado por un chiste que ha hecho que hace mucha gracia y que intento contarte.

No puedo hablar de eso en la cena con mi madre, no tengo confianza. No puedo hablar de chicos.” (Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Gurasoekin bueno, konfiantza... dena ez diet kontatzen. Egun batean nagoela ahazten bazaizkit etxeko lanak, nire amari ez diot esaten, jartzen didate negatibo bat. Guxitan ahazten zaizkit jartzen didate negatibo bat eta listo. Bestelako gauzak kontatzen dizkio, baina nobia badut ez diot kontatzen. Hori ez, ze beti daude guztiei esaten. Lehen bosgarren mailan gustatzen zitzaidan Maialen eta joan ginenean udan nire aitak kontatu zien guztiei eta ni nintzen el hazme reir. Nire familia guztiari kontatu zioten. Eta esaten zizkidaten gauza batzuk... Karlos, ¿para cuando la boda? eta horrelako gauzak esaten zizkidaten. Nire lehengusuak ere bai. Ni joaten nintzen. Gorri jarri eta alde egiten nuen.” (Karlos, 12 urte, ikastola)

Ohikoa da gurasoek hutsaltzat jotzea seme-alaben kontakizunak. Txantxa eta barre artean hartzen dituzte seme-alaben maitasun konfesioak. Heldutasunaren eta maitasunaren normatibilitatearen ondorioa da bizipen horiek hutsaltzat hartzea. Horrek nerabeen praktikak bideratzen ditu, gurasoei berriz ere gai horien inguruan ezer gehiago kontatzea dakarrelako. Maitasun eta sexualitatea bezalako gaiekin, batik bat, guraso eta seme-alaben arteko mugak sendotzen dira jokoan daudelako hainbat alderdi (maitasunaren ikuspegি helduzentrista, haur eta gaztetxoen sexualitatearen ukazioa, lotsak, tabuak...). Hala ere, badaude salbuespenak ere. Izan ere, horrek ez du esan nahi, gurasoak ez diren beste heldu batzuekin konfesiorik egiten ez dutenik. Beste figura batzuen aurrean, Nataliak hitz egiteko aukera ikusten du:

“A mi padre tampoco leuento nada, a la novia de mi padre, sí. Como sé que no es de mi familia, y como es más joven. Como es más... a veces se ríe porque le hace gracia... ella se calla. Mi padre tampoco es, no le importa.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Konfidentzia horien aurrean Nataliaren aitaren bikotekideak bestelako jarrera du. Alde batetik, familiatik kanpoko figura dela azpimarratzen du Nataliak, eta horregatik egiten zaio errazagoa sexualitateaz eta maitasunaz hitz egitea. Bestetik, barre egiteko aukera ikusten du, baina betiere errespetutik abiatuta, hau da, minik ematen ez duen barrea da.

Gainera, sekretuen transmisioan garrantzitsuena isiltzea izanik, aitaren bikotekidearen jarrerak konfiantza sortzen du Nataliarengan.

Halaber, gurasoei egiten zaien ukapenagatik, Giraudek (2007) ikusi du autoritatearekin kontradependentzia eratzeko aukera dagoela, hots, haurren artean sekretuak sortzen direnean, gurasoen kontroletik ihes egiteko nahia islatzen dela. Nerabeen espazio komuna eta autonomoaren esperientzia bihurtzen da jarduera hori, unibertso berri bat eratuz (ibidem:47). Isilpekoen zirkulazioaren bitartez, gaztetxoen maitasun eta sexualitate diskurtsoak dira helduen begietara ezkutatzen direnak.⁶³

Azkenik, metodologian adierazi denez, antropologoaren esperientzia ere aipatzeko da ezkutukoenean zirkulazio horietan. Nerabeen maitasuna aztertzean, kuxeluen transmisioaren garrantziaz jabetzen nintzen bitartean, zirkulazio horren parte izatera iritsi nintzela ohartu nintzen. Behaketa parte-hartzailea egiterakoan, jolastokian sartzekoan, neskak “*Te tenemos que contar*” bezalakoak esanez hurbiltzea ohiko gertakizuna zen. Horrek nire figuraren inguruan hausnartzera eraman ninduen. Nik antropologo gaztea naizen heinean, nerabeen begietara ez nuen gurasoen ezta irakasleen figura irudikatzen (hau da, ez familia, ez eskola bera), eta isilpekoen sarean sartzeko funtsezkoa izan zen hori. Gainera, ikerketan subjektuen anonimotasuna eta konfidentzia gordetzeak bat egiten du sekretuen zirkulazioaren logikarekin. Antropologo bezala, lagunen antzera, isildu egiten bainintzen.

4.3 Laburbilduz, adiskidetasunaren antolaketa eta isilpekoen ezagutza

Ikerturiko nerabeek bizi duten adiskidetasunaren konplexutasuna azpimarratzen ahalegindu gara kapitulu honetan. Laguntasuna testuinguru kultural eta sozialaren arabera baldintzaturik egonda, harreman eredu zehatzak erreproduzitzen dira adinaren, klase sozialaren eta generoaren arabera. Atzman denez, neskek duten laguntasun ulerkeran intimitatea erdigunean egotearen ondorioz, arlo afektiboa ageriago dago,

⁶³ Tuenti sare sozialaren erabilera ere aurki daiteke helduak zenbait ezaguetatik kanpo uzteko nahia. Tuenti gaztetxoek soilik erabiltzen dute, eta “nerabeentzako espazio esklusibo” bezala bizi dute. Horregatik, askok ez diete beraien gurasoei beraien Tuenti kontua erakusten. Horrelakoetan, tentsioak sortzen dira: nerabeek espazio hori babesten duten bitartean, gurasoek euren seme-alabenganako kontrola ezarri nahi dute beraien seme-alaben web-orrieta sartuz.

mutilen artean mugimenduzko ekintza partekatua nagusitzen den bitartean. Adiskidetasunaren artikulazio horrek maitasunez hitz egitera, pentsatzera eta hausnartzera eramaten ditu neskak, horren inguruan modu aktiboan espezializatzera, hain zuzen ere. Era horretara, esan daiteke maitasunaren trebakuntza prozesua nesken artean gauzatzen dela nagusiki. Maitasunaren inguruko narrazio edo elkarrizketa horiek maitasunaren inguruko ezagutza bultzatzen dute neska nerabeen artean.

Ezagutza hori mugatua dela esan daiteke, izan ere, mugaketa hori sekretuen zirkulazioarekin bat dator, gaztetxoen zenbait gorputz eta maitasun bizipen isilarazteko eta ezkutuan mantentzeko joera dagoelako, batez ere, zenbait neskaren, mutilen eta helduen aurrean. Horrela, adiskidetasunaren eta konfiantzaren adierazle da isilpekoen zirkulazioa. Kuxeluak jakiteak taldearen parte izatea ekartzen du, loturak indartzen dituelako. Halaber, zirkulazio mugatu horrek beste nerabe batzuk taldetik baztertzen ditu: isilpekoak dakizkiten eta ez dakizkiten artean banaketa gauzatzen da, baita hierarkiazko harremanak sortu ere. Horren aurrean, zirkulazio horietatik kanpo daudenak bazterketa jasateagatik kexu dira.

Azkenik, hierarkia horiek oso lotuta daude esandako maitasunaren ezagutzarekin. Izan ere, sekretuak maitasun narrazioen ingurukoak izaten direnez, harreman afektibo sexualetan trebatuago dauden eta horien konfidenteen artean eratzen dira. gehienbat, hierarkia horiek. Gertakizun horiek agerian jartzen dute adin horretan harreman afektibo sexualek duten garrantzia, nahiz eta maitasunaren konfigurazioan harreman mota horiek, euren adinean, garrantzitsuak ez direla baieztagatzen duten nerabeek, eta adiskidetasuna gailendu.

5. MAITASUNA AISIALDIKO DENBORA/ESPAZIOAREN ANTOLAKETAN

Kapitulu honetan, nerabeek amodioarekin lotzen dituzten espazioak eta denborak aztertuko dira, batik bat, harreman afektibo sexualei eta adiskidetasunari dagokienez. Izan ere, ikerketako gaztetxoek hiriaren baitan izaten dituzte erlazioak, eta hiria (gure kasuan, Bilbo) giza harremanen baldintzatzaitzat hartu izan bada, maitasun harremanak ez baitaude horietatik salbu.⁶⁴ Hartara, azterturiko gaztetxoek hiriaz eta aisialdiaz egiten duten erabileraren zertzelada batzuk emango dira, bertan dituzten erlazio afektiboen artikulazioa aztertze aldera.

5.1 Aisialdia, maitasunerako garaia

Hiriaren egituran murgilduta egoteaz gain, maitasuna denbora zehatzekin lotzen da. Illouzen (2010) ustez, arestian aipatu denez, bizi dugun kapitalismo berantiarrean maitasunaren utopiaren iruditegia kontsumoarekin eta aisialdiarekin lotzen da; esate baterako, bikotekidearekin paseatzea, jatetxe batean afaltzea, hustutako hondartzan ilunabarraz gozatzea... Irudi horiek guztiak aisialdiarekin daude lotuta, egun aisialdian kokatzen delako utopia errromantikorako abagunea. Nerabeen narrazioetan, maitasuna denbora librearekin lotzen da, eta udan edota oporraldietan maitemintzen direla diote:

“Larunbat eta igandetan gehiago pentsatzen dut maitasunari buruz, denbora librea dudanean. Hemen bestela ikasketetan.” (Leire, 12 urte, ikastola)

“Udan, bai, pentsatzen dut maitasunean, seguro que me llevo a alguna este verano. Udan gehiago pentsatzen da, ikasketekin no se piensa nada. Udan bai, te buscas a una, yo ya tengo una elegida, la del pueblo.” (Kerman, 14 urte, ikastola)

⁶⁴ Hiri-eremua eta maitasunaren arteko harremana aztergai izatera bultzatu nau ikerlan honetako zenbait aurkezpenetan herri-eremuko hainbat gazte nire baieztapenekin identifikatuta sentitu ez izanak. Herriean, txikietan, batez ere, praktikak bestelakoak izatea onartzen zuten.

“Nik uste dut gehiago ligatzen dela udan. Udan ateratzen zara gehiago eta denbora gehiago egon ahal zara kalean. Ni udan goizean eta arratsaldetan kalean egoten zara. Nik uste dut neguan ez dela ligatzen. Ni ez naiz asko ateratzen neguan, agian esan ahal diet lagunei etxera etortzeko pelikula bat ikustera, baina gehienetan ez naiz ateratzen. Gehienetan etxeen egoten gara.” (Joseba, 14 urte, ikastola)

Beraz, aisialdian, asteburuetan eta eskola garaitik kanpo, batik bat, sortzen dira maitasunerako uneak nerabeen ustez. Euretariko askok adiskideekin batera igarotzen dituzte aste bukaerak, ostiral eta larunbat arratsaldeak, batez ere. Tarte horietan, lagunekin ibiltzen dira auzotik, adiskidetasun loturak eta harreman afektibo sexualak sortuz. Asteburuak “ligatzeko” unetzat hartzen dituzte. Hala ere, aisialdiko denbora-kudeaketa haien autonomiaren eta gurasoek ezarritako arauen arabera (etxera iristeko ordutegiak, asteburuak igarotzeko tokien aukeraketa...) dago baldintzatuta; izan ere, gurasoen arabera, autonomia maila ezberdinak daude. Adibidez, kontsumoarekin edota bidaiekin lotzen den kapitalismoaren aisialdi ereduan, nerabeek hainbat oztopo dituzte gurasoen menpe direlako, batik bat:

“Nik uste dut gure adinean ez dela maitatzen bikotekidea. Nagusiagoa bazara aukera gehiago dituzu ikusteko, ikusi nahi baduzu ez dakit zein egunetan, baina gure adinean ikasketak ditugu, etxeko lanak ditugu, adibidez extraeskolarretara bazoaz, nondik ateratzen duzu denbora? Gero ezagutzen baduzu ez dakit zein tokitan eta bera bizi bada beste toki batean ezin duzu hartu autoa eta joan, edo bakarrik joan autobusean, depende uzten badizute. Esan behar diozu aitari eramateko ez dakit nora nire nobioa ikusteko, badaki orduan nobioa daukazula.” (Leire, 12 urte, ikastola)

Ikusi dugunez, zenbait oztopo gurutzatzen dira: batetik, adin horretan gurasoekin maitasunaz hitz egiteko dauden mugak, hau da, harreman horiek isilean gordetzeko joera, eta, bestetik, hiritik mugitzeko eta denboraren kudeaketarako autonomia eza. Hartara, aisialdiko denboraren kudeaketak modu eta maila ezberdinak ditu, eta horren arabera, multzokatzen dira:

“Nerabe guztiak ez gara berdinak. Las de mi clase no sé si son adolescentes o lo que son... pero... son unas empollonas que no hacen nada. No salen, se

encierran en casa y su libro es su amigo. Solo estudian, porque otra cosa (...) Jolasketan ezberdintasuna dago neska eta mutilen artean, mutila dira futbol futbol futbol, beste batzuk estudiar estudiar estudiar eta Iratxe eta ni diskoteka, kalea eta litroak... ” (Maialen, 13 urte, ikastola)

“Nerabe guztiak ez gara berdinak. Batzuei gustatzen zaizkie gauza batzuk eta besteei beste gauza batzuk, gustuen arabera, adibidez denbora librean egiten duzunaren arabera. Adibidez daude los enpoiones, los futboleros eta los que se creen guais.” (Itziar, 12 urte, ikastola)

Aisialdiko denboran gertatutakoa jolas-orduetara eramaten dute, hitz egiteko gai bihurtuz. Horrela, nerabeen arteko mugak indartzen dira, gertakizun horietan egon direnen eta egon ez direnen artean. Horregatik, denboraren kudeaketan autonomia gutxiago dutenak, zeintzuk gurasoekin egotera behartuta dauden edo gurasoen diziplina zorrotzak jarraitzera behartuta dauden, ezkor agertzen dira maitasunarekin uztartzen den aisialdiaren aurrean. Ikerketako zenbait neskari aisialdiari buruz galdeztean, honakoa erantzun zuten: “*Gu aspertu egiten gara*”, “*Guk ez dugu zure ikerketarako balio*” edo “*Gu ez gara oso adibide ona*”. Esapide horiek oso lotuta daude harreman afektibo sexualak ez izatearekin edo lagunekin aisialdian ez egotearekin. Eskolaz kanpoko jardueren eta ikastetxeko etxerako lanen lan karga andana dela-eta, horietako batzuek “*gure bizitza oso aspergarria da*” bezalakoak aitortzen zitzuten, denbora libre gutxi izateaz atsekabetuz. Neska horien kasuan, gainerako lagunekin egoteko mentorrik ez zutela onartzen zuten, eta horrek ikaskideengandik urrundu ditu. Batzuek gabezia bezala bizi dute, adibidez, itunpeko ikastetxe erlijiosoko tokian tokiko lanean, asteburuko eginkizunen inguruan galdetu nienean, neska batzuk burumakur eta lotsaturik lurrera begira jarri ziren, soilik gurasoekin ateratzen zirelako eta gainerako denbora etxeko lanak egiten jarduten zutelako. Horrez gain, denbora horiek elkarrekin ez partekatzeak jolasketetan alboratuta sentitzera ere eramaten ditu; behinola, mutil batek ateratzen ez den lagunari esan zion “*Amargada, porque no sales*”.

Eskolako jardueren oposizio bezala bizi dituztelako da garrantzitsua aisialdiko praktika. Willisek (1988) horren inguruan ere badihardu lanean, izan ere, familia langileetako ikasleek eskolako instituzioaren aurrean eratzen duten kontrakultura aztertu du, klase sozialen erreprodukziorako. Egilearen aburuz, gazteek alkohola edatea helduen munduarekin bat egiteko eta eskolaren aurkako jarduera izango litzateke (1988:33).

Zentzu horretan, aisialdiko praktikak eta, bereziki, maitasun praktikak eskolako jarduerarekin haustearekin dute zerikusia. Horrez gain, mailaketa sozialari ere hertsiki lotuta dago denbora librearen kudeaketa. Illouzek (2010) azpimarratzen du aisialdiko jarduerak klase sozialaren arabera ezberdintzen direla, baita maitasunerako gune ezberdinduak bultzatu ere, eta, horrek erreprrodukzio soziala bermatzen du:

“(…) a medida que transcurría el siglo XX, el amor se iba entrelazando cada vez más con las nuevas formas de ‘distinción social’: por un lado, la disponibilidad de ingresos y tiempo libre para invertir en actividades recreativas y, por otro lado, el conocimiento y la práctica de las normas de cortesía adecuadas para cada tipo de actividad consumida en el marco de clase la clase media-alta (o sea, lo que Bourdieu denomina ‘el capital cultural’). En ese sentido, el amor romántico acaba por asociarse estrechamente con el consumo del ocio, pero también con otras formas de consumo ‘posicional’, destinadas a denotar una determinada posición en el sistema de estratificación social.” (Illouz, 2010:112)

5.2 Hiria, maitasunerako tokiak

Hiriaren egiturak, nerabeen autonomia mailak, baita mailaketa sozialak ere, baldintzatzen dute espazioen erabilera. Izan ere, hiria ez da espacio neutroa, zeharkatzeko eta bizitzeko moduak eragiten dutelako hainbat aldagaik. Horien artean, adinak pisu handia du gaztetxoen ibilbideetan:

“Son numerosos los estudios realizados sobre la relación de la juventud con el espacio público urbano destacando la relevancia que tiene la calle para la gente joven, como lugar de autonomía, de construcción de identidades personales y colectivas (Gough y Franch, 2005), de desarrollo de sus amistades (Bunnell et al., 2012); o también como lugar donde afrontar las imposiciones reguladoras de los adultos (Matthews, Taylor, Percy-Smith y Limb, 2000). El espacio público resulta ser un espacio de no supervisión y de libertad que permite el encuentro con otras personas de forma no

controlada, o por lo menos no al mismo nivel que dentro del hogar.” (Ortiz, Prats eta Baylina, 2014:39)

Hartara, nerabezaroa trantsizio fase moduan definitzeak ere baldintzatzen du hiriarekiko duten lotura: ez dira haurrak, ez eta helduak ere, eta, horregatik, gurasoek zein tutoreek ezarritako baldintzaeko askatasuna dute. Izan ere, gure eremu urbanoan, espazio publikoaren erabileraren negoziazioa hasten da adin horretan, hain zuzen, baita erabileraren ikasketa ere. Fenomeno hori “*kaleko alfabetizazioa*” izendatu izan da (Cahill, 2000 in Baylina, Ortiz eta Prats, 2014: 140):

“La misma autora [Cahill] crea el concepto de “alfabetización de calle” que privilegia los conocimientos locales informales que se basan en las experiencias personales en el espacio público urbano. Según la autora, el entorno, y la calle en particular, es un contexto significativo para aprender a fin de explorar las relaciones de la juventud con el barrio. Y en este contexto, los y las adolescentes tienen mucho conocimiento de los protocolos del entorno y adquieren competencias ambientales de negociación a escala de barrio (Cahill, 2000)” (Ibidem)

Ikerketako Bilboko nerabeak adin horretan espresuki kalera ateratzen hasi dira modu autonomoagoan, bakarrik edota lagunekin. Askoren muga auzoa da, ikerketako nerabe gazteenek (hamabi urtekoek, batez ere) haien auzoa dute modu autonomoan ibiltzeko askatasun-eremua. Horrela, ikastetxerako bideak, senideei egindako bisitek edota adiskideekin egoteak aukera ematen die auzoa modu autonomoagoan bizitzeko, alabaina, betiere, gurasoek baldintzatutako mugen barnean ibiltzen dira (Prats, Baylina eta Ortiz, 2012:119). Halaber, nerabeen narrazioetan, gurasoen kontrol horretatik ihes egiteko, aisialdirako hainbat espazio agertzen dira, batik bat, gurasoek edo senideek igarotzen ez dituztenak (Baylina, Ortiz eta Prats, 2014:142). Aitzitik, helduen zaintzatik urrentzeko abaguneak eta askatasunerako guneak bilatzen badituzte ere, kaleak erabiltzeko orduan baldintzatuta daude; askatasunaz aritzeak talka egiten duelako espazio publikoaren adultifikazioa deritzonarekin, hau da, hiri-egitura helduentzako eraiki izanarekin (Ortiz, Prats eta Baylina, 2014:39). Haatik, esan daiteke hiriko baldintza sozialen menpe daudela:

“La calle es un espacio donde la gente joven encuentra libertad y es un lugar de gran relevancia en un momento de construcción de la identidad y de necesidad de encontrar espacios fuera de la mirada adulta (Gough y Franch, 2005). Pero a pesar de esto, el espacio público está adultificado, está construido por y para las personas adultas y está producido como un espacio adulto. Dada esta hegemonía espacial (Valentine, 1996) la gente joven está excluida de un espacio que se entiende como cívico y supervisado por la presencia de las personas adultas, que lo definen y controlan (Collins y Kearns 2001; Driskell et al., 2008; Chiu, 2009)” (Rodo de Zarate eta Baylina, 2014:211)

Espazio publikoak garrantzia handia du haien bizitzetan, bertan askatasunerako lekuak eratzen baitituzte, ohikoa duten helduen begiradatik at. Hori dela-eta, nerabeentzat sozializaziorako eta harreman sozialen trebakuntzarako gune ere bada hiria. Eremu zehatzetan elkartzen dira harremanak izateko. Bartzelonan Prats, Baylina eta Ortizek adiskidetasuna garatzeko espazioak antzeman dituzte beraien ikerketan:

“El Instituto, el centro comercial Diagonal Mar, el Parque Diagonal Mar, la playa y el Forum (espacio cultural y de ocio multifuncional) son los lugares de amistad, los espacios intermedios, según Vanderstede (2011), más o menos públicos, caracterizados por una ambigüedad que tiene su paralelo en ellos/as mismos/as. Si el Instituto es el principal lugar donde forjan las amistades, es en estos otros lugares donde se reconocen a sí mismos/as y a los/as demás, se asumen roles reconocibles por el resto y expresan su identidad a través de procesos de inclusión y exclusión, de formación de estereotipos y de estigmatización (Mcilwaine y Datta, 2004). ”(Prats, Baylina eta Ortiz, 2012:119)

Gure ikerketan, lagun taldeak eskola inguruan mugitzen dira. Tokian tokiko lanean aurrera egin ahala, ohartu nintzen ikerketako nerabeak hiri berekoak izan arren, espazio gutxi partekatzen zituztela⁶⁵. Bilboko erdigunean bizi zirenak inguru horietan mugitzen ziren eta gainerakoak haien auzoetan. Leku gutxi batzuk dira mistoak, hau da, azterturiko hiru ikastetxeetakoek igarotzen dituztenak: merkataritza zentroa edo

⁶⁵ Erabat deigarria egin zitzaidan goi-klasekoek ikerketako beste bi zentroak ezagutu ez izana, ez izenez ezta tokiz ere. Horrek esan nahi du ez dutela beste gune horietako nerabeekin topo egin. Gainerako nerabeek, berriz, itunpeko ikastetxe erlijiosoa ezagutzen zuten.

ibaiertzeko pasalekua. Gune mistoak deituriko horiek oso lotuta daude Bilboko gentrifikazioarekin. Antzeman denez, klase sozial ezberdinako nerabeak arkitektura postmodernoko gune horiek okupatzen hasi dira. Fenomeno hori adinarekin arrazoitzen da, nerabeen inguruan egindako zenbait ikerketetan joera berbera nabari da-eta:

“Los adolescentes del barrio utilizan frecuentemente durante su tiempo libre espacios de nueva creación favoreciendo así su uso cotidiano. De alguna forma la utilización de estos espacios subvierte los discursos de algunos profesionales que consideran la operación de Diagonal Mar y la zona Forum como “metáfora de los vicios del capitalismo urbano” donde ‘se juntan la segregación espacial, la especialización funcional, la mala gestualidad arquitectónica, la miseria cultural y la ruptura de la continuidad ciudadana’ (Borja, 2008: 214). Si bien en algunos aspectos esto puede ser cierto, también debe considerarse que son espacios usados, apropiados por un grupo de población que los reivindica como parte de su barrio, que los disfruta integrándolos en su cotidianidad como marco de su sociabilidad y sus redes de amistad, entonces las críticas deben ser matizadas.”(Prats, Baylina eta Ortiz, 2012:123)

Bilboko kasuan, gentrifikazioa gertatu den guneetan gauza bera jazo da. Halaber, espazio horiek kenduta, mailaketa sozialak baldintzatzen du nerabeek egiten duten hiriaren erabilera Izan ere, Bourdieu jarraiki, banaketa hori espazio sozialak eragindakoa da klase sozialaren arabera; ez ezarpenez, baizik eta ekintza sozial bezala (Bourdieu, 2008:35). Espazio sozialean hurbil dauden pertsonek espazio geografikoan elkarrengandik gertu egoteko joera dute (Bourdieu, 2003:102). Kokapen sozial horrek espazio sinboliko gisa funtzionatzen du, bizi estiloen eta estatus bereko taldeen espazioa baita (2003:110). Horrela, kapital soziala eratzen da adiskidetasunaren eta klase sozialaren arteko artikulazioarekin (Cucó, 1995:132). Horrez gain, Cucóren ustez, klase kokapenak ez du soilik adiskidetasunaren mailaketa soziala indartzen, laguntasun eredua zehatzak ere bideratzen ditu, baita egoera pribilegiatuak mantendu ere:

“En suma, todo lo que estos estudios evidencian es que la posición de clase no solo tiende a delimitar el espacio social de la amistad, sino que también ayuda a precipitar unos modelos amicales que articulan con relativa congruencia los significados y realizaciones de la amistad, y contribuyen

con eficacia al mantenimiento de situaciones privilegiadas.” (Cucó, 1995:112)

Horrela, gaztetxoek haien adiskide-harremanak ikastetxetan eratzen dituzte. Esan bezala, ikastetxeak dimentsio sozial eta ekonomikoak batzen dituen heinean, erreprodukzio sozialaren tresna da, baita klase sozialen barnean kapital soziala eratzeko gunea ere. Mekanismo konplexuen bitartez, eskola-instituzioak kapital kulturalaren banaketaren erreprodukzioan laguntzen du, baina espazio sozialaren egituraren erreprodukzioan ere bai. Nerabeak haien gertuko ikaskideekin sortzen dituzte lagun harremanak. Adierazgarria da goi klaseko nerabeen harreman-sarea Bilboko erdigunean zabaltzea eta gainerakoak haien auzo langileetan, horrela kapital soziala eratuz eta indartuz. Gainera, ikusi izan denez, goi klasekoen kasuan, sarritan haien gurasoak adiskideak izategatik sortzen dira lagun taldeak, “*Nuestros padres son amigos desde el colegio*” esaten dute zenbait ikaslek. Hartara, esan daiteke laguntasun harremanak ikastetxetik kanpoko hiriko espazioan sendotzen hasten direla eta, bide batez, nerabe batzuk hirian trebatzen direla harreman afektibo-sexualetan.

Hiria afekturako espazio bihurtzen dute. Distantzia sozial horiek gorputzetan txertaturik daude, egitura sozialak baldintzatuta (Bourdieu, 2003:104), habitus-a eratuz, hain zuzen. Illouzen ustez, Bourdieu egiten duen planteamenduan oinarrituz, habitusaren funtzionamendua ageriagokoa da maitasun-praktiketan, beste praktika batzuetan baino. Izan ere, maitasuna bat-bateko emozio aske bezala sentitzen da, baina, era berean, maitasunak kokapen eta ibilbide sozialaren arabera eratzen ditu bikote bateragarriak:

“En una economía donde los estilos de vida y la competencia cultural son marcas distintivas de estratificación social, la noción de que el amor nace de la comunicación de los gustos, ideas y los sentimientos en común sirve para incorporar, bajo la apariencia de un modelo ideal de intimidad, la concepción de que la pareja requiere la compatibilidad lingüística, cultural y educativa.”(Illouz, 2010:315)

Bestalde, Illouzek (2010) Michel Lamont-ek (1992) Bourdieu egindako kritika hartzen du aintzat, haren aburuz, bikotekidearen aukeraketa ez delako soilik kapital kulturalera mugatzen, izan ere, muga sinbolikoak ere badaude: muga-moralak, sozioekonomikoak eta kulturalak. Lamonten ustez, aberastasunaz eta gustu kulturalez gain, muga moralak

(esate baterako, zintzotasuna edota eskuzabaltasuna) elementu gakoak izaten dira adiskidetasun sareetan eta bikote harremanetan (Illouz, 2010:293). Horrela, modu inkontzientean, bikotea eratzeko aukera objektiboekin gurutzatzen dira norbanakoaren desira erromantikoak (ibidem:286):

“En el análisis que realiza durante su juventud sobre las estrategias matrimoniales en la sociedad en la sociedad Béarn, región rural del sudoeste de Francia, plantea como conclusión que la antinomia entre sentimiento y el deber, o entre las estrategias individuales y las estrategias de parentesco, se resuelve de manera invisible gracias a la incorporación del habitus (Bourdieu, 1972). En sus obras posteriores, sin embargo, parece adoptar una posición más extrema respecto de las emociones, pues considera que éstas encubren la reproducción del sistema de clases, es decir, que dicho sistema no se reproduce a pesar de ellas sino justamente gracias a una emoción tan ‘ciega’ e ‘irracional’ como el amor.” (Illouz, 2010:324)

Bikotekidearen aukeraketan hainbat faktorek dute eragina Bourdieu eta Illouzen planteamenduek Frantzia eta Estatu Batuetako pertsona helduen praktikei erantzuten diete. Ikerketako nerabeen narrazioei erreparatuz gero, antzeko joerak antzeman daitezke, nahiz eta adinagatik aldeak dauden. Izan ere, gure gizarteko helduzentrimoaren ondorioz ez dituzte erabat gorpuzten kapital kultural zein kapital ekonomikoen ondorioak. Alde batetik, nerabeek ez dute autonomia ekonomikorik, gurasoek ezartzen dizkien aste-sariak baino ez baitituzte kudeatzen; familiaren menpe daude, gurasoen bizi-mailari eta moduei ohitura. Bestetik, kultur kontsumoa ez da oso ezberdinak, nahiz eta aipatu beharra dagoen erdigunean bizi diren ikerketako nerabeek aukera gehiago dituztela (kontsumorako gune gehiago baitago bertan). Gainera, nerabeen bikote harremanak era biziagoan eta azkarragoan sortu eta hausten dira, adin horretan ez baitituzte bizi-osorako bikotekideak bilatzen. Munduan duten eta izango duten tokia aurkitzen eta barneratzen ari direla esan daiteke, habitusa gorpuzten ari direlako. Horren arabera, afekturako espazio zehatzak eraikitzen dituzte nerabeek, eta, bertan, adiskide harremanek zein harreman afektibo sexualek dute tokia.

Horrela, aipatu denez, gehienbat ikastetxe eta auzo bereko nerabeekin eratzen dituzte maitasunerako espazio eta une horiek. Aitzitik, eremu horietan harremanak nagusitzen

badira ere, joera horien aurrean, nerabeen narrazioetan, barne-muga sozialak antzeman daitezke: eskola barnekoak zein auzo mailakoak.

5.2.1 Ikastetxeko eta auzoko barne-mugak

Tokian tokiko lehendabiziko behaketetan, neska talde batek aitortu zidan asteburuan mutilak futbolean ikustera joaten zirela; baina beraien ikaskideak ote ziren galdetzerakoan honakoa erantzun zuten irmo: “*Ez, klaseko mutilak ez daude modan*”. Haien ustez, lehen hezkuntzan gazteagoak zirenean, klaseko mutilak ziren haien jomuga; orain, aldiz, gelatik kanpoko mutil-lagunak bilatzen dituzte, “*gustuak aldatu zaizkigu*” argudiopean. Beste hainbat kasutan errepikatu da gertakizun hori:

“*Ni klasekoekin ez naiz maitemintzen, no han madurado todavía.*”(Maialen, 13 urte, ikastola)

“*Gelakoekin ezingo naiz maitemindu, ez ditut inoiz begi horiekin ikusiko. Beti egon naiz beraiekin.*”(Enara, 14 urte, ikastola)

“*Las parejas suelen estar los viernes y los sábados juntas, luego en el colegio pues en los recreos y así, siempre sueles salir con la gente que no es de tu clase. Si es de tu clase, pues no quedas con él porque sabes que te ves en clase, sabe mucho de ti si sales poco. Si te preguntan algo y no lo sabes te da vergüenza, si es de otra clase pues no lo sabe y te sientes mejor.*”

(Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Alta, harreman afektibo-sexualak izateko ikasgelako ikaskideak aintzat hartzen ez dituzten arren, ikastetxeko gainerako ikasleei arreta eskaintzen diete, neskentzat helduagoak direnak eta mutilentzat gazteagoak, batez ere. Horrela, jolasgaraian edota eskolako korridoreetan begiradak gurutzatzen dira:

“*Institutuan, igual pasillotik zoaz eta ala! Sarriko ere bai... Normalean izaten dira tokiak jende asko egoten dena. Jende gutxi badago ezin dituzu*

ezberdindu batak eta besteak jende asko badago bai.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

Tokian tokiko koadernoan honelaxe daukat apuntatuta: Jolas garaiko une batean, Mireiak Erikari esan dio ‘*¿a que no sabes a quien he visto antes por las escaleras?*’, eta Erikak erantzun: ‘*¿Al rubio?*’. Mireiak irribarretsua dio: ‘*Bai! Te iba a avisar pero como ibas para adelante no he podido. Está muy bueno, es más mayor.*’ (...) Hortik eta minutu batzuetara, Mireiak Erikari esan dio: ‘*Está ahí David*’; eta niri begira: ‘*Es el que le gusta a Erika*’. Erikak niri begiratu eta gorri-gorri jarri da (...) Gero esan didate mutil horiek DBH4koak direla.” (Tokiko laneko koadernoko oharra, institutu publikoko behaketa).

Auzo barnean ere atzeman dira soziabilitaterako mugak, batik bat, itunpeko ikastetxe erlijiosoko nerabeen narrazioetan agertutakoak. Nahiz eta gaztetxo horiek hiriko erdigunean ibili (beste itunpeko ikastetxe erlijioso⁶⁶ batzuetakoekin, batez ere), badira beste ikastetxe batzuetakoekin partekatzen dituzten lekuak. Goi klasekoen narrazioetan, argi dute beraiek erdigunekoekin ibiltzen direla eta ikastetxe publikokoak zirikatzeko hautagaiak izan daitezkeela:

“El sábado pasado fuimos a la plaza Euskadi que es la que está al lado del Centro comercial y fuimos a vacilar a unas. Entonces nos encontramos a una que era amiga de mi amiga, entonces dijimos que no les íbamos a vacilar. Nos aburrimos. No había nadie en la plaza de Euskadi, y nos habían dicho que estaban todos ahí. Fuimos y como no había nadie pues le empezamos a vacilar. Pues empezamos dando besos al aire, hacer mua mua. Hacer de pijas totales. Y luego empezar a acoplarte. Están todos en la cuadrilla y estar tú así. Como escuchar las conversaciones y si alguien dice algo malo de ti le dices: ‘¡ay no sé qué, pero de qué vas!’ El otro día una niña empezó a decir que mi amiga había hecho eso a los chicos y le dijo ella ‘tú niña, ¿por qué cuentas que hago eso?’ ‘porque quiero’, y mi amiga le dijo ‘¿cómo te llamas?’, ‘Irati’ y en el collar ponía Andrea. Y nosotras dijimos ‘uy que mala’. Y se fue porque le llamaron. Empezaron sus amigas, ‘Andrea que vengas’. Dijimos ya está se llama Andrea, y luego mi amiga le

⁶⁶ Historikoki ikerketako ikastetxe erlijiosoa mutilen hezkuntzari zuzenduta egon bada, aipatutako beste ikastetxe hori nesken hezkuntzari zuzenduta egon da, nahiz eta egun biak aritu hezkuntza mistoan.

dijo ‘como te vuelvas a meter conmigo te las vas a ver’. (Janire, 14 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Horrela, hiri-erdiguneko nerabeek aldameneko auzo langileko gaztetxoak bereizten dituzte, ikaskide dituztenak zein kalean aurkitzen dituztenak, eta horrelaxe azaltzen da beraien narrazioetan. Janirek aitortzen du berak eta bere lagunek auzo-langileko María ikaskidea zirikatu egiten zutela, eta arazoak izan zituztela:

“En el colegio no hay muchos que anden por Rekalde⁶⁷, solamente los que son de Rekalde. María justo es de Rekalde y nos mandó su hermana, como se le ha muerto una hermana, su otra hermana la defiende un montón, entonces nos mandó a gente y nos empezó “a ver tú, niñata de mierda, como te vuelvas a meter con mi hermana voy a ir a ahí y te lo voy a explicar con tus padres delante”. Y yo se lo conté a mis padres porque no me parecía normal y estuvimos a punto de contestar pero pensamos que no nos íbamos a rebajar. Mi hermano le iba a mandar un mensaje a ella, de cómo se volviera a meter conmigo... Pero no nos íbamos a rebajar a su nivel y pasábamos. No le mandamos nada, y yo no le hable. Hasta que un día hace poco un mes o así, me habló y me dijo a ver si íbamos a ser amigas y le dije que vale. Ella había solucionado todo con todas. En cuanto les mandó el mensaje, todas fueron todas ‘ay María, perdón’, yo no le iba pedir perdón por una cosa que no he hecho. Ella me dijo que si íbamos a ser amigas y yo no le tuve que pedir perdón.” (Janire, 14 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Janireren gurasoen jarrerak, “makurtzeko” prest ez egoteak, alegia, agerian jartzen ditu habitusaren transmisioa eta klase sozialen arteko harremanak. Izan ere, auzo langileko Mariaren familiaren erantzunari klase sozial bezala erantzun diote: “rebajar” delakoarekin maila jaistea adierazten dute, behe-mailako klaseen harreman kodeak gutxietsiz. Halaber, auzo barneko muga horiek ez dira soilik adiskidetasunari dagokionez ezartzen, bikote harremanak izaterakoan ere kontuan izaten dituzte:

“Que para que te guste ese... bueno hay a chicas que les ha gustado, es bajito y lleva cresta. Muy macarra, de Rekalde (...) el de Rekalde por ejemplo que lleva pendiente, que va con los chonis y las canis, está todo el

⁶⁷ Bilbon dagoen langile auzoa.

rato con chicas. Claro porque si está con chicas, no está contigo. Que le gustan un montón, que se han liado veinte mil veces.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Beraz, ikastetxeak eta auzoak mailaketa soziala errepikatzen laguntzen dute, baina barne-mugak horiek kontuan hartu beharrekoak dira: bada, ikastetxe eta auzo berdinen barnean artikulazio zehatzak daude.

5.3 Nerabeen maitasun-ibilbideak

Genaro Aguirre Aguilarek, *Texturas del amor contemporaneo. Imaginarios juveniles y prácticas amorosas urbanas* (2008) ikerlanean, Mexikoko Veracruz lurrealdeko gazteen maitasun-ibilbideak aztertu ditu hiriaren baitakoak, eta, bertan, espazialitatea eta afektibilitatea uztartzen dira. Egilearen aburuz, hiria bezain ikusgarriak dira amodiozko esperientziak, espazioek modelatzen baitituzte biografia sentimentalak. Izan ere, badaude bizitza emozionalarekin, sexualitatearekin eta maitasunaren kontzepzio eta irudikapenekin lotutako ibilbide zehatzak. Hori dela-eta, hiri-maitasuna izendatzen du Aguirrek hiri faktoreek eta agenteek nerabeen amodioaren irudikapen, diskurso eta praktiketan duten eragina (Aguirre, 2008:206):

“Así, hablar de una matriz del amor urbano, es indagar, es imaginar, es articular un entramado que materializa lo que a través de los discursos y las observaciones realizadas pudimos obtener para comprender ese lugar desde donde la experiencia amorosa se van construyendo. Para ello, conceptos o representaciones fueron ámbitos cognitivos por donde pudimos navegar para hacernos de información y dibujar la cartografía de lo amoroso, pues al contrastar los relatos, las ideas, las impresiones de nuestros sujetos de estudio con lo que recogimos en el terreno de observación, confirmábamos pero no pocas veces nos sorprendíamos de la forma en que los jóvenes la objetivaban, materializando en los espacios urbanos la vivencia de una relación de pareja. Por supuesto, que existe una dimensión simbólica de lo que la ciudad y sus rincones ofrece a las jóvenes”

parejas, pues el acto de apropiación y resignificación de los lugares empleados para la producción de sus relaciones, es la ocasión para inscribir en la ciudad las maneras en que día con día estos sujetos van dando visibilidad al sentimiento.”(Aguirre, 2008:396)

Nerabeen maitasun ibilbideak hiriaren egiturarekin gurutzatzen dira, hiriak gaztetxoen esperientziak zeharkatzen baititu. Alicia Lindon soziologoaren (2009) ustez, emozioen eta gorputzaren bidez, hiriaren eraikuntza soziala ulertzen da, subjektuak gorputz eta zirraren bitartez bizi direlako (2009:6). Lindonen aburuz, espacio guztiak daude sentimenduz eta afektuz josita; izan ere, afektibilitatea ez dago soilik praktikarekin lotuta, baita praktikaren espazialitatearekin ere. Horrela, jarduerak toki zehatz batean gauzatzeak afektuak eta emozioak bidera ditzake hainbat arrazoirengatik (oroitzapenak, bizipenak...). Espazioek sentimenduak bultzatzeaz gain, sarritan emozioek bultzatzen dituzte espacio horiek erabiltzera (ibidem:12). Alta, gure ikerketari dagokionez, esan daiteke nerabeen harreman eta afektibotasunaren artikulazioa hiriaren baitan gertatzen dela, beste aldagai batzuekin batera, adinaren, generoaren eta klase sozialaren eraginpean. Beraz, afekturako espacio zehatzak eraikitzen dituzte nerabeek, non adiskide harremanek zein harreman afektibo sexualek tokia duten. Aguirrek (2008) gazteen maitasunaren kartografía hiriaren baitan eratu du. Egileari jarraiki, gune batzuk emozioekin lotzen dituzte gazteek, eta amodiozko esperientziak bertan gertatzen dira maila indibidualean zein kolektiboan:

“Rincónes, callejones, avenidas, parques, cafés, centros comerciales, espacios escolares, salas de cine, espacios público o privados, devienen lugares practicados en los que hay un sentido de apropiación, de territorialización, de significación a la hora de materializar presencias, emociones, sensualidades. Son espacios urbanos lugares practicados diariamente que terminan por ser auténticas porosidades urbanas, en virtud de las resignificación que de los espacios urbanos realizan las jóvenes parejas durante el proceso de objetivación de su experiencia amorosa y caracterizada por el lugar que ocupa los usos del cuerpo como dispositivo capaz de expresar lo erótico, emocional, sensual, estético e imaginario en los encuentros de pareja. Sin duda alguna, geografías que posibilitan mapas, itinerarios para indagar en uno de los aspectos visibles del amor urbano: el mismo que se narra en las caricias, las miradas; cuerpos

capaces de expresar, de desdoblar un sentimiento que emerge de la psique, pero que tiene su trayectoria en las historias colectivas y las trayectorias individuales de jóvenes, para mostrar los alcances no únicamente materiales sino también simbólicos de algo profundamente humano, significativamente cultural, espacialmente urbano, temporalmente cotidiano y vivencialmente juvenil: el amor urbano.” (Aguirre, 2008:210)

Hartara, maitasunaren denbora eta espazioak txertaturik daude nerabeen bizi penetan, une eta gune horiek igarotzen dituzte-eta. Pasarte honetan, amodioaren geografia hori irudikatzeko ahalegina egingo da, Aguirreren (2008) lanean eta ikerketako nerabeen narrazioetatik abiatuz. Geografia horren baitan, gaztetxoen dinamismoa islatzeko maitasun-ibilbideak izendatu ditugu, gaztetxoen maitasun-espazio eta denbora zehatzei erreparatzeko. Izan ere, ikerketako nerabeen esperientzietan ere, Bilboko gune erreferenteak aurki daitezke, aisiaidian igarotzen dituzten espazioak, gehienbat. Horrela, esan daiteke gune zehatzak okupatzen dituztela euren maitasun, adiskide zein harreman afektibo sexualak eratzeko. Haien narrazioetan oinarrituz, gune horiek identifikatu dira, gaztetxoen maitasun ibilbidea agerian jartzeko. Espazio horietatik egindako igarobideak aldagarriak dira nerabeen jatorri sozialagatik, hau da, klase sozialaren eraginagatik. Hortaz, ondoren gune erreferente horien erabilera aztertuko da: merkataritza zentroa eta ibaiertzeko pasealekua, Urkidi parkea, hiri-erdiguneko jolastokiak eta plazak, eskolako egunetako txangoak, diskotekak, Bilbaina gala, begira egoteko lekuak eta “nire herria”.

a) Merkataritza zentroa eta ibaiertzeko pasealekua:

Gentrifikazioa nagusi izan den zonaldean daude Bilbo hiriko merkataritza zentro handiena eta pasealekua; ibaiertzean garai bateko burdinolak zeuden tokian, hain zuzen. Merkataritza zentro hori lau solairudun diseinuzko eraikin berria da, eta bertan arropa dendak, kafetegiak, zenbait multinazionalen jatetxeak, zinema, gozoki dendak, bideo-joko dendak, kirol dendak eta bestelako komertzioak aurki daitezke. Kanpoaldean, berriz, espaloi zabalak eta gune berdeak daude, Bilboko eraldaketa arkitektonikoa bultzatu duten eraikinez inguraturik (Guggenheim museoa, Euskalduna jauregia, Iberdrola dorrea, Dominen hotela...).

Arkitektura deigarriz apainduta, merkataritza zentro hori kokatzen den ibaiertzeko pasealeku nerabeen topaleku da. Paisaia hori baliatuz, argazkiak ateratzen dituzte, gerora Tuenti sare sozialera igotzeko. Bertako merkataritza zentroa ere nerabeen bilgunea da, beste hiri batzuetan egindako ikerketetan bezala:

“El centro comercial es el lugar de encuentro por excelencia: donde van, miran, tocan y a veces consumen. Les gusta porque encuentran diversas distracciones (tiendas, bares, bolera, cines) y hay gente conocida de su edad. Allí las chicas miran más las tiendas de ropa y los chicos se fijan más en las tiendas de deportes, los videojuegos y todos/as pasan el rato. Localizar sus cuerpos en estos lugares creados y pensados para adultos representa una exploración física, una representación de su identidad y una forma de transgredir un espacio esencialmente adulto.” (Baylina, Ortiz eta Prats, 2014: 143)

Nahiz eta merkataritza zentroak helduen kontsumorako eginda dauden, nerabeek espazio publikoan autonomia garatzeko tokia ere badira. Izan ere, hor egotean gurasoak lasaitzen direla diote, jakin badakitelako gune segurua dela, bideokamerak eta zinpeko guardiak daudelako; horregatik, gurasoek onartu egiten dute aisialdi gune hori. Orobak, Baylina, Ortiz eta Pratsek (2014) aipatzen duten bezala, genero-aldaerak daude merkataritza zentroaren erabilpenean: neskek interes handiagoa erakusten dute arropa dendekiko, eta mutilek bideo-joko edota ordenagailu dendekiko, nik ere frogatu ahal izan nuen bezala.

Gainera, gune horretan nerabeen zirkulazioa izugarria da, batzuk dendatan, beste batzuk zinemana, eta besteak zentroa paseatzen dute, jende berria ezagutzeko xedearekin. Nerabeek sozializatzeko eta ligatzeko erabiltzen dute zentroa. Ikastolako DBH1eko ikasleek aipatu zidaten Tuentiko helbideak eskatzera joaten zirela asteburueta Bilboko merkataritza zentrora. Bertan, beste nerabe batzuekin topo egitean, horiek gustukoak izanez gero, zuzenean “*¿Me das tu Tuenti?*” esaten diote. Horrela, beste gaztetxoen helbideak hartzen dituzte, gero eremu birtualean elkarrekin hitz egiteko. Alor horretan ere genero aldaerak daude, neskek prestutasun handiagoa baitute bertan era daitezkeen harremanetan. Merkataritza zentroan egindako behaketan, institutuko hiru mutil aurkitu nituen bideo-jokoek dendatik ateratzen, paseatzera joan ziren eta, bide batez, eskuko telefonoko materiala erodera. Beraiek argi utzi didate, “*Ez gatoz ligatzen, soilik*

begiratzeria”. Andere eta Rocio ikaskideekin aurkitzean, zuzenean esan zidaten “*Hemos venido a ligar*”. Izkina batean eserita zeuden, sarrera baten ondoan, atetik sartzen zirenei begira.

Horrela, merkataritza zentroa eta pasealekua ikerketako nerabeek zeharkatzen dituzten espazioak dira, eta horrelakoak egiten ikus daitezke bertan: kanpoaldean argazkiak ateratzen, eta barruan, kontsumitzen (zinemara joaten, jaten...) edota paseatzen. Nerabeen narrazioetan, gune hori topaleku bezala bizi dute, eta bestelako harremanak izateko aukera azpimarratzen dute. Ikusitakoaren arabera, gune horretan kapital sozialak nahasten dira, erdiguneko gaztetxoak zein kanpoaldeko auzoetakoak batzen dira-eta.

b) Urkidi parkea

Urkidi deitu dugun parkea institutu publikotik gertu dago. Astegunetan egonaldi lasaiak egiteko tokia bada ere, larunbat arratsaldeetan nerabeen elkargune bihurtzen da. Gehienak alkohola edaten egoten dira; nerabeen aburuz, horrek lotsa kendu eta jende berria ezagutzeko aukera ematen die:

“Parkean edanda gaudenean ez dugu lotsarik eta orduan egiten dugu, joaten gara eta hitz egiten hasten gara. Baino mozkortuta ez gaudenean ez dakit. Nire lagun batek asko hitz egiten duenez jendearekin, ba jende asko hitz egiten du eta berari esker lagunak egiten ditugu.”(Asier, 14 urte, institutu publikoa)

“Lagunekin gaudenean Urkidin egoten gara edaten. Jendea ezagutzen dugu. Joaten gara eta edaten dugu bakoitzaz bere bolara, igual lagun batek ezagutzen du beste lagun bat eta aurkezten dizu. Pasan cosas asi.”(Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Nerabeak elkar ezagutzeko gunea izateaz gain, asteburuetako tarte horiek ere ligatzeko erabiltzen dituzte. Parkean egiten dituzten egonaldi horietan harreman afektibo sexualak izateko aukera aurreikusten dute:

“Noiz astean zehar? Hemen ez. Urkidin ligatzen dugu. Jende berria etortzen da orduan hasten zara batekin hitz egiten eta gero bestearekin eta azkenean lagun berriak egiten dira, batzuk beste batzuk baino goapoagoak, eta azkenean Tuentian hasten zara elkarritzetako izaten eta gero eta gehiago eta tiriritiriri eta azkenean [txalo].” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

“Urkidin nik uste dut ligatzen dela. Nola gauden denak batera, si un amigo le conoce al otro, que el otro le conoce a tal, azkenean ezagutzen gara denak. Hori guai dago.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Parke horretan behaketa egitean, nerabez josita zegoen eta deigarriak iruditu zitzaitzidan hainbat aspektu. Batetik, adierazgarriena janzkera izan zen. Ikastetxera joateko arroparekin ohituta, eraldaketa nabarmena atzman nuen, nesken artean batez ere. Askoz jantziago zihoaZen, takoidun zapatak eta orrazkera oso zainduak. Bestetik, genero aldaerak gailentzen ziren. Aldamenean mutilen lagun talde bat zegoen, kamiseta kenduta flexioak eginez, kronometroaren denboraren pean. Parean, horma batean igota, neska batzuk dantzalekuetako dantzarien antzera ari ziren dantzan, eskuko telefonoek jarritako doinuei jarraiki. Euretariko asko alkoholaren eraginpean zeudela ematen zuten. Mutilek edariak zituzten: whisky, rona... denak kristalezko botiletatik edaten ari ziren graduazio altuko alkohola. Neskek, berriz, alkohola freskagarriekin nahasitako botiletatik edaten ari ziren. Praktika ezberdindu horiek genero identitatearen eraikuntzari lotuta daude: maskulinitatearen gorputz sendotasuna erakusteko eta neskek liraintasuna, batik bat.

Horrez gain, harreman sexualak izateko toki aproposa omen da parkea, asteburueta batez ere. Esate baterako, behaketa egun batean, institutuko hiru bikote arratsaldean parkera musukatzera joateko gelditu ziren, astean zehar jende askok zeharkatzen ez dutelako. Asteburuei dagokienez, Urkidi parkera joateko arrazoia jende berria ezagutu eta ligatzea omen da. Halaber, genero desberdintasunak harremana afektibo sexualak eratzerakoan ere nabaritzen dira:

“Ezberdintasuna dago nesken eta mutilen ligatzeko eran, mutilak se hacen los malotes, que si no sé qué, igual empiezan a hablarte cariñosoedo horrelako gauzak. Neskek ligatzeko... Nire inguruan neskak ligatzeko, depende el día. Ligatzen dugunean a rollos, sin más. Si con ese tíote liaste,

pues sin más egoten zara berarekin a rollos, en el parque. Normalmente ligatzen dugu hor edo beste tokia batzuetan jaira goazela.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Helduen begiradatik kanpo harreman sexualak izateko estrategiak dituzte, parkeko komun publikoa erabiliz, besteak beste. Institutu publikoko lagunek aipatu zidatenez, harreman sexualak izateko erabiltzen dute komun hori, bertan elkar masturbatzu:

“Sexualitatea nire edadean muxuak, jendeak gehiago egiten du. Yo he estado alguna vez en Urkidi e igual gente que se va y que le hace la chica al chico alguna paja, y al revés, pero tampoco es muy normal eso, he visto muy pocas veces. Se van a eso, y se sabe. Algunos del insti. Luego las cosas de ahí se quedan ahí. Yo luego las noto igual, no dicen nada de eso.” (Iker, 14 urte, institutu publikoa)

Horrenbestez, esan daiteke Urkidi parkean institutuko nerabeen eta inguruko zenbait ikastetxetako ikasleen aisiaidiko lekua dela, baina erdiguneko gazttxoek ezagutzen ez duten espazioa ere badela. Institutu publikokoek erabiltzen dute jende berria ezagutzeko eta harreman afektibo sexualetan zein sexualitatean ere trebatzeko. Hartara, maitasunaren eta sexualitatearen kontzepcioak bertan eraikitzen dituztela esan daiteke, eta sexualitatean trebatzeko aukera izatean, praktika horiekin guztiekin, goi klase sozialen ikuspegi kontserbatzailetik urruntzen direla.

c) Jolastokia eta hiri-erdiguneko plazak

Haien ikastetxeko jolastokia eta hiri-erdiguneko hainbat plaza goi-klaseetako nerabeen adiskidetasun eta maitasun harremanetarako garrantzitsuak dira. Izan ere, itunpeko ikastetxe erlijiosoak jolastokiko atea irekita uzten ditu ostiral arratsaldetan, kirol eskaintza ugariagatik (kirolean jarduten direnak gerturatzen dira, baita horien ikaskideak ere). Beraz, gazttxoen asteburuetako aisiaaldi gune bihurtu da jolastokia. Nahiz eta beste ikastetxe batzuetakoek sartzeko aukera duten, bertan biltzen diren nerabe gehienak bertako ikasleak izaten dira. Horrela, ikastetxeko gazteenek eta helduenek harremanak

izateko aukerak dituzte. Gainera, harremanetarako gunea izateaz gain, harreman afektibo sexualak eratzeko guneak ere badira:

“Cuando salimos ya tenemos que en la cabeza si tenemos que ir a un sitio o a otro. Por ejemplo, al principio siempre vamos al patio. Pero hasta las seis y media no llega nadie. Hasta que no llega la gente... a las seis y media estamos ya ahí. Cuando es de día estamos todos jugando; entonces no nos hacemos caso ni tú a ellos, ni ellos a ti. Cuando se hace más de noche y la gente para de jugar, vas al baño y te los encuentras, y no paras de hablar. Dices la excusa, a la fuente o al baño, siempre. Siempre te quedas ahí hablando y ya está, te los encuentras.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Es que es un sitio que todo el mundo va, estamos ahí, y sabemos que ahí va a haber gente. Vienen de otras clases y de otros colegios, porque por ejemplo los viernes por la tarde después del baloncesto, hay muchísima gente viendo de otros colegios. Porque los demás colegios suele cerrar los patios, y este es un sitio donde puedes estar. Si llueve te puedes meter en un pabellón.” (Izaskun, 12 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Nesken narrazioetan agertzen da, batez ere, harreman afektibo-sexualak hasteko toki aproposa bezala. Jolastokian arreta handiz egoten dira, gustuko duten mutilaren esperoan. Haien aisialdiko jarduerak mutilekin egoteko antolatzen dituzte. Horrek mugatzen ditu hainbat arlotan:

“Con las amigas estamos jugando a ‘rondo’. Siempre pedimos el balón y jugamos a ‘rondo’, te lo pasas bien. Pero si de repente ves que entra el chico que te gusta, vas y te sientas. Porque si te sientas te ve, si te estás moviendo no te ve. Cuando estás corriendo siempre hay un listo que si el chico que te gusta está a la derecha va algún listo a coger la pelota hacia allí. Entonces yo me siento en el medio o en cualquier lado y punto. Y siempre hacemos lo mismo.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horrela, gorputza geldiarazi egiten dute eta mugimendu neurtuak egiten dituzte, mutilen begirada erakartzeko. Maitasunak euren elkarrekintzan duen zentralitateagatik, aisialdia baldintzaturik dute Nataliak eta bere lagunek:

“Y siempre hacemos lo mismo. Pero depende si no está en el patio, hay veces que nos quedamos en el pabellón. Depende donde esté pues hacemos una cosa. Hay veces que estamos esperando a que llegue. (...) En los patios siempre hablamos, siempre hablamos sobre la gente que te gusta. Siempre nos movemos porque está no sé quién y así... Hay un lío, porque a mí me gusta uno que va en la misma cuadrilla que el que le gusta a Edurne, y el de Irati va a otra cuadrilla, y Izaskun como no le gusta nadie, es una sosa, pues va con Irati a otra zona, y yo voy con Edurne a otra. Así que estamos dando vueltas al campo para verles. E igual dice que está a la derecha y el mío está a la izquierda, luego ya... o igual te empieza a hablar. (...) Edurne siempre se enfada conmigo, y me dice a ver por qué me tengo que ir al pueblo. Que le iba a hablar este viernes al chico. Porque los viernes siempre está en el que le gusta en el patio, el mío no, siempre estamos en el patio porque está el que le gusta. Y siempre me dice que esta vez se iba a atrever a hablarle. Este viernes le voy a hablar yo y Edurne va a estar delante, me ha convencido, no sé que ha hecho.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Normalean gustuko dituzten mutilak ikastetxekoak izaten dira, maila berekoak zein beste maila batekoak. Haien gustuen arabera igarotzeko lekuak eta ibilbideak aukeratzen dituzte, mutil horiekin bikote harremanak izateko itxaropenarekin. Horrela, adin horretan, ikasleek euren artean harreman afektibo sexualak izateak goi-klasearen barneko harremanak sendotzen ditu. Horrez gain, harreman afektibo sexualak erdigunean izateak beste neska batzuekin dituzten laguntasun harremanak oztopa ditzake, izan ere, beste talde batzuetako neskek ez dute gustuko mutilen atzetik jarraika ibiltzea:

“Pues igual nos dicen que el chico que le gusta a una está en el patio, entonces algunas van y otras no. Por eso nos cansamos. El chico que le gustaba a Natalia igual estaba en el patio y yo le acompañaba, y Natalia a mí, pero estas pasaban de eso, por eso nos hemos cansado de ellas, porque no hacen nada. A nosotros nos gusta más eso, porque sino no tiene gracia... algunas veces empieza a hablar de las puntas abiertas y del calcio de las uñas.” (Irati, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Izan ere, neska guztiak ez daude prest haien aisialdia mutilen arabera mugatzeko. Horrek lagun artean banaketak dakartza. Larunbatetan, berriz, jolastokia hustu eta ikastetxe horretako ikasleak (batez ere, DBHko lehen ziklokoak) aldameneko plazan biltzen dira, gehienbat (helduagoek bestelako aisialdi guneak bilatzen dituzte). Enparantza horretan, hiri-erdiguneko beste ikastetxe erlijioso batko gaztekin batzen dira:

“Luego a Etxezuri, que es una plaza que está al lado de las torres de Etxezuri. Ahí igual también vamos pero pocas veces, porque hay mucha gente y a mí no me gusta el ambiente que hay. Hay mucho gambero. El otro día les pusieron como una especie de petardo en uno de los portales y estalló el cristal. Y en Halloween les echaron huevos al portal entero y caían casquetes. Eran de bachiller pero también hay de mi curso. Eran más chicos pero había alguna chica también.” (Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Hartara, asteburuetan hiri erdiguneko plazak eta itunpeko ikastetxeko jolastokia erabiltzeak goi-klasekoen arteko harremanak sendotzeko aukera ematen du, egungo eta etorkizuneko kapital soziala eratuz.

d) Eskolak antolatutako zenbait egunetako txangoak

Ikerketako nerabeek harremanak eta bikote harremanak izan ditzaten beste guneetako bat dira ikastetxeek antolatu ohi dituzten zenbait egunetako txangoak. Ikastetxeek DBHko lehen zikloan egunak igarotzeko egonaldiak egiten dituzte, sarritan hezkuntza proiektu zehatzekin loturik daudenak (genero indarkeriarekin, kulturaniztasunarekin...). Bilboko nerabeei dagokienez, ikastolako eta institutu publikoko ikasleak Errioxako herri berean egon ziren astebete, garai ezberdinan. Egonaldi horietan adierazgarria da, batik bat, gure ikergaiarekin harremana duelako, azken gauean egin ohi den dantzaldia, beste ikastetxe batzuetakoekin batera izan ohi dena. Neskek, batez ere, etengabe izaten dute gogoan saio hori. Joan baino lehenagoko

egunetan, zein arropa eramango duten adosten eta hitz egiten aritu ziren, dantzaldia ligatzeko unetzat hartzen dutelako:

“Briñasera goazenean... baina esaten dute mierda bat dela. Areto nagusia bezalakoa dela, ez dakit zer izango den... Nik hasieran gona bat eraman behar nuen, baina gero praka bakeroak eta kamiseta bat eramango dut. Gona bat arropa berezi bezala eta gero makilatuko gara apur bat, nik depende igual ikusten badut hortik mutil bereziren bat gustatzen zaidana dagoela, ba agian makilatuko naiz. Bestela ba ez. Solo si veo a alguien. Porque para ligar con los nuestros pues no. Ondo eramatzen naiz, pero como amiga. Por eso no... Ez zaizkit gustatzen. Oso infantilak dira...”

(Maitane, 12 urte, institutu publikoa)

Horrela, arropa aintzat hartuta, dantzaldiak beste ikastetxe batzuetakoekin harremanak izateko baliatzen dira:

“Pero por ejemplo cuando fuimos a Briñas me dijo Paula a ver si me parecía guapo ese chico, y le dije, bueno no está mal. Y me dice, vale pues le voy a pedir el Tuenti de tu parte, y van y le pidieren el Tuenti entre todas. Y yo me quede como vale... y no tenía Tuenti, y me dicen que no tiene Tuenti, y yo que me da igual, y me dicen pues le vamos a pedir el número de teléfono y se lo dieron. Y ahora un día justo después de Briñas, el chico se ha hecho Tuenti.” (Maitane, 12 urte, institutu publikoa)

Hori dela-eta, une horietan beste ikastetxe batzuetakoekin egoteko aukera dute, baina bertan eratzen diren harremanek iraupen laburra izaten dute, sarritan herri eta hiri ezberdinakoak direlako. Horrela, esan daiteke bikote harremanak izateko unetzat hartzen dituztela.

e) Diskotekak

Bilboko erdigunean daude nerabeentzako dantza-toki nagusiak. Diskoteka horiek nerabeei zuzendutako saioak egiten dituzte larunbat arratsaldeetan, eta ordutegi horretan

ez da alkoholik saltzen. Horrela, bertara gerturatzen dira Bilbo erdiguneko eta beste zonalde batzuetako nerabeak.

“Esan diet Zona Zerora noala, ezberdintasuna da bat oso txikia dela eta bestea dela oso handia eta da handientzako, hamasei urtekoentzat baina ez dizute karnetik eskatzen. Ezin da alkoholik eskatu barruan, da zero zero, da hamasei eta hamalau urte bitartekoentzat. Hor edaten dugu granadina con red bull, edo pitufo, ez dakidala zer den, edo beste gauza bat kiwiarekin eta gero beste gauza bat, eta koka-kola, kas....” (Maialen, 13 urte, ikastola)

Dantzaleku horretan gertatutakoak, hurrengo egunetako jolas-orduetako hizketa gaiak izaten dira. Maialenek zera dio: “*Yo baile con éste, y luego con otro*”. Haren arabera, neska gehienek berdin dantzatzen dute, “*Perreamos, las chicas todas bailamos igual, y los chicos también*”, mutilek aldaka mugitzen dute eta neskek ipurdiarekin hankaren mutila inguratzen dute. Era berean, diskotekara joatea helduen aisialdi ereduarekin lotzen dute, horregatik, euretariko askok gurasoen debekua dute:

“Como te he dicho uno de mis mejores amigos es muy raro. Suele pensar mucho en video juegos y en estar en casa, yo estoy un poco adelantado, estoy todo el día pensando en chicas, me gusta mucho quedar con mis amigos y me gustaría todo el rato, quedarme hasta tarde. Ir a una discoteca con mis amigos. Me gustaría hacerlo pero mis padres no me dejan salir hasta tan tarde. De casa no me dejan...” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Beraz, diskotekara joateagatik, haien adinari dagozkion arauak hausten dituztela uste dute. Halaber, horrelako espazioak ez dituzte ikerketako nerabe guztiekin erabiltzen. Ikastetxe erlijiosoko eta ikastolako nerabeen artean agertzen da, batez ere, diskoteka aisialdirako gune bezala, nabariagoa da institutu publikoko ikasleentzat baino, horiek nahiago izaten baitute parkean egon.

f) La Bilbaina gala

“Sociedad Bilbaina” Bilboko elkartea “La Bilbaina” gala antolatzen du gazteentzat, gabonak aldera. Elkarte edo klub sozial hori XIX. mendeko gizon entzutetsu batzuek eratu zuten, eta helburu nagusia irakurketarako eta aisialdirako gunea sortzea izan zen. Elkarte itxia da, eta bertan sartzeko baldintzak daude: batetik, gizona izatea, eta, bestetik, dagoeneko kide baten gonbidapena izatea da, gerora onarpen batzordeak ere onartu behar du sarbidea. Klub sozial horrek kideen seme-alabentzako dantzaldia antolatzen du gabonetan, eta, bertan, hainbat DJ ezagunen emanaldiak izaten dira. Sarrerek 45 euro balio dute, lau edariren truke (betiere alkoholik gabekoak), eta kide baten bitartez soilik lortu daitezke. Halaber, dantzaldian parte hartzeko nahitaezkoa da trajea eta takoiak eramatea.

Horren aurrean, itunpeko ikastetxe erlijiosoko neskek jakin badakite urtebete barru gala horretan parte hartuko dutela. Horregatik, Sofiak eta bere lagunak jadanik hasi dira takoiak erabiltzen ikasten eta oinak ohitzeko saiakerak egiten, “*Voy a ir con Isabel a ensayar con los tacones a unos soportales, hasta el año que viene porque vamos a tener que estar con ellos tres horas*”. Sofiak argi dauka jantzi luzea eta takoidun zapatak eramango dituela, gaueko hamaiketatik ordu bietara utzi diotela, eta horregatik, hiru orduz takoi altuekin egon beharko dela. Gala hori hamabost urte dutenentzat egiten da, eta jendea ezagutzeko toki aparta dela dio, batez ere, “*chicos con traje*”, Sofiaren aburuz, “*Porque pasamos de los chicos macarras, nos gustan los chicos con traje porque los chicos de traje son buenos y no son macarras*”. Hitz horiek klase sozialen zenbait aspektu utzi dituzte agerian, besteak beste, dotoretasunaren garrantzia klase markarekin nahastea. Aipatutako maitasun-ibilbide guztietatik, dantzaldi hori da klase banaketa argiena erakusten duena: sarbide murritza du, Bilboko goi-klasekoen kapital sozialari mugatutakoa. Hartara, bertan goi-klaseko gazteen artean loturak sortzen dira, adiskidetasunerako zein bikote harremanak izateko.

g) Begira egoteko lekuak

Toki zehatza izan ez arren, genero aldaerak nabarmenki eragin du “begira egoteko lekuak” deitu ditugunen hautaketan. Izan ere, neskek mutilei begira egoteko tokiak bilatzen dituzte: altueradun tokiak, harresiaren beste aldea, edo leihoa, mutilak eta haien jarduerak ikusteko nesken kokaleku izaten dira.

Esate baterako, institutuko neskek dantza entseguak gela batean egiterakoan, leihoa irekitzen zitzuten kanpoko mutilen jarduerak begiratzeko eta tartean hitz eta oihuren bat gurutzatzeko. Kasu batzuetan, leihoko parajea atsegin ez zutenean, “*Nada interesante*” esaten zuten. Beste batzuetan, aldiz, begirada ezkutatzeko leihosareta erdi jaitsita zutela, mutil nagusiak begiratzen zitzuten, “*Dani, el de tercero, está super bueno*”. Sarritan, mutilak begiratzeak mugikortasuna eskatzen du, atzetik jarraitzeraino. Horrela, ikastetxe erlijiosoko hiru neskek aitortu zidaten, gustuko mutilak jolasketako iturrian egonez gero, beraiek ere hara joaten zirela, “*Porque están más buenos y son más guapos*” argudiatuz. Gainera, neska-ikusleen mugikortasunak eskola ordua gainditzen du. Ziortza hamalau urteko institutuko neskak lagunei proposatu zien euren auzoko ikastolako mutilen entrenamendua ikustera joatea, bertan gustuko duen mutila dagoelako. Bere lagunek baietz esan zioten egitasmoari, eta batek honakoa argudiatzen zuen: “*Vamos porque están buenos*”. Leku aldatze horiek nesken aisialdi guneak baldintza ditzakete. Esate baterako, Ziortza Urkidi parkera joaten hasi zen, gustuko mutila bertara joaten zelako. Tokiz aldatzea oso ohikoa da, eta, sarritan, mutilen kirol jarduerak izaten dira aitzakia:

“Orain ostiral eta larunbatetan nire lagun gehienak Deustura jaisten dira mutil batzuekin egotera. Hauek gure mutilen futbol taldekoak dira, pero están más buenos que los nuestros, oduan Deustura jaisten dira neskak beraiekin egotera, ez dira egoten gure mutilekin soilik beraien taldekoekin. Beraien edade berdina daukate, baina están más buenos. Nobedadea denez, jaitsi egiten dira.” (Maitane, 12 urte, institutu publikoa)

Adin horretako neska askok aitortzen dute gustuko duten mutilaren arabera aukeratzen dituztela aisialdiko tokiak, baina betiere ibili ohi diren tokietara mugatuz:

“Kalean nagoenean saiatzen naiz gustuko dudan mutila ikusten. Igual enteratzen banaiz egun batean bera ez dela ateratzen ba etxeko lanak egiten geratzen naiz eta bihar bera ateratzen bada, orduan ateratzen naiz. Mireiak deitzen nau eta esaten dit: ‘Maitane atera, mutil hori aterako dela’, orduan bai ateratzen naizela. (...) niri gertatu zait dagoela mutil bat asko gustatzen zaidana eta joan nahi dut bera dagoen tokira nik bera ikusteko eta berak ni ikusteko, baina nire lagunek ez badute nahi ez naiz ni joango ni bakarrik. Joaten gara guztiok edo ezer.” (Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

“Geunden dantzako klasean eta a las cuatro y cuarenta y cinco, mutila zegoen beste lagun batekin geratu ziren futbol proba batzuk egiteko eta ni nengoen en calcetines, con las mallas cortas y la camiseta de tirantes eta esan nuen nik ikusi behar nuela eta orduan esan nion andereñoari, mesedez, atera ahal naiz nire ama dagoela eta ez dakit zer... eta berak baietz esan zidan ateratzeko... atera nintzen kalera euria egiten, mallak eta hori guztiarekin ea ikusten nuen. Bainazkenean lagunak esan zidan ailegatu zirela hamar minutu beranduago eta ez nuen ikusi.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Begira egoteko tokiak bilatzea maitasunak nesken bizitzetan duen garrantziaren ondorioa da, mutilen pertzepziotik bereiziz. Lehendabiziko kapituluan ikusi denez, diskurtsiboki garrantzia kentzeko joera badago ere, amodioari eskainitako arreta nesken praktikak baldintzatzen ditu. Nahiz eta oso ohikoak den begira egoteko tokiak bilatzea nesken artean, badaude nesken jarrera horien aurrean oso kritiko agertzen direnak:

“Algunas siempre están detrás de los chicos. Natalia no lo quiere admitir, pero está siempre detrás de los chicos. Se le ve y todo el mundo lo sabe. Pero nadie se atreve a decirlo, para no dañarle. Un día que yo estaba hasta ahí, le dije: ‘oye, Natalia, deja de ir detrás de los tíos’. Va detrás de todos, de cualquiera que se le ponga por delante, igual del más feo, te lo juro. Al más feo que se le ponga por delante y le diga ‘ay Natalia, no sé que...’ Se le cambia el chip. Le gustan muchísimo los chicos. Les da muchísima importancia. Los pone por encima de sus amigas y eso no mola. A mí no me cae bien Natalia, no me cae bien. Siempre que quedamos, siempre hay una segunda razón que es porque el chico que le gusta está ahí o porque los

conoce, o hay alguno que le gusta de ahí. Siempre si aparecen los chicos va a hablar con ellos y deja a las chicas tiradas o lo que sea. Además se ha vuelto muy falsa y muy pija estos últimos años, a mí ya no me cae tan bien como antes. Antes era de mi clase de siempre.” (Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Mutilen atzetik ibiltzea ez da neska guztien gustuko eta, horregatik, batzuek gai horri ematen dieten garrantzia gaitzesten dute. Hala ere, hazi ahala izan dituzten aldaketak nabaritzen dituzte: bikote harremana izateak urteekin garrantzia hartu duela diote.

h) “Nire herria”

Aipagarria da nerabeen narrazioetan zein agerpen izaten duten oporretako herriek. Arestian aipatu dugunez, nerabeen narrazioetan uda da bikotekidea izateko unerik onena. Udan askatasun gehiago dutela nabaritzen dute, eta maitemintzea edota harreman afektibo sexualak izatea errazagoa dela diote. Horregatik, hainbat maitasun istorio edota zenbait arau hausteko gunetzat hartzen dituzte uda igarotzen duten herriak. Sarritan izaten dute gogoan oporraldietan igarotakoa, eta ausardia erakusteko erabiltzen dituzte bizipen horiek gainerako lagunen aurrean. Herriko gertakizunekin lagunak liluratzentz ahalegintzen da Maialen, hunkitura hitz egiten du herriari buruz, bertan hirian baino askatasun handiagoa duelako, “*es que tengo ejemplos para todo, tú cuentame que yo te digo que en mi pueblo... ”.*

5.4 Maitasunaren espacio/denboran egotea: gorputz lana eta trebakuntza

Bilboko nerabeen maitasunaren geografia irudikatzeko orduan, giltzarriak izan dira nerabeen gorputzak; gune eta une horietan gorputzen bitartez kokatzen direlako eta gorputza eraldatzen dutelako. Bilakaera horiei esker identifikatu izan dira maitasunerako lekuak, esate baterako, zenbait egunetako txangoetara joateko neskek zer

arropa, makillaje eta orrazteko gailu eraman adosten zutenean. Gorputz eraldaketa hori “gorputz-lana” izendatu da, hirugarren kapituluan ikusi izan denari hertsiki loturik, Wacquant-en (1995) lanean oinarrituz eta Estebanek (2004) egiten duen kontzeptuaren berrikuspenari jarraiki. Esan bezala, Wacquantek Chicagoko boxeolariei buruzko etnografia egiten du eta bertan boxeolariek egiten duten gorputz entrenamendua eta ikasketari erreferentzia egiteko erabiltzen du kontzeptua:

“Una intensiva manipulación del organismo, regulada con precisión, cuyo objetivo es imprimir en el esquema corporal de púgil series de posturas, rutinas de movimientos y estudios subjetivos emocional-cognitivos que le convierten en un practicante dialogante de la “dulce ciencia de golpear”. Es una forma de “trabajo práctico” en el sentido que implica el ejercicio de una inteligencia que se realiza en comunicación con las realidades concretas y actuales de su entorno natural y su objeto (Bittner, 1983, p.153) Y reorganiza de forma práctica el campo corporal entero del púgil, haciendo resaltar ciertos órganos y capacidades, y haciendo retroceder otros, transformando, el mundo a su alrededor” (Wacquant, 1995:73 in Esteban, 2004:121)

Estebanek modeloen azterketan aplikatu du kontzeptua. Izan ere, egilearen arabera, boxeolariek zein modeloek gorputza dute lanbidearen erdigune eta, horregatik, laneko zein aisialdiko jardueretan zenbait gorputz-teknikaren ikasketa eta praktika barneratzen dituzte, modu ikusgarrian (2004:122). Nerabeei dagokienez, nabarmendutako gorputz eraldaketak maitasunerako espacio/denbora horiekin daude loturik. Izan ere, espacio eta denbora horiei ematen dieten esanahiak bultzatuta, gorputzak prestatzen dituzte, eta horixe da espacio horien berezitasunaren seinale. Urkidi parkean egindako behaketan, neskengan, batez ere, itxura aldaketa izugarria nabaritu nuen, eskolako ohiko janzkerarekin alderaturik.

Atzman denez, gorputz-lan horiek lotuta daude heldutasuna irudikatzearekin eta genero-identitatea sendotzearekin. Batetik, heldutasunera iristeko ahaleginak direla-eta, espacio horietan, gorputzaren bitartez heldu bezala jokatzen ahalegintzen dira neskak, eta haurren jolastzat jotzen duten oro baztertzen saiatzen dira. Horrela, dantzatzea edo harrapaketan aritzea lotsatzeko arrazoi bihurtzen dira, eta elkar mugatzen dute “*No hagas eso que me da vergüenza*” bezalakoekin. Helduen gorputz-teknikak eta janzkerak

hartzen dituzte umotasuna erakutsi nahian. Izan ere, gorputz-lanarekin lotzen dute, batik bat, heldutasuna, eta ez horrenbeste nerabezaroan etengabe errepikatzen den gorputz-biologikoaren aldaketa horrekin; haurra edo heldua izatea ez baita biologiara mugatzen:

“Nire gelako neska bat dirudi neska txiki bat beti da oso infantila. Beti daramatza kamisetas de Bambi edo Mickey Mouse.” (Miren, 14 urte, ikastola)

“Hay gente que hace esfuerzos especiales por ligar como cambiar el tipo de ropa, o hacerse más chulito, o más duro. Lo de ropa no sé, pero lo de hacerse más duro, sí. Como hablar con más... por ejemplo Aritz. Urteekin izan da aldaketa. No es que le cambie la voz, es por la forma de hablar. Yo creo que ha sido por las novias. Yo creo que ha sido empezar a salir con gente y empezar a cambiar. Al final cambias un poco. Igual cuando habla contigo, igual, está igual, pero cuando habla contigo e igual está la persona que le gusta a lado habla un poco diferente para que se le note más.”
(Borja, 13 urte, institutu publikoa)

Nerabezaroan heldua izatea ez da “ahotsa aldatzea”, bularrak hazita izatea edota altuera batera iristea, aitzitik, heldutasuna gorputzaren erabilpenari dago lotuta, umoen gorputz-teknikak eta estetika barneratzearekin. Horregatik, haurren janzkera eramatea (Micky Mousen kamiseta, esate baterako) heldutasun ezaren adierazlea da. Aitzitik, janzkera helduagoa izatea, askotan erakargarritasuna bilatzeko, helduen praktikekin lotzen da:

“Maialen tiene casi un año más que nosotras y sabe mucho más, es más lista de cabeza. Por ejemplo, nosotras no, no pensamos en tener un novio. Pero si salimos a un sitio y nos juntamos con otra ikastola, yo sé que los chicos no se van a fijar en nosotras. Se van a fijar en ellas, porque igual va Maialen y les dice ‘Hola, ¿qué tal?, Dos besos.’. Por ejemplo, fuimos a hacer una cosa de eskupilota con otros colegios (...) y nos preguntaban ‘¿Oye conoceis a esa tal Maialen? Le podéis decir a ver si luego puede hablar contigo’. Chico con el que hablabas, el tema que sacaba era Maialen. Porque Maialen iba a propósito, con una camiseta así, enseñando media teta.” (Leire, 12 urte, ikastola)

“Orduan adibidez Ibilaldira bagoaz asteburu honetan litroak, esan digute bigarren mailakoak ez joateko de muy pijitas, bestela nos la vamos a cagar guztiak borrokak direlako. Ez joateko de Adidas eta horrela de las más chonis. Esan digute joateko normal, praka laburrekin eta tirantedun kamisetarekin eta listo (...) Es que si voy a la zona no voy a ir como vengo a clase en chandal. Normalmente joaten naiz con faldas de tubo, pantalones cortos, y así. Hori ez dut egiten para ligar, jo es un sábado no voy a ir en chandal.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

Maialenek gazteen arropak eramatzen ditu, eta ez haurrenak. Gorputzaren estetikari garrantzia ematen dio, eta badaki zenbait espazioetara egokitzen. Nahiz eta aipuan Maialenek ukatu egin duen, gorputzaren eraldaketak ligatzeko helburua duela sinesten dute askok. Bada, nerabeen gorputz-lanak arrakasta eta harreman afektibo sexualak izatea du xede:

“Ella para ligar se hizo un piercing. Ella no dice que es para ligar. Se hizo un piercing porque se lleva mucho, porque ahora tener un piercing es lo más guay. Todo el mundo quiere tener un piercing. Los chicos para ligar se cortan el pelo así, se cortan todo por aquí, se dejan como cresta. Por ejemplo Miguel tiene así cortado. A la gente le gusta. Luego, las chicas, María, la de Rekalde, todos los viernes salen a la calle con vestiditos super cortos, por aquí. Con super escote y con tacones. (...) Yo creo que sí, porque, a veces, si te gusta alguien tú quieras que esa persona te vea bien. Si te arreglas, igual le gustas” (Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Todo el mundo los viernes se viste mejor, más conjuntadito, para que se fije en ti, porque sino no te hacen ni caso. Lo hace todo el mundo, también lo hacen los chicos, el de mi clase me dice: ‘mira este viernes quiero estar mi novia, quiero ir súper guapo’.” (Natalia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Ni adibidez hor herria ez da toki bat apaintzeko, ba apaintzen naiz, bera ez da el típico chulito eta beharbada apaintzen naiz eta berari gehiago

gustatzen zaio apaindu gabe, baina ni apaintzen naiz.” (Leire, 12 urte, ikastola)

“Klaro, bera ikusiko duzunean ez zara joango orraztu gabe, no vas a ir con una coleta. Nik ilea solte uzten dut, más bonito. Te pones más guapa. Arropa ere aldatzen da. Normalean arropa berdina jartzen dut, una persona que te guste normalean ikusten duzu larunbatetan eta larunbatetan jendea hobeto janzen da. Arropa batzuk larunbatetarako eta beste batzuk eskolara joateko erabiltzen dut. Edo batzuetan konbinatzen ditut eskolara joateko arropa batzuk larunbatetako beste batzuekin.” (Enara, 14 urte, ikastola)

Kasu horietan lagun artean zein harreman afektibo sexualetan arrakasta izateko gauzatzen da gorputz-lana: askok uste baitute gorputzaren eraldaketa hori giltza dela gustukoa duten pertsona horrengana iristeko. Haatik, bestetik, genero identitateen eraikuntza ere bideratzen dute gorputz eraldaketa horiek. Izan ere, harreman afektibo sexualekin lotzen denez, adin horretan nagusitzen den heteronormatibitatearen indarrak gorputzaren moldaketa dakar, neskak “neskago” eta mutilak “mutilago” bihurtuz. Horrela, neskek zein mutilek gauzatzen duten gorputz-lana, genero performatibilitatearekin dago hertsiki lotuta. Azken batean, gorputz-aldaketak feminitaterako edo maskulinitaterako trebakuntzak dira. Halaber, bikotea lortuz gero, ez da gorputz-zaintza albo batean uzten:

“Bikotea izatean aldatzen da igual janzkera, iba más guapa. Me arreglaba más berarekin egoten nintzenean.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

“Bikotea izaterakoa ezberdin janzen zara... asteburuetan praka laburrak... más provocativa eta mutil lagunarekin geratzean ere arropa hori janzen duzu.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

“Aldatzen dute izaera, zeren Karlos atera zen Maialenekin eta aldatu zen, una pasada. Dena. Janzkeria, ja ez zen etortzen normal, etortzen zen elegante. Markadun arroparekin, baita zen nola hitz egiten zuen. Kreitzen zuen más popular. Kopiatzen du dena, ‘¿qué tal, chaval?’ eta horrela.” (Xabier, 12 urte, ikastola)

Hartara, gorputz-lan horiek maitasun espazio/denboretara begira gauzatzen dira. Eraldaketa nesken gorputzetan nabarmenagoa da (makillajea, orrazkera, modako arropa...). Neskek, euren diskurtsoetan, garrantzia handiagoa ematen diote; esate baterako, lagunekin elkartzerakoan denbora nahikotxo ematen dute gorputza aldatzen:

“Nik preparatzen gutxi tardatzen dut, igual arropa ipini, orraztu eta hori dena berrogeita bost minutu edo. Dutxatu ere bai. Nire lagunek gehiago tardatzen dute, nire lagun batek bi ordu egoten da. Gero ez zaio nabaritzen.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

Euretariko batzuek bi eta hiru ordu artean aritzen zirela aitortu zuten. Merkataritzazentroan aurkitutako institutuko neska batek aitortu zidan hiru orduz egon zela kalera ateratzeko prestatzen: dutxatu, orraztu, arropa aukeratu, makilatu... Neskek mutilek baino denbora gehiago ematen dute. Gainera, sarritan, lan hori taldeko gorputz-lana bihurtzen dute; oso ohikoa baita neska taldeak etxe batean elkartzea elkar orratzeko, elkar makillatzeko, elkarri arropa uzteko... Urkidi parkean ikusitako gorputz aldaketa dela-eta, neskek kontatu zidaten kalera atera baino lehen baten etxearen biltzen zirela elkar orrazteko. Estebanek koordinatutako lanean (2013) antzeko praktikak ikusi dituzte neska helduagoen artean. Autoreek jarduera horiek “neskei dagozkien” jakintzen eta jarrera zehatzen erabilpena haien onurarako egiten dute; horrela, asteburuetan taldeka prestatzeak dakar: dibertimendurako espazio eta denbora sortzea, gai ezberdinenguruko komunikazioa eta haien identitatea indartzeko partekatutako espazioa. Bainan, aldi berean, kritika sozialerako eta autokritikarako gunea ere bada (2013:99). Hartara, taldeko gorputz lan horiek soziabilitatean eta berdinaren taldean sartzeko errituala izan daiteke (ibidem).

Baina, generoa ez ezik, mailaketa sozialak ere eragina du tokian tokiko gorputz trebakuntzan. Horregatik, zenbaitetan entsegu horiek helburu zehatzei begira egiten dira:

“Voy a ir con Carmen a ensayar con los tacones a unos soportales, hasta el año que viene porque vamos a tener que estar con ellos tres horas” (Sofia, 13 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Sofia Bilbaina Galaz ari da. Adinagatik hurrengo ikasturtean izango dute bertaratzeako aukera; baina, entsegu horien bidez, maitasun-espazio horretarako trebatzen hasi dira

jada. Bertan parte hartuko duela aurreikusten du ziurtasunez, argi du jantzi luzea eta takoidun zapatak eramango dituela eta ordu biak arteko baimena emango diotela. Goi klaseetan, batez ere, janzkeraren eta itxuraren zaintza berezitua nabarmendu da, eta horrek euren arteko identifikazioa ahalbidetzen du harremanak sortzean. Bourdieu, *La distinción* (1999) lanean, horrela jasotzen du:

“El sentido social encuentra sus puntos de referencia en el sistema de signos indefinidamente redundantes unos con respecto a otros que cada cuerpo lleva consigo –vestido, pronunciación, porte, forma de andar, maneras– y que, registrados de forma inconsciente, constituyen el fundamento de las “antipatías” o de las “simpatías”: las “afinidades electivas” más inmediatas en apariencia se fundamentan siempre, por una parte, en el desciframiento inconsciente de características expresivas de las que cada una de ellas solo toma su sentido y su valor en el interior del sistema de sus variaciones según las clases (basta con pensar en las formas de reír o de sonreír que recoge el lenguaje común). El gusto es lo que empareja y une cosas y personas que van bien juntas, que se convienen mutuamente.” (1999:282)

Horrela, gorputzaren bitartez, nerabeek maitasun espazioetan egoterakoan klase identifikazioa gauzatzeko aukerak edukitzentzu dituzte, baita harremanei mugak jartzeko abagunea ere. Nerabe horien artean markadun arropek garrantzia handiago dute beste ikastetxe zentroetan baino. Bada, irudiak garrantzia du, baina estatus sozialarekin lotuta:

“Yo no creo que la gente se vista diferente, pero seguro que intentas estar más guapo, aun así, yo todos los días al colegio intento, me pongo delante del espejo, me peino, intento ponerme ropa bonita para llevar y estar guapo, pero aunque no le guste a nadie, para quedar bien. Intento ponerme guapo siempre. Sí pero seguro que todo el mundo se preocupa mucho por su imagen.” (Javier, 12 urte, ikastetxe erlijioso)

Horrez gain, gorputz-lana heteronormatibitatearekin lotuta dagoen heinean, sexualitatea bizitzeko moduek ere eragina dute, eta, horregatik, goi-klaseetan gorputz-lanak berezitasunak ditu. Sexualitatearen pertzepzioari jarraiki, goi-klaseko nerabeek

gorputzaren eraldaketa ligatzeko dela gaitzesten dute, sexualitatea modu kontserbadoreagoan bizi dutelako:

“Hay las que ligan descaradamente, porque llevan unos escotes que les llegan a los tobillos, puede que su shorts parezcan bragas vaqueras. Y luego están las que ligan así o a las que ligan porque a esa persona le gusta de verdad mucho y les gustaría tener alguna oportunidad con esa persona. Tengo varias amigas así, y eso. Las que no ligan pues... las que no ligan pues se parecen más a los que no ligan descaradamente. Puede ser que los que no ligan están aquí, un poco más al lado están los que ligan normalito, un poquito, y luego los que ligan descaradamente están ocho pueblos más allá. Ligan más muchísimo, descaradamente, cualquier cosa que tenga... Su vida la relacionan más con ligar.”(Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“A que se hacen los malotes, a pintarse la raya no. Bueno si te la pintas así pues igual si. Bueno ahora hay un montón, todo el mundo se está haciendo choni. Hay de otros colegios que alguna va ¡dios mío! Unos pantalones así, con un vestido por aquí. Pintadas un montón... que es en plan tapate un poco. En el cole se intentan hacer, pero no llegan a ser. Lo intentan hacer para hacerse los guays. Es lo que creo.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“A mis padres les parece bien que salga, no deciden mi tiempo libre. Igual me dicen que no vaya al parque de los patos, porque no te conviene, porque está muy lejos o porque hay gente que no. Yo les hago caso. O igual les digo que me voy a comprar ropa y me dicen que me compro cosas no adecuadas, en plan camisetas de palabra de honor. Igual otras madres sí que se lo permiten a sus hijas pero a mí mi madre no me lo permite. Y yo le hago caso, porque si no me lo confisca o lo tengo que devolver, y para eso... ”(Sofia, 13 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Gorputz-lana modu sotilean egitea onesten dute, diskreazioz eta era zainduan, goiklaseetan bezala. Gainera, gehiegizko makillajea edo eskoteak beste auzo batzuetako nerabeekin lotzen dituzte, behe-klasekoekin azken batean. Horren adibide, itunpeko

ikastetxe erlijiosoko Izaskun eta Miriam lagunekin batu ziren bere etxean eta takoiak jantzi, arropa “polita” jantzi eta makillatu egin ziren argazkiak ateratzeko. Etxean argazkiak atera eta Tuentin eskegi zituzten, etxetik esparru birtualera eramanaz gorputz-entsegua. Haien ikaskide mutilek gogor epaitu zituzten, batzuek “*son unas putas*” esan zieten Izaskuni eta lagunei. Beraiek atsekabe handia hartu zuten, eta haserretu egin ziren mutilekin. Nolabait, gorputz eraldaketa horietan gertatzen den genero identitatea gehiegizkotzat jotzeagatik zigortu zituzten mutilek neskak, nesken gorputzen gaineko boterea ezarriz. Nesken kontrako indarkeria dela esan genezake.

Gorputz-teknika horietan gurasoen papera ere funtsezkoa da, horien bitartez barneratzeko baitute habitusaren gorputz eredu, “egokiak” eta “ez-egokiak” direnak zehaztuz. Hala ere, neska nerabeek estrategiak bilatzen dituzte gurasoek jarritako mugak hausteko:

“Se cambian en el baño, salen de casa con una ropa y se cambian en el baño del colegio. Por eso mucha gente viene los viernes y los sábados al patio y se cambian en el baño. Por ejemplo en Etxezuri también, yo vi a una niña que se quitaba los zapatos y se ponía los de tacón. Pero eso son más las de segundo de la ESO. Por ejemplo una rubita, que a veces lleva gafas para clase. No sé.” (Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Amaia y Alazne van. Han venido con los tacones en la mano. Diciendo ooo. Van con tacones. Sus padres son un poco irresponsables porque no saben que su hija va a ir con unos taconazos así. Porque Alazne le dice a su madre ‘Ama me voy a la Rock’, y ella contesta ‘vale, llévate dinero’. Luego dice Alazne ‘me llevo unos tacones tuyos’ y dice la madre ‘vale’. Y lleva unos taconazos impresionantes, y es como que a mí no me gustaría que mi hija de trece años llevara eso a la calle. Amaia por ejemplo se los guardaba en la mochila porque no le dejaban salir con tacones pero sí ir de fiesta y se cambiaba en el ascensor. Y luego los otros zapatos se los metía en la mochila.” (Janire, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Horregatik, oro har, gurasoek zeresan handia dute nerabeen janzkerei buruz, askotan sariatzen dira nerabeen gorputz-lanei mugak jartzen, praktika horiek adin horietarako egokiak ez direlakoan. Neskek izan ohi dituzte gatazkak: takoiak erabiltzeagatik,

minigona laburregiak janzteagatik, gehiegi makillatzeagatik... gorputza gehiegi sexualizatzearen beldurragatik, azken batean. Halaber, nerabeek beraien estrategiak dituzte euren gorputzen gaineko autonomia garatzeko, baina denek ez dute ontzat ematen.

5.5 Laburbilduz

Pasarte honetan, nerabeen amodio bizipenak eta praktikak hiriaren geografiaren baitan kokatu dira, adina, generoa eta klase sozialaren aldagaiak ahaztu gabe. Gaztetxoek maitasunerako espazioak bilatzen eta sorrarazten dituzte, helduen begiradatik aldentzen diren nerabeen bilguneak sortzen dituzte, betiere, euren bizilekutik zeharo urrundu gabe. Gainera, aisialdia eta maitasuna uztartzea kapitalismo berantiarren ezaugarri orokorra den heinean, nerabeen narrazioetan ere horrela ikus daiteke. Helduekin gertatzen den bezala, aisialdiko espazioen aukeraketa zenbait aldagai sozialen ondorioa da, eta nerabeengan ere mailaketa sozialaren eragina ikuskatu daiteke. Horregatik, gaztetxoek afektibilitatea garatzeko dituzten Bilboko zenbait gune identifikatu dira, harremanak, espazioak eta denborak uztartzeko asmoz. Izan ere, igarobide horietan laguntasun harremanak eta harreman afektibo sexualak eratzen dituzte, praktika sozialek baldintzatuta.

Maitasunaren espazio/denbora delakoan gorputzaren bitartez daude, eta gorputza erdigune bihurtzen dute. Gune horietan egoteko gorputz-lan zehatzak gauzatzen dituzte, heldutasuna erakusteko gorputz-teknikak, genero eta klase sozial harremanak agerian jartzen dituzten bitartean. Horrela, nerabeek gorputza eraldatzen dute feminitatea edo maskulinitatea indartuz. Neskek eraldaketari garrantzia handiagoa ematen diote, tarte luzeagoa eskainiz. Halaber, klase sozialaren arabera feminitatearen eta maskulinitatearen eraikuntza bestelakoa den heinean, klase sozialaren arabera ere nerabeen gorputz-lanak ezberdinak direla esan daiteke. Itxura ezberdindu horrek klaseen arteko identifikazioa ahalbidetzen du, berdinen arteko harremanak sortzea erraztuz.

6. MAITASUN-IRUDITEGIAREN ERAIKUNTZA ETA TREBAKUNTZA: HEZKUNTZA, FIKZIOEN KONTSUMOA ETA FANTASIAK

Kapitulu honetan, nerabeen amodioaren iruditegia eta horren barneratze prozesua aztertuko dira, gaztetxoen maitasun-ikasketaren arlo batzuk agerian jarriz. Bereziki adin horretako ikasketa emozionalean eragiten duten zenbait alderdiri erreparatuko zaie. Izan ere, amodioaren trebakuntza bizi-osoan zehar gauzatzen da, modu anitzean; Lagarderen (2005) arabera, emozio-ikasketa bizitzan osoan zehar gertatzen da, sarritan, era sotilean; bizi-ibilbidean, amodioa, arau-emozionalak eta sentipenak bizitzeko moduak barneratzen baititu norbanakoak:

“Este conjunto de experiencias –sentido del amor, necesidades amorosas, deberes, prohibiciones y límites del amor– son piezas sustantivas de nuestra educación constante, de una educación que en antropología llamamos educación para la vida. Se trata de una educación informal. Porque no se nos dice: te voy a explicar lo que es el amor, sino que, con palabras o sin palabras, nos van enseñando lo que es el amor. Después, aprendemos que la poética amorosas de todos los tiempos, los poetas y las poetisas, han tratado de ponerle nombre a lo innombrable, a aquello que cada una de nosotras aprendió asociado al amor, una experiencia fundamental de la vida que está centrada en el cuerpo.” (Lagarde, 2005:350)

Bizi-hezkuntza deritzona eskoletako hormetatik harago doa. Baino kapitulu honetan, hasteko, begirada arina emango zaio ikerketako nerabeen hezkuntza formalari, genero eta emozioen heziketaren inguruko isiltasuna deigarria izan delako ikerketan zehar. Hutsune horren ondorioz, maitasunaren ikasketarako gakotzat jo da haien fikzio erromantikoaren kontsumoa. Fikziozko narrazio horiek eragina dute, batik bat, gaztetxoen amodiozko fantasiatan, eta, horregatik, horiek izan dira aztertarako ildo nagusia. Sentimendu horren fantasiak oso anitzak izan daitezke, baina, sarritan, fikzioak izaten dira horien iturri, eta eguneroko bizitzarekin kontraesanak eragiten dizkiete: nerabeei gertatzea gustatuko litzaiekeena eta gertatzen zaiena aurrez aurre jartzen dira, maitasun ideal eta erreala, hain zuzen ere. Lagarderen (2005) ustez, honakoak dira fantasiak: testuinguru zehatz batean imajinatutako pertsonaia nagusi baten irudizko

gertakizunak. Kontakizun horiek ondoz ondo osatzen dute bizi-istorioa, eta bizi-aroen arabera eraldatzen dira, haurtzaroan, nerabezaroan, helduaroan zein zahartzaroan ezberdinak izanik. Hartara, sentitzeko bideetako bat da irudimena; imajinazioaren bitartez, amodioa sentitzeko abagunea suertatzen da, iraganetik etorkizuna aurreikusteraino:

“El amor está en los cuerpos. Y está también en la imaginación, en el imaginario de cada persona. Cada persona lleva en su imaginación a seres a quienes ama y a quienes amó. Y como en el imaginario el tiempo tiene otra dimensión, muchas mujeres tienen en su imaginario no sólo a seres del pasado sino a seres que vendrán en el futuro y a quienes amará. Así, nuestro imaginario permanece poblado por seres del amor de ayer, de hoy, de mañana.” (Lagarde, 2005:350)

Bitztan zehar fantasiak eraldatu arren, oro har fikzio erromantikoa deritzonetik oso gertu daude, eta horren sustatzaile nagusietako bat da industria kulturala. Eva Illouzi (2010) jarraiki, XX. mende hasieran kultur-empresariak eta industria tradizionalak maitasunaren definizio zehatzak hasi ziren erabiltzen euren interes ekonomikoak asetzeko; geroztik, kontsumoaren eta emozio erromantikoen arteko uztarketak indarra hartu du (2010:31). Hori dela eta, esan daiteke kultur-industriaren erdigunean dagoela amodioa. Aitzitik, erromantikotasuna ez da soilik kultura garaikidearen gaietako bat, hots, berez osatzen den kultur saila da: ekonomikoki autonomoa da eta berezko heroi, genero, teoria eta objektuak ditu (ibidem:33). Nolabait esan genezake amodioaren industria sortu egin dela, eta fikzio erromantikoak eta bestelako kontsumoak bultzatzen dituela.

Haatik, industria kulturalaren kontsumoak nerabeengan duen eraginagatik, amodioaren arlo hori aztertzea funtsezkoa izan da ikerketa honetan. Izan ere, nerabeei zuzendutako pelikulak, musika, aldizkariak, eleberriak... hainbat dira. Gogoan dut ikerketan hasiberria nintzela, neska batek esan zidala: “*¿Estudias nuestras relaciones de amor? Si no conoces Tres metros sobre el cielo, estás muy perdida?*” *Tres metros sobre el cielo*⁶⁸

⁶⁸ “Tres metros sobre cielo” pelikula espanyiarra Federico Moccia idazle italiarraren liburuan oinarritu da. 2010eko abenduan iritsi zen zinemetara. Fernando Gonzalez Molinak zuzendu du eta Mario Casas eta Maria Valverde aktoreak dira pertsonai nagusiak. “En Barcelona, dos jóvenes que pertenecen a mundos opuestos se conocen. Ella, la dulce Babi (María Valverde), es una chica de clase alta que vive en un entorno tan protegido como poco excitante. Él, Hugo (Mario Casas), conocido como el duro “H”, es un

pelikula gaztetxoei zuzendutako maitasun pelikula arrakastatsua da, nesken artean batez ere, eta estreinaldiak ikerketaren hasierarekin bat egin zuen. Klase sozial ezberdinak bi gazteren ezinezko harremana irudikatzen du pelikulak, amodiozko fantasiarako beste ekarpen bat da, finean.

6.1 Maitasunaren isiltasuna eta sexualitatearen beldurra: begirada arina hezkuntzari

Maitasunak bizi-antolaketan duen garrantzia ikusita, ikerketako ikastetxeetan amodioaren lanketa zuzena hutsala izan da, isiltasuna nagusitu da-eta. Pasarte honetan, azterketa sakona egin ez arren, hezkuntzaren inguruko zertzelada batzuk emango dira, ikerlanean agertutakoetan eta nerabeen narrazioetan oinarrituz. Aitzitik, isiltasun horrek ez du esan nahi amodioaren, sexualitatearen zein generoaren heziketarik egiten ez denik. Michel Foucaulten lanean argi azaltzen da isiltasun hori ez dela sexu-hezkuntza ukatzeko bidea eta horren adibidea da honakoa: garai biktoriarrean sexuari buruz hitz egin ezin arren, toki guztietan zegoen baieztapena (Mogarde, 2011:9). Nahiz eta eskolan sexualitateari (eta gaineratuko ditut maitasunari edo generoari) zuzenean ez heldu, horien inguruko ikasketa gauzatzen da modu informalean.⁶⁹ Horien artean, sexualitatearen hezkuntzari ematen zaio garrantzia gehien, ikastetxeetan zenbait irakasgaitan lantzen baita. Adibidez, Natur Zientzietai biomedikuntzaren begiradatik azaltzen dira nerabezaroan gertatzen diren aldaketa biologikoak, hau da, horrek dakarren sexu-banaketa bitarra indartzen da. Etikan, Hiritartasunean, Tutoretzan edo Erlificioan, aldiz, sexu-hezkuntzaren alde sozialagoa eta morala lantzen dira, eta batzuetan ikuspegi horien arteko kontraesanak nabarmenzen zituzten ikasleek:

“A mi edad no hay mucha sexualidad, besos o a ver todo el mundo en clase se hace el guay, diciendo hoy voy a perder la virginidad con no sé quién... chorraditas, pero son verbales. ¿En el colegio? Sí ,bueno en las tutorías hemos tenido tres horas para preguntas de sexualidad y todo, otras horas

chico impulsivo e irresponsable, aficionado a las peleas y a las carreras ilegales de motos. Esta es la crónica de un amor inicialmente imposible que arrastrará a ambos a un frenético viaje iniciático a través del cual descubrirán el amor.” (<http://www.filmaffinity.com/es/film738760.html>).

⁶⁹ Alderdi hori “ezkutuko curriculum” bezala izendatu ohi da pedagogian.

de ciencias naturales para la sexualidad anatómicamente, pero eso es más lo del aparato sexual y todo eso. Luego también en religión de una forma más vista desde el punto de vista religioso, eso yo no lo entendía. Yo me aprendí la lección saqué buena nota en el examen y ya está. Pero era algo raro, no sé, no decía nada específico, no decía nada sobre la sexualidad en verdad. Era muy raro, hablaba de la sexualidad como... no sé cómo explicarte, te traería el libro de religión, pero no te decía nada claro. Te decía que la sexualidad era algo muy importante y que la sexualidad jugaba un papel muy importante en la vida de cada persona, en la forma de ser, pero cosas... incluso eso no es lío, pero te decía otras cosas que eran muy lío. Nada importante.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa).

Sexualitatearen inguruko jarrerak generoaren arabera daude baldintzatuta, eta ikastetxeetan egin diren lanketek horiek indartzen dituzte. Ikastetxe erlijiosoa sexualitateren gaia jorratu zuten garaian, nesken kasuan, hauxe zen ardura bakarra: sexua lantzerakoan hartu beharreko jarrera, hain zuzen. Jakin bazekiten gaiaz aritzean mutilek barre egingo zutela, “*Nos van a contagiar. Nosotras también nos tenemos que reír porque sino nos quedamos serias y piensan que nos interesa*”. Izan ere, nerabe horien aburuz, goizegi baitzen gai horiek lantzeko, oraindik ez baitzuten horrelako praktikarik, “*No, ahora no, no es normal que lo hagan en primero, en tercero bueno pero ahora no tenemos... (barreak) Bueno, algunos por lo menos...*”. Sexualitateko klaseari dagokionez, neskek zera zioten: “*(...) Nos han dicho que vamos a tener que contestar un test y nos van a preguntar con quien hablamos de sexo. Yo les voy a decir que entre nosotras hablamos de sexo, pero cuando nos hacen hablar o nos sacan el tema*”. Sexuari buruz hitz eginarazten dietenak mutilak direla diote, eta mutilek, berriz, aditutzat hartzen dute euren burua:

“De sexualidad solemos hablar, solemos decir, me la quiero llevar a la cama me la quiero follar. Follamos... si se puede sí, pero no hemos follado. Pero lo intentamos, no follamos porque la chica no está preparada o no quiere. Nosotros lo intentamos. Yo creo que los que tienen novia lo han intentado.” (Mikel, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Mutilen narrazioetan sexu-praktikei buruz aritzeko askatasuna nabaritzen da, adin horretan, neskak baino trebatuago egotearen itxura egiten dute, nahiz eta praktikan ez

duen zertan horrela izan. Alta, nesken narrazioetan, sexualitateaz aritzerakoan beldurra da nagusitzen den sentimendua, sexu-osasunari buruzko hezkuntzan gaixotasunei eta bestelako arriskuei eman zaien erdiguneagatik. Graciela Morgadek (2011) bere lanean jasotzen duenez, ikuspegi hori erlijioari dago hertsiki loturik:

“Tal como las investigaciones relevadas permitieron anticipar, la ‘voluntad de saber’ (Foucault, 1984) se enfrenta con los discursos vigentes en los programas específicos y en los planes de estudio de algunas materias centrales (biología-salud, historia formación ética, etc.) que remiten, básicamente, al modelo médico-biologicista (centrado en la prevención de la enfermedades de transmisión sexual y de embarazo), orientado, con frecuencia, por algunas formas seculares inspiradas en el modelo represivo religioso: la sexualidad como amenaza del orden o como peligro para la vida social. En casi todos los casos, el silencio sistemático de la escuela constituye el discurso ausente del deseo.” (Morgade, 2011:53)

Baina irakurketa hori, generoaren arabera, ezberdindua da; izan ere, Canadian eginko ikerketa batean oinarritura, Morgadek dio neska heterosexualei zuzentzen zaiela gehienbat sexu-hezkuntza, eta erantzukizun handiagoa eskatzen zaiela:

“M. Fine en Canadá identifica diferentes discursos acerca de la sexualidad femenina que coexisten en la escuela: a) la sexualidad como violencia: que supone que existe una relación causal entre el silencio oficial sobre sexualidad y una disminución de la actividad sexual; b) la sexualidad como victimización: que busca infundir en las jóvenes la confianza para “defenderse” de predadores varones (o más recientemente, de otra mujeres); c) la sexualidad como moralidad individual: que plantea la educación sexual desde el lenguaje del autocontrol y desde una escala de valores usualmente tradicionales.” (Morgade, 2011:59)

Ikasleen narrazioetan islatzen da hezkuntza horren eragina. Nesken sexualitatearen gainean kontrol sozial handiagoa dago, eta horregatik, euren narrazioetan etengabe errepikatzen da “prest egotearen” beharra:

“Pero las chicas de tercero no creo, porque yo creo que las chicas son más que la primera vez sea especial. Pero los chicos no, los chicos se pierden

por perder la virginidad. (...) Yo le dije que no y él insistía. Y le dije que no estaba preparada y me dice, bueno pues cuando lo estés pues ya si eso... No estoy preparada para hacerlo, porque yo ahora me veo muy joven. Tengo que estar preparada para ser más mayor, porque si pasa algo prefiero tener la ESO sacada, para que luego no tenga problemas. Por si me quedo embarazada, tengo miedo a quedarme embarazada tan joven.”

(Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Sexualitateari begira, nire adinean muxuak ematen ditugu, zein zentzutan? Morreatzen gara, algunas veces hacemos algo más. Mi amiga que se ha follado a uno, y el otro que está saliendo con mi amiga para follársela, la gente folla. Ni ez. Nire inguruau esaten da lo de ‘no estoy preparada’, a mí me da miedo, yo no quiero sangrar del juju, me da miedo por sangrar y la tela esa, que asco [...] con la regla también sangras] pero no te rompe una tela un pene. [¿Miedo a quedarse embarazada?] Es que ahora hay tantas cosas para no quedarse embarazada, que tampoco tengo miedo. Mi amiga dice que ella quiere follar pero tiene miedo a que sus amigos le pinchen el condón, y yo le digo: ‘Estas gilipollas, ¿cómo te van a pinchar el condón unos amigos? Pues menudos amigos’. Mi amiga no folla, pero quiere follar con uno, que le ha dicho no sé qué para quedar. Berak beldurrak du eta esaten dit, beldurra dauka haurdun geratzeari. Nik ez daukat horrekin beldurrik, ahora hay tantas cosas para que no pasen esas cosas, condones, las pastilla de después, la pastilla de no sé qué, de todo, entonces... ni lasai nago. Las personas que follen no creo que follen con rollos, follen con novios.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

Prest egoteko beharra oso orokortuta dago nesken narrazioetan, beldurraren seinale. Zentzu horretan, gurasoek ere arreta handiagoa eskaintzen diente neskei:

“Mi madre sabe que tengo novio. Ahora le da miedo, ahora me habla más veces de que me puedo quedar embarazada y así. Tiene miedo. Ahora es ya, no llegues tarde, desde que estoy con él. Por ejemplo digo que voy a salir con él y me dice que no llegue tarde, como si fuera a hacer algo. De él no se fía, pero de mí sí. Le ha visto por las fotos y así, y un día le dije ‘Mira ama que estoy saliendo con él’ y me dijo ‘No me fio de la cara’, pero a simple

vista de la cara y así le cae bien. No se fía solo." (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

Sexualitate hezkuntza erabat ezberdindua da generoaren arabera. Neskek mutilekin lotzen dute sexualitatea, horien sexu-grina azpimarratuz, eta mutilek, aldiz, arreta gehiegi eskaintzen diete sexu-praktikei eta sexu-gogoari, adin horretan dituzten praktikak ikusita. Horrela, esan genezake eskolan sexualitatea lantzeko moduek nerabeen narrazioetan eragiten dutela. Alta, amodioari dagokionez, isiltasuna nagusitzen da⁷⁰. Hutsune nabarmen horrek bestelako emozio hezkuntza jasotzera bideratzen ditu gaztetxoak, eskolako eredu erreferenteak albo batean utzirik; hau da, hedabideek, lagunek zein familiak ematen dieten maitasun hezkuntzaren eraginpean daude.

6.2 Maitasunaren iruditegia: amodiozko fikzioen eta bizipenen arteko auzia

Hezkuntza formalean maitasunaren isiltasuna eta absentzia adierazgarria izan arren, amodioak toki oparoa du nerabeei, neskei batez ere, zuzentzen zaizkien hedabideetan. Emozio horren inguruko narrazioek ikus-entzunezkoetan hartu duten toki nabarmenagatik, horiek dira gaztexoen hainbat arlotako ikasketa-iturri, eta, noski, baita amodioarenak ere. Illouzen (2010) arabera, garai batean, gizarte estatubatuarrean, erromantikotasunaren hedabide nagusiak antzerkia eta poesia izan baziren ere, XX. mendean gai horren inguruko narrazioak eta ikus-entzunezkoak nagusitu ziren: publizitateak edo zinema bezalako hedabide masiboek zoriontasunaren, maitasunaren eta kontsumoaren irudiak uztartuta bultzatu zitzuten, fantasiaren ikuspegi erre realista baten bidez, horrela, istorio erromantikoak ikuskizun bihurtuz (Illouz, 2010:72). Horregatik, egile horren ustez, filmek eta ikus-entzunezkoek ordezkatu dituzte amodiozko eleberriak, eta, bidenabar, baita horiek eragindako fantasiak eta ilusioak ere. Gainera, egun, fikziozko amodioaren hedatzaile nagusiak dira ikus-entzunezkoak, baita gure kulturan ere. Marko horretan, erromantikoaren irudikapen obsesiboagatik, fikzioak esperientzia erromantiko erre realak gainditzen dituen sinesmena orokortu da (2010:208),

⁷⁰ Ikastetxe erlijiosoan izan ezik, ez dago maitasunaren lanketa zuzenik. Ikastetxe erlijiosoan erlijiooko irakasgaian jorratzen zen gaia: jainkoa eta lagun hurkoa maitatzearen beharrizana, besterik ez.

hots, fikzioak maitasun egoera errealak bideratzen dituen ustea⁷¹. Hori dela-eta, Illouzen aburuz, hainbat ikerketatan, lan erromantikoen eraginak benetako emozioetan duen eragina aztertu izan da, hau da, fikzioak emozioak moldatzeko duen gaitasuna aztertu izan da. Tradizio horren arabera, mugak daude erromantikoaren ikuspegi idealistaren eta errealistaren artean. Alta, Illouzek begirada tradizional hori ezbaian jarri du, ikusentzunezko irudiak imitatzeko joera hori kolokan jarriz. Izan ere, ikuspegi idealistak fantasiak eratzen ditu eta erabateko maitasuna onartzen du; aitzitik, ikuspegi errealistak ukatu egiten ditu irudizko eraikuntza horiek, baina ez sentimenduetan duten eragina (ibidem:209):

“Mientras la visión idealista presenta gran afinidad con la capacidad de crear fantasías y reafirma las demandas absolutas del amor y la pasión, la visión realista rechaza esas construcciones ‘imaginarias’ y las concibe como efectos de una mente sobreexcitada o, lo que es aún peor, meros artificios inventados por poetas y novelistas.” (ibidem)

Maitasun errealekin eta idealistarekin bezala, errealtitatea eta fikzio erromantikoa aurrez aurre jartzen dira, eta zenbaitetan kontakizun horien arteko talka egoten da:

“En el marco de la cultura contemporánea, el amor se sitúa en una conciencia dividida entre la utopía de la autorrealización creativa y el desencanto de saber que nuestra vida es la pálida sombra de las fantasías poderosas que crea la maquinaria del consumo. (...) Si bien el posmodernismo ha adoptado la idea de que los textos narrativos constituyen los cimientos de nuestra identidad, dicha corriente rechaza por completo la noción de que el yo se basa en los grandes relatos (del amor u otros), que le aportan unidad al ofrecerle una dirección y una continuidad. Para el posmodernismo, la autobiografía no posee “centro” alguno de acción o decisión, sino que se compone de una intersección de distintas capas textuales que fragmentan constantemente la “unidad narrativa de la

⁷¹ Illouzek horren adibide gisa jarri du La Rochefoucauld-ek esandakoa: “Hay personas que jamás se hubieran enamorado si no hubieran oído hablar del amor”. Bainaz eredu posmodernoa aintzat hartu ondoren, egile horrek honela jarraitzen du: “En lugar de pensar que ‘hay personas que jamás se habrían enamorado si no hubieran oído hablar del amor’, la condición romántica posmoderna nos invita a suponer que muchas personas dudan de estar enamoradas precisamente porque han oído hablar demasiado del amor” (2010:242).

búsqueda humana” y, por lo tanto, la unidad narrativa de la búsqueda romántica” (Illouz, 2010:210)

Hartara, ezinezko edo bat-bateko amodioa edota eszena zehatzak pelikuletan ikusitako egoerak izaten dira. Horiek nerabeen ametsetan txertatzen dira, nahiz eta jakin badakiten errealtitatea bestelakoa izan daitekeela.

Ikuspegia feministik, Lagarderen (2005) ustez, izaera kulturala eta sozialagatik gertatzen dira fantasia eta errealtitatearen arteko gatazkak. Izan ere, gizartea etengabe sustatzen du amodio-mitologia emakumeen artean. Hori dela-eta, emakumeek maitasunaren iruditegi idealista izaten dute, mitoetan oinarritutakoa; eta, egilearen arabera, amodioa bizitzerakoan, edo bizi gabe, imajinazioan edota desiretan, mitoak barneratuta daude oso, emakumeen artean, eta, sarritan, mito horien arabera bideratzen dute bikotekidea aurkitzearen desira (ibidem:425). Halaber, Lagardek idatzi du mitoen eta errealtitatearen arteko aldeak frustrazioa bultzatzen duela, desioak eta bizenpenak aurrez aurre jartzen baititu. Bi plano horietan gertatzen dira kontraesanak, fikzioak errealtitatearekin talka egiten duenean. Hainbat irudiren aurrean kritikotasuna azaldu arren, maitasun mitoak mantendu egiten dira. Badakite pelikuletan agertzen direnak ez zaizkiela gertatuko, baina gerta daitezkeela uste dute:

“Ni fijatzen naiz harremanetan. Pelikuletan bai... Igual badakizu la peli ‘A tres metros sobre el cielo’, ba en plan, mutila en la moto eta neska en el coche y el dice ‘fea’. Es como... mira... pienso si me pasara eso. Si hay cariño... le conocía de pequeña, todo malote... bestela beste harremanik ez. Pelikuletako gauzak errealtitan ez dira gertatzen, no pasa ni pa atrás, pelikula bat da, es ficción. Pelikuletan agertzen da zuk ikusi nahi duzuna, bizitza ez da gertatzen zuk nahi duzuna.” (Ziortza, 14 urte, institutu publikoa)

“Bikote harreman zehatz bat... es que adibidez ‘Tres metros sobre el cielo’, no es muy guay que vayas en el coche y vayas con alguien que te esté gritando fea. Baina harremana... pelikula gustatzen zait pila bat, está muy bueno. Bikote harreman polita izango zen, que me líe y luego salgamos. Ez da oso erreala ‘Tres metros sobre el cielo’, justo uno te grita y justo esa

“noche te encuentras en una fiesta con él. No es casualidad.” (Maialen, 13 urte, ikastola)

“Me gustan por ejemplo la de las películas, como la de ‘Crepúsculo’⁷² me gusta, la de ‘Tres metros sobre el cielo’ como no acaban juntos pues no. Pero también quiero ver la segunda película. Es que un poco es ficción pero puede pasar. Si. Lo de un vampiro es ficción. Pero yo creo que sí puede haber una relación, que uno no pueda estar con uno por un problema.”

(Izaskun, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Denbora guztiak adieraztea maite direla eta denbora guztian egotea musuak ematen. Eta nik ere bai nahi dut. Pelikuletan. Adibidez ‘A tres metros sobre el cielo’, me encantaría que me pasara eso. Nik uste dut errealitatean gertatu ahal dela baina izan al da, baina ez hain horrela, gertatu daiteke eskapatzea, baina ez gau bat elkarrekin pasatzen. Gertatu ahal da...” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

Hortaz, diskurso bikoitza dagoela esan daiteke: batetik, badakite horiek fikzioak direla eta errealitatean zaila dela hori gertatzea; baina, bestetik, ez diote uko egiten gertakizun horiek bizitzeko aukerari, horiekin amesten baitute.

6.2.1 Maitasun-fikzioen kontsumoa, baita genero trebakuntza ere

Nesken amodiozko narrazioetan handiagoa da fikziozko kontakizunei heltzeko joera. Horren arrazoia da maitasunaren industria delakoa neska nerabeei zuzentzen zaiela batez ere. Sentipen horri buruzko kantak, pelikulak edota aldizkariak neskei bideratuta daude. Horregatik, neska gazteen artean arrakasta izateko giltzarria da fikzioetako

⁷² Crepúsculo nerabeei zuzendutako filmea da: “La joven Bella Swan (Kristen Stewart) siempre fue una chica muy diferente ya en sus años de niña en Phoenix. Cuando su madre se volvió a casar, la mandó a vivir con su padre, a la pequeña y lluviosa ciudad de Forks, Washington, una población sin ningún aliciente para Bella. Pero entonces conoce en el instituto al misterioso y atractivo Edward Cullen (Robert Pattinson), un joven distinto a los demás que esconde un secreto...”. <<http://www.filmaffinity.com/es/film146914.html>> Bertan, neska gazte baten eta mutil/banpiro baten maitasun istorio kontatzen da. Interesgarria da horren harira, Amaia Zufiak eginiko *La promesa de amor eterno: análisis de los ideales amorosos en el siglo XXI a partir de la saga de ficción Crepúsculo* (2013) izeneko Master Amaierako lana.

protagonistak neska gazteak izatea, baita, adin horretan heteronormatibitateak duen indarragatik, mutil gazte eta eder bat agertzea ere. Horrela, fikziozko amodio-narrazio horiek hainbat gako izaten dituzte nerabeak identifikatuta senti daitezen:

“‘El barco’⁷³ amodiozkoa da eta asko gustatzen zait. Gainera dago Mario Casas eta oso guapoa da. Ekain hasi zen ikusten eta gomendatu zuen eta hasi nintzen ikusten eta orain asko gustatzen zait. Gainera ematen dutenean gero hurrengo egunean komentatzen dugu gertatutakoa. Lehen “Física o química”⁷⁴ ikusten nuen, hor Max Iglesias zegoen eta oso guapoa da ere bai. Gainera serie horretan institutuan daude eta pertsona horiei gertatzen zaiena da. Ematen ez duen arren, nik gauza asko ikasi ditut. Adibidez, pertsona bati gaizki hitz egiten badiozu, egin ahal diozu mina. Seriean ikusten nuen zer gertatuko zen. Mutil bati gaizki hitz egiten zioten, haserretzen zen eta zoro bihurtu zen, eskopeta bat hartu zuen eta kartzelara sartu zuten. Hori ere kontutan izan behar da, nahiz eta zu ez konturatu beste pertsona hori mina sentitzen ari da. Gauzak ikasten ditut baina ez asko. Haurdun geratzeko prebentzioa hartu behar direla eta adina kontuan izan behar dela, bestela txarto pasatu ahal duzu. Adibidez mutilak bakarrik utzi ahal zaitu, eta zuk abortatzen duzu eta gaizki pasatzen duzu. Adina kontuan hartu behar da. Identifikatuta sentitzen naiz. Serietatik, gehien gustatzen zaidana ‘El Barco’, ikusten dudanean baditu puntu batzuk direla tristea eta ikusten ditudanean negarrez hasten naiz. Gero beste batzuk amodiozkoak dira eta asko gustatzen zait. Adibidez Ainhoa eta Ulisesen arteko harremana. Ezin dira elkarrekin egon. Ainhoa maltzur batekin

⁷³ El Barco nerabeei zuzendutako telesaioa da: “Una catástrofe mundial provoca un cataclismo que lleva a la desaparición de la tierra firme. Con el planeta inundado de agua, la tripulación y los jóvenes alumnos de un buque escuela parecen ser los únicos supervivientes... Aislados del resto de un mundo que ni siquiera saben si ya existe, los principales responsables de que la nave llegue a puerto son el capitán (Juanjo Artero) y la científica del buque (Irene Montalá). Además de los alumnos está Ulises (Mario Casas), un polizón rebelde y con madera de héroe, y Ainhoa (Blanca Suárez), la hija adolescente del capitán, que se ha embarcado junto a su hermana pequeña Valeria (Patricia Arbues), a raíz del reciente fallecimiento de su madre.”<<http://www.filmaffinity.com/es/film498102.html>>

⁷⁴ Física o química nerabeei zuzendutako telesaioa da: “Narra los problemas de cuatro profesores que acceden a su primer trabajo en un instituto de Enseñanza Secundaria donde descubrirán todo un universo de conflictos, amores, desamores e ilusiones de un grupo de adolescentes para los que han de servir de guía. En el primer episodio, a comienzo de septiembre una joven de 26 años conoce a un chico a la salida de una discoteca. Él es bastante joven, 19 años, dice, pero, a pesar de la diferencia de edad, pronto surge una atracción y acaban acostándose. A los dos días, la joven empieza en su nuevo trabajo como profesora y allí descubre que el chico con el que se acostó es uno de sus alumnos... y que es menor de edad.” <<http://www.filmaffinity.com/es/film794561.html>>

dagoelako eta Ulises medikuarekin dago, baina azkenean uzten dute eta bateratu egiten dira. Badaude momentu maltzurrak eta misteriozkoak ere bai. Dena dago nahastuta eta asko gustatzen zait.” (Mireia, 13 urte, institutu publikoa)

“Direlako gu baino apur bat nagusiagoak diren pertsonen bizitzak azaltzen dira serie horietan. Gainera eskola batean daude. Identifikatuta sentitzen gara. Gehien gustatzen zaidan seriea ‘Física o química’ da. Gero pelikuletatik, ‘Tres metros sobre el cielo’. Pelikula horretan dago mutil bat dela makarra bat eta neska bat dela oso piña. Neska maitemintzen da mutilarekin eta oso polita da. Hasieran, mutil hori festa batetara joan zen eta dena apurtu zuten. Neskak ikusi zuen, eta mutila salatzekotan egon zen. Baina neskaren laguna maitemintzen da mutilaren beste lagun batekin. Egun batean neska joaten da bere lagun minaren bila eta mutil makarrak esaten dio ‘Te vas a enamorar tanto de mí que no vas a decir mi nombre a la policía’. Azkenean hori gertatzen da. Polita iruditzen zait izena ez esatea eta maiteminduta egotea. Lagunekin, baina neskekin, ikusten ditut horrelako pelikulak.” (Enara, 14 urte, ikastola)

Fikzioetako kontakizunen kontsumoa ezberdindua da generoaren arabera. Neskek narrazio horietatik arlo batzuk balioesten dituzte: mutil guapoa egotea, amodiozko harremanak, antzeko adina izatea... Nolabait, ezaugarri horietatik abiatuta, generoaren arabera aukeratzen dute fikzioaren kontsumoa, indar heteronormatiboen ondorioz. Horrela, “neskentzako pelikulak” eta “mutilentzako pelikulak” bereizten dituzte:

“Crepúsculo es muy de adolescente, de niña. ¿Una historia de vampiros y un hombre lobo? Pues no, ya está. No me atrae. Para las chicas estará muy bien pero para mí no. Si te das cuenta todas las que ven ‘Crepúsculo’ son casi todas niñas. Es una saga que está pensada para chicas adolescentes, no para chicos adolescentes. Es una saga de un hombre lobo y un vampiro guapo, de su amor prohibido, pues no. Para chicos tendría que ser más de aventuras, no te digo que en plan de violencia y acción y así, menos cosas de chicas, menos amor, más una historia que te enganche, más una

aventura, un objetivo, pero no todo lo que tiene Crepúsculo... A mí crepúsculo me parece que hay mucho amor, y mucho lío, no me interesa, yo he leído sobre él y esa saga no me interesa.” (Javier, 12 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Mutilek filmarekiko ez-identifikazioa sentitzen dute amodioa erdigunean badago. Elisak, itunpeko ikastetxe erlijiosoko hamahiru urteko neska batek, honakoa kontatu zuen “*Los juegos del hambre*”⁷⁵ pelikula ikustean, zineman, neska zein mutil ugari zegoela, hainbat osagai dituelako pelikulak: “*Los chicos lo ven por la violencia y las chicas lo vemos por el romance, así nos gusta a todos*”. Neskek pelikulak hautatzen dituztenean gakoa da maitasuna egotea, eta “*me gusta más, porque es más de romance*” argudioa erabiltzen dute. Horrelakoetan, mutilek uko egiten diote identifikatuta sentitzeko aukerari, eta pelikulei begiratzeko modua bestelakoa izaten da, jakin badakitelako fikzio erromantikoaren kontsumoa neskei zuzenduta dagoela:

“Telebista ikusten du barre egiteko telesaioa. ‘El barco’ eta horiek ez, niri beldurra eta amodioa fuera. Pelikula horiek de amor, fuera, ez zaizkit batere gustatzen.” (Karlos, 12 urte, ikastola)

“Antes también veía ‘El Barco’, porque lo vi y me gustó. Me gustaba cómo se pegaban algunos y las chicas, que estaban buenísimas. La historia de amor a mí eso me da igual. A mí eso me da igual, ya se me ha olvidado. A mí las historias de amor me dan igual. A mí lo de misterio, lo que empiezan a pelear y todo eso sí. Me gustan las guerras y eso.” (Mikel, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Mutilek maitasunaren industrien kontsumoa ukatzen duten bitartean, industria pornografikoen kontsumoa egitea aldarrikatzen dute. Arestian azaldu den bezala, mutilnerabeak harropuztu egiten dira sexu-harremanez aritzean, eta, neskekin alderatuta,

⁷⁵ Trilogia baten lehen zatia da. “*Lo que en el pasado fueron los Estados Unidos, ahora es una nación llamada Panem; un imponente Capitolio ejerce un control riguroso sobre los 12 distritos que lo rodean y que están aislados entre sí. Cada distrito se ve obligado a enviar anualmente un chico y una chica entre los doce y los dieciocho años para que participen en los Hunger Games, unos juegos que son transmitidos en directo por la televisión. Se trata de una lucha a muerte, en la que sólo puede haber un superviviente. Katniss Everdeen, una joven de dieciséis años, decide sustituir a su hermana en los juegos; pero para ella, que ya ha visto la muerte de cerca, la lucha por la supervivencia es su segunda naturaleza.*”<<http://www.filmaffinity.com/es/film520063.html>>

lotsarik gabe heltzen diote gaiari. Horregatik, nerabeen artean pornoa mutilentzat delako sinesmena nagusitzen da:

“Pornoa ikusten dugu, interneten, nik batzuetan ikusten dut. Ez dakit neskek ikusten duten pornoa edo ez, tú sabrás. Yo qué sé, nik uste dut que alguna vez han visto. Bainaz ez dut uste ikusten duten mutilek ikusten duten bezala, más por curiosidad.” (Borja, 13 urte, institutu publikoa)

“Todos los tíos. Es una cosa de tíos. Aunque la mayoría de chicas dicen que no ven porno y sí lo ven. Los tíos ven el porno juntos, son de ‘yo me hago pajas y soy guay’ y las chicas ‘yo no me hago dedos’ y soy guay, porque hacerme dedos es de desesperada. Pero los tíos lo dicen como algo normal. Por ejemplo en mi grupo de tecno, me tocó con chicos y se pusieron ‘ay el otro día me hice una paja’. Y yo en plan córtate que estoy delante. Ellos lo ven como algo normal.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Porno mutilek ikusten dute, encima te dicen, sí pues ayer me hice una paja, mutilak ya con los ocho años ya tienen la mano aquí, y nosotras que estamos en primero no nos hemos...” (Maialen, 13 urte, ikastola)

Hala ere, erlaxatzen direnean, emakumeei zuzenduta dagoen maitasun industria hori ez dute erabat ukatzen kasu guzietan, mutilek ere fantasiak baitituzte, diskurtsiboki ezeztatu arren. Horrela, beraien narrazioetan erreferentetzat hartu dituzten pelikulen aipuak daude, eta sentimendu horretan pentsatzen dutenean filmen eragina azpimarratzen dute:

“Pelis a veces, cuando voy al cine, me gusta las que, por ejemplo, las que te llegan al corazón. Por ejemplo la del ‘Intocable’⁷⁶, las de amor no tanto. (...) Me gustan esas típicas películas que son como sentimentales que te llegan al corazón, más o menos de pena, son más bonitas las que luego te hace reflexionar mucho.” (Ekain, 13 urte, institutu publikoa)

⁷⁶ *Intocable* filmearen argudioa honakoa da: “Philippe, un aristócrata millonario que se ha quedado tetrapléjico a causa de un accidente de parapente, contrata como cuidador a domicilio a Driss, un inmigrante de un barrio marginal recién salido de la cárcel. Aunque, a primera vista, no parece la persona más indicada, los dos acaban logrando que convivan Vivaldi y Earth Wind and Fire, la elocuencia y la hilaridad, los trajes de etiqueta y el chándal. Dos mundos enfrentados que, poco a poco, congenian hasta forjar una amistad tan disparatada, divertida y sólida como inesperada, una relación única en su especie de la que saltan chispas.” <<http://www.filmaffinity.com/es/film217719.html>>

“Adibidez, “¡ay te quiero, porque eres guapo!”, y luego es gilipollas perdido. Adibidez hori, baina gero dago el verdadero amor zure bikote idealak aurkitzen duzula. Como en ‘Fuga de Cerebros’⁷⁷, gero dago el que te quiero porque eres listo... El amor por ser listo. (...) Maitemindu gitezke edonorrekin, hori esaten dizut por ‘Fuga de Cerebros’. Edozeinekin, amor a primera vista, existitzen da.” (Kerman, 14 urte, ikastola)

“Sí sí tengo en la cabeza que diga ojalá que me pase... Yo no veo películas de amor, pero cuando veo alguna así, pues a veces sí que pienso ojalá que me pasara eso. Porque es un momento feliz. Pero no tengo en la mente ninguna. No, no. Pelikula horietatik momento batzuk errealkak izan daitezke eta beste batzuk ez. Hay veces que tú piensas algo y tu pareja piensa otra cosa, y tú quieras hacer algo y la otra persona no quiere. A veces en la tele parece que tienen telepatía o algo. (...) A veces sí pienso en el amor, cuando estoy viendo algo que me recuerda... Cada vez que veo películas, que son pocas. Pero hay veces que las veo. Si hay veces que pienso en el amor, pero no pienso en el amor como algo de ahora, pienso como más a futuro, que me pasen unas cosas o otras... si me gusta una persona proyecto el futuro con esa persona, pero también relacionado con otras personas, viendo a esa persona conmigo, pero también a todos mis amigos. Pienso desde ir al cine hasta la familia.” (Borja, 13 urte, institutu publikoa)

“De situaciones, es que a veces es muy fantástico, pero a veces me gusta cómo se comporta el personaje ante situaciones adversas, como imagínate que le van a pegar en el colegio, pues cómo lo hace en la ‘Historia interminable’⁷⁸, por ejemplo, huye a la librería de sus compañeros que le

⁷⁷ *Fuga de Cerebros* filmeak ondorengoa kontatzen du: “Emilio (Mario Casas), un chico tímido y mediocre en los estudios, tiene una sola obsesión: su compañera Natalia (Amaia Salamanca), la chica más guapa y más lista de la clase, de la que lleva toda su vida enamorado. Cuando el último día del curso se decide, por fin, a declararse, se entera de que a Natalia le han concedido una beca para estudiar Medicina en Oxford. Todo parece perdido para Emilio, pero sus colegas marginados del instituto lo convencen para que no se rinda. Así, después de falsificar expedientes y becas, acaba yendo él también a Oxford.” <<http://www.filmaffinity.com/es/film736154.html>>

⁷⁸ *La historia interminable* 80ko hamarkadako filme alemaniarrak da, bertan azaltzen da ondorengoa: “Escondido en el desván de su colegio, Bastian devora durante las horas de clase un libro enigmático, ‘La historia interminable’, que relata la paulatina destrucción del Reino de Fantasía. Una especie de ‘Nada’ misteriosa destruye el país y a las criaturas que lo habitan. A medida que avanza en la lectura, Bastian se da cuenta de que la salvación de Fantasía depende de él; de que consiga entrar dentro del libro.” <<http://www.filmaffinity.com/es/film575958.html>>

quieren pegar del colegio. Aprendo cosas de las situaciones, me gusta. No me acuerdo de todo, pero seguro que alguna habré imitado alguna vez.”

(Javier, 12 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Ikus-entzunezko irudiez gain, neskek egiten duten fikzio errromantikoaren kontsumoa aldizkarien bitartez ere gauzatzen da. Espainiar Estatuan neska nerabeei zuzendutako hainbat aldizkari dago: Bravo, Super pop... Horietan guztietan maitasunari zein gorputzari buruzko aholkuak dituzte, eta tartean pelikula zein telesail arrakastatsuetako mutilen irudiak jartzen dituzte. Horrela, gazteek zenbait loturak eratzen dituzte pelikulekin:

“Batzuetan, aldizkariak irakurtzen ditugu. ‘Line touch’, famatuak aldizkari bat. Bertan Mario Casas, Brad Pitt... ateratzen da guztia. ‘Bravo’ ya ez dugu irakurtzen hori, ja ez zaigu gustatzen, hori txikitak. ‘Bravo’ nik irakurtzen nuen bosgarren mailatik bera, orain ez dut irakurtzen ez zaidalako gustatzen. Lehen irakurtzen nuen Disney Channel ikusten nuelako. ‘Bravo’n agertzen da asko Disney Channeleko kontuak eta ‘Line touch’ agertzen dira asko Antena 3 eta horrela. Nik ja nola ez dudan ikusten Disney Channel ez zait importa zer jartzen duen aldizkarian. Baino orain Line Touch gustatzen zait.” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

Aldizkari horiek maitasunaren zein generoaren gida bezala funtzionatzen dute. Nesken artean ohikoa da horiek erosi eta lagun artean irakurtzea. Amodio aholkuak eta horoskopoa elkarrekin irakurtzen dituzte, baita testak egin ere. Gainera, lagunen artean mintzagai izaten dituzte agertzen diren gaiak, horregatik, haietako batzuentzat oso garrantzitsua da aldizkari horiek irakurtzea. Ikastetxe erlijiosoko neska batek aitortu zidan behin aitak uko egin ziola aldizkaria erosteari, eta esan ziola: “*Si no me compras la Bravo pierdo la reputación*”. Neskarentzat garrantzitsua da aldizkaria izatea, lagunen arteko loturak sendotzeko. Izan ere, aldizkari horiek irakurtzea taldeko lana da:

“Mireiak eta Erikak batzuetan kalean izaten dituzte eta irakurtzen egoten dira. Orain uste dut ez dituztela erosten, baina lehen adibidez igual kalean zeuden aldizkariak irakurtzen eta nik ere erosten nuen eta beraiekin irakurtzen nuen. Txisteak irakurtzen genituen, famatuak komikiak, los pasadizos. Hor jartzen dizute: ‘Si eres una chica... no sé qué... vete a la

casilla... ', eta horrela gero argazki bat jartzen zuten famatu batena bere antza zenuela esan nahi zuen. Testak egiten genituen, galderak eta hiru aukera. 'Te gustan los chicos, no sé qué...' eta zu markatzen joan behar zinen eta gero erantzun batzuk zeuden eta hor jartzen dizu "eres una chica atrevida", "eres una chica simpática"... Testak mutilen, lagunen eta familiaren inguruan izaten dira eta famatu en inguruan ea nor gustatzen zaizun gehiago." (Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

Aldizkari horietan ere nabarmena da heterosexualitatearen indarra, narrazio guztiak daude neskei zuzenduta, eta beti erabiltzen dituzte parametro heterosexualak harreman afektibo-sexualez aritzeko. Horrek guztiak mutilak baztertzea dakar, mutilek “nesken gauzatzat” jotzen baitituzte aldizkariak:

“Revistas no leo. [¿Y ‘La Bravo’?] ¡¡¡Eso no!!!! ¡Los que lo leen eso son maricones! Sí, hay uno en tercero que lo lee, es más maricón. En nuestro curso no hay... de uno dicen que es maricón. Que tiene el pelo como de maricón... en tercero hay dos que siempre andan con las chicas. En nuestros cursos creo que ninguno, y creo que hay uno en cuarto, uno que va con un bolso. Sí sabemos quiénes son los maricones. En primero, creo, sí, hay uno que siempre anda con chicas.” (Mikel, 14 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Hartara, esan daiteke sentipen horren fikzioa zabaltzen duten hedabideak neskei zuzenduta daudela, eta derrigorrezko heterosexualitateaz baliatzen dutela. Neskek aldizkariak, pelikulak eta beste medio batzuk kontsumitzen dituzte, eta amodioan trebatzen dira. Mutil askok aldizkari zein film horiek gutxietsi egiten dituzte, “nesken gauza” bezala hartzen dituztelako. Hala ere, horrek ez du esan nahi mutilek inongo arretarik eskaintzen ez dietenik azaltzen diren maitasun mezuei.

6.22 Maitasun trebakuntza: mapa kognitiboak, ikasketa moralak eta identifikazioak

Illouzen (2010) aburuz, medioek hedatzen duten mundu ikuskera edo kosmobisioa aztertu ohi dituzte ikertzaileek. Baino autoreak gehitzen du baztertu egin ohi dituztela hedabideen eta kontakizun autobiografikoaren arteko loturak, hau da, ahaztu egiten direla narrazio autobiografikoak, istorio mediatikoak eta kultura kontsumistaren arteko harremanak. Horregatik, bere lanean, aspektu horiek guztiak bereganatuz, iruditegiaren gaiari heldu dio norbanakoien eguneroko praktikak aztertzeko. Izan ere, egun, maitasun bizipen bakarrak edo bereziak bilatzen dira, norbanakoaren biografiarekin lotutakoak, industriaren kontakizun handi horietatik urrunduz. Esate baterako, Illouzek ikuskatu du pertsona helduek euren amodio bizipenak kontatzean, fikzioetako topikoetara eta erritualetara jotzen dutela, hau da, haien bizipenen narrazioak filmetako egitura hartzen dutela (2010:227). Hala ere, egileak baiezatzen du esperientziak ezin direla fikziozko maitasunaren imitazio hutsak izan, baizik eta pelikulak ere errealitatea imitatu dezaketela, hots, eragina elkarrekikoa dela; horregatik, bizitzaren eta testuen arteko marra lausoa aztertzearen beharra azpimarratzen du, sentimendu horren azterketa postmodernoa egin nahi bada (ibidem:228). Amodio erromantikoaren narrazio nagusiari heltzea baino, zatikatutako hainbat kontakizunez osatutako kontua litzateke:

“Como plantea el filosofo Alasdair MacIntyre (1984), ‘soñamos narrativamente, ensöñamos narrativamente, recordamos, anticipamos, esperamos, desesperamos, creemos, dudamos, planificamos, revisamos, criticamos, construimos, chismeamos, aprendemos, odiamos y amamos bajo formas narrativas’. Las emociones se implantan en diversas estructuras narrativas de distinto alcance, formato y tamaño. Así, el amor romántico con frecuencia se inserta en un relato o “historia de vida” de orden superior, que vincula el pasado, el presente y el futuro en una visión totalizadora del yo” (Illouz, 2010:210)

Begirada horri heltzeko ahalegina egin da nerabeen narrazioei erreparatzeko orduan. Nerabeen bizi-kontakizuna laburra da, eta maitasun esperientziak oso lotuta daude adinak jartzen dizkien mugiei, esate baterako, autonomia eza izateari edo muga

ekonomikoak izateari. Horrela, norbanakoaren esperientzia urriarekin, fantasia ugarirekin eta hainbat lagunen bizipenekin osatzen dira euren amodiozko narrazioak. Egindako ikerketa batean oinarrituz, medioek gaztetxoengan duten eragina azpimarratzen du Illouzek. 1933. urtean Herbert Blumer soziologoak pelikulek nerabeengan izandako eragina aztertu zuen dimentsio handiko *Payne Fund Studies* ikerketaren baitan. Horretarako, haiei galdeitu zien ea pelikuletatik zeozer ikasten ote zuten, eta haien kontakizun autobiografikoei erreparatuta, egileak ondorioztatu zuen maitasun harremanak ikusarazteak gazteen iruditegi errromantikoan eragin handia zuela (Blumer, 1933; in Illouz, 2010:75). Gure ikerketako gaztetxoen narrazioetan ere fikziozko maitasunaren zantzuak daude, baina, betiere, fantasiako eremuari lotuta. Pelikuletako amodiozko istorioek bideratzen dituzte nerabeak amestera, baina ez egunerokotasunean hori imitatzen. Desira, amets eta fantasien gidari dira irudi horiek, nahiz eta onartzen duten bestelako errealitate bat bizi dutela:

“Yo no me fijo en las relaciones de amor, porque no tiene por qué ser justo igual. En las series si te enganchas dices qué guay, sueñas con que te pase lo mismo en el fondo, es como es y punto, a veces es peor, o a veces es más especial (...) Mi pareja tendría que ser perfecta. Que se preocupe conmigo, que me haga caso, que no se porte mal. Que sea majo, con mis amigas también, porque no quiero que vaya por ahí... que sus amigos también sean majos, que piense... que no sea el típico pasota que pasa de todo, más como el príncipe azul, yo siempre pienso en eso. Irati lo ve más como el chico de tu vida que llega y se va ya. Yo pienso más en el príncipe azul, como si fuera a estar con él toda la vida. Irati es más de que puede que estés y luego con otro, bueno yo algunas veces también lo pienso. Pero suelo pensar en otra cosa que sea más bonita. En el fondo puede que llegue pero se va a ir. En el fondo igual sí. A veces pienso en fantasías, por ejemplo yo veo una película y luego me imagino. Me acuerdo que una vez mi prima estuvo viendo un capítulo de ‘Bob esponja’⁷⁹, Bob esponja conoció a una medusita chica, y no se podían tocar por lo del tic. Está chulo... es como imagináte... me imaginaba que era yo la medusita, pero en chica y un chico y tal, y no podíamos estar juntos y tal. Imagínate que un día te hace daño y pun... te

⁷⁹ *Bob Esponja* haurrentzako marrazki bizidunak dira, bertan itsasoan bizi den belaki baten istorioa kontatzen da.

tienes que dar cuenta de que no es perfecto. Que se parezca más a ti, porque en ese momento la medusa y Bob esponja pues... no eran iguales (...) A mí me gustaría que me pasara la relación que tienen los de 'Los protegidos'⁸⁰. La de Sandra y Culebra, que no se pueden tocar, porque uno tiene el poder de calambre y no se pueden tocar. Se quieren y así... no es real. Pero imagínate que una persona te gusta, os gustáis, te miente y te puede hacer mucho daño, o no le vuelves a hablar le tengo que olvidar, pero siempre hay alguna manera de arreglarlo porque si te gusta de verdad le perdonas. Si no le perdonas no te puede gustar mucho, porque te tiene que querer igual. Es muy diferente las películas de la realidad, porque lo de las pelis está hecho para que te guste, para que te llame la atención, sabes que no te va a pasar. A veces son raras pero están chulas." (Natalia, 13 urte, ikastetxe erlijiosoa)

"Harreman politak dira las típicas de cuento. Adibidez, unibertsitatean, ez zaudela gelakoekin bakarrik, beste ikastola batzuetakoekin aurkitzen zarela, hor te chocas con los libros, eta geratzen zara begira begietara. Hori bai. Ikusi dut pelikuletan. Nire lagun bateri, herriko, berari gertatzen zaio hori eta gainera mutil batekin, ¡qué está de la leche! Eta esaten duzu: ¡joe qué bonito! Niri hori gertatzea gustatuko litzaidake, baina ya esatea ya nobioak izango gara... ez dut ikusi. Nola ez dut ikusi irudi hori, ba pentsatzen dut nolakoa izango den... Pelikuletan gertatzen da baina gertatzen da igual begiratzen direla begietara eta musu bat. Ez en plan aterako garela... Nola egiten diren bikote, eta nola adosten duten ez da agertzen. Ez dut oraindik ikusi." (Leire, 12 urte, ikastola)

⁸⁰ Los Protegidos es un telenovela española dirigida por Horrela Laburbiltzen. La trama gira en torno a dos niñas: Jimena, una niña de 12 años que vive con su madre, que se ha quedado sola tras la muerte de su marido, y Blanca, una niña de 10 años que vive con su padre, que es un hombre violento. Las niñas se conocen y se convierten en amigas. Jimena descubre que su hermano mayor, Carlos, tiene el poder de mover objetos con la mente. Jimena se levanta sobresaltada en mitad de la noche mientras su hija Blanca es secuestrada por unos hombres que se la llevan en un coche negro. Lo más extraño es que la pequeña ya había predicho que eso iba a ocurrir. Los dos, tratando de encontrar respuestas, se unen y forman una falsa familia que vive en una casa de las afueras. Otros miembros de esta peculiar grupo son: Culebra, un atractivo caradura de 17 años que malvive en las calles y que tiene el poder de hacerse invisible a voluntad y Sandra, una bella joven que transmite descargas eléctricas cuando los nervios se apoderan de ella. Este heterogéneo grupo tendrá que mantener las apariencias para no despertar sospechas en su nuevo barrio, llevar una vida normal para que nadie averigüe que no son una familia y que los niños tienen unos peculiares poderes." <http://www.filmaffinity.com/es/film599998.html>

“Tengo la fantasía de que está lloviendo y estamos sin paraguas y me da un beso. La típica película que están en un parque y empieza a llover.”
(Esther, 14 urte, institutu publikoa)

Jakin badakite kontakizun erromantiko horiek gertatzea zaila dela, baina haien fantasiak horien arabera egituratzen dituzte. Izan ere, fikziozko maitasunaren kontakizun horiek eratzen dituzte nerabeengan praktika erromantikorako mapa kognitiboak. Horrela, pelikuletako narrazio errealisten eta irudi bisualen konbinazioak sortzen ditu fantasiarako eta amets-irudietarako argudioak, baita zenbait balio moral bultzatu ere:

“[Blummeren lanari buruz] La omnipresencia de las imágenes no sólo intensificaba el fantaseo, sino que a la vez ayudaba a los adolescentes a orientarse en la moral cambiante de las primeras décadas del siglo XX, ofreciendo mapas cognitivos sobre el comportamiento romántico (por ejemplo, sobre los besos). En efecto, los estudios de Blummer demuestran que un porcentaje muy elevado de los adolescentes de la época copiaban de las películas las conductas, las peculiaridades y las aptitudes relacionadas con el amor romántico (...)” (Illouz, 2010:76)

Horregatik, Illouzek ondorioztatu du gazteek filmetako irudietatik ikasitakoa hau izaten dela: zeintzuk diren maitasun praktika egokiak eta zeintzuk ez. Balio moralak daude filmetako mezuen atzean, eta ikasketa imitazio hutsetik harago doa, nerabeek fikzio horietan identifikazioak bilatzen dituztelako. Esate baterako, ikus-entzunezkoen protagonistek ikusleen adin bera izateak enpatiazko jarrerak sortzen ditu, pelikulako bilbean euren burua imajinatz eta pertsonaien tokian jarriaz.

Identifikazio hori aldakorra da kontsumo motaren arabera, hau da, ezberdina da amodiozko pelikulak ikustea edo kantak entzutea. Nesken narrazioek agerian uzten dute liburu edo abestietako kontakizunekin identifikatzen direla pelikuletako narrazioekin baino gehiago. Izan ere, irudirik gabeko maitasun narrazioek bide zuzenagoan irekitzen dizkiote ateak imajinazioari, alegia, identifikatuta sentitzeko abaguneari:

“Nik beti berdina entzuten dut. Maitasun kantak entzuten ditut. Batzuetan identifikatuta sentitzen naiz. ‘Como tú no hay dos’. De como la chica que quiere no hay dos. Batzuetan mutil lagunarekin entzuten dut eta kantatzen diogu elkarri. Kantak ere erabiltzen ditugu maitasuna adierazteko. Ez diot

bakarrik esaten kantarekin. Ahoz ere esaten diot.” (Esti, 13 urte, institutu publikoa)

“Abestiekin askotan identifikatuta sentitzen naiz. Adibidez maitasun abestiekin. Igual entzuten dut eta esaten dut ‘¡Uy! ¡mira esa soy yo!’. Adibidez vas detrás de un chico, se entera, pero le dices que no... Horrelako gauzak.”(Maitane, 12 urte, institutu publikoa)

“Los libros me gustan porque me siento identificada, a cada personaje le busco una personalidad, la protagonista no la veía como yo, pero yo me veía a mí como a una amiga suya. Y a Paula como a una prima mía. Yo me veía porque tenía el mismo pelo y los mismos ojos, luego pues no sé... las cosas que hacía, le gustaba bailar, luego tenía... Es que yo vivía lo que ella vivía. Tenía un lío con su hermano. Yo también me llevó fatal con mi hermano. Luego tenía rollos con sus amigas. Siempre hay rollos entre amigas, de que se han enfadado. Y las chicas, esta que se llamaba Diana, cuando estaban enfadadas hacia lo mismo. Le contaba las cosas a otra amiga, hacíamos lo mismo. Si tenían novios, eran de diecisiete o dieciocho años, también me sentía identificada ahí. Una salía con uno, y a una amiga suya le gustaba su novio, y cosas así. A mí era la que me gustaba, el novio de la otra. Eso me ha pasado eso, ya no. Había una amiga mía que se llamaba Ane que estuvo saliendo con el chico que me gusta. Pero ya no.”
(Iratzi, 13 urte, ikastetxe erlijiosoa)

“Revistas me gustan, La Cuore, por ejemplo hay cotilleos, o la Bravo, a mí me gustan por los test que luego vienen. Me divierten, lees y dices, esa soy yo. O te dicen que eres no sé qué y no sé cuál. A veces me siento identificada. En las series, bueno... con las canciones me siento identificada. De memoria, de memoria no sé ninguna, sé cachos. Hay algunas que van sobre amor o amistad, e igual hay una de amistad y digo como Irati y yo que nos enfadamos un día y otro no sé qué... porque por ejemplo es diferente que con las pelis. Las pelis no me siento tanto identificada porque ves el personaje, y dices, es ese y punto, pero si lo lees te puedes imaginar que eres tú. Con las series sí que me siento identificada, cuando veo ‘Los protegidos’ digo que yo también quiero, quiero tener de

eso. Yo solo veo ‘El Barco’ porque está Mario Casas en la serie y es muy guapo.” (Natalia, 13 urte, ikastetxe erlijiosoa)

Nahiz eta, esan bezala, maitasun-fikzioak imitatzeko ahalegina hutsala izan, fikziozko kontakizunetatik gako zehatzak hartzen dituzte, horiek imitatzeko eta barneratzeko. Adierazgarria izan da *Tres metros sobre el cielo* pelikula telebistan eman zuten lehendabiziko aldean, ikerketako nesken Tuenti sare sozialak nola bete ziren pelikulako esaldiekin: “*Porque una letra sin sonido te puede hacer pensar en muchas cosas...*”; “*Se a muertoPollo.... k lloreraaaaah!!!!!!*”; “*-Esta noches estás guapísima. +Esta noche? -Siempre.*”; “*Y de repente aparece alguien que te dice que aflojes, y cuando aflojas, te das cuenta de las cosas*”; “*3MSC, No hagas lo que no te gusta que te hagan*”; “*tooddoo loo kkee eemppiiezzaa aakkaabaa*”; “*Cuando aflojas es cuando te das cuenta de las cosas, Viendo 3MSC (,tengo ganas de ti...)*”… Esaldi horiek guztiak fikzioaren eta errealtitatearen arteko zubiak dira. Maitasun industrian eratutako narrazioak Tuentira eramaten dituzte:

“Ia kanta guztiak maitasun kantak dira. Orain modan dago “Yo te esperaré”, hori tuentian dago, eta jende asko bere estadoan jartzen du.”
(Enara, hamalau urte, ikastola)

Horrez gain, badaude fikziozko zenbait nozio errealtatera ekartzen dituztenak, adibidez, pelikuletako zenbait kode imitatzen dituztenean. Instituto publikoan, *Tres metros sobre el cielo* pelikulako pertsonaia nagusiaren ezizena zuen mutil batek, neska batí “Tú y yo, a 3MSC”⁸¹ margoketa egin zion auzoan:

“Pues haciendo como un dibujo en una pared. El dibujo lo hicimos mis amigos y yo. Le pusimos ‘Tú y yo a tres metros sobre el cielo’. Yo no he visto la peli pero me lo han contado que el Mario Casas ese y otra chica que se llamaba Ana. A mí me gustaba Ana y un día estábamos hablando de quien nos gustaba, estábamos chicos y chicas, estábamos los de segundo. No solemos hablar mucho de eso, y yo dije Ana y estaba delante, y ella no dijo nada. Luego no sé de qué estábamos hablando y dijeron lo de la película esa y lo pusimos en la pared.” (Igor, 14 urte, instituto publikoa)

⁸¹ Pelikulan Hache pertsonaiak, Mario Casas aktoreak gorpuzu duenak, maitasuna adierazteko egiten dio margoketa hori bere bikotekideari. Horixe da pelikulari izena ematen diona. Bilboko hainbat hormatan ere margoketa hori ikusi izan dut.

Horrela, esan genezake nerabeen aldetik ez dagoela fikzio erromantikoen errepikapen automatikorik, izan ere, mapa kognitiboak zein balio moralak jasotzen dituzte eta horiek eragina dute haien fantasietan. Mutilek kontsumo erromantikoa era nabarmenean ezeztatu arren, ukapena ez da erabateko. Sarritan, maskulinitate hegemonikoari loturiko ezaugarriak hartzen dituzte aintzat. Ikusitako Igorren kasuan, margoketa egitea, maitasun ekimenen artean baino, mutilen adiskide taldeek egin ohi dituzten ekintza subertsiboetan kokatuko nuke.

6.3 Maitasunaren fantasiak: emozio-lanak eta krisi emozionalak

Maitasun fikzioek gidatutako fantasiak errerealitatetik ihes egiteko erabiltzen dituzte gaztetxoek. Nerabeen kasuan, esan dugun bezala, harreman afektibo sexualetan duten esperientzia urriagatik, amodio-fantasiak esanguratsuak dira haien narrazioak eratzeko orduan. Amodioa bizitzeko beste modu bat da imajinazioa, eta ondorioak ditu errealityean. Ikusitakoaren arabera, neskek tristuraren edo une txarren aurrean fantasiak eta fikzioak erabiltzen dituzte zenbait egoera emozionali aurre egiteko. Fenomeno horri buruz hitz egin du Lagardek (2005). Antropologoaren aburuz, hainbat emakumek krisiak gainditzeko maitasun imajinarioak erabiltzen dituzte (2005:351). Horrela, euren emozioak kudeatzeko erabiltzen dituzte pelikulak, abestiak eta telesaioetako istorio-erromantikoak. Gogo-aldaitearen arabera, bata edo bestea aukeratzen dute:

“Mientras en la mente y en la imaginación experimentan el amor, en la vida cotidiana no realizan esta experiencia con las personas con las que conviven. Muchas mujeres sobrevivimos a crisis muy grandes gracias a esos seres imaginarios del amor: como todavía no existe la persona concreta que me ame como yo quiero ser amada, me la imagino y eso me hace feliz. Resulta fascinante este fenómeno, tan común en la conciencia subjetiva de las mujeres.” (Lagarde, 2005:351)

Elkarrizketatutako neskek ere maitasun fantasiak erabiltzen dituzte haien onurarako; bada, emozioen kontrola eta manipulazioa egiten dute norbanakoaren ongizaterako. Aurreko kapituluetaan aipatu denez, Hochschildek (1983) “emozio lana” deritzo lan

arloan gauzatzen den emozioen kudeaketari, hots, instituzio baten baitako arauen ondorioz egiten den sentipenen planifikazioari eta horien kontrolari, pertsonen arteko harremanetan. Halaber, nerabeek egiten duten emozioen kontrol horrek haien ongizatea du helburu: barne-krisiak kudeatzen dituzte, fantasiaren bidez, eta beste egoera emozional batzuk eraikitzen dituzte. Hori dela-eta, nesken narrazioetan, krisiei aurre egiteko unean giltzarria da musika. Abestietako kontakizunek fantasiak bideratzen dituzte, eta gazttxoek gogo-aldearteak eraldatzeko erabiltzen dituzte:

“Yo creo que influye en el día a día, igual oyes más canciones de amor. Estás más a tu bola, estás todo el día pensando. Yo te lo juro, una vez que me colgué de alguien más o menos estaba todo el rato pensando y pensando, más o menos. Yo sigo muchísimo la música y cuando estaba triste oía música muy bonita, muy sentimental, no sé cómo diría, muy suave muy tal... cuando estoy triste... canciones de amor, por ejemplo. O cuando tengo que ir rápido al colegio pongo la canción más rápida. Necesito la música no puedo vivir sin eso, es como un diccionario pequeño. Me encanta la primera vez que me regalaron un equipo de música...” (Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Música sí oigo, depende el día de cómo esté. Porque si estoy mal pongo las alegres, siempre pongo las alegres, no pongo el chunta chunta pero pongo alguna que sea de amor o así, pero en inglés, de Rihanna y Lady Gaga...” (Ekain, 14 urte, institutu publikoa)

“Adibidez musika bai, kaletik bazoaz... gainera niri asko gustatzen zait. Adibidez haserretzen banaiz musikarekin jadanik ez nago haserretuta. Musikarekin sentimenduak adierazten ikasten dut. Ez da adieraztea, baina ni igual sentitzen banaiz apur bat horrela, dantzatzen dut eta hobeto sentitzen naiz.” (Leire, 12 urte, ikastola)

“Identifikatuta sentitzen naiz kantekin eta horregatik entzuten dut musika hori, batzuetan penazkoak, baina hori ja ez dut entzuten negarrez hasten naizelako eta ezin naizelako geratu. Ez dut nahi hori gogoratu eta kantarekin gogoratzen naiz eta negarrez hasten naiz. Orduan ez dut nahi

berriro gertatzea gauzak horrela, orain entzuten dut poztasunezkoak, pop eta horrela behintzat ahazteko.” (Iratxe, 13 urte, ikastola)

Musikaren eragina erabatekoa da gorputz-sentsazioak eraldatzeko. Kantak fantasiak izateko baliabide bezala erabiltzen dituzte, eta, era berean, gorputzean eragiteko. Spurlocken eta Magistroren hitzak jasoz, Estebanek (2011) dio musika barnera, gorputz sentsazioetara, begiratzeko bidea dela:

“Esta cultura emocional moderna en la que vivimos nos adiestra en un determinado entendimiento de nosotras/os mismas/os a través de las emociones. Emociones, que este caso provoca la música. Y la música nos devuelve sensorialidad. La música nos devuelve el cuerpo.” (Esteban, 2011:91).

Emozioen kudeaketa bidera dezake musikak, baita maitasun-fikzioen bestelako eragileek ere, fantasien eraikuntzan duten eraginagatik. Halaber, fikzioak ez dira fantasiak sortzen dituzten bakarrak.

6.4 Errealitateak fantasia gorpuzten duenean

Nerabeen narrazioak aztergai izanik, esan dezakegu maitasun fantasiak ez direla soilik fikzio errromantikoetatik eratzen. Zenbait amodiozko kontakizun (lagunen artekoak eta familiako gertakizunak, esate baterako) edo kaleko irudiak (bikote bat kaletik ikustea, adibidez) fantasien iturri ere izaten dira. Egunerokotasunean ikusitakoan eta entzundakoetan oinarrituz ere amesten dute nerabeek. Batzuetan, beraien ezagunen eta lagunen bizipenek gaztetxoen imajinazioa sustatzen dute, eta besteei gertatutakoak euren jomugan daude:

“Me fijo, por curiosidad, nunca había pensado lo de aprender que dices tú, pero sí igual, me fijo para ver qué hacen. Por curiosidad o... No tengo ninguna relación que diga que ojalá me pase. En las piscinas de Amurrio dos amigos míos que son novios, se tiraron de la mano y luego se dieron un beso en la piscina, dije: ‘¡Qué bonito! ¡Qué bien, ojalá sigan así siempre!’.

Eso por ejemplo no me importaría que me pasase.” (Javier, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

“Ni fijatzen naiz en la tele y en mis amigas. Yo pienso que ojala me pase... es que ves a la gente en los bancos... la gente de la calle me hace pensar en el amor. Yo siempre estoy con Aiala, diciendo ‘¡qué hijos de puta! ¡vamos a sentarnos en medio!’ eta ia beti direnez lagunak joaten gara eta esaten dugu ‘¡hombre, qué buen día hace!’ eta molestatzera joaten gara. Esaten digute ‘¡qué cabronas, iros para allá!’. ” (Maialen, 13 urte, ikastola)

“Me imagino cosas... Yo veo a mis amigas que les viene un chico y les dice que les quiere mucho o les dan una notita o así, a mí sí que me gustaría. Que el chico que me gusta me dé una notita, o que esté en el balcón y me tire algo. Cosas así.” (Maitane, 13 urte, institutu publikoa)

Bikote harreman horien errealtitateari erreparatu gabe, hau da, bikote horrek izan ditzakeen gorabeherak ezagutu gabe, jarduera zehatzak aintzat hartzen dituzte, gerora euren maitasun fantasien proiekzioa egiteko, alegia, besteen irudi zein kontakizunak hartzen dituzte barne-desirak pizteko. Lagunen narrazioak ez ezik, familia ere funtsezkoa da zentzu horretan, eredu erreferentea baita nerabeentzat. Gurasoen biziak edo familia barnekoen harreman afektibo-sexualak balioesten dituzte:

“Nire amak bere txikitako gauzak kontatzen dizkit. De que tenía un novio, pero se fue por mal camino y que luego conoció a mi padre. Y el otro estaba todo el rato en la puerta de su casa con el coche y le traía ramos y mi madre no quería porque se había ido por un mal camino.” (Maitane, 13 urte, ikastola)

“Pues la que más me acuerdo es de cómo actuó mi madre con un novio. Mi madre también me habla de sus historias de amor. Mi madre tuvo un novio que a ella le dejó de gustar y ella le dijo a la cara que le había dejado de gustar que no sentía lo mismo. Entonces el chico le dijo que si le dejaba se suicidaba. Y mi madre le dijo que no se suicidara, luego al final el chico no le dijo que se iba a suicidar ni nada y al día siguiente se enteró que el chaval estaba en el hospital porque se había tirado por la ventana de su cuarto. Luego la madre del chico le decía a mi madre que no fuera a verlo y

mi madre estuvo muy mal. El chico estuvo a punto de quedarse en silla de ruedas, y mi madre me dijo que si se hubiera quedado en silla de ruedas no se lo hubiera perdonado y que estaría con él.” (Esther, 14 urte, institutu publikoa)

“Algunas amigas cuando hablan de relaciones ideales nombran un Romeo y Julieta, pero yo no quiero acabar muerta. No tengo ninguna en mente. Bueno, como mis padres, que se conocieron en unas fiestas, y desde entonces mi madre no ha salido con ninguna otra persona, y mi padre no ha salido con ninguna otra persona, siempre han estado juntos, juntos, juntos, juntos, y siguen estando juntos, a mí me encanta esa cosa. Se siguen queriendo no sé cómo al cabo de tantos años, por ejemplo, mis abuelos tuvieron cinco hijos, eran tiempos de guerra, de epidemias, de cosas, siguieron juntos y juntos y juntos hasta ahora. Si alguno de los dos moriría la otra persona se quedaría destrozadísima, a mí esa relación me gusta mucho.”(Carmen, 12 urte, itunpeko ikastetxe erlijiosoa)

Nerabeentzako eredu diren familiako kideen kontakizun horiek maitasun erromantikoaren zertzelada nabarmenak dituzte. Illouzek azaltzen duen bezala, eta arestian esan dugunez, helduek, euren bizitzaren amodiozko narrazioak eratzerakoan, fikzio erromantikoaren ardatzak jarraitzen dituzte, hau da, fikzioetako topiko eta erritueta rrotzen dute: jarduera zehatz batzuk azpimarratzen dituzte, beste batzuk albo batean uzten dituzten bitartean (2010:227). Halaber, ezagunen zein inguruko kontakizunetatik harago doaz nerabeen fantasia iturriak. Sarritan, kaleko ezezagunen jarduerek maitasunean pentsarazten die. Narrazioa baino, irudiak dira erromantikotasunerako ardatzak:

“Idoia eta Jose, bigarren mailakoak, harreman politenetarikoa daukate. Daramate bost hilabete edo horrela nik jantokian eta batera esertzen dira. Eskua elkarri ematen diete eta lelokeriak egiten dituzte. Nik pentsatzen dut barrutik ‘¡Ay, ya me gustaría tener a mí esa relación!’. Es que son... Idoia Arangoitikoa da. Urte bat gehiago dauka eta txikitatik ezagutzen dut. Gero Jose ere da Arangoitikoa baina beste ikastetxe batetara joaten zen. Orduan ez neukan harremanik berarekin. Gainera oso ondo pegatzen dute, biak dira morenoak. Harremana oso polita izan behar du ikusten ditudalako. Ikusten

dituzu institututik eta irakasleen aurrean ematen dira eskua eta besarkadak.

Ez dute lotsarik. Oso polita.” (Mireia, 12 urte, institutu publikoa)

“Aitona-amonak ikusten dituzunean kaletik maitasunean pentsatzen dut, baina ez dut imajinatu nahi, ez dut iritsi nahi al punto ese. Oso polita da, beraiek ahal badute guztiok ahal dugu.” (Leire, 12 urte, ikastola)

Fantasia horiek guztiak imajinarioa erromantikoa indartzen dute, eta eragina dute nerabeengan. Gertakizun horiek fikzioak gainditzen dituzte, eta errealityeko maitasuntzat hartzen dituzte. Horrela, fikzio erromantikoak eta narrazio errealk gurutzatzen dira gaztetxoen imajinarioan. Halaber, errealityaren mugak gainditzen dituen fantasiarik ere bada. Izan ere, nerabeek fantasia eta amets horiek gorputzu ahal dituzte. Horren adibide da Ekain institutu publikoko hamalau urtekoari jazotakoa. Egun batetik bestera, Ekainek maiteminduta zegoela aitortu zidan, bikote harreman afektibo sexual batean hasiberria baitzen. Neskaren argazkiak erakutsi zizkidan, eta bere Tuentian ere harremanaren ikurrak ikus zitezkeen: “*NyE para siempre*”, “*Natalia te kiero*” eta “*Natalia y Ekain*”, bihotz batez inguraturik, idatzitako grafitien argazkiak eskegi zituen; bertan “*2/03/2012*” data jarri eta “*Te quiero*” idatzi zuen; Tuentiko egoera pertsonalean, “*Te kiero gordi, tu eres la razon de mi sonrisa*” eta “*Natalia tekieropatodalavida*” idatzi du. Ekainek asko maite zuela esan zuela esan zidan. Neskak urtebete gehiago zuen. Etxekoei ere argazkiak erakutsi zizkien eta beraiek helduagoa ematen zuela esan zioten; orduan, berak esan zuen “*Pues la tendrán que aceptar porque sino me voy de casa*”. Bi egunetara, Ekainek aitortu zidan Nataliarekin krisian zegoela, berarekin ez baita oraindik gelditu, neskari lotsa ematen omen ziolako. Baino egun batzuen buruan, berriz ere, harremanaren inguruan Ekaini galdezerakoan, Natalia ez zela existitzen atsekabetu zen, engainatu egin zutela. Kontua da asmatutako Tuentikontu bat sortu zutela auzo bereko ikastetxe erlijiosoko ikasleek eta berarekin ligatzen saiatu zirela. Ustezko neskarekin geratu zen egunean neska ez zen agertu, eta orduan jakin zuen dena broma bat izan zela. Oso minduta zegoen. Ekainek fikziozko pertsona batekin bizi zuen maitasun istorioa. Maitemina sentitu zuen barne-fantasiek ahalbidetuta, hau da, fantasia gorputzu zuen. Errealitatearen mugak gainditu zituen imajinazioak.

6.5 Laburbilduz

Kapitulu honetan, maitasunaren iruditegiaren eraikuntza eta horren trebakuntza prozesuaren alderdietako batzuk azaldu dira. Izan ere, hainbat faktoreren eraginez eta egitura konplexu baten baitan gauzatzen da sentipen horren ikasketa. Gaiari heltzeko, nerabeen narrazioetatik abiatu gara, haien aipu eta kontakizunak erabiliz trebakuntza prozesua irudikatzeko. Horrela, hasteko, begirada arina eman zaio hezkuntzari, amodioaren inguruan dagoen isiltasuna deigarria izan delako adin horretan erakunde horrek zein sentimendu horrek duten garrantzia kontuan izanda. Bertan, sentimenduak baino gehiago, sexu-hezkuntzak hartzen du arreta osoa. Sexualitateari buruzko formakuntza, parametro bitarretan gauzatzean eta sexu-arriskuak nabarmenki lantzean, neskei erantzukizun handiagoa atxikitzen die, baita horien artean beldurra bultzatu ere.

Gabezia horien aurrean, nerabeen maitasunaren ikasketa beste eragile batzuen esku geratzen da. Horien artean dago kultur-industriaren eragina. XX. mendean, industria hori maitasunaz baliatu zen, interes ekonomikoak asetzeko. Horrela, amodioa, zoriontasuna eta kontsumoa uztartzen zituzten irudi eta narrazioak zabaltzen hasi ziren: pelikulak, abestiak, aldizkariak... Ekoizpen kultural horien bitartez, sentimendu horren fikzioak hedatu ziren eta hedatzen dira, eta, egun, gaztetxoak dira horien kontsumitzaleak.

Erromantikotasunaren industria horrek genero bereizketa argia egiten du ekoizpenetan. Neskei zein emakumeei zuzentzen zaie maitasunarekin harremana duen oro. Horretarako, identifikazio sistemak erabiltzen dituzte: emakumeak protagonistak izatea, adin tartea berdina izatea eta, heteronormatibitatearen indarraz baliatuta, mutil zein gizon erakargarriak azaltzea. Horrela, nerabeek ere jakin badakite zeintzuk diren neskei zuzendutako pelikulak eta abestiak, eta zeintzuk diren mutilentzat.

Hala eta guztiz ere, ekoizpen kultural horietako fikzio erromantikoek ez dute erabat eragiten nerabeen bizipenetan. Izan ere, bereizketa egiten baitute horietan agertzen den maitasun idealaren eta euren bizipenetako sentimendu errealauren artean. Narrazio idealista horiek fantasiak sustatzen dituzte haiengan, eta arlo horretan ikus daiteke diskurtso erromantikoaren kutsu nabarmena. Horrez gain, fikziozko mezuen bitartez, gaztetxoek mapa-kognitiboak eratzen dituzte, fikzioak gidari izanda, eta horiek ere

amodioaren nolakotasuna adierazten dute, aholku moralak sortuz. Testuinguru horretan, amodiozko fantasiek indarra hartzen dute; are gehiago nerabeen kasuan, oraindik esperientzia urriak izan dituztelako maitasunean. Fantasia eta amets horiek ez dute soilik erromantikotasunaren diskurtso hegemonikoa errepikatzen, aitzitik, sarritan, krisiak gainditzeko erabiltzen dituzte neskek. Horrela, triste sentitzen direnean, fikziozko maitasunaren kontsumoaren bidez egiten diote aurre krisiari.

Baina fantasia horiek ez dira fikziozko narrazioen ondorioz bakarrik sortzen, izan ere, bizitza errealean aurkitzen dituzten irudi eta narrazioek ere fantasia eredu horiek indartzen dituzte: lagunen kontakizunek, familia barneko harreman afektibo-sexualen esperientziek, kaletik ikusten dituzten maitasun harremanek... Horiek guztiak imajinazioaren bidez txertatzen dituzte amodiozko iruditegian, besteen harreman horiek eredugarriak direlakoan, sarritan, harremanak ezagutu gabe. Horrek ere amodio erromantikoaren sinesmena indartzen du nerabeen fantasietan.

IV. A MODO DE CONCLUSIÓN

IV. A MODO DE CONCLUSIÓN: NOTAS FINALES DE LA INVESTIGACIÓN

En este capítulo nos disponemos a realizar, a modo de conclusión del estudio, algunas reflexiones generales sobre las vivencias amorosas de las y los adolescentes bilbaínos. Subrayaremos los aspectos más significativos de la investigación, intercalándolos con las hipótesis planteadas.

En primer lugar, comenzaremos resaltando algunos aspectos metodológicos y las aportaciones del trabajo etnográfico a nuestro estudio. Posteriormente, se retomará el objeto de estudio y sus variables de análisis (género, clase social y edad), en aras de destacar los resultados más significativos. Igualmente, revisaremos algunos de los principales resultados para lo que miraremos específicamente a la organización de las relaciones (incluyendo la heteronormatividad) y a la corporalidad vinculada al aprendizaje amoroso. Posteriormente, expondremos una de las principales conclusiones del estudio: las paradojas del amor adolescente. Y, finalmente, concluiremos matizando algunas cuestiones y mirando al futuro.

La experiencia etnográfica como fundamento de nuestra investigación

